

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.





Stuart Hall

***KULTURA, AURKAKOTASUNA  
ETA BOTEREA***

*Testu hautatuak*



Stuart Hall

***KULTURA, AURKAKOTASUNA  
ETA BOTEREA***

*Testu hautatuak*

Hautaketa, itzulpena eta hitzaurrea: Ibai Atutxa Ordeñana

Hitzatzea: McKenzie Wark

Jatorrizko izenburua (2025): *The Formation of Cultural Studies* (1983), *Gramsci and Us* (1987), *The Politics of "Mugging"* (1978), *Notes on Deconstructing "the Popular"* (1981), *Encoding and Decoding in the Television Discourse* (1973), *Rethinking the "Base and Superstructure" Metaphor* (1977)

Egilea: **Stuart Hall**

Jatorrizko lizentzia: © Stuart Hall

Hitzatzea: **McKenzie Wark**

Hautaketa, itzulpena eta hitzaurrea: **Ibai Atutxa Ordeñana**

Hitzatzearen itzulpena: **Danele Sarriugarte Mochales**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: 2025ko otsaila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

[argitaletxea@katakarak.net](mailto:argitaletxea@katakarak.net)

[www.katakarak.net](http://www.katakarak.net)

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-07-2

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 387-2025

Inprimaketa: Alzate Grafikak

## AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA .....	11
HITZAURREA (Ibai Atutxa).....	15
<b>1. HASIERAK. KULTURA ETA NEOLIBERALISMOA</b>	
<b>BAT</b>	
Kultur ikasketen formazioa .....	23
<b>BI</b>	
Gramsci eta gu .....	47
<b>2. KULTURAZ. KLASEA, ARRAZA ETA INDAR POPULARRAK</b>	
<b>HIRU</b>	
«Kale-lapurretaren» politika .....	65
<b>LAU</b>	
«Popularra» deseraikitzeko oharrak .....	181
<b>3. ZIMENDUAK. KULTURA ETA MATERIALISMOA</b>	
<b>BOST</b>	
Kodetzea eta deskodetzea telebista-diskurtsoan .....	201
<b>SEI</b>	
«Oinarria eta superestruktura» metafora birpentsatzen.....	227
HITZATZEA (McKenzie Wark) .....	263







## ARGITALETXEAREN OHARRA IKASI, HUNKITU, ANTOLATU

Ikas ezazue, gure adimen guztia behar dugulako.  
Hunkitu zaitetze, gure gogo guztia behar dugulako.  
Antola zaitetze, gure indar guztia behar dugulako.

*Antonio Gramsci, 1919ko Maiatzaren Leheneko  
L'Ordine Nuovoren lehenengo alean.*

Duela urte batzuk, ezagun egin zen Stuart Hall-en argazki bat. Soziologo marxista zoru moketaz estalian eserita zegoen, bi urte baino gutxiagoko haur bat altzoan lotan zuela, eta peluxe bat zeukan hura eusten zuen besoko eskuan. Argazkian ikusten ziren objektuen tamainarengatik, balirudike haur-eskola batean zeudela, baina, hara non, Hallen aldamenean *The Guardian* egunkariaren ale bat zegoen, hura ere lurrean. Argazki hura 1970etakoa da, eta Oxforden atera zioten, emakumeen askapenerako mugimenduaren topaketan. Argazkia egin eta mende erdira, eta haren aitzakian, solasa piztu zen sare telematikoe-tan: zaintza-lanez, haurtzaroaz, gizonen arduraz, argazkiaren atzeko planoan agertzen zenaz... Eta, halako batean, argazki hori bilakatu zen Hallek sarean dituen argazki gutxien artean ezagunena.

Arretaz begiratzuz gero, haren gainontzeko argazkiak ia edonon eginak izan daitezke: zutik dago eskola bat dirudien gela batean, egongela batean, eskailera batean, adi kamerari begira, bulego batean eserita, hondartzan Catherine Hall ikerlari feminista eta emaztearekin, bakearen aldeko manifestazio batean.

Halere, ez dira horiek Hallen irudirik ezagunenak. Beste bat da. Hartan, Hall mikrofono batzuen atzean ageri da hiz-

ketan, elkarretaratze batean. Hall hil berritan, *The Guardianek* argazki hura erabili zuen, eta *Selected Political Writings* liburuaren azalean ere jarri zuten: larruzko txamarra bat soinean, besoak atzean, alkandora jertsearen azpian. Argazki bera erabili zuen ere, Hall hil eta gutxira, Tariq Ali-k kazetariak, *Jacobin* aldizkariko osatu zuen testurako (honela hasten zen: «Stuart Hall, lehenik eta bereziki, konpromiso politikoak bultzatutako pertsona bat izan zen»).

Stuart Hall umezain, Stuart Hall ekitaldi politiko batean... Eta, halako batean, agerikoa da hainbeste idatzi duen norbait, pentsalari oparo bat, ezin dela argazki batean sintetizatu, ezta bitan ere. Segur aski, argazkia delako egoera oparo bat desegiteko modurik eraginkorrena. Hala adierazi zuen Roland Barthes-ek ere bere pasarte ezagun hartan:

Argazkia ez da inoiz, funtsean, oroitzapen bat [...] Eta, gainera, [oroi-tzea bera] blokeatzen du, kontra-oroitzapen bat bilakatzen da oso azkar. Behin batean, lagun batzuek haien haurtzaroko oroitzapenez hitz egin zidaten: haiek bazituzten oroitzapenak; nik, ordea, iraganeko argazkiak begiratu berri nituenez, ez nuen oroitzapenik.

Eta Barthesek oroitzapenez dioena baliagarria da ekoizpen intelektualez ari garenean ere: ezin da oren goren bat hautatu bizitza oso bat dagoenean, egunero eraikitzen den bizitza bat.

## **Zer liburu, zer egile**

Hallen liburu gehienak artikulu luzeen bildumak dira, han-hemenka argitaratuak eta gerora antolatutak. Azken hamarkadetan, irudi luke, batetik, akademiari zuzendutako artikuluak idazten direla, zirkuitu itxi batean, eta, bestetik, irakurle arruntarentzako saiakerak daudela.

Hallen idazkiak ez dira bi zirkuitu horietarako; testu politikoak dira, eta, sarri askotan —kontuan hartzekoak ez omen diren bi argazki horien penduluak markatuta—, politikak baditu bere arau propioak, akademiak eta merkatuak nekez bereganatuko dituenak.

Beraz, Louise Michelen, Walter Benjaminen, Antonio Gramsciren, Clara Zetkinen edo Rosa Luxemburgen ekoizpena ez den bezala zatikakoa estetikagatik ala bokazioz, ezta Stuart Hallena ere. Arazo sozial bati, auzi politiko bati buruz pentsatzeko idazten du, eta horren neurria ez da aldizkari baterako pieza

labur bat, baina ezta liburu bat ere. Ia esan genezake haustura bat eragin nahi izan duen politika ororen atzean saiakeragintzan aritu direnek, halabeharrez, zatika aritu behar izan dutela, errepresioak markatuta, muga materialek mugatuta ala bulkada politikoak bultzatuta.

### **Klasikoez**

Bilduma honetako testu guztiak egilearen aurreko egileek gurutzatzen dituzte. Erreferentziatzko egile horiek pentsatzeko erabiltzen dira, atzera eta aurrera ibiltzeko. Baina Hallek, beste ezeren gainera, dogma apurto nahi du; alegia, gaurko abagunea eta iraganekoa desberdinak direla ulertzen du. Pentsamendu kokatu bat da; berak dioen bezala, ez dio galdetzen Gramsciri zer egin behar den 2025ean, baizik eta saiatzeko da Gramscik bere garaian osatu zuen pentsamenduaren antzeko ikuspuntua izaten gaurko arazoetatik, gaurko ahulguneetatik. Eta gauza bera egiten du festara dakartzan gainontzeko egile guzkiekin ere.

Laster ekingo diozu Halli, baina, aurrez, Ibai Atutxaren hitzaurrea irakurri. Pista asko dakartza, dela bilduma osatzeko hautatu dituen testuen esanahiaz, dela hizkuntzaz. Izan ere, aurrez euskarara ekarri izan ez bada ere, haren gainean planeatu du egile honek (espero dezagun aurrerantzean lurra hartzera ere iristea). Gaizki dago guk esatea, baina hau ez da nolana hiko liburu bat. Aukera zegoen testu-bilduma hau osatzen duten sei ataletako bat edo bi euskarara ekartzeko eta hori nahikotzat jotzeko; gure egoeran, hori jada ekarpen bat izango litzateke. Alabaina, Atutxaren lan militanteari esker, lan oso, zabal eta polidriko bat duzu esku artean.

Bestalde, Stuart Hallen garaikidetasunaren lekuko, udazkenean Durangon, Donostian eta Iruñean jaso genuen McKenzie Wark-en bisita ederrak ere badu oihartzuna liburu honetan. Ezkaba elurtuan gora gindoazela, Stuart Hallen Australiako pasadizoa kontatu zigun, Warkek berak 2014an idatzia, Hall hil berritan. Danele Sarriugartek itzuli du hori, propio edizio honetarako.

Eskuin-mutur gero eta indartsuago baten garaian heldu da Stuart Hall, askapena ia hutsetik pentsatu beharreko garai batean. Bizitzaren alde eta aldarri guztiei jaramon egin nahi dien

tradizioen medium bat da Hall. Sarritan ohikoak diren bi poloe-  
tatik ihes egiten du: ez da jakintza narzisismo gisa lantzen duen  
pentsalaria eta ez da militanteak katixima errepikatzen behar-  
tzen dituen liderra ere. Hallek Gramsciren agindu ezaguna dakar  
berriro: *Istruitevi, agitatevi, organizzatevi!*

Iruñea  
2024ko otsaila

## HITZAURREA

### AURKAKOTASUN IRAKURKETAK

Momentu politiko garrantzitsuenak, dio Stuart Hallek liburu honetako «Kodetzea eta deskodetzea» kapituluan, aurkakotasun irakurketak egiten hasten garenean gertatzen dira. Aurkakotasun irakurketek ez dituzte soilik naturalizatutako definizioak zalantzan jartzen. Aurkakotasun irakurketek ez dizkiete soilik tokian tokiko salbuespenak aurkitzen adierazpen hegemonikoei. Aurkakotasun irakurketek naturalizatutako adierazpen hegemonikoak «klase interes» gisa entzutea egiten dute posible. Aurkakotasun irakurketek zera uzten dute agerian: definizio hegemonikoek boterearen blokearen interesak naturalizatzen dituztela. Horrenbestez, zera sortzen dute: klase popularren kultura eraikitzeko irekidura.

Gurera ekarrita, hurrengoak bezalako baieztapenez egon dira hedabideak eta sare sozialak josita azken boladan:

- Osasun zerbitzu publikoak azpikontratatzeari efizientzia ariketa bat da.
- Trans legeak eta genero ideologiak emakumearen eta feminismoaren kontra egiten dute.
- Erresidentzien pribatizazioak pertsona nagusien bizi-kalitatea bermatzen du.
- Palestinaren aurkako gerra mendebaldeko balioen defentsa da.
- Lan-eskubideak hizkuntz eskubideen gainetik nagusitu behar dira.
- Labanadunek eta kale-saltzaileek eragiten dituzten lis-karren aurka polizia gehiago jarri behar da kaleetan.

- Terrorismoaren aldeko pintada bandalikoek kondanak bakearen eta aurrerabidearen alde egiten du.

- Turismoak eta makro-jaialdiek lanpostuak sortu eta ekonomia bultzatzen dute.

Horrela kodetzen ari zaigu hegemonikoki gure mundua. Horrela naturalizatzen da indarkeria. Horrela esaten digu boterearen blokeak gure interesen alde ekiten ari direla.

Bada, aurkakotasun irakurketek ez dute goiko lerroburu bakoitza banan-banan eta harremanik izango ez balute bezala negoziatzen. Aurkakotasun irakurketak egitean ulertu beharrekoa da lerroburuok, nagusitasuna daukaten definizioak errepikatzen dituztenean, mundu ikuskera oso gisa artikulatzen direla. Hau da, osotasun dominatzaile gisa artikulatzen dira. Finen, beraz, aurkakotasun irakurketek osotasun hegemonikoak destotalizatu egiten dituzte. Marko berriak eraikitzen dituzte, osotasun alternatiboak proposatzeko.

Liburu honetako sei kapituluek zerbaitetarako balio badi-gute izan dadila horretarako. Izan ere, Stuart Hallentzat kultur ikasketak zerbait baziren, horixe zirelako: aurkakotasun irakurketak. Hala bada, balio dezala liburu honek Euskal Herrian ere aurkakotasun irakurketak egiteari ekiteko.

### **Katebegi galdua**

Oraindik ez dakizu, baina jakin gabe ere, ezagutzen duzu Stuart Hall. Ezagutzen dituzu, noski, Angela Davis eta Judith Butler eta Nancy Fraser eta McKenzie Wark (ez galdu hitzostea). Euskarara ekarri dira den-denak azken urteetan. Bada, guzti guztiek elkarrizketatzen dute Hallekin eta guztien pentsamenduaren oinarritzko akuiluetako bat izan da Hallen lana.

Ez hori bakarrik. Badira urteak eztabaidatzen ari gara materialismoaz, eta klase zapalkuntzaz, eta zapalkuntza arrazialaz, eta dekolonialitateaz, eta feminismoaz, eta inperialismoaz, eta kulturak eduki behar duen eta daukan lekuaz. Bada, Stuart Hallek liburu honetan zehar erakusten digu zer den Karl Marx eta Antonio Gramsciren irakurketa benetan arretatsuak egitea. Batera pentsatzen du Silvia Federiciren militantzia-kide eta solaskide feministak izan ziren Mariarosa Dalla Costa eta Selma James-ekin. Erdigunera ekartzen ditu egungo pentsamendu antiinperialista eta dekolonialaren sorreran dauden Franz Fanon

eta Anibal Quijano. Horiekin guztiekin elkarriketan sortu zuen, beste batzuekin batera, gaur egun «kultur ikasketak» gisa ezagutzen duguna.

Gure pentsamendua eraikitzeko darabilgun nazioarteko ezker pentsamendu erradikalaren azpiko korrontearen katebegi garrantzitsua da Hallen lana. Oraindik ez dakizu, baina jakin gabe ere, ezagutu nahi duzu Stuart Hall.

### **Bizitzak**

Hallek bizitza bat baino gehiago izan zuen. Izan zen ezkerreko intelektual beltza, kultur ikasketen sortzaileetakoa, pentsalari diasporikoa, marxismoaren eguneratzailea, eta borrokalari antiarrazista eta antikapitalista. Askorentzat biografia ezaguna izango bada ere, agian, gurean, ez hainbesterentzat oraindik. Iragan mendeko 30eko hamarkadaren hasieran jaio zen Kingstonen, Jamaikan. 50eko hamarkadaren hasieran, oraindik Jamaika britainiar inperioaren kolonia zelarik, migratu egin zuen Ingalaterrara, Oxfordera ikasketa-beka batekin. Hamarkada haren amaieran, Hungariaren inbasioaren ondoren posizio estalinistetatik urrundu egin zen ezker marxista heterodoxoaren parte izanik, *New left*-a (Ezker berria) sortu zutenen artean egon zen Hall, eta 60ko hamarkadaren lehenengo bi urteetan *New left Review*-aren hastapeneko hamabi aleak zuzendu zituen (Perry Andersonnek zuzendaritza hartu aurretik). 1964an, Richard Hoggart fundatzaileak gonbidatuta, Birminghameko Kultur ikasketak garaikideetarako zentrori (*Centre for contemporary cultural studies*-era) atxiki eta 68an zentroaren zuzendaritza hartu zuen hamarkada batez. Ondoren joango zen Hall, 80ko hamarkada hasi baino lehen, Open University-ko soziologia departamentura, eta sortuko zituen, 90eko hamarkadan, Nazioarteko ikusizko arteen institutua (*Institute of International Visual Art*, InIVA) eta *Soundings*, ezkerreko pentsamendu politikoarentzako erreferentziala den aldizkaria. Urte horietan guztietan zehar jardun zuen militantzian. 2014an zendu zen.

Liburu honek, beraz, Stuart Hallen bizitzako momentu intelektual eta militante zehatz bat harrapatzen du, eta aldi berean biltzen ditu haren funtsezko idazlanetako batzuk. 1973tik 1987ra artean argitaratutako sei testuek hamabost-bat urtetan zehar hedatutako argitalpen eta eztabaidak biltzen dituzte. Alta,

biltzen dute, baita ere, begiratzeko modu kritiko zehatz bat ezker pentsamendu globalari, ipar zein hego, sakonki eragin diona.

### **Begiratzeko modu bat sei kapitulutan**

Stuart Hallek ez zuen onartzen autorerik Testamentu Zaharreko profetak balira bezala tratatzerik. Ezin zitzairen arazoak norberagatik konpondu zitzatela eskatu. Arbuiatu egiten zuen edozein autoreren liburutan guztiaren teoria bat aurkitzen saiatzea Bibliako liburu ezkutuak balira bezala. Horixe azaltzen zuen, gisa horretako irakurketen kontrakarrean jardun behar izan zuelako kultur ikasketak eta *New lefta* sortu zituzten urteetan. Halako irakurketek marxismoaren ulerkera ekonomista izugarri mekanikoa, murriztailea eta sinplista ekarri zutelako.

Lehenengo *New leftak* (Hallek zuzendutakoak) berebiziko arreta kokatua eman zien garaiko koiunturari, politikari eta kultura popularrari, eta liburu honetako kapituluetan agerikoa da hori. Bestalde, jarraian etorri zen *New leftak* (Perry Andersonnek zuzendutakoak), eta baita Kultur ikasketak garaikideetarako zentroak (Hallek zuzendutakoak), sofistikazio erabatekoa ekarri zioten marxismoaren baitako eztabaidei. Halako lanketa ere nabaria da sei kapituluetan. Bukatzeko, diasporaz eta modernitateaz garatutako pentsamendua ondoren etorriko bazen ere, jadanik liburu honetarako bildutako testuetan, zapalkuntza arrazialak produkzio molde kapitalistarekin daukan loturari zentraltasuna eman zitzaion.

Gurutzaketa horrek guztiak materialismo zaharkitu bat hankaz gora jartzeko eskatzen zuen. Eskatzen zuen pentsamendu materialista eraberritu bat. Horixe da liburuko kapituluetan zehar artikulatzen ikusiko duzuna: egungo borroketarako balio digun pentsamendu materialista.

Lehenengo atalean daude, «Hasierak» izenekoan, liburu-ko testurik berankorrenak. Atzera begira gogoetatzen du Hallek, batetik, kultur ikasketen jaiotzaren garaiaz, eta bestetik, neoliberalismoaren bertsio britainiarraren, hau da thatcherismoaren, sorreraz. Garaiko koiunturaz, indar harremanez, marxismoaz, kulturaz eta ezkerren eginbeharrez dihardu.

Bigarren atalean, «Klasea, arraza eta indar popularrak» izenekoan bildutako kapituluetan ikusten da kultur ikasketak zer diren praktikan. «Kale-lapurretaren politikan» erakusten da

trapitxeroa kultura beltz britainiar zapalduaren parte dela eta lunpenproletariotza kontzeptu klasikoa jartzen da zalantzan, inperialismoaren historia erdigunera ekarri, eta komunitate soldatagabea politikoki aktibatzeke. «Popularra» deseraikitzeke oharrak» kapituluan, bestalde, kultura gudu zelai-gisa ulertzen da. Eta argudiatzen da gudu zelai horretan konstituitu gaitezkeela boterearen blokearen aurkako klase gisa.

Bukatzeke, «Zimenduak» izeneko hirugarren atalean, kultur ikasketen atzeko aldazio kritikoak eta teorikoak ekartzen dira argitarara. Testuok dira goiztiarrenak eta bertan ekin zitzaion, jada, marxismoaren bertsio mekanikoen aurka, materialismo historikoaren eguneraketari. Azkenik, begirada materialista eraberritu hori eramaten da kulturaren zirkuitu osora.

Stuart Hall ere ez da Testamendu Zaharreko profeta bat, eta bere idazlanak ez dira Bibliako testu sekretuak balira bezala irakurtzeokoak. Sarri aipatzen da ez zuela liburu bat ere bere kasa idatzi. Bakarka idatzitakoak testu laburragoak eta hitzaritzeak ziren. Liburuaren forma, idazketa kolektiborako utzi zuen. Kasu orotan eztabaidarako, lokatzetarako eta zikintzeko idatzi zuen argitaratu zuen guztia. Ez unibertsitaterako baizik eta herri borroketarako. Esan beharrik ere ez dago: Hallek ez dizkigu dauzkagun arazoak gugatik konponduko. Hori bai, lagunduko digu begiratzen, galderak egiten, kultura ulertzen eta gure borroka artikulatzen. Iruditzen zait gehiago atzeratu ezin dugun funtsezko irakurketa dela.

### **Bukatzeke: nola hitz egiten du Marxek euskaraz**

Nola hitz egiten du Marxek euskaraz? Benetakoa da galdera, batez ere ohartzen bagara, Marxen lanarekin ez elkarriketatzea, ohartuta ala oharkabean, zuzenean zein zeharka, kasik ezinezkoa dela ezkerreko pentsamendua produzituko badugu. Gainera, ekarri, Marx ekarri egin da euskarara. *Alderdi Komunistaren manifestua* itzuli da gutxienez lau aldiz; *Brumairearen hemezortzia* hirutan; *Eskuizkribuak* itzuli dira; *Kapitalaren* zenbait atal, eta beste testu andana. Marxi jarraitu dioten idazleak ere itzuli dira dexente. Hala ere, ez daukagu oso argi Marxek euskaraz nola egiten duen.

Nola esaten da «gainegitura» ala «superestruktura»; esaten da «ekoizpen modua» ala «produktzio moldea»; «proletalgoa»,

«proletargoa» ala «proletariotza», eta antzeko beste dozena bat adibide eta aldagai. Marxek euskaraz nola egiten duen ez daukagu argi ezta argitalpen beraren barruan ere. Hartu *Erria* zein *Gedar*, *Lisipeak* zein *Eskafandrak*, *Berria* zein *Argia* eta ez dugu sistematikoa den erabilerarik aurkituko. Onartu behar dut, ni naiz lehenengoa urteetan zehar izendapen modu jakin bakarrari eutsi ez diona; hiztegi eta corpusetan erabaki eta erabilerak miatu ez dituen; eta besteek hartutako erabakiei erreparatu ez diena.

Horrekin zer egin? Esan dugu jada: Stuart Hall izan zen Marxek izan zezakeen irakurlerik arretatsu eta zehatzenetako bat. Liburu hau euskarara ekartzeko, beraz, garrantzitsua zen Marxek euskaraz nola hitz egiten duen jakitea. Aurkitutako konponbidea ez da izan, adibidez, Marxen itzulpenen artean bat aukeratzea. Ez da izan, ezta ere, euskarazko pentsamendu marxistaren baitan jarraikortasunen bat bilatzea. Aukera horietako batek ere ez zituen arazo guztiak konpontzen (batzuetan arazo gehiago sortzen zituen konponbideak baino). Konponbidea, Marxek izan zituen irakurle arretatsuen artean beste bat eredu gisa hautatzea izan da.

Amaia Astobizak itzuli du Silvia Federici Katakrakek eta Txalapartak euskara ekarri dutenetan. Federicik Marxekin elkarriketatzen du zuzenean. Marxen kontzeptu eta terminoak darabiltza (batzuetan horien bitartez pentsatzeko, beste batzuetan zalantzan jartzeko). Pentsamendu marxista eguneratua ondo ezagutzen du eta eguneratu egin du baita berak ere. Federici eta Hall antzekoak dira zentzu horietan. Horrenbestez, Astobizak Federiciren lana sistematikoki itzuli duenean, itzuli du baita hiztegi, termino, eta unibertso marxista oso bat ere. Marxek, beraz, Astobizak jarri dizkion hitzekin hitz egiten du euskaraz.

Horratx liburu honetarako aurkitutako konponbidea, Astobizaren itzulpen lanak hartzea erreferentzia gisa. Eta inork jarraitu nahiko balu, horixe da baita nire proposamen xumea ere. Bide batez, superestruturak, produkzio moldea eta proletariotza esaten du Marxek.

Ibai Atutxa

Bilbon, 2025eko urtarrilean

**1**

# **HASIERAK**

**KULTURA ETA  
NEOLIBERALISMOA**



# BAT

## KULTUR IKASKETEN FORMAIZIOA<sup>1</sup>

Kultur ikasketen auzia 1950eko hamarkadan eta 60koaren hasieran azaleratu zen historia intelektual britainiarrean. Garrantzitsua da ulertzea kultura kontzeptua ez zela proposatu halako galdera teoriko handi bati ematen zitzaion erantzun gisa, baizik eta galdera eta arazo politiko oso zehatz bati emandako ihardespene gisa proposatu zela: zer gertatu zitzaion langile-klaseari oparotasun ekonomikoko baldintzetan? Britainian, Bigarren Mundu Gerraren osteko hamarkaden garaia, bereziki berrogeita hamar eta hirurogeigarren hamarkaden garaia, ezohiko oparotasun ekonomiko handiko eta hazkunde ekonomiko jarraituko garaia izan zen, [hogeigarren] mende honetan ekonomia britainiarrak ikusi ez zuen modukoa. Konparatiboki, garai aski azpimarragarria izan zen, eta sakona izan zen harreman sozialetan eta jarrera kulturaletan izan zuen eragina. Noski, aldaketa sakon horiek ez ziren izan soilik aldaketa ekonomikoen emaitza, gerraren beraren salbuespenezko baldintzen emaitza ere izan ziren. Gerrak sarri askotan asaldatu egiten du gizarte jakin bateko harreman arrunten katea, baita klase-harremanena ere. Eta ezerezetik, ab initio eta ex nihilo, joera berriak sortzen ez baditu ere, nolabait esatearren, baldintzak egokitzen ditu jadanik gizartearen sakonean datzaten joerak abiada handiagoan mugitu daitezten. Eta posible egiten du joerok bizitza arrunteko erresistentzietan zehar baldintza normaletan baino errazago eta

---

1 Itzultzailearen oharra: 1983an Stuart Hallek Illinois-ko Unibertsitatean emandako zortzi hitzaldietatik lehenengoaren transkripzioa da hau. 2016an argitaratu zen lehenengoz *Kultur ikasketak 1983. Historia teoriko bat (Cultural Studies 1983. A Theoretical History)* izeneko liburuan.

bizkorrago azaleratzea eta bidea urratzea. Argi dago aldaketa esanguratsuak gerra garaian bertan hasi zirela Britainian, eta jarraitu egin zutela, erritmo gero eta handiagoan, gerraren ostean bertan. Denen harridurarako, alderdi laboristak gehiengo zabal-lortu zuen garaia izan zen (agian segur aski geuk geuk ikusiko dugun azken garaipen laborista handia izango da, baina beharbada pesimistegia izatea da hori) eta ongizate estatua abiatu zuen alderdiak. Ongizate estatua abiatzeak bere horretan egingo luke momentu hura berebiziko momentu historikoa izatea. Baina jarraian etorri zen, esandakoaren gainean-edo, indar handiz gidatutako kontsumitzaile eztanda, zeinak eragin sozial eta politikoa nabarmena izan baitzuen. Bereziki gertatu zen horrela, laboristek 50eko hamarkadaren erdian boterea galtzean, kontserbadoreek gidatu eta are dominatu zutelako oparotasun handiko garaia, eta oparotasunaren definizio kulturalak hegemonia kontserbadorearen azpian eman zitzaizkielako britainiarrei. Besterik gabe ekonomiak inporta ez zion azti edwardiar horietako bat izan zen —azkena agian— Harold Macmillan [1957-1963 artean lehen ministro britainiarra]. Ekonomiak bere kasa ziharduen eta noizean behin hautesleei zein ondo ari zen funtzionatzen gogorarazten zien. Zerabilen eslogana zen, «ez duzu inoiz hain bitzita errazik izan; ziurtatu bitzita erraz hau izaten jarraitzen duzula». Saiakera iraunkorra egon zen alderdi kontserbadorearen hegemonia politikoarekin identifikatzeko oparotasun ekonomikoa eta masa gizartearen etorrera.

Bitzita britainiarraren «fase amerikarraz» ari gara. Ordura arte, jendeak, bereziki marxistek pentsatzen zuten —jakin bazekiten— Britainia gizarte industrialaren lehenbiziko paradigma zela, guztia gertatzen zela lehendabizi Britainian: irabazi-tasaren hedapenarekin hasi eta joerazko beherakadaraino. Baina gerraostean, bat-batean, mendebaldeko Europa osoarentzat kasu paradigmaticoa Estatu Batuak bilakatzeari egin behar izan zion aurre Britainiak. Populazioari zegokionez guztia zioan izugarri ondo hemen eta han. Baina modu oso orokorrean gerraosteko garaia gerraurrekotik bereizten zuten aldaketa esanguratsuak ari ziren gertatzen bitzita sozialaren patrioetan. Testuinguru globalean gidaritza historikoa kultura amerikarrak hartzearekin identifikatu daitezke aldaketok: klase-harremanen bereizgarritasuna txikitzea; langile-klaseko eta klase ertain-baxuko sektoreak

klase profesioaletarantz eta ez-profesional komertzialetarantz mugitu eta gehitzea; masa-kulturen hastapena; masa-hedabideen penetrazio masiboa eta telebistaren aroaren hastapena; kontsumitzaileentzako publizitateak gidatutako kontzientzia baten hedapen bizkorra, eta beste.

Ondorioz, intelektual britainiarrek bezala politikariek masa-kulturaren eta masa-gizartearen izaerari buruzko galderari egin behar izan zieten aurre, hau da, gizarte industrial, garatu, kapitalista, oparo batean gertatzen ari ziren aldaketei buruzkoei. Eta galdera horiek termino amerikarretan begiratu behar ziren lehenbizikoz. Alderdi laboristak bigarrenez galdu zuenean 1959ko hauteskundeetan, kontserbadoreek botereari ehun urtez eutsiko ziotela ari zen jendea iragartzan (ez zen horrela izan zorionez, baina amaigabea eman zuen). Alderdi laboristako buruak 1959ko konferentzia laboristari zer atera zen gaizki azaldu behar izan zionean, eskura zeukan tresna-kutxa analitikora jo eta telebistari bota zion errua, eta hozkailuari, eta bigarren eskuko autoari, eta emakumeentzako errebistei, eta langile-klasearen telazko kapelaren desagerpenari, eta jendea xarlango-lasterketetara gehiago ez joateari. Bizitza kulturalaren desegiteak azaltzen zuen zer atera zen gaizki! Horrenbestez, hurrena erantzun beharreko galdera zen: «alderdi laboristak galdu egin behar du?» —ez hain halabeharrez, garaiko libururik ezagunenetako baten izenburua zen hura (Abrams eta Rose 1960)—. Eta erantzuna «bai!» zen argi eta garbi, alderdi laborista identifikatzen zelako masa gizartearen oparotasun orohartzaileak azpia jaten zion klase-kultura industrial tradizional mota jakin batekin. Izan ere, pentsatzen zutenez, halako gizarte motan klasea higatu egingo zen ezinbestean eta gizarte amerikararen itxura hartzera eta amerikar sentitzera iritsiko zen, hots, haren izaera eta forma hartzera iritsiko zen gizartea. Eta ondorioz, politikak aldatu egin beharko zuen.

Orain arte egindako zirriborro laburregiak ezkutatu egin dezake gizarteari begiratzen ziotenei analisirako arazo izugarriak zekarzkiela aipatutako aldaketek. Atlantikoaren bi aldeetan jendea gizarte «postkapitalistaz» hitz egiten ari da orain: klaseetan oinarritutako ideologia politiko tradizionalen gainbeheraz eta desagerpenaz. Batzuk, noski, are «ideologiaren amaieraz» ere hitz egitera iritsi ziren [nabarmenki Daniel Bell,

1960]. Baina iraganeko gizarte britainiarrekin konparatuz gero hain ezberdina zirudien sistema sozioekonomiko horren izaeraz galdera ekonomiko eta politikoak egon bazeuden ere, erabat argi zegoen eraldaketa nagusiak ez zirela hainbeste politikoak eta ekonomikoak, baizik eta kulturalak eta sozialak. Horrek ordea, beste funtsezko galdera bat egitea zekarren, hau da, zeintzuk dira norberak dauzkan tresnak aldaketa kultural sarri sotil eta kontraesankorren izaera ulertzen saiatzeko? Eta ontzat hartzen zuen, nabarmenki, gizarteko kulturaren gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko gai bazara, ulerkera estrategiko oso garrantzitsua lortuko duzula gizartearen izaeran gertatzen diren aldaketa zabalagoak eta funtzionatzeko moduak ulertzeko orduan.

Historia horrekin abiatu naiz kultur ikasketen jaiotza proiektu intelektual gisa irakurtzen dutenengandik urruntzeko nire burua, izan ere, azpimarratu nahi dudalako egiatan proiektu politiko gisa jaiotzen dela, gerraosteko kultura kapitalista aurreratua ikertzeko modu gisa. Ez da harritzekoa, beraz, kultur ikasketen agerpena intimoki egotea lotuta, talde politiko bereizi gisa bada ere, *New left*-aren (Ezker berria) jaiotzarekin, eta denbora batez, bi mugimenduak estu korapilatuta iraun zutela, eta paraleloan egin zutela aurrera. 50eko hamarkadaren erdiko *New left*a, taldearen lehenengo haragitzea, gizartearen izaeraren ikerketa erradikalerako proiektuarekin zegoen konprometituta, aitortu baitzuen (ezker tradizionalak ez bezala, ezta marxistak ere) gauzak benetan ari zirela aldatzen, eta oinordetzan jaso zituzten tresna teoriko eta analitikoetatik asko ez zirela halako egitekorako eraginkorregiak. *New left*ak antzeman egin zuen garaiko aldaketa kulturalaren garrantzia, baina gutxi aurkitzen zuen lagungarri zitzaionik orduko baliabide-zaku marxistan; gehienetan, kultura kontzeptua agertu ere ez zen egiten. Laster itzuliko naiz kulturaren arazoari buruz gogoetatzeko zeuden pentsamendu marxistaren forma goiztiarren auzira.

Egin nahi dudana, hala ere, ez da arreta *New left*ari berari ematea, baizik eta *New left*aren eta kultur ikasketen formazioaren artean existitzen zen lotura erakustea. Kultur ikasketen kide fundatzaileetako asko hasierako *New left*aren eta *New left*ak elikatutako pentsamendu politikoaren orbitan zeuden kokatuta, Raymond Williams barne, eta neurri batean, baita Richard Hoggart ere. Eta kultur ikasketak garatzen aktiboki parte hartu zuten

asko, ni neu barne, are indar handiagoz identifikatzen ginen *New left*arekin, aktiboki idazten genuen *New left review*-n (*Ezker berriaren aldizkaria*) eta beste aldizkari batzuetan, eta aktiboki hartzen genuen parte mugimendu politikoan. Egiazko sentsazioa dago hasierako fase horretan kideak konpartitu egin zirela bi garapenetan.

Gertatzen ari ziren aldaketa kulturalen izaera zirriborratzen saiatu zen pertsonetako bat Richard Hoggart (1957) izan zen *Alfabetatzearen erabilerak* (*The Uses of Literacy*) izeneko liburuan. Iparraldeko langile-klasekoa da Hoggart jatorriz; liburua idatzi zuenean irakaslea zen helduen hezkuntzan; eta beranduago unibertsitateko ingeles irakaslea eta Kultur ikasketa garaikideetarako zentroaren (Centre for contemporary cultural studies) fundatzaile bihurtu zen Briminghameko Unibertsitatean. Nolabait, literatur kritika ingelesaren tradizioan dago murgilduta. Horrek esan nahi du beranduago aipatuko dudan F. R. Leavis-en ideietan eta ideion ihardespenean hezita dagoela, garai hartan ingeles ikasketak egin genituen kasik guztiok bezala. Hortaz, Hoggartek kulturaz idazten duenean, literatur kritikari gisa ari da idazten, poema edo eleberri batez egingo lukeen analisi edo irakurketa mota egiten saiatzen ari da benetako bizitza sozial eta kulturalaz. Bera eta bera bezalako pertsonak langile-klase industrial tradizionalan gerra baino lehen bizitako bizitzak gogora ekartzen saiatzen ari da. Inskribatuta ikusten du, ez hainbeste baldintza politiko eta ekonomikoetan, baizik eta garaiko langile-klase bizitzaren alderdi sozial eta politikoetan, kulturaren patroï jakin bat, balio multzo jakin bat, pertsonen arteko harreman multzo jakin bat. Ikusten du ondasun material gehiegirako sarbiderik izan ez zuen jendeak nola eraikitzen zuen bizitza bat norberarena, nola sortu eta eraiki zuten kultura bat sostengatzen zituena. Nola ez, subordinazio posizioetan sostengatzen zituen. Ez ziren munduaren jaun, andere eta jabe. Ez ziren ezer gidatuko zuen jendea, baina bizirauteko gai ziren. Eta duintasunez bizirauten zuten.

Bizi zituzten bizitzek kulturaren patroï jakin bat osatzen zuten: ez patroï kultural egiaztatu, balioztatu, edo dominatzailea, ez patroï kultural ikasia eta «kulturaduna», baizik eta beste zerbaït, guztiarekin ere, Hoggartek «kultura» izendatu nahi duena. Hasierako langile-klase tradizionalaz gogoetatzen zuen

—alderdi laboristako buruak betirako desagertzen ari dela dioen langile-klase hori— eta «irakurtzen» saiatzen zen prosa zati bat irakurtzen saiatuko balitz bezala. Hoggart bera hazitako langile-klaseko etxe mota deskribatzen zuen: begiratzen zion egongelak antolatzeke moduari, etxea hondatuta eta galbidean egonik ere, bisitariarentzat beti leku bat gordetzeko ohiturari. Etxeko beste inor ez zen gela horretan sartuko. Goiko pisuan egon zitezkeen lau pertsona ohe bakarrean lo egiten, baina beti egongo zen gela bat beste norbait artatzeko. Eta esaten du, agian inplizituki, mansio aristokratikoen edo palazio burgesen kultura bezain besteko kultura dela hura. Bizitza bat eraikitzen, bizi duten bizitzari esanahia ematen ari diren jendea da. Iragan historiko eta literarioa etengabeki arakatu dugu eta askotariko kulturen produktuak interpretatu. Baina inoiz ikusten ez dugun kultura da langile-klasearena, landuta dagoela pentsatzen ez dugun kultura.

Irakurketa literario kritikiko intuitiboaren tresnak erabiliz kultura propioa deskribatzean, baieztatu ere egiten du. Ez da soziologoa eta metodo kuantitatiboek bereziki ez dute erakartzen. Izan ere kuantifikazioaz guztiz mesfidatia den tradizio ingelesean dago trebatuta. Tradizio horren norabidea Coleridge-n (1817, 109) adierazpen batek azaltzen du: «Gizonak [eta espero dut gizon eta emakumeak esan nahi izatea horrekin][...] pisatu egin beharko lirateke eta ez kontatu». Utilitarismoari eta ekonomia politikoari Coleridgek egindako kritika zen hori, eta baita kapitalismo industrial goiztiarrak jendeari egin zionari ere. Zehazkiago, Coleridgek esan zuen, jendeaz hitz egiten zutela «esku industrialak» balira bezala, eskuak egongo balira bezala hor nonbait makina birakarian lanean, eta soilik ausazkoa izango balitz bezala pertsonak egotea eskuoi lotuta! Izan ere, hizkuntzak egiten dizu posible errukirik gabe ohartzea ehun mila eskuren kaleratzea kasualitatez bezala geratu dela aurren! Ezin dituzu pertsonak kontatu, pisatu egin behar dituzu. Hoggartek kritika literarioaren zirrikituetan sartutako tradizio hori jasotzen du oinordetzan. Kontatu beharrean, pisatu egiten du, deskribatu. Antropologia ezagutzen ez badu ere, etnografia moduko bat ari da egiten. Hegoaldeko Itsasoan gertatuko balitz bezala tratatzen du bizitza propioa, eta jendeak egin eta esaten dituen gauza arraroei erreparatzen die.

Egiazki, daukan metodologia zehatz-mehatz da etnografo batena, lehenik eta behin hizkuntzari ematen baitio arreta, jendeak darabilen hizkera praktikoa benetakoari, hizkuntzaren bitartez harremanak mantentzeko moduari, eta gauzak kategorizatzen moduari. Adibidez, interesatzen zaio zergatik eta nola hitz egiten duen langile-klaseko jendeak Patuaz modu zehatzetan, momentu zehatzetan. Orain, «Patua», P letra larriaz, aristokraziaren etxeetako korridoreetan behera durundika entzun badaiteke ere, ez da benetan, langile-klaseko etxeetan gertatzen den bezala, bizitzari galga jartzen dion zerbait. Patuak karta-esku oso on bat banatu diezazuke, eta horrek esan nahi du soilik behin banatuko dizula eskualdi hori, eta horrek botea irabazi duzula esan nahi du eta hobe duzula irabazitakoarekin zerbait egin, eskualdi bera ez zaizulako inoiz iritsiko berriro. Sarriago, iritsiko zitzaizula jadanik bazenekien betiko leloaren betiko leloa banatuko dizu Patuak. Eta zer gertatzen da orduan? Patua. Historian aginterik ez daukan klasearen hizkuntza da: gauzak gertatzen zaizkion klasearen hizkuntza, eta ez gauzak gertatu arazten dituen klasearena. Eta horrela, jarrera fisikoak, hitz egiteko modua, harremantzekoa, objektuak eskuetan erabiltzekoa, patrietan antolatzen modua irakurri aletzen ditu Hoggartek gizarteko talde oso baten balio-estruktura inplizituen inplikazioak. Bazekien gauza horiek esanahia zeukatela, ez antropologia irakurtzeagatik (ez zeukan-eta irakurrita), baizik eta literatura irakurtzeagatik.

Imajinario literario jakin bat dakar kulturaren analisiari eusteko. Eta horrek tradizio literario kulturalaren barruan kokatzen badu ere, Hoggart aldi berean dago tradizio horretatik kanpo, tradizio horrek ez zuelako uste Hoggartek tratatzen dituen gauza motek inolako arretarik merezi zutenik. Leavisekin Leeds-eko langile-klaseko etxeen aurreko egongelaz hitz egiten hasiko bazina, ez luke jakingo zertaz ari zaren ere! Eta are garrantzitsuagoa dena, ez luke pentsatuko «kulturak» horri buruz diharduenik. Hoggartek, tradizio literarioan trebatuta egonik, kulturaren baztertutako eta entzungor egindako alderdia ulertzeko darabiltza dauzkan tresnak. Zentzu horretan, beraz, aldi berean zegoen trebatu zuen tradizioaren barruan eta kanpoan. Tradizioarekin hausten ari zen, tradizioa bera esperientzia pro-

pioa ulertzeko, eta esperientzia horretatik ondorio orokorrak ateratzeko erabiltzen zuenean.

Horixe da liburuaren lehenengo erdi izugarri aberatsa, eta izugarri garrantzitsua. «Kultura» kontzeptuaz jabetzeko suspertzen ari ziren ahaleginentzat eragin handikoa izan zen. Bigarren erdia, Hoggartek berak bizitako —1950eko hamarkadako— garaia irakurtzeko saiakera da eta, zoritxarrez, desastre hutsa da kasik! Hoggart bera partaide zen langile-klaseko kulturaren gertatzen ari ziren aldaketak ulertzeko saiakera, osatuta dago, ez irakurketa kritiko arretatsuarekin, baizik eta masa-kultura amerikarraz zeuzkan auresuposizioekin eta masa-kultura amerikararen tradizioaren moldaketa propioarekin, eta zerbait esango dut laster kultura horri buruz. Masa-kulturaren kritika Erresuma Batua lekualdatu besterik ez zuen egin. Ingurura begiratu eta Amerika eta kultura amerikarra antlantikoa gurutzatzen eta gaina hartzen ikusi zuen —eta zalantzarik gabe, ez zegoen bakarrik horrela jardutean (Anthony Crosland sozial demokrata itzaltsuaren *The Future of Socialism* [1956] adibidez)—.

Hala eta guztiz ere, *Alfabetatzearen erabilerak* funtsezko erreferentzia liburua da zuzenean elikatu zituelako, lehenik eta behin, eztabaida politikoa, eta ondoren, eztabaida intelektuala. *Alfabetatzearen erabilerak* lehenengoz irakurri nuenean, Hoggart ezagutu baino lehenago, eztabaida politikoen testuinguruan izan zen —goian zirriborratutako arazoei erantzun bila—. Ez nuen irakurri, adibidez, marko akademikoan, bertan Auden-i buruzko liburu baten (1951) autore izateagatik baitzen ezaguna Richard Hoggart. Testuinguru politikoa munduak nola funtzionatzen zuen ulertzeko liburu garrantzitsu gisa hartu zen *Alfabetatzearen erabilerak*. Testuinguru akademikoan, suposatzen dut, intelektualek oporretan idazten dituzten liburu horietakoa izan zitekeela pentsatu zela: seriooki hartu ezin zitekeen Britainiari buruzko irakurketa intuitibo espekulatibo gisako bat. Haatik, galdetzen saiatzen ari ginen galdera esanguratsuen erantzun gisa hartu zen seriooki, galderon ihardespren bezala: norantz doa gizarte hau? Zer gertatzen ari zaio kulturari?

Hoggart garrantzitsua da baita bigarren zentzu instituzional batean ere, Birminghameko Unibertsitatera joan zenean Kultur ikasketa garaikideetarako zentroa ezarri zuelako. Zeukan egitekoa, egiatan, bikoitza izan zen: lehenengoa, *Alfabetatzea-*

ren erabilerakeko lanarekin jarraitzea, halako gehiago egitea, era antolatua goan egitea, mota ezberdineko graduondoko ikasleak lortzea gisa horretako lana egiteko, gisa horretan idatzi zezaten bakoitzak bizi zuen garaiaz, moduak aurkitzea testuei zego-kienez akademikoki garatutako sentsibilitateak trebatzeko eta fintzeko, eta sentsibilitate horiek gizartearen analisisira hedatzea. Hoggart zen kultur ikasketei forma instituzionala eman ziena. Kontu funtsezkoa da hori, Gramsci ohartu zen bezala, ez da- goelako ideologiarik edo teoriarik ezer balio duenik alderdi bat aurkitzen duen arte, hau da, adierazpide organizazional-insti- tuzional bat aurkitzen duen arte. Hoggartek instituzioa fundatu zuen, oinarria eman zion, praktika bat ezarri, jendea elkar arazi, eta proiektua garapen intelektual gisa —airean baitzegoen— be- netako egin zuen.

Hasierako zentroak, eta kulturaz eta aldaketa kulturalaz pentsatzen saiatzen ari ziren beste batzuek baliatzen zituz- ten lan moten auziaz jardun nahi dut orain. Zein zen lanean ziharduten esparrua? Zehazkiago, zein zen «kultura» terminoa kokatuta zegoen esparrua? Zein zoruren gainean eskaintzen zen proiektua? Non pentsatu edo garatu zen «kultura» terminoa? Zer zegoen zentro berriak, proiektu berriak, baliatu zezakeenik? Zein diziplina akademikok elikatzen zuen?

Identifikatu dut jadanik literatur kritikaren esparrua iturri garrantzitsua izan zela kultur ikasketen osaketan, eta bereziki, F. R. Leavisen lana, agian Ingalaterrako literatur kriti- kari zoliena eta itzal handikoena (kritikari amerikar antzekoena Lionel Trilling izan zen; elkarri eragin zioten eta kultura garai- kidearekin eduki zituzten presioei, tentsioei, eta diferentziei emandako erantzunetan biek besarkatu zuten halako libera- lismo kontserbadore bat —eta ez kontserbadurismo liberal bat, ezberdinak baitira-). Irakurketa arretatsua deitutakoaren praktikan tematzen zen metodologiaren alde egin zuen Leavi- sek. Metodologia horrek esaten du norberak ezin duela testuen interpretaziorik edo judiziorik egin modu lauso eta zehaztuga- beetan. Esanahia edo balioa benetan erakutsi behar duzu testu jakin baten hizkuntzan, estrukturan, edo gaietan. Ezaugarriak lan literario zehatzean kokatzeko gai izan behar duzu, egiten dituzun interpretazio kritikoak instantzia kokatu batetik bes- tera mugitu ahala. Gauza berbera esan dut Hoggarten metodoa

deskribatzean. Zentzu horretan, Hoggarten lana beti egon da testuen irakurketa arretatsuaeren praktikarekin osatuta. Baina beste maila batean ere, F. R. Leavisek izugarritzko aldarria egin zuen literatur kritikaren eta orokorrean ingeles ikasketen alde. Ez zen, zentzu horretan, akademialari hertsia. Sinesten zuen ingeles ikasketak zirela giza zientzietako diziplina zentrala, testuari ematen zion arreta zehatzagatik, eta hizkuntzen eta sentimenduen funtzionatzeko moduari ematen zion sentsibilitate zabalagatik. Filosofia etzan ohi zen leku berean zetzan eta edo etzan behar zuten ingeles ikasketek. Baina Leavis are aldarrikapen ausartagoa ari zen egiten, ingeles ikasketen estatusa akademiatik harago luzatzen baitzuen. Literaturan trebatutako pertsonak beste inor baino hobeto zeuden kokatuta kulturaren interpretazioak osotasunean egiteko, eta ez soilik testu jakin batez jarduteko. Leavis idazle jakin batzuk eta testu jakin batzuk barne hartzen zituen kultura osoan zegoen interesatuta. Eta ardura horri ekitea ekarpen garrantzitsua zen bere horretan. Literaturaren munduko pertsonengana jotzen zuen kulturaren mugimendu eta joeren irakurketari eta interpretazioari zegokion egiteko historiko askoz ere zabalagoa bete zezaten. Eta hain zuzen ere, Q. D. Leavis emazteak (1932) idatzi zuen, itzal handiko literatur kritikaria hura ere, literatura popularra lantzeko saiakera egiten zuen lehenengoetariko liburua —*Fikzioa eta publiko irakurlea (Fiction and the Reading Public)*— eta ez literatura serio jaso lantzen zuena. Masa-gizarteari eta masa-kulturari buruzko teoriak asko baliatu zituen. Literatura popular gehiena emozionalki degradatua dela argudiatzen duen posizioa hartzen zuela esan nahi du horrek. Eta halako literatura gehiegi irakurtzen dutenak emozionalki eta intelektualki degradatu egingo direla prozesuan.

Eta hala ere, Raymond Williams, Hoggart eta beste asko bezala Leavisekin harreman estuan trebatutako pertsonak kultur kritika mota berria definitzeko ahaleginean berebiziko funtzioa izan bazuten, Leavisek literatura bere kasa baino, kultura osotasunean aztertzen zuen proiektua sortu zuelako izan zen. Baina arazoa zen Leavisen kritika egiteko moduak oinarrian Matthew Arnold-en ([1869] 2014, viii) tradizioari eutsi nahi zion kulturaren ulerkera zeramala txertatuta: «pentsatu eta esan den onena». Horixe da kultura. Eta ez dago zalantzarik pentsatu eta esan den

onena ez zela Richard Hoggarten etxeko aurrealdeko gelan idatzi. Beste nonbait idatzi zen, beste mota bateko jendeak idatzita. Eta literatur kritikan prestakuntza eta sentsibilitate landua behar zen jendea gai izan zedin halako kultura antzeman egiteko besterik ez! Kultura zer zen antzemateko tradizioan sartu egin behar zinen eta tradizioari errenditu. Hau da, selektibotasun historikoaren lan luzean eta tradizio kultural baten eraikuntzan zegoen bermatuta, azpimarra eta bazterketa guztiak barne. Literatura popular guztia zegoen baztertuta «fina» ez zela argudiatuta, gure buru eta sentsibilitateak ez zirelako fin eta sofistikatu bilakatuko halako literaturarekin harremanean. Literatur kritikari sentiberra eta trebatuaren erantzukizuna zen, beraz, tradizioan bidea egitea, eta eskasa eta ez hain ona eta akastuna bazterzea, eta horrela, tradizio literario amankomunaren jabe izanik bukatzea: aukeraketa oso txikia zen, eskutada bat liburu. Egiatan, Leavisentzat, sarri merezidunak ez ziren ezta liburu osoak ere, liburu txatalak baizik: *Adam Bede*-ren (Eliot 1859) erdialdea, *Floss*-eko errotaren (*The Mill on the Floss*, Eliot 1860) lehenengo erdia, *Dama baten erretratuaren* (*The Portrait of a Lady*, James 1881) gehiena baina ez guztia, eta *Embaxadoreak* (*The Ambassadors*, James 1903), zalantzarik gabe, ez. Soilik Leavis bezalako klase ertain baxuko puritanao izan zitekeen gai berea ez zen tradizioan sartu eta halako zaindaria, fintzailea eta lorezaina bilakatzeko.

Leavisek anbiziorik handiena zeukan tradizio amankomun horrentzat. Politikariak literatura gehiago irakurriko balute, ez liokete jendeari 1950eko hamarkadako materialismoaren bitzta erraza eskainiko, «gaurko marmelada» esaten zion horri. Jendeak literatura gehiago irakurriko balu, asebetetze azkarraren orde, plazeraren atzeratze amaigabearen beharrezana ulertuko luke. Baina nola biziraungo luke kulturak jendeak bitzta supermerkatu berriekin hasi eta bukatzen zela usten zuen testuinguruan? Hortaz, Leavisentzat ingeles ikasketek, hau da, literaturak eta praktika kritikoak kultur tradizioaren erabilera zorrotza eskatzen zuten, barbaroak arrastoan sartuta edukitzeko. «Barbaroak» etsai konplexua zen: *Times Literary*, *New York Review of Books*, eta antzekoetako kritikarien establishment dekadentea barnebiltzen zuen —Leavisek establishment kulturalaren adar filistiar izendatzen zuena—. Kritikariak ez zeuden benetan literaturarekin konprometituta, ez zeuden benetan moralki borrokan. Baina

«barbaro» horrek Hoggarten langile-klaseko jendea ere barne hartzen zuen, izan ere, marmelada nahi baitzuten gaurko.

Leavisen metodoak ez zizun autore jakin bati buruzko hausnarketa txiki bat «ahotik jaurtitzeko» aukerarik ematen; aprendizgo luzea eskatzen zuen. Eskatzen zizun Cambridgeko gela txiki batean jende talde txikia elkartzea —ez zegoelako inolaz ere lan hori egiteko benetan gai zen jende askorik— eta elkarrizketari ekitea, testuen balio eta esanahi kulturalak esploratzeko lan zailari ekitea. Pertsona batek esan zezakeen, «uste dut hau aski degeneratua dela, ez da hala?» Eta beste batek erantzun, «ez aurrekoan irakurri genuen testua bezain degeneratua. Izan ere, pasarte aski ona dago hemen», eta abar. Argudiaketa metodoa beti zen, «horrelakoa da hau? Hau horrelakoa da, ez da hala?». Gerra baino lehen eta ondoren literatur ikasketak egiten zuten pertsona guztiak zeuden Leavisek trebatuta, tradizio horrek, praktika horrek, balio horiez. Ni Oxforden nintzen literatura ikaslea, eta Oxforden Leavis gorroto zuten —«bekain zabarreko puritano» hura—. Leavisek literatura zenbat eta serioago hartu Cambridgen, orduan eta friboloago hartzen genuen guk Oxforden. Orduan eta arretatsuago irakurri literatura Leavisek, are eta gehiago oinarritzen ginen gu intuizio eta instintuetan. Baina tradizio diletante hartan trebatu ginenok ere aitortu egin behar genuen Leavisen seriotasun moralak. Benetan pentsatzen zuen kulturak inporta zuela: bazekien inporta zuela. Zerabilen kontzepzioa izugarri elitista eta findua zen. Ez zen egokia masa-kulturaren konplexutasunaz jarduteko. Objektu eta subjektu gisa ez zituen gizarte osoaren bizitza patrioiak hartzen. Baina hala ere, bazekien kontu handiko argudiaketa behar zuen gai serioa zela. Kultura fisik ere axola ez zitzaion establishment literarioa zen nagusi, baina arrazoia Leavisek zeukan. Eta hala ere, kultura serioa tratatzeko eta aztertzeko leku apurretakoa Arnold-Leavis tradizioa bazen ere, ez zen inolaz ere gai kulturaren zientzia bat garatu zedin oinarri egokia emateko.

Noski, antropologia mota jakin batzuetan ere aurkitu zitekeen «kultura» hitza. Eta antropologiaren irakaskuntza unibertsitate britainiarretan oso hedatuta ez bazegoen ere, kultura kontzeptuaren hari garrantzitsua dator tradizio antropologikotik: kultura, bizitzeko modu oso gisa edo jendeak bizitzak bizitzeko eta elkarrekin harremantzeko patrioi bereizgarri gisa. Raymond

Williamsen lanean zentrala bilakatzen den kulturaren kontzepzioa da hori. Zoritzarrez tradizio antropologikoa Britainian, kulturala baino, estrukturala zen. Institutuzio sozialei begiratzen zien (familiar, erlijioari, eta beste) praktika kulturalei beharrean. Frantzia eta Estatu Batuetan tradizio antropologikoak interes handiagoa zeukan auzi kultural, linguistiko eta sinbolikoetan. Antropologia britainiarrean kulturaren lanketa eta kultur analisi gehiegirik egiten ez bazen ere, bazegoen aski serioa zen tradizio bat kulturaren kontzepzio garrantzitsu zenbait bizirik mantentzeko bezain beste. Guztiarekin ere, herrialde inperial batek, mundu zabalean ehunka kultura suntsitu eta kultura horien baitan eta kultura horietan zehar bide propioa negoziatu duen herrialdeak, ezberrik gabe daki kontzeptua zer den! Bazitekeen «barrualdeko lurren esploratzaile militarren» gisako kontzepzio moduko bat izatea: «kultura natiboa». Baina administratzaile koloniala bazinen, erabat argi zeneukan zerbait «kulturala» ari zela gertatzen, bero sapa eta guzti afaritarako jantzen zinen. Zalantzarik gabe zerbait sinbolikoa ari zen gertatzen! Ezin duzu funtzionalismo malinowskiarrarekin azaldu, batere funtzionala ez delako. Eta ulertu behar zenuen, baita ere, kulturen talka bat zegoela. Azken finean, nolabait esatearren, beste kultura bat zegoen bestaldean, irenstea lortu zenuena, edo administratu behar izan zenuena, baina bizitzeko modu propioa zeukana. Bi lege sistemaren artean, gatazkak konpontzeko bi moduren artean, ezkontza mota biren artean eta beste hainbeste gauzaren artean negoziatu behar izan zenuen. Antropologia britainiarra erabat markatuta, sakonki inskribatuta dago iragan inperialistarekin. Baina guztiarekin ere, horrelaxe gertatzen direlako gauzak, antropologia britainiarrak bizirik mantendu zituen kulturari buruzko kontsiderazio garrantzitsu batzuk, kultur ikasketetan eta *New Left*aren inguruan gertatzen ziren argudiaketei erreparatuz gero zertxobait lekuz kanpo bazen ere.

Soziologia zen kultura kontzeptuaren inguruan teorizatzeke hirugarren iturria. Eta soziologia 1950eko hamarkadan amerikarra zen. Soziologia britainiarrak iragan luze eta ospetsua dauka ikerketa sozialean (Charles Booth eta Henry Mayhew-ren lanak kasu) eta politika sozialen administrazioan. Baina esparru teoriko garatu gisa, bizitza intelektual britainiarretik ez zaio ekarpen esanguratsurik egin soziologiari. Ez da Durkheimik edo

Weberrik egon; Marx etorri egin zen gugana, ez genuen guk produzitu; ez da ezta Talcott Parsons bat egon ere (osorik zuentzat azken hori!). Soziologia britainiarra beti izan zen oso enpirikoa, oso deskriptiboa, oso erreforma sozialaren aldekoa. XIX. mendean oso berandura arte, gizartearen ikerlea zinela esaten bazenuen, esan nahi zuen gizarte baldintzei erreparatzen zenietela hobetu zenitzan. Soziologo britainiar batzuk azterketa zientifikoaren ereduak XX. mende hasieran erabiltzen hasi baziren ere, soziologiaren benetako gorakada 1950eko hamarkadan gertatu zen Britainian, eta ordurako erabiltzen ziren eredu teoriko eta ikerketa metodologiko zehatzak amerikarrak ziren funtsean. Fase horretan, kultur ikasketen formazioaren testuinguruan soziologia amerikarraz orokorrean hitz egitea beharrezkoa ez bada ere, bada garrantzitsua istorioaren atal batez zerbait esatea, nahiz eta modu sinplifikatuegian: masa gizarteari eta masa-kulturari buruzko eztabaidaz esan behar da zerbait. Eztabaida hori Frankfurtoko eskolaren lanarekin abiatu zen 1930eko hamarkadan, eta 1950eko hamarkadako masa-kulturaren defentsa pluralistekin jo zuen gailurra.

Hogeita hamarreko hamarkadan zehar, Horkheimer, Adorno eta Gizarte ikerketarako institutuko (Institute for social research) beste kideek kontzientziaren, kontzientzia sozialaren eta kulturaren antolaketaren izaera ulertzeko irakaspen garrantzitsuak aztertu zituzten faxismoaren gorakadan. Argudiatu zuten deformazio sozial hura —ilustrazioaren eta pentsamendu arrazionalaren garapena ulertzeko modu normalean gertatu zitezkeela amestu ere ez genuen posibilitate hura— gizartearen infrastrukturaren deskonposizioak egin zuela posible. Ondorioz, munduko gizarte kulturadunenetakoa eta aurreratuenetakoa dela aldarrikatzen duen gizartean bertan sortu daitezkeen indar inkontzienteei eta sakoneko harreman autoritarioei begiratu behar genien. Frankfurtoko eskolako kideek Hitlerrengandik ihesi erbesteratu behar izan zutenean, asko Estatu Batuetara joan ziren. Eta argudiatu zuten Alemanian beranduegi antzeman zituzten patroi autoritarioetaranzko deskonposizio seinale berdinetako batzuk antzeman zitezkeela Estatu Batuetan ere. Nolabait, gizarte eta kultura amerikararen defendatzaileen aurka egi zuten. Harrigarria bada ere, defendatzaileok denbora luzea behar izan zuten erantzuna formulatzeko. Ihardespena,

azkenean, 1950ean iritsi zen Seymour Martin Lipset bezalako soziologoez patroi autoritarioak ez zebiltzala familia eta erlijioa bezalako instituzio sozial tradizionalak ordezkatzeko argudiatu zutenean, hots, estruktura sozial informalak ukitu gabe zeudela. Are gehiago, argudiatu zuten promestutakoa betetzen ari zela kapitalismoa: ezberdintasun ideologikoak zorroztasuna galtzen ari ziren; eta Amerikak era arrakastatsuan integratu zituen etorkinen populazio ezberdin guztiak, eta identitate amerikar berria sortu zuen. Pluralismoak funtzionatzen du! Barrura sartu zitzaizkion bazterreko kulturak eta kultura subordinatuak gradualki barneratzeko, gizartea aski iraunkorra zela eta masa-kultura nahikoa zabala zela zioen defentsa eta baieztapen positiboa zen. «Kulturen arrago» gisako gizarte eta kultura amerikarraren irudi aparta zen hura.

1950eko hamarkadan, Amerikaren menderakuntza inperial globaleko posizioa hazi ahala, eztabaida hartan erabilitako analisi eta ulerkerak sozial eta politikoen formek garaiko aldaketan martxa jarraitu zuten. Bandera amerikarra itsasoz bestaldera joatearekin batera, segituan joan zitzaizkion atzetik Amerika sakona nahinon sortuko zuten zientzialari eta politikari modernizatzaileak. Indar handiz gelditu zen definituta hamarkada hartako idazlan askotan. Faserik goiztiarrenean «aurrerapenerako aliantza» izena hartu zuen. Zientzia sozial pluralista eta positibista mota jakin hura, hau da, Amerikak gizarte, estruktura sozial, eta kultura propioa ulertzeko zerabilen forma nagusia bilakatu zen hura, leku guztietan sortzen eta asumitzen da orduan. Eta garaiko aldizkari soziologiko britainiarrei begiratu bat ematen badiezu, Merton eta Parsons-en lanari egindako oin-oharrrak balira bezala irakurtzen dira, eta oin-oharren oin-oharrrak balira bezala. Ez da soilik ez daukatela bizitza britainiarrarekin loturirik, ez daukate ezta gogoetatzen ari diren bizitzaren be-reizgarritasunaren zentzurik. Hurbilketa metodologiko bat eta hurbilketa horren auresuposizio ideologikoak testuinguru jakin batetik atera eta besterik gabe beste batean txertatu ziren.

Korrante nagusiko tradizio soziologiko hartan, kultura arauen eta balioen esparrua da. Sistema osoa benetan koordinatzen duen gauza hori da. Talcott Parsons lanean sistema biologikoa, sistema soziala, eta sistema kulturala daude. Eta sinbolikoaren eremuak talde ezberdinen integrazioan daukan

garrantziaz idazten du, eta talde sozialen artean lotura-lerroak ezartzeko orduan daukan garrantziaz. Baina lanketa konkretu oso gutxi ematen zaio. Posizio teoriko horretan, kultura integrazioaren eremua da. Baina ez dizu esaten zein balio kultural zehatzen inguruan gertatzen den integrazioa. Eta are gutxiago esaten dizu zer balio kultural alternatibo baztertu edo subordinatu behar izan diren gizartea egonkor mantentzen duen adostasun maila hori lortzeko. Soziologia mota horren indarguneetako bat kulturaren pluraltasunaz jabetu egiten dela da; eta deskribatzen saiatzen den lekua Estatu Batuak dela kontuan hartzen badugu, ez da harriztekoa. Ulertu egiten du batak bestea estaltzen duten patroikultural ezberdinen multzo zabala dagoela. Baina ez da gai kulturaren eta boterearen arteko harremanaz hitz egiteko, kultura ezberdin horien artean existitu daitezkeen menderakuntza eta subordinazio harremanez. Eta horregatik, ezin dizu esan nola lortzen duten patroikultural jakin batzuek daukaten nagusitasuna, nola sortzen diren patroikultural dominatzaileak. Ezin du ezer esan zentralizatutako eta baztertutako formazio kulturalen arteko botere harremanez. Erreparatu «Zentroa eta periferia» («Centre and periphery») izeneko Edward Shils-en (1961) artikuluari. Kulturaren istorio bat da «egurrezko etxolatik Etxe Zurirako» bidea azaltzen duen gisakoa. Masen kultura (Hoggarten herriaren bertsio amerikarra) aski brutal eta bana-la dela da hasierako aurreustea. Baina gizartea gero eta gehiago ireki ahala, kultura horiek ere zentrorera erakarriko dira gradualki. Zentro eta periferiaren arteko harremanak ugaritu eta biderkatu egingo dira. Masa-kulturak arau kulturalak barreiatu egingo ditu gizartean eta azkenerako guztiok irakurriko dugu Jane Austin eta ikusiko dugu telebista. Kultura homogeneizatu horren hazkunde iraunkorrek pluralismoa bermatuko du. Eta modu horretan, periferia inoiz bilakatuko ez bada ere guztiz zentro (sorpresa!), periferia eta zentroaren arteko harremanek gizartea kulturalki eta sozialki egonkor mantenduko dute. Pluralismoak funtzionatzen du!

Irakaspen garrantzitsua dago azaldutakoan. Hala ere, Amerika bezalako gizarte konplexuaren deskribapena egin daitekeela pentsatzeak, eta daukan batasuna azaltzeak kultura ezberdinen arteko botere harremanei erreferentziarik egin gabe —kultura harremanek harreman ekonomikoetatik, gizarte

estrukturetatik, eta bereziki boteretik kanpo funtzionatuko balute bezala— hustuta dagoen kulturaren kontzeptua sortzen du. Istorio polita kontatzen du, eta ezaugarri garrantzitsu batzuei ematen die arreta, baina erdigunean erradikalki da ahula eta mugatua. Badaude kulturaren beste kontzepzio batzuk tradizio soziologikoaren beste adar alternatiboetan, eta taldeek elkarri nola eragiten dioten azaltzeko esanahi kulturalaren zentzu askoz ere aberatsagoa eta harreman sinboliko eta kulturaleri buruzko kontzepzio argigarriagoa gorpuzten dute sarri. Durkheim eta Mauss-en tradizio estrukturala ekarri daiteke gogora, eta baita Weberrengandik eratortzen diren tradizio fenomenologikoak eta interpretatiboak, eta Chicagoko pentsamendu sozialaren eskolak (Chicago school of social thought) egindako lanaren gainean eraikitako elkarreragin sinbolikoaren teoria (dauzkan askotariko posizioekin). Horieta bakoitzak kultur ikasketen garapenean egitekoren bat beteko bazuen ere, sorkuntza eta formazio garaian aski ezezagunak eta eskuraezin samarrak izan ziren.

Ondorioz, 1950eko hamarkadan zehar eta 60ko hamarkadaren hasieran, gizarte baten mugimendu historikoa ulertzeko helburuarekin harreman kulturalen auziei leku zentralagoa emateko bidaiari ekin nahi ziotenek euskaragarri zeuzkaten kulturaren kontzeptuak lotuta zeuden jadanik norbere mundu intelektualaren alderdi askorekin —literatur kritikaren tradizioarekin, soziologiaren forma batzuekin, antropologia lanekin—. Baina kasu guztietan, kulturaren kontzepzioak «erdi-bideko bizitzan» zirauen: teorizatu gabe, garatu gabe, mugatuta eta murriztuta. Eta zentzu batean, horrexegatik izan zen hurrengo kultur ikasketek bete behar izan zuten lehenengo egitekoa, baita egin beharreko azkena ere: kultura kontzeptualizatzeko lana ordura arte eskuragarri zeuden tradizioetan egindakoa baino hobeto egitea.

Bukatzeko, marxismoaren auziaz hitz egin nahi dut kultur ikasketen hasierako historiari lotuta. Kultur ikasketen iturri eraginkorrena literatur kritika bazen ere, bereziki Leavisen tradizioan, tradizio hura ezinbestean kokatu behar zen eztabaida zabalago baten barruan. Leavisen ekarpen garrantzitsuenetakoa izan zen eleberritari eman ziola beste literatur kritikariek tradizionalki poesiari eta antzerkiari eman zioten arreta mota. Baina arrazoi beragatik topatu zuen bere burua 1930eko hamarkadako

kritikari marxistekin batera idazten eta kritikariokin eztabaidan, hain justu alderdi komunistaren inguruko marxista dexente ari zirelako teoria marxista literatur kritikara ekartzen saiatzen. Izan ere, zehazki eleberria aztertzeko tresna marxistak erabiltzen ari zen idazle eta kritikari eskola oso bat zegoen 1930eko hamarkadan —Christopher Caudwell eta Ralph Fox ekarri daitezke gogora—. Leavis ez zen soilik kritikari horien presentziaz oharitzen, oharitzen zen baita ere erronka egiten ziotela zeukan proiektuari. Eta behin baino gehiagotan zuzenean elkarriketatu zuen tradizio marxista horrekin, eta sarri *Scrutiny* aldizkarira ekarri zituen tradizio hartako lanik onenak: Edgell Rickword eta L. C. Knights-en lanak kasu. Knights zen aldizkariaren hiru kolaboratzaile nagusietako bat eta izugarri interesatzen zitzaizkion literaturaren testuinguru ekonomiko eta politikoak, bereziki drama antzerki isabeldar eta jakuetarrarenak. Marxismoa beraz, ez zegoen, inolaz ere, Leavisen inguruan sortzen ari zen idazlanetatik kanpo. Guztiarekin, Raymond Williamsek *Kultura eta gizartea* (*Culture and Society*, 1958) liburuaren bukaeran Leavisen lana iruzkintzen duenean, eztabaida horretaz gogoetatzen du eta itzulingerurik gabe ondorioztatzen du, eta nire ustez arrazoi guztiarekin, Leavisek irabazi zuela eztabaida eta ondo merezita gainera. Ezin dugu ahaztu zerk osatzen zuen garai hartan literatur kritika marxistaren korrante nagusia, zein ziren lan garrantzitsuenak: izugarri txar eta sinplistikak dira! Orain men-debaldeko tradizio marxista deitzen dugunaren eraginik jaso gabe zeuden oraindik; ez zituzten Marxen lan goiztiarrak irakurri; ez zuten Lukács, edo Benjamin, edo Frankfurteko eskolaren, edo Gramsciren berririk izan. Zerabilten «marxismoa» literatur sorkuntzaren eta, orokorrean, kultur artefaktuen analisiari egindako oinarri-superestruktura ereduaren aplikazio zuzen eta mekanikoa zen. Ondoren etorriko ziren kulturaren erredukzionismoari eta kultura islada hutsa zela zioten teoriari egindako kritikekin osatu gabe zegoen oraindik (Caudwellen kasua ezberdina da imajinazio aberatsa zeukalako, eta estandar marxisten arabera, izugarri ez-ortodoxoa. Literatur eta kultur teoria bat garratzen saiatzeko askotariko iturrietatik edan zuen. Eta ondorioz, alderdi komunistak berak haur ikaragarri azkar baina aski fantasiatsu gisa hartzen zuen).

Testuinguru horretan, Williamsek argudiatzen du pentsamolde irekiko inor ere (eta «inor» horrekin Williams bere buruaz ari zen eta ari gara baita gu ere) ezin zela asebate edozein testu eusteko makina mota hain gordina dakarren praktika teorikoarekin, eta analizatzen ari den testuaren konplexutasunen deskribapen sofistikatorik batere eskaintzen ez duen praktika teorikoarekin. Hau da, literatur kritikaren tradizioan hezi den edonor ez zuen orduko kritika marxistak asebeteko, tradizio horren oinarri soziala ulertuta eta heziketaren berezko elitismoa arbuatuta, hizkuntzari eta forma sinbolikoei ematen zitzaizen gogoeta arretatsuarekin. Hots, Williamsek argudiatu zuen kritika marxistak Leavis baino hobea izan behar zuela, eta ez txarragoa, idazlanen konplexutasunak kritikoki berreraikitze-ko ahaleginean, forma sinboliko garatuak ulertzeak eskatzen duelako, lehenik eta behin, daukaten konplexutasuna aitortzen duen azalpen bat, eta ondoren, harreman sozial eta ekonomiko infraestrukturalez zerbait gehiago gehitzea. Iruditzen zait Williamsen interpretazio hori garrantzitsua dela eta funtsean zuzena.

Noski, kultur ikasketez eta marxismoaz ari garenean, gerraosteko garaiaz dihardugu gerraurrekoaz baino, eta horrenbestez, Gerra Hotzaz. 1950eko hamarkadan teoria marxistaz edo kritika marxistaz hitz egitea, are hogeita hamarreko hamarkadaz jardutea ere, ez da soilik egin behar ez zen zerbait, intelektualek egin zezaketen kontu arriskutsua zen benetan. Horregatik, Williamsen hasierako liburuetan —*Kultura eta gizartea* (*Culture and society*, 1958) eta *Iraultza luzea* (*The long revolution*, 1961) lanean— nolabait ilunak diren pasarteak aurkitzen badituzu, neurri batean termino marxistentzako izendapen alternatiboak bilatu behar izan zituelako da kontzeptu marxistez hitz egiteko orduan. Adibidez, liburuetako bakar baten ere ez du Williamsek «produktzio-moldea» erabiltzen. Hitz egiten du bizitza ekonomikoaz, antolaketa ekonomikoaren bizitzaz, eta beste. Iradokitzen ari banaiz ere halakoak, benetan, kontzeptu marxistak direnentzako kode-hitzak direla, ez dut esan nahi Williams soilik zentsorea ekiditen ari zenik. Aitortu eta onartu egin zituen kultur eremuaz jarduteko erabilitako kritika marxista moten desegokitasunak. Eta Gerra Hotzaren testuinguruan, kontzeptu marxisten bahitura hain da errotikoa eta sakona, zarakar hura desegokitasun

eta guzti gurutzatu nahi zuen edonork beste termino batzuk beste nonbait bilatu behar zituela. Terminoek ez zioten jendea-ri etsaitasuna eragin behar, frogetara begiratu eta analisiaren informazioa jaso zezaten. Williamsek egindako hiztegi marxistaren ukazioak eragiketa bikoitza adierazten du: tradizioak hornitu dakizkiokeenak baino kontzeptu aberatsagoak behar ditu; eta intelektualki konektatu behar du, baita ere, sarri auzia termino marxistetan pentsatzeko gai ez zirenekin edo nahi ez zutenekin.

Kultur ikasketek formazio garaian eskura zeuzkaten tradizio marxistaren eta beste tradizioen artean harreman konplexua dago. Aipatu dut jada kultur ikasketen hasierako fasea, eta *New left*aren jaiotza izendatu dudana gainjarri egin zirela. *New left* goiztiarra mugimendu politiko gisa 1956an sortu zen benetan, eta parte hartzen zuten asko marxismoaren baitako eztabaidetan zeuden sartuta, posizio marxista batzuen desegokitasunak zirela eta. Elkarrizketa horietan hizkuntza marxista eta kontzeptu marxistak erabiltzen baziren ere, *New left*eko jendea urrundu egiten ari zen posizio estalinistetatik, besteak beste, 1956ko Hungariaren inbasioa ekarri baitzuten, eta urruntze horixe da, egiazki, *New left*aren formazioaren momentua. Hortaz, kultur ikasketen hasierako faseetan marxismo mota alternatibo bat zegoen inguruan. Ez da marxismo mota oso garatua. Ez dago egun aipatu daitekeen figura itzaltsuren bati lotuta: 1920ko hamarkadatik aurrera idazten aritu denik, edo kultur teoria marxista aberasteari ekarpena egin dionik. Halako babes teorikorik gabe, eta kulturaren esfera gaingaitzen zuten auzi konplexuak ebazteko eta azaltzeko, marxismo mota izugarri mekaniko baten aurka borrokatzen saiatzen ari ziren. 1950eko hamarkadako pentsalariak klase-harremanen funtzionatzeko modua ulertzen saiatzen ari ziren, beste gauza batzuen artean. Hein batean egia zen klase-harremanak modu esanguratsuetan aldatzen ari zirela 1950 eta 60ko hamarkadetan. Hein batean egia zen, baita ere, kapitalismoa ez zela desagertu, eta klase formazioak ez zirela ezta desagertu, ezta erabat barneratu. Galdera hurrengoa zen: nola ikertu zitezkeen klase formazioak, klase-harremanen benetako antolaketa; zelan eutsi ziezaioketen klase analisiaren marko zabalari, nola edo hala, markoarekin berarekin nahaspi-latuta gelditu gabe. Birtualki hizkuntza analitiko berria hutsetik

sortzea bilatzen zuten garai hartako *New left*aren proiektuetako askok, baina aldi berean, Marxen oinarritzko posizioen parametro edo marko zabalaren barruan funtzionatzen jarraituko zuen hizkuntza izatea nahi zuten.

Garaian eskuragarri zegoen marxismoa desegokia iruditzen zitzaion *New left*ari, eta agian merezi du, bizkor bada ere, ukazio horren atzean zeuden arrazoietakoa batzuk aipatzea. Funtsean, garaiko marxismoak oinarri-superestruktura motako hurbilketa egiten zuen. Politika eta ideologia, biak, superestrukturaren elementu gisa tratatzen zituen, eta superestrukturaren dimentsioak produkzio-molde kapitalistaren harremanek emanda eta determinatuta zeuden, erabat eta intimoki. Posizio horrek, jakina, oso leku gutxi uzten dio superestrukturaren beren eragin-kortasunari. Garai hartan auzi horretaz pentsatzen saiatzeak Marxen exegesi moduko bat eskatzen zuen, eta pentsalariak proiektu marxistan non kokatzen ziren jakiteko gai zinen Marx eta Engelsen arteko posta-trukea aipatzen zuten aldi kopuruaren arabera. Izan ere, posta-trukearekin hasten da Engels aitortzen idealismo hegeliarraren oinordetza luzea gainditzeko saiakeran ekonomikoa denari enfasi handiegia eman ziotela. Engelsek, bertan, zalantzan jarri zuen lege eta modelo berberak modu berberetan erabili daitezkeela egoera guztietarako eta egoera oro produkzio-moldean zehar igaro arazi dezakezula haragia txikitzeke makinatxo bat izango balitz bezala. Esplicituki aitortzen du superestrukturak eragina daukatela oinarrian, eta horrenbestez, historia marxismoaren interpretazio mekanikoez iradokitzen zutena baino konplexuagoa dela. Hau da, marxismo klasikoaren barruan bertan aurkitzen da justifikazio moduko bat tradizio ingelesak oinordetzan jaso zuen marxista tradizionalen ereduak zeuzkan desegokitasunen aurka erabili zitezkeena. Guztiarekin ere, marxismo klasikoarekin izandako hasierako eztabaida pobretasun teorikoko testuinguruan gertatu zen. Urte batzuk beranduago itzuliko ziren frantsesetik *Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak* (Marx 1961), eta sortuko ziren testuon inguruan irakurle taldeak. Entzun gabe geneukan halako marxismo hegeliarrik. Marxismo bat zen kontzientziari, giza beharrezan auziari, eta antzekoei askoz ere irismen handiagoa ematen ziena. Ere mugetatik gerturantzitsua irekitzen zuen teoria marxistaren barruan *New left*ak

oinarri-superrestrukturaren makineriaren alkandora hertsatzailerik gabe lan egin zezan.

Izan ere, kultur ikasketek ez dute inoiz topatu modurik superrestrukturei buruzko posizio marxista klasikoa —hau da, oinarriak determinatzen duen superrestrukturaren eredu ximplearena— posizio propioetara bereganatzeko gai denik. Hasieratik, Raymond Williams eta Edward Thompson, bakoitzak bere erara, eraso egin zioten oinarri-superrestruktura ereduaren sinpletasunari. Batek ere ez zuen eredu hori erabili eta nahiago izan zuten izatearen eta kontzientziaren arteko oposaketa hegeliarraz baliatzea. Are gehiago, Williams eta Thompson bat ez datozen marxista estruktural althusseriarrek ere oinarri-superrestruktura auziaren kritika eta berrikuspen sakona jarri zuten martxan eta ereduaren zentraltasuna desegin. Hala ere, argi izan behar dugu kritika horrekin zer ari ziren baztertzen. Guztiarekin ere, kulturaren analisisa marko marxistaren barruan garatzen jarraitu nahi zuten heinean, adi egon behar zuten teoria marxistaren aurre-suposizio materialistei. Teoria marxista historikoa, estrukturala eta materialista da eta literatur kritika nagusiaren aurka artikulatuta dago, eta baita beste tradizio kulturalen barruan aurkitu zitezkeen kulturaren teoria multzo idealisten aurka ere. Hotaz, kultur ikasketen bertsio marxistaren bereizgarria zalantzarik gabe da modua aurkitzen duela kultur produkzioaren alorraz eta sinbolikoaren eremuaz, fundazio materialekin harremanean pentsatzeko. Baina ez zegoen oinarri-superrestruktura problematika hain justu horixe bera sortzeko pentsatuta? Era ambiguoan soilik erantzun diezaiokegu galderari: bai eta ez! Horixe sortzeko dago pentsatuta, baina bereziki hasierako bertsioetan, determinazioaren ulerkerak jakin bat barneratzen eta erabiltzen du, eta ulerkerak hori ez da kultur ikasketetan inoiz ere onargarria izan. Funtsean, norabide bakarrean funtzionatzen duten eragin eta estrukturaziozko indar lerroak ikusten dituen ulerkerak da nagusiki: oinarritik superrestrukturara. Halako begiradarentzat determinazioak zera esan nahi du: harreman ekonomikoek (edo produkzio-moldearen harremanek; biak ez baitira gauza bera) ez dituztela ezartzen soilik superrestrukturaren funtzionatzeko terminoak eta mugak, baizik eta determinatzen dutela baita superrestrukturazko formen eta harremanen edukia, mekanismoa eta eraginkortasuna, xehetasun guztiekin. Hau da, posizio

determinista sendoa da. Baina produkzio-moldeen eta kultur superestrukturen analisisien arteko harremanak ez du hain erraz onartzen funtsean norabide bakarrean doan determinazioaren ulerkera hori. Eta ez du erraz onartzen, ezta ere, azken buruan kulturala denaren edukia ekonomikoa dela dioen determinazioaren ulerkera. Auzi horrekin heltzen diote kultur ikasketek teoria marxistari. Determinazioaren teoria sendo gisa ulertutako oinarri-superestruktura ereduaren desegokitasunari egindako eraso da. Eta lehenengo norgehiagoka handia Raymond Williamsen (1961) *Iraultza luzea* izan zen, hurrengo hitzaldiaren gaia hain justu.<sup>2</sup>

Azaldutakoa marxismoaren egoera da kultur ikasketei zegokienez proiektua lehenengoz sortu zenean. Horregatik, ez da zaila ulertzen zergatik ziren literatur kritikakoak metodologia eta inspirazio nagusiak Kultur ikasketa garaikideetarako zentroaren hasierako faseetan. Auzi marxistak ez ziren ahazten baina periferian iraun zuten. Egiatan, Hoggart 1969an joan egiten denean (UNESCO n sartzeko) bilakatzen da alternatiba marxista erreferentzia puntua eta baliabide esanguratsua kultur ikasketak garatzeko orduan.

---

2 Itzultzailearen oharra: kapitulu hau *Kultur ikasketak 1983* izeneko liburuan bildutako lehen hitzartzea izanik, hurrengo hitzaldiari egiten zaion erreferentziak urte hartan eman zituen zortzi hitzaldietatik bigarrenaz dihardu.



# BI

## GRAMSCI ETA GU<sup>3</sup>

Hau ez da Antonio Gramsciren ideien esposizio zehatza, ezta Britainia Handiko egungo egoera politikoaren azalpen sistematikoa ere. Gramsciren lanaren argitan —haren ikuspuntutik— ezkerak aurrean dauzkan ataka nahaspilatsu batzuek «ahoz gora pentsatzeko» saiakera da. Ez dut aldarrikatzen, sinpleki, egun dauzkagun arazoentzat «erantzunak» edo «giltzak» dituenik Gramscik. Sinetsita nago —eta ezberdina da— modu gramsciarrean «pentsatu» behar ditugula gure arazoak. Ez dugu Gramsci erabili behar (Marxek denbora luzeegian abusatu dugun eran) Testamentu Zaharreko profeta bat balitz bezala, eta une aiposean, aipamen kontsolagarri eta egokia eskainiko baligu bezala. Ezin dugu «sardiniar» hau zegokion formazio politiko zehatz eta bereizitik atera, XX. mende bukaerara teleportatu, eta gure arazoak gugatik konpondu ditzala eskatu: batez ere, garatu zuen pentsamenduaren bultzada nagusia koiuntura, nazio edo aro batetik besterako orokortasunen transferentzia erraza arbuizatzea izan zenean.

Kartzelako koadernoak lanean azaleratzen den auzia da nik neuk politikaz daukadan pentsatzeko modu propioa benetan eraldatu zuen Gramsciren gaia. Marx eta Leninen testu klasiakoetara joz gero, pentsatuko zenuke Lehen Mundu Gerraren ondoren, garaia definituko zuen garapen historiko iraultzaile bat etorriko zela. Eta egiazki, gertaerek frogatu aski eman zituzten garapen hori jazotzen ari zela pentsatzeko. «Momentu proletario»

---

3 Itzultzailearen oharra: 1987an *Marxism today* (*Marxismoa gaur*) aldizkarian argitaratutako artikulua urte berean emandako hitzaldi batean oinarrituta.

horretakoa da Gramsci bera. 1920ko hamarkadan Turinen, beste toki batzuetan bezala, langile-klase industrialaren abangoardia-ekin harremanean zegoen Gramsci moduko jendeak —garai hartan produkzio modernoaren lehen lerroan zegoenak— pentsatu zuen sikiera gerenteak eta politikariak erditik kenduko balira, proletarioen klase horrek gidatuko zuela mundua, fabrikaren agintea hartuko zuela, gizarteko makineriaz jabetuko zela materialki eraldatzeko, eta ekonomikoki, sozialki, kulturalki eta teknikoki bideratzeko. 1920ko hamarkadako «momentu proletarioaren» egia da oso gutxigatik gertatzeko zori-zorian egon zela. Lehen Mundu Gerra baino justu lehenago eta ondoren, benetan ez zegoen jakiterik halako klasearen gidaritzapean mundua eraldatuko zen ala ez —Errusiarekin 1917an gertatu bezala sobietar iraultzaren ondorioz—. Huraxe zen historiari buruzko ikuspegi proletarioaren momentua. Gramsciren *Koaderno*etako «auzia» izendatu dudana momentu horren ondorenean azaleratzen da historiak, alde proletarioarentz egingo ez zuela onartzearekin batera, bereziki Mendebaldeko Europako gizarte industrial kapitalista aurreratuetan. Gramscik momentu horren desegiteari, porrotari egin behar izan zion aurre: jakiteari halako momentua, behin igarota, ez zela berriz itzuliko forma berean. Gramscik hemen historiaren izaera iraultzailearekin berarekin aurrez aurre egin zuen topo. Koiuntura jakin bat martxan jartzean ez dago «atzerabueltarik». Historiak aldatzen du martxaz. Zelaia bera aldatu egiten da. Momentu berrian zaude. «Koiunturaren diziplinan» egon behar duzu, «indarkeriaz», «intelektualaren ez-kortasun» oro eskura daukazun bitartean.

Horrez gain (eta hau da gaur egun Gramsciren pentsamendua hain garrantzitsua izateko arrazoi nagusietako bat) eskuinak —eta bereziki europar faxismoak— porrot hori hegemonizatzeke zuen gaitasunaren lekuko izan behar izan zuen Gramscik.

Horra hor, beraz, proiektu iraultzailearen atzerakada historikoa, koiuntura historiko berria, eta ezkerrek ez bezala eskuinak dominatzea lortuko zuen momentua. Ezkerrentzat krisi totalaren itxura hartu zuen momentuak eta erreferentzia puntu guztiak, aurreikuspenak, birrindu egin zituen. Unibertso politikoak, bizi izan duzun bezala, kolapsatu egiten du.

Ez dut esan nahi Britainia Handian ezkerria momentu berean dagoenik; baina espero dut antzekotasun harrigarriko

zenbait ezaugarri identifikatzeko gai izatea, izan ere, bi egoera horien arteko antzekotasuna delako *Kartzelako koaderno*etako auzia hain funtsezko egiten duena gure egungo kondizioa zein den ulertzeko. Gramscik ematen dizkigu, ez puzzlea ebazteko tresnak, baizik eta 1980 eta 1990eko hamarkadetako politikari buruz galdera zuzenak egiteko bitartekoak. Gure arreta bizi dugun momentuaren bereizitasunetara eta ezberdintasunera etengabeki bideratuz lortzen du hori. Beti arreta ezberdintasunari ematen tematzen da. Britainia Handian ezkerrek oraindik ikasi beharreko irakaspena da hori. Joera dugu pentsatzeko, ez soilik eskuina beti dagoela gurekin, baizik eta beti dela erabat berbera: jende berbera, interes berberak, pentsamendu berberak pentsatzen. Kontserbadurismo britainiarraren eraldaketa —mundu modernora egiten ari den adaptazio partziala «iraultza» neo-liberal eta monetaristen bitartez— ari gara bizirauten. Thatcherismoak Kontserbadurismoa berreraiki egin du eta baita Alderdi Kontserbadorea ere. Begitarte serioseko negozio gizon utilitarista burges txikiak daude orain aginduan, eta ez basoilar-tirokatzaile, ehiztari eta arrantzale klaseak. Eta halere, eraldaketa horiek borroka zelai politikoa bera begien aurre-aurrean aldatzen ari badira ere, uste dugu ezberdintasunek ez dutela ezertan ere benetako eraginik sortzen. Oraindik ere «ezkerrekoagoa» ematen du klase gidari zaharraren politikak bide zahar beretik jarraitzen duela esateak.

Gramscik bestalde, ondo zekien ezberdintasuna eta bereizitasuna garrantzitsuak zirela. Hortaz, «zer esango luke Gramscik thatcherismoari buruz» galdetu beharrean erreparatu beharko genioke Gramscik ezberdintasun terminoa, koiuntura historiko jakin baten bereizitasuna ainguratzeko zeukan moduari: indar ezberdinak batzen diren moduari, koiunturalki, zelai berria sortzeko, zeinetan politika ezberdina eratzea ezinbestekoa den. Horixe da Gramscik bizitza politikoaren izaerari buruz eskaintzen digun intuizioa, pista bat hartzeko balio diezagukena.

Thatcherismoari eta eskuin berriaren proiektuari buruz, nire ustetan, «Gramsciren irakaspenak» zeintzuk diren azaldu nahi dut lehenik eta behin; eta bigarrenik, ezkerrearen krisiari buruzkoak zeintzuk diren. Thatcherismo gisa ulertzen dudan horren alde zorrotza ari naiz azpimarratzen hemen. 1970eko hamarkadaren erditik aurrera gertatutako eskuinaren proiektu

politiko berriaren zabalkundeari heldu nahi diot. Proiektu diodanean, ez dut (Gramscik ohartarazi bezala) konspirazio esan nahi. Esan nahi dut politika britainiarrean gertatutako agenda berri baten eraikuntza. Thatcher anderearen helburua beti izan zen, ez hauteskunderen atzerabuelta laburra, baizik eta boterearen okupazio historiko luzea. Boterearen okupazio horrek ez zekarren estatu aparatuen kontrola soilik. Izan ere, proiektua estatuaren kontra antolatu zen hasierako faseetan, ikuspegi thatcheriarretik ongizate estatuak eta keynesianismoak sakonki galbideratu baitzuten estatuak, eta horrenbestez «galbideratzen» lagundu zuen baita herri britainiarra ere. «Estatismo» sozial demokratikodun ongizate estatu keynesiar zaharraren kontra sortu zen thatcherismoa, zioenez 1960ko hamarkadatik aurrera nagusi zena. Thatcherismoaren proiektua estatuak eraldatzea zen gizartea berregituratzeko helburuarekin: gerraosteko formazio osoa erdigunetik kentzea, desplazatzea; 1945etik aurrera ezarrita egon zen akordio politikoaren arabera eraturako kultura politikoaren atzerakada —lanaren eta kapitalaren arteko adostasun historikoarena—.

Errotikoa zen saiaturako atzerakadaren sakontasuna: akordio horren oinarritzko printzipioen atzerakada, bermatzen zituen aliantza sozialena eta jendarteraturako balioena. Ez naiz liburuak idazten dituzten pertsonen jarrerez eta balioez ari. Egunerokotasun arruntean nola biziraun eta hurbilen dituztenak nola zaindu kalkulatu behar duten jendearen ideiez ari naiz, ez besterik.

Thatcherismoak zentzu komun arruntaren atzerabuelta bilatzen zuela esaten denean horixe adierazi nahi da. Herri ingelesaren «zentzu komuna» eraiki zen azken gerrak 1930eko hamarkadako garai txar zaharren eta orainaren artean hesi bat altxatzea ekarri zuela pentsatzeari lotuta: ongizate estatuak gertatzeko etorri zen; ez ginen inoiz itzuliko merkatuaren irizpidea erabiltzera pertsonen eta gizartearen beharrezan neurri gisa. Beti egon beharko zuen indar instituzional mailakatu osagarri bat —estatuak, gizartearen interes orokorrak ordezkatzeko zituen— merkatuaren aurka egiteko eta aldatzeko. Guztiz ohartzen naiz sozialismoa ez zela 1945ean estreinatu. Ontzat ematen den ongizate-demokrazia sozialaren oinarri popularrak ari naiz hitz egiten, izena merezi duen edozein sozialismo eraikitzeko ezin-

besteko zoru erreal konkretua sortu zuenaz. Thatcherismoa proiektu horri aurka egiteko eta zalantzan jartzeko proiektua zen, eta ahal zen guztietan desmantelatzeko eta ordainetan zerbait berria jartzeko. Politikaren eremura sartu zen gatazka historiko batean, ez soilik boterea lortzeko, baizik eta autoritate popularra lortzeko, hegemonia.

Aldi berean, atzerakoa eta aurrerakoa den proiektua da thatcherismoa —eta ezkerria nahasten du horrek zeharo—. Atzerakoa da, eremu erabakigarri batzuetan, atzera garamatzalako. Ezingo zenuke atzera ez den beste inora jo herri britainiarren aurrean, XX. mende bukaeran, etorkizunak eskaintzen dien onena bigarrenez «viktoriar eminentek» bilakatzea dela defendatuta. Erabat atzerakoa da, antzinakoa, arkaikoa.

Baina ez gaizki ulertu. «Modernizazio» proiektua ere bada. *Modernizazio atzerakoiaren* forma bat da. Hori horrela da thatcherismoak aldi berean, formazio sozial britainiarri buruzko egitate historiko sakonenetako batean zeukalako begirada jarrita: ez zela inoiz behar bezala sartu zibilizazio burges modernoaren aroan. Ez zuen inoiz egin modernitaterako transferentzia hori. Ez zituen inoiz instituzionalizatu, zentzu hertsian, zibilizazioa eta kapitalismo aurreratuko egiturak —Gramscik «fordismo» deitutakoak—. Ez zituen inoiz estruktura politiko eta industrial zaharrak eraldatu. Ez zen inoiz bigarren iraultza-industrial-kapitalistako indarra bilakatu AEBk egin bezala eta beste bide batetatik (bide Prusiarretik) Alemaniak edo Japoniak egin bezala. Britainia Handiak ez zuen inoiz aurrera eraman XIX. mende amaieran kapitalismoa eta langile-klaseak, biak *berregin* zituen eraldaketa prozesu sakon hori. Ondorioz, Thatcher andereak badaki gaur egun ez dagoela Britainia Handian proiektu politiko seriorik aldi berean gure jendearentzat *modernitatea* zer-nolako izango litzatekeen dioen irudi bat eta politika bat eraikitzen ez duenik. Eta thatcherismoak iraganetik tiraka, daukan modu atzerakoarekin, lehengo lorietara begira, atzerantz aurrerantz beharrean, aro berri baterantz, modernizazio erreakzionarioaren proiektuari eman dio hasiera.

Ez dago ezer erabakigarriagorik, esandakoari dagokionez, Gramscik krisi oro berreraikuntza momentu gisa ere identifikatzea baino. Ez dago suntsipenik berreraikuntza ere ez denik; historikoki ez da ezer desmantelatzen haren lekuan zerbait

berria jartzen saiatu gabe; botere mota batek ere ez du soilik baztertzeko, baita zerbait sortzen ere. Boterearen kontzepzio erabat berria dakar horrek. Ezkerrak krisiaz diharduenean ikusten dugun guztia zera da: kapitalismoa desegiten eta gu kontrola hartzea desfilatzen. Ez dugu ulertzen ordena kultural, sozial, ekonomiko zaharraren funtzionatzeko modu normalaren hausturak aukera ematen duela modu berrietan berrantolatzeko, berregituratzeko eta birmoldatzeko, modernizatzeko eta aurrera egiteko. Behar izatekotan, noski —Ipar Ekialdean, Ipar Mendebaldean, Galesen, Eskozian, meatzari komunitateetan, deuseztatutako industriaguneetan, barnealdeko hirietan eta beste hainbat tokitan— jende andana historiaren zakarrontzira bidaltzea onartzearen truke. Hori da modernizazio kapitalistaren «legea»: garapen desorekatua, desantolaketa antolatua.

Formazio politiko arriskutsu berri honen aurrean, tentaldia beti da ideologikoki desmantelatzea eta, geldiaraztea galdera marxista klasikoa eginda: benetan, nor ari da errepresentatzen? Hori bai, ezkerrak betiko galdera klasiko marxista betiko moldatzen egiten duenean, ez gara benetan galdera bat egiten ari, zerbait baieztatzen ari gara. Aurretik dakigu erantzuna. Noski, eskuinak instrumentu bat besterik ez den estatuaren okupazioa errepresentatzen du kapitalaren bidez. Idazle burgesek eleberri burgesak produzitzen dituzte. Alderdi Kontserbadorea otoi-tz-orduen klase agintaria da eta abar, eta abar. Marxismoa agerikoa denaren teoria gisa. Galderak ez du ezagutza berririk eskaintzen, soilik jadanik bagenekien erantzuna. Jolas moduko bat da, *Trivial pursuit* gisako teoria politikoa. Egiatan, galdera egin behar izateko arrazoia benetan ez dakigula da.

Oso korapilatsua da, modu sinple batean, thatcherismoak nor errepresentatzen duen esatea. Hona hemen biak ala biak, kapital nazionala eta nazioartekoa «errerepresentatzen» eta berreraikitzen laguntzen ari den ideologia burges txikiaren fenomeno nahaspilatsua. Korporazioen kapitala «errerepresentatzean», hala ere, klase subordinatu eta dominatuen sekzio oso esanguratsuen adostasuna bereganatzen du. Zein da ideologia honen izaera, hain kokagune eta interes ezberdinen aukera zabala bereganatzeko gai izan eta denon zertxobait errepresentatzen duela emateko —saiakera honen irakurle gehienak barne!—. Izan ere, ez zaitez tronpatu, gu guztion apurtxo bat

ere egon badago-eta nonbait proiektu thatcheriarraren baitan. Noski, denok gaude ehuneko ehun konprometituta. Baina noizean behin —larunbat goizez, agian, manifestaziora joan baino juxtu lehenago— Sainsbury's-era joaten gara eta, apurtxo bat, subjektu thatcheriar izaten gara. Nola ulertu koherentea ez den ideologia bat, belarri batari kezkarik gabeko merkatu-gizon utilitaristaren ahotsarekin hitz egiten diona, eta beste belarriari, gizon patriarkal burges errespetagarriaren ahotsarekin? Nola funtzionatzen dute batera bi errepertorio horiek? Guztiok gaude nahaspilatuta thatcherismoaren izaera *kontraesankorrarekin*. Gure begirada intelektualarekin, uste dugu mundua kolapsatu egingo dela kontraesan logikoaren ondorioz: horixe da intelektualaren irudipena — ideologiak koherentea izan behar duela, dagokion pieza bakoitza ondo muntatuta, inestigazio filosofiko baten eran. Eta egiatan, Gramscik ideologia organikoa (hau da, historikoki efektiboa) izendatu zuen horren helburu bakarria subjektu ezberdinak, identitate ezberdinak, proiektu ezberdinak, aspirazio ezberdinak konfigurazio bakarrean artikulatzea da. Ez du islatzen, eraiki egiten du «unitatea» diferentziatik.

Proiektu thatcheriarraren menpe egon gara, ez doktrina ofizialak dioen bezala 1983tik edo 1979tik, 1975etik baizik. 1975 da politika britainiarraren klimaterioa. Lehenik eta behin, petrolioaren garestitzea. Bigarrenik, krisi kapitalistaren hasiera. Hirugarrenik, Kontserbadurismo modernoaren eraldaketa lidergo thatcheriarraren etorrerarekin. Horixe da atzerakadaren momentua, Gramscik argudiatu bezala, faktore nazional eta nazioartekoak elkartzean gertatu zena. Ez da hasten Thatcher anderearen hauteskunde-garaipenarekin, politika ez delako hauteskundearen kontua bakarrik. 1975ean lurrartzen du Callaghan jaunaren plexu solar politikoaren erdi-erdian. Callaghan jauna —ordurako jadanik hautsitako ihia— zatitu egiten du erditik. Erdietako bat adiskidetsua, paternalista, sozialki kontserbadorea. Beste erdiak soinu berri bati dantzatzeko dio. Sirena-ahotsetako batek, Peter Jay suhiak, *Timeseko* editore ekonomiko gisa misiolari lanetan monetarismoaren arkitektoetako denak kanta berri bat kantatzen dio belarrira. Lehenengoz ikusi zituen merkatua- ren indar berriak, kontsumitzaile burujabe berriak, marinela bezala muinoaz gaindi etortzen. Eta etorkizunari buruzko limurkeriak aditzean, zaharrak ahoa ireki egiten du; eta zer esaten du?

Musukatzeak bukatu behar du. Jolasa bukatu da. Demokrazia soziala akabatuta dago. Ongizate estatua joan egin da betirako. Garestiegia da. Gehiegi aritu gatzaizkio ordaintzen gure buruari, sasi-lan gehiegi ematen aritu gatzaizkio gure buruari, jolas-den-bora gehiegi izaten aritu gara.

Psike ingelesa begien aurrean kolapsatzen ikus dezakezu gozaten aritu den plazer debekatuen zamaren azpian —permisibitatea, kontsumoa, litxarrerria—. Dena da faltsua: girgileria eta aparra. Arabeek bukatu dute guztiarekin. Eta orain beste modu batera egin behar dugu aurrera. Thatcher andereak «norabide berrri» horretaz dihardu. Psike ingelesaren sakonean beste zerbaiti egiten dio hitz: masokismoari. Ingelesek duten beharrianari, dirudienez, haurtzainaren errieta jasan eta postreirik gabe zigortuta ohera joateko. Uda on bakoitza hoge negu txarrez ordaindu behar direla dioen kalkuluari. Dunkirk Espirituari —orduan eta txarrago egon, hobeto portatzeari—. Thatcher andereak ez zigun oparien gizartea promestu. Esan zuen: burdinazko garaiak; bizkarra hormaren kontra; eutsi goiari serio; mugitu; lanera joan; ez eman amore. Esan zuen: egia zahar saiatuak jarraitu, «Ingalaterra zaharraren» jakinduria. Familiak gizartea batera mantendu du; horren arabera bizi. Bidali emakumea sutondora bueltan. Eraman gizonak Ipar-mendebaldeko mugara. Esan zuen: garai latzak —jarraituz gero, askoz ere beranduago, Betiko Garai Onenen itzulerarekin—. Mahuka luzea eskatu zizun Thatcher andereak —ez bat, baizik eta bi eta hiru legealdi—. Bukatzen denerako, esan zuen, nazioa birdefinituko dut zuek denek, berriro, Inperioa komun-zulotik behera joaten hasi zenetik lehenengoz, Britainia Handi Mugagabeko parte izatea zer den sentitzeko bezala. Berriro bidali ahalko dituzu gure mutilak «hara», bandera inarrostera, itzuleran tropei ongietorria egitera, Britainia berriro izango da Handia. Nire ustez, jendeak ez du thatcherismoaren alde botoa ematen letra txikiak dionenean sinesten duelako. Jende zentzudunak ez du uste Erresuma Batua goraldi zoragarriko ekonomia arrakastatsua denik. Baina thatcherismoak ideologia gisa, herriaren beldurrei, antsietatei, identitate galduei egiten die hitz. Politikaz irudietan pentsatzera gonbidatzen gaitu. Gure fantasia kolektiboari dago zuzenduta, Britainia Handiari komunitate imajinatu gisa, imajinario sozialari. Thatcher andereak erabat menderatu du adierazpide hori, eta bitartean, ezker

atsekabeturik saiatzen da utzikeriaz elkarrizketa «gure politike-tara» eramaten.

Proiektu historiko erabakigarria da hauxe: Britainia Handiaren modernizazio atzerakoia. Jende arrunta bereganatzea, ez inozoak direlako, edo ergelak, edo kontzientzia faltsuak itsutu dituelako. Izan ere, klase kokaguneak edo «produktzio-moldeak» ideien izaera politikoa bermatu ezin duenez, eskuinari posible zaio jendearen esperientziari benetan hitz egiten dion politika bat eraikitzea, Gramscik izaera ezinbestean zatikatua eta kontraesankorra duen zentzu komuna deitutakoan txertatuz, jendearen zenbait aspirazio arrunti erantzunez, eta kasu batzuetan, jendea subjektu subordinatu gisa proiektu historiko batera txertatzeko gaitasunez, —eta erratuta— ezinbestean klase interes propioak zirela pentsatzen genituenak hegemonizatuz. Marxista moder-noetatik lehenengoetarikoa da Gramsci aitortzen interesak ez direla berez emanak, politikoki eta ideologikoki eraiki beharrekoak baizik.

Gramscik Koadernoetan ohartarazten digu krisi bat ez dela bat-bateko gertaera bat, prozesu bat baizik. Denbora luzea iraun dezake, eta modu oso ezberdinetan gainditu: lehengoratzetaz, berreraikuntzaz edo transformismo pasiboz. Batzuetan egonkorrago, besteetan desegonkorrago; baina zentzu sako-nean, instituzio britainiarrek, ekonomia britainiarrak, gizarte eta kultura britainiarrak errotiko krisi soziala bizi izan dute XX. mendearen gehienez.

Gramscik ohartarazten digu gisa horretako krisi organikoak ez direla soilik arlo politikoan lehertzen edo bizitza ekonomiko eta industrialaren esparru tradizionaletan, ez bakarrik klase-borrokan zentzu zaharrear. Lehertzen dira eztabaida ezberdin askotan, ika-mika intelektual, moral eta sexualei buruzko oinarrizko auzietan, alderdien eta errepresentazio politikoaren arteko harremanen krisian —hastapenean, zentzu hertsian, nahi eta nahi ez politikoki artikulatuta daudela inolaz ere ez diruditen askotariko gaietan—. Horixe da Gramscik autoritate krisia deitzen duena, hegemonia krisia edo estatuaren krisi orokorra baino ez dena. Momentu zehatz horretan gaude. 1960ko hamarkadaren erditik aurrera aritu gara halako «autoritate krisiranzko» bidea egiten bizitza sozial eta kultural ingelesean. 1960ko hamarkadan, hasiera batean gizarte ingelesaren krisia

politika britainiarren erdigune tradizioaletik erabat urrundu-  
ta ziruditen antagonismo puntu berrien bueltako eztabaida eta  
borroka batzuetan zegoen seinaleztatuta. Ezkerra egonarriz ego-  
ten zen sarri zain klase-borrokaren erritmo zaharrek berriro ekin  
ziezaioten, benetan eraldatzen ari zirenak «klase-borrokaren»  
formak berak zirenean. Estatu eta gizarte modernoaren egiturak  
eta gizarte antagonismoen puntuak biderkatzen ari diren hei-  
nean, hegemonia, gizarte modernoetan, gune ezberdin askotan  
eraiki, ihardetsi eta erdietsi egin behar dela zioen Gramsciren ja-  
rriera tematsuaren argitan uler dezakegu soilik borroka sozialen  
dibertsifikazio hori.

Gramscik gugatik egin duen gauza garrantzitsuenetakoa,  
hortaz, politika bera ulertzeko *errotik zabaldutako kontzepzioa*  
ematea izan da, eta beraz boterea eta autoritatea ulertzekoa ere.  
Gramsciren ondoren, ezin gara berriz erratu eta pentsatu hau-  
teskunde politikak, edo alderdien politikak zentzu hertsian, ezta  
estatu boterea okupatzeak ere, politika modernoaren beraren  
oinarria konstituitzen dutenik. Gramscik politika erruz zabal-  
dutako eremua dela ulertzen du; gurea bezalako gizarteetan,  
boterea konstituitzeko guneak izugarri askotarikoak izango di-  
rela. Botere eta antagonismo eremuen biderkatzea bizitzen ari  
gara gizarte modernoan. Fase berri honetarako trantsizioa era-  
bakigarria da Gramscirentzat. Lidergo intelektual eta moralaren  
auziak jartzen ditu zuzenean agenda politikoan: estatuaren  
egiteko hezitzailea eta formatzailea, gizarte zibileko «lubaki eta  
gotorlekuak», masen adostasunaren gai erabakigarria eta zibili-  
zazio mota edo maila berri baten sorkuntza, kultura berri batena.  
«Iraultza etengabea» formularen eta «hegemonia zibila» for-  
mularen artean lerro erabakigarria marrazten du. Mugimendu  
gerraren eta posizio gerraren arteko punta zorrotza da: Gramsci-  
ren munduak gurea topatzen duen puntua.

Horrek ez du esan nahi, batzuek Gramsci horrela irakur-  
tzen badute ere, ondorioz estatuak gehiagorik inporta ez duenik.  
Estatua zalantzarik gabe erabat zentrala da aginte erregimen  
baten baitan kontestazio esparru ezberdinak artikulatzeko, an-  
tagonismo puntu ezberdinak. Estatuan nahikoa botere lortu  
dezakezun momentua erabakigarria da proiektu politiko zentral  
bat antolatzeko, orduan erabili dezakezulako estatua planifi-  
katzeko, premiatzeko, akuilatzeke, eskatzeko eta zigortzeko,

botere eta adostasun gune ezberdinak erregimen bakarrean antolatzeko. Horixe da «populismo autoritarioaren» momentua —thatcherismoa aldi berean egotea «goian» (estatuan) eta «behean» (kalean herriarekin)—.

Orduantxe ere, Thatcher anderea ez da okertzen eta pentsatzen estatu kapitalistak izaera politiko bakar bateratua duenik. Oso argi dauka, estatu kapitalista kapitalaren metatze eta errentagarritasunerako epe luzeko baldintza historikoak bermatzeko artikulatuta egonik ere, zibilizazio eta kultura burges patriarkal jakin baten zaindaria izanik ere, kontestaziorako agertokia ere badela eta izaten jarraitzen duela. Esan nahi du horrek thatcherismoa, guztiarekin, klase agintariaren «espresioa» dela soilik? Noski, Gramscik beti ematen die erdigunea klasearen, klase aliantzen, eta klase-borrokaren auziei. Marxismoaren bertsio klasikoetatik aldendu egiten da ez duenean pentsatzen politika dela aurretik bateratutako identitate politiko kolektiboak, eta aurretik konstituitutako borroka formak soilik islatu egiten dituen agertoki bat. Politika berarentzat ez da menpeko esfera bat. Ekonomian, gizartean, kulturen indarrak eta harremanak aktiboki landu behar diren lekua da politika, botere forma jakinak, menderakuntza forma jakinak produzitzeko. Horixe da politikaren produkzioa —politika produkzio gisa—. Politikaren kontzepzio hori funtsean da kontingentea, funtsean da irekia. Ez dago historiaren legerik borroka politiko baten emaitzak halabeharrez zein izan behar duen iragarri dezakeenik. Politika momentu jakin bateko indar harremanen arabera da. Historia ez dago hegaletan zain zure akatsak noiz atzeman, halabeharrezko beste arrakasta bat lortzeko. Galtzen duzu galtzen duzulako galtzen duzulako.

Herriaren «zentzu ona» existitu egiten da, baina politikaren hasiera da soilik, ez bukaera. Ez du ezer bermatzen. Zehazki, Gramscik esan zuen «kontzepzio berriek kokagune izugarri ezegonkorra daukate masa popularren artean». Ez dago historiako subjektu unitariorik. Subjektua ezinbestean dago zatitua, mihizadura da: erdi bat Harri Aroa, besteak barne hartzen ditu «zientzia aurreratuaren printzipioak, historiako iragan fase guztietako aurreiritziak, etorkizuneko filosofia baten intuizioak». Bi gauza horiek daude jendearen buru eta bihotzetan borrokan

norbera politikoki artikulatzeko moduaren bila. Nola ez, jendea proiektu politiko oso ezberdinetarako errekrutatu daiteke.

Gaur egun bereziki, identitate politiko zaharrak kolapsatzen ari diren garaia bizi dugu. Ezin dugu imajinatzen jarraitu Gizon Sozialista deitzen genuen subjektu singular, bakarraren irudiaren bitartez gauzatuko denik sozialismoa. Gizon Sozialista, pentsamendu bakarrarekin, interes sorta bakarrarekin, proiektu bakarrarekin, hilda dago. Eta bazen garaia. Nork behar du orain «gizon hori», aro historiko partikular bakarrari ematen dion arretarekin, maskulinitateaz duen zentzu partikularrekin, harreman sorta partikular batean ainguratuta daukan familia identitatearekin, identitate sexual partikular batekin? Nork behar du «gizon hori» munduko gizakien eta kultura etnikoen aniztasun izugarria identitate singular gisa sartzeko XXI. mendean? «Gizon hori» hilda dago: akabatuta. Gramscik begien aurrean konplexutzen ari zitzaion munduari begiratzen zion. Identitate kultural modernoek pluralizazioa garapen historiko desorekatuaren lefroarteetatik azaleratzen ikusi zuen, eta galdetu zuen: zein dira ordena kultural berri bat eraikitzea posible egingo luketen forma politikoak, «askotariko borondate sakabatuetatik, helburu heterogeneo horietatik» abiatuta. Kontuan hartuta jendea benetan dela horrelakoa, kontuan hartuta sozialismoa egi bilakatuko duen legerik ez dagoela, aurkitu ditzakegu antolatzeke moldeak, identitate moldeak, aliantza moldeak, ikusmolde sozialak bizitza popularrarekin konektatu eta aldi berean eraldatu eta berriro dezaketanak? Sozialismoa ez zaigu historiaren tranpa-zulotik iritsiko halako *deus ex machina* bati esker.

Gramsci beti tematu zen hegemonia ez zela fenomeno ideologiko hutsa. Ezin da hegemoniarik egon ekonomiaren nukleo erabakigarri hori gabe. Bestalde, ez erori ekonomismo mekaniko zaharraren tranpan eta sinistu soilik ekonomiaren kontrola lortuta bizitzako beste guztia mugitu dezakezunik. Auzi politiko, moral, intelektual, kultural, ideologiko, sexualekin harremanean ere eraikita egotea da boterearen ezaugarria mundu modernoan. Hegemoniaren auzia beti da ordena kulturalaren auzia. Gramscik Italiari buruz aurre egin behar izan zion auzi berdinari egin behar diogu aurre orain Britainia Handiaz: zein da zibilizazio berri honen izaera? Hegemonia ez da betiko ezartzen

den grazia egoera bat. Ez da mundu guztia barne-hartzen duen formazioa. «Bloke historikoaren» nozioa zehazki ezberdina da klase agintari, homogeen, baretu batetik.

Mugimendu eta indar sozialek daukaten aniztasunarekin aliantza estrategiko multzoetan nola artikulatu ulertzeko kontzeptio aski ezberdina dakar. Ordena kultural berria eraikitzeke beharrezkoa ez da aurrez-eraturako borondate kolektibo bat islatzea, berri bat fabrikatzea baizik, proiektu historiko berri bati hasiera ematea.

Thatcherismoaren argitan, ondorenean, aritu naiz Gramsciz hitz egiten: Gramsci erabiliz thatcherismoak eta eskuin berriak ezkerari bizitza eta politika ingelesean dakarkioten erronkaren izaera eta sakontasuna konprenitzeko. Baina une berean, halaberharrez ezkeraz ere aritu naiz. Edo hobe esanda, ez naiz ezkeraz hitz egiten aritu, ematen duelako ezkerak, daukan antolatutako forma laboristan, proiektu historiko berri bat sortzeak dakarrenaz arrastorik ere ez daukala. Ez du ulertzen gizakiek eta identitate sozialek daukaten izaera ezinbestean kontraesankorra. Ez du politika produkzio gisa ulertzen. Ez du ikusten jendeak eguneroko bizitzan daukanean sentimendu eta esperientzia arruntekin konektatzea posible dela, eta are gutxiago, sentimendu eta esperientziok kontzientzia sozialaren forma aurreratutako, eta modernoago batera progresiboki artikulatzea. Ez da gure gizartean dagoen indar sozialen aniztasun izugarriarekin aktiboki lan egiten ari, ezta saiaturen ere. Ez du ulertzen zibilizazio kapitalista modernoaren izaera bera dela botereguenak biderkatzea, eta horrenbestez bizitzako esparru gero eta gehiago antagonismo sozialera eramatea. Ez du aitortzen jendeak buruan daramatzan identitateak —subjektibitateak, bizitza kulturala, bizitza sexuala, familia bizitza, identitate etnikoak, osasuna— ikaragarri politizatu direla.

Sinpleki, ez dut uste, adibidez, oraingo lidergo Laboristak ulertzen duenik gizarteko askotariko antagonismo puntuetatik bakarrari beharrez, ezberdinei zuzentzeko kapaz den politika bat eraikitzeke izan dezakeen gaitasunaren arabera dela datozen 20 urteetako patu politikoa; hau da, antagonismo puntuok daukaten ezberdintasunekin proiektu bakarraren baitan batzeko gaitasunaren arabera. Ez dut uste ohartu direnik Laborismoak indar politiko gisa hazteko daukan gaitasuna erabat

baldintzatzen duela mugimendu oso ezberdinen energia popularretatik edateko daukan gaitasunak; alderdi politikotik kanpo daudenez mobilizatu ez zituen —ezin zituen— mugimenduak, eta ondorioz administratu ezin dituenak. Politikaren kontzepzio guztiz burokratikoa mantentzen du. Hitza ez bada lidergo Laboristaren ahoetatik irten, nolabait subertsiboa delako izan behar du. Politikak aldarrikapen berriak garatzeko adoretzen badu jendea, herria artegatzen ari delako seinale garbia da. Baten batzuk kanporatu edo kargugabetu behar dituzu. «Boto-emaile Laborista tradizionalaren» fikzio horretara itzuli behar duzu: politikaren nozio fabiar baretura, masek adituak boterean egoteko bahitzen dituztena, eta gero adituek masentzako zerbait egiten dutenera: beranduago... askoz ere beranduago. Politikaren kontzepzio hidraulikoa.

Politikaren kontzepzio burokratiko horrek ez du zerikusirik askotariko indar popularren mobilizazioarekin. Ez du inolako kontzepziorik jendeak zerbait eginez ahalduzko darabiltzan moduez: lehenik eta behin, berehalako arazoei erantzun; ondoren botereak gaitasun eta desira politikoak zabaldu egiten dizkie, beste behin, mundua gidatzeak zer esan nahi lezakeen pentsatzen has daitezen. Politika laboristak intentzio guztietatik modernoenaekin lotura izateari utzi dio —bizitza demokratiakoaren sakontzearekin—.

Bizitza nazional-kulturalean parte-hartze popularra sakondu gabe, jende arruntak ez du sentitzen benetan ezer gizatzen duela. Politikak gaitasun popularrak, jende arruntaren gaitasunak, zabaltzea dakarrela berreskuratu behar dugu. Eta lortzeko, sozialismoak ahaldu nahi duen jendeari egin behar dio hitz, XX. mende bukaerako herri arrunt gisa jendearenak diren hitzekin.

Ohartuko zinen ez naizela ari alderdi laboristak auzi honi edo besteari buruzko neurriekin asmatu egin duen ala ez. Politikaren kontzepzio oso bati buruz ari naiz: gure imajinazio politikoan gaur, herri britainiarrak aurrean dauzkan hautu historiko ikaragarri handiez jabetzeko gaitasunaz. Nazioaren beraren kontzepzio berriez hitz egiten ari naiz: Britainia Handia mende berrian sartu daitekeela pentsatzen duzun ala ez Britainia Handiak munduan zehar eginiko martxa inperialista penagarri luzearen arabera «ingeles» izatea nolakoa den erabat konstitui-

tutako ulerkerarekin. Horrela pentsatzen baduzu benetan, ez zara jabetu ingelesa *berregiteko* eraldaketa kultural sakonaren beharrianaz. Gisa horretako transformazio kulturalaz dihardu hain justu sozialismoak gaur egun.

Hori bai, ezkerreko alderdi politiko batek, gobernuan nahi beste ardaztua egonik ere, hauteskundeak irabaztean, nire iritziz, zehatz-mehatz gisa horretako erabakia du aurrean. «Langile-klasearen masa alderdiak» aurrez aurre daukan hautu historikoaren izaera noizbait ulertzeko gaitasunari buruz optimista ez izateko arrazoia da, hain justu, susmoa daukada-la alderdi laboristak oraindik ezkutuan pentsatzen duela joko keynesiar, mailaz mailako, ekonomiko-korporatibo zaharrea abagune apur bat gelditzen zaiola. Uste du itzuli daitekeela keynesianismo pittin batera hemen, ongizate estatuaren pixka bat gehiagora han, kontu fabiar zaharren pixka batera... Benetan, etorkizunaz begirada kataklismikoa ez badaukat ere, zintzoki sinisten dut gaur egun aukera hori itxita dagoela. Agortuta dago. Dagoeneko ez du inork sinisten. Beharrezko baldintza materialak desagertu egin dira. Britainiar arruntak ez du horren aldeko botoa emango errailetan badakitelako jada ez dela horrela. Thatcherismoak, daukan jarrera erradikalarekin proposatzen duena ez da zertara itzuli gaitezkeen, baizik eta zein bide jarraitu behar den aurrera egiteko. Aurrez aurre hautu historikoa daukagu: etorkizun thatcheriarraren aurrean kapitulatu, edo imajinatzeko beste bide bat bilatu.

Ez arduratu Thatcher anderearengatik: Dulwich-en hartuko du erretiroa. Baina askoz ere thatcheriar gehiago daude hirugarren, laugarren eta bosgarren belaunaldietakoak, siku-siku eta mardulak, Thatcher anderearen lekua hartzeko zain. Konbentzimendua daukate sozialismoa suntsitze-zorian dagoela betiko. Uste dute dinosauroak garela. Uste dute beste aro batekoak gara. Sozialismoak astiro behera egiten duen bitartean, aro berri bat jaioko da eta gizon posesibo mota berri horiek hartuko dute ardura. Benetako botere kulturalarekin egiten dute amets. Eta alderdi laboristak daukan egiteko modu xuabe-xuabearekin, bazterrik-ez-harrotzekoarekin, hauteskunde-inkestek-gora-egiteko-esperantzadunarekin, azkenean aurrean daukan hautu bakarra da historikoki hutsala bilakatzearen, eta zibilizazio mota erabat berria zirriborratzen hastearen artekoa.

Ez dut sozialismo esan, hitza hain ezaguna izanik ez dezazun pentsatu denok ezagutzen dugun programa zahar bera berriro martxan jartzeaz ari naizenik. Ari naiz proiektu sozialista osoaren eraberritzeaz bizitza kultural eta sozial modernoaren testuinguruan. Indar harremanak aldatzea esan nahi dut —ez Utopia irits dadin hurrengo hauteskunde orokorren ondoren, baiketik eta joerak beste bide bat hartzen has daitezten—. Nork behar du denek denekin ados dauden, denak berdinak diren Zeru sozialista bat? Jainkoak libra gaitzala. Zibilizazio mota berri batek zer izan behar duen erabaki dezagun eztabaida hasteko leku bat esan nahi dut. Posible da Marxen ametsik eroenak gainditzen dituzten eta orain benetan gure esku dauden gaitasun material, kultural, teknologiko berri erraldoiak thatcherismoaren modernizazio erreakzionarioaren alde politikoki hegemonizatzea? Ala posible zaigu historia eraikitzeko, gizaki berriak sortzeko bitarteko horiez jabetzea eta kultura berri bateranzko norabidean bultzatzea? Horixe da ezkerak aurrean daukan hautua.

«Azpimarratzekoa da mundu modernoan», idatzi zuen Gramscik, «alderdi politikoen munduaren kontzepzioak elaboretzeko eta zabaltzeko orduan daukaten garrantzia, funtsean egiten dutena delako kontzepzio horien araberrako politikak eta etikak zeintzuk diren ulertzea, eta 'laborategi' historiko propioa izango balira bezala jardutea».

**2**

# **KULTURAZ**

**KLASEA, ARRAZA ETA  
INDAR POPULARRAK**



# HIRU

## «KALE-LAPURRETAREN» POLITIKA<sup>4</sup>

«Kale-lapurretari» buruzko liburua da hau;<sup>5</sup> baina ez da kale-lapurrek norbanako gisa zergatik edo nola lapurtzen duten azaltzen duen liburua. Lehen eskuko kontakizunak daudenetan, erabilia ere, liburu hau ez da «kale-lapurretaren» esperientzia edo arrazoiak barrutik berreraikitzen saiatzen. Zalantzarik gabe, halako liburua idazteke dago oraindik; baina asko daude horretarako gu baino posizio hobean. Gisa horretako kontakizun berreraikia propio ekidin dugu «kale-lapurreta», fenomeno sozial gisa, argi ezberdinaren azpian erakutsi nahi izan dugulako. «Kale-lapurreta» aztertzea izan da gure helburua lapurreta hori gertatzen den gizartearen beraren ikuspuntutik. Azken atal honetan ere, «kale-lapurretak» esan nahi duen horren aurrezaur paratzen garen honetan, gure helburua ez da behin betiko erantzunak ematea, «kale-lapurren» eta biktimen biografia indibidualen arabera, baizik eta galderarentzako erantzun posible bat aurkitu daitekeen zorua arakatzea, eta halako azalpenak de-  
rriorrez barne hartu behar dituen elementuak identifikatzea.

Egiteko horrek eskatzen digu, 1972 eta 73 urteen eta orainaldiaren artean, «kale-lapurretarekin» era anbiguoan identifikatu den talde sozialaren kokagunea aztertzea: gazteria beltzarena hain justu. Noski, «kale-lapurreta» izendatutako deli-

---

4 Itzultzailearen oharra: Stuart Hallek 1978an Chas Critcher, Tony Jefferson, John Clarke eta Brian Roberts-ekin batera argitaratu zuten *Krisia kontrolatzen. Kale-lapurreta, estatua, eta legea eta ordena (Policing the crisis. Mugging, the state and law and order*, Macmillan press) liburuko azken kapitulua da hau.

5 Kapitulu hau *Krisia kontrolatzen* liburuko azken kapitulua izanik, liburu hartako beste kapituluei egiten zaie erreferentziaren bat edo beste. Beste kapitulu horiek ez dira, noski, liburu honetan bildutakoak.

tuengatik zigortutako oro ez da beltza, inondik ere. Azken aldiko estatistika ofizialek, lehenago aipatutakoek, «kale-lapurreta» izendatutako delituetan gorakada esanguratsua erakusten dute biztanleria beltz nabarmenik ez dagoen hiri batzuetako eremuetan. Eta prentsak «kale-lapurreten» berri ematen jarraitzen du gazte zurienak bezain beste gazte beltzenak. Haatik, gutxik ukatuko luke helburu praktikoko guztietarako «kale-lapurreta» eta «delinkuentzia beltza» birtualki sinonimoak direla egun. «Kale-lapurreten» lehenengo izualdian, lehenago erakutsi bezala, arraza eta delinkuentziaren gaiak «kale-lapurreta» etengabe iluntzen bazuen ere, lotura hori oso gutxitan egiten zen esplizitu. Jada ez da horrela. Biak daude era bereizezinean lotuta: termino bakoitzak besteari egiten dio erreferentzia kontzientzia ofizialean eta publikoan, bietan. Biak daude identifikatuta biztanleria beltz trinkoko eremuetan, bereziki Londres metropolitarrako eremuan. Powell jaunak ere gai horiei buruzko iritziak esplizituagoak egin ditu eta azpimarratu du: «kale-lapurreta Britainiako hiri handi batzuetako populazioaren konposizio aldakorrari lotutako fenomeno kriminala da». Emmanuel Collegeko polizia federazioaren jardunaldietan, Cambridgen, esan zuen «txunditu egin zela ohartzean polizia hasia zela ez soilik esaten, baizik eta baita kritikatzan ere, hain begi bistako egitatea adierazte hutsaren aurkakoak zirenak [...]. Hitz gordin baina eraginkorra erabiltzearren: arraziala da».<sup>6</sup> Momentu batean ulertuko ditugu identifikazio hori produzitu dituzten baldintzak.

Guztiarekin ere, ez dago inondik ere argi zehazki zer *esan nahi duen* «kale-lapurretaren» eta «delinkuentzia beltzaren» arteko parekatzeak. Posible da gazte beltz gehiagok hartzea parte «kale-lapurreta» gisa modu informal eta arruntean izendatutako kaleko delinkuentzian. Zenbait ebidentziak adierazten du horrela, bereziki delinkuentziari buruzko estatistika ofizialean. Posible da, baita ere, gazte beltzek parte hartzen duten edozein motako delitu txikiri egozten zaiola «kale-lapurreta» izendapen beldurgarria. Horretarako ere badago zenbait ebidentzia, kaleko tiradizoez, zorro-lapurretetik eta ebasketek, guztiek, «kale-lapurreta» izendapena erakartzeko duten moduagatik. Posible da «kale-lapurreta» orokorrean delitu «beltza» dela ulertzea, noi-

---

6 *The Daily Telegraph*, 1976ko apirilaren 12an.

zean behin gazte zuriak badira ere legea horrelaxe hausten dutenak. Halaber, horretarako ere badago zenbait ebidentzia. Hortaz, eremu urbano batzuetan «kale-lapurretak» eskalan izan duen hazkundera ere ez da dirudiena bezain «egitate» ximplea. Bi prozesuk hartzen dute parte gutxienez. Lehenik, eremu urbano batzuetan gazte beltzek —estatistikekin zehazki neurtzea ezinezkoa den mailan— hartzen dute parte delitu txikietan, baita «kale-lapurreta» izendatutako horietan ere. Baina bigarrenik, «kale-lapurreta» anbiguotasunik gabe gelditu da gaur egun delitu beltz gisa izendatuta, eremu urbano beltzetan kokatua, eta bertako bizitza baldintzetatik eratorria. Begiratu diezaiogun bigarren garapen horri lehenengo.

### **Erreprimitutakoaren itzulera**

Erakutsi bezala, «kale-lapurretak», delitu jakin batzuen izendapen gisa, erreferentzia arrazialeko konnotazio aberatsak zeuzkan Britainiara inportatu zenean jada, 1971 eta 72ko garaian. Baina hastapenotan alderdi hori diskrezioz tratatzen zen, eufemistikoki. Handsworth-eko kasuan kartzelaratutako hiru mutilen identitate etniko mistoak lurrazpiko gai hori begien bistara azaleratzen lagundu zuen. Baina argudiatu bezala, kasu horretan ere, partzialki baliogabetzen edo subsumitzen zuen «irudi publiko» batek aldi berean iradoki eta desbideratzen zuen elementu arraziala. Laugarren kapituluaren bukaeran eztabai-datu bezala «Ghetto eremuaren» irudia zen hori. Fase horretan, ezkutaketa jolas elaboratuan aritu ziren «kale-lapurreta» eta arraza.

1972 eta 73ko «kale-lapurreten» epidemiaren berehalako ondorenean, terminoa birtualki desagertu egin zen lerroburuetatik. 1974ko udazkenetik aurrera, hala ere, berriro hasiko dira noizbehinkako agerpen irregularrak. Berriro ere modu oso zehaztugabeen erabiliko da —istiluzalekeria burugabearentzako izendapen orohartzailea da, forma klasikoagoan zehazki «kale-lapurreta» gisa atzeman daitekeen ezer izan beharrean—. Hortaz, lotuta agertzen da, adibidez, autobus eta metroko langileen aurkako erasoen arazoarekin. Garaiko lerroburu eta albiste batzuek —denak *Daily Telegraph*-etik hartuak— ilustratzen dute erabileraren hedapena:

Metro- eta autobus-istiluzaleek eraso latza jasan dute (1974ko urriaren 21ean)

Polizia brigadek metro lapurrak zigortu dituzte (1974ko urriaren 21ean)

Garraio buruak dio «liskartien aurka irmo» (1974ko azaroaren 5ean)

Elwyn Jones-ek dio indarkeria zigortu (1974ko azaroaren 16an)

Metro istiluzaleentzat kamara kontrola (1974ko abenduaren 15an)

Autobus indarkeriari buruzko Jenkins-en elkarrizketa egitasmoa (1975eko urtarrilaren 31n)

Kale-lapurrek harrapakin erraza aurkitzen dute Metroan, dio Poliziak (1975eko otsailaren 11n)

Arrazaren gaia irregularki azaleratzen da hor. Albiste batzuk futboleko istiluzaleetasunari egiten diote erreferentzia — delitu «zuria» beltza beharrean—. Gutxienez kasuetako batean erasotako autobus gidaria beltza zen, erasotzaileak zuriak. Toki jakin batzuk zehazteak ordea, aurreko eta osteko loturak berrakibatatu egiten ditu: Brixton, Clapham.

*Delinkuentzia* beltzak profil baxua duela dirudien garai berean, polizia eta gazteria beltzaren arteko konfrontazioak forma ireki eta politizatuagoa hartzen ari dira eremu urbano beltzetan. Garai hartan jazotako antzeko hainbat gertakariren artean, albisteetan gehien informatutako bat izan zen Brockwell Park-ekoa. Komunitate beltz helduak aktiboki hartu zuen parte Brockwell Parken gazteria beltzaren eta poliziaren arteko liskarraldi batean, eta gertakaria komunitate osoari zegokion auzia bilakatu zen. Labur-labur, Brockwell Parkeko su artifizialen erakustaldia, Brixtoneko erdigunetik milia erdira, tirabiran amaitu zen, eta gazte zuri batek sastatuta. Polizia eszenara iritsi zen eta jendetza beltz «haserrekor» batez inguratuta eta gaudituta sentitu zen. Jarraian etorri ziren bultzadak, bulkadak eta ukabiltetak, eta agenteek sosegua galdu zutela ematen du, amorratu eta tirabiran nahastu baitziren jendetzako pertsona beltz jakin batzuekin —meletik astindu gogorarekin irten zen bat baino gehiago—. Polizia-errefortzuak iritsi zirenerako, gazte beltz bat edo bi banakatuta eta akusatuta zeuden. Atxiloketen notiziak bataila luze eta bortitza piztu zuen poliziaren eta parke aurreko jendetza beltzaren artean. Hainbat gazteri eraso-delitu larriak leporatu zizkieten, eta poliziak «Old Bailey» zigor auzitegi zentraleko epaiketa aukeratu zuen —ondorioz, 1974ko martxoan sententzia gogorrak jaso zituzten—. Hiru gauzak be-

reizi zuten gertakari hura, bestela ere, orain arrunta bilakatu den «ghettoko eguneroko bizitzaren» praktikatik. Lehenengoa, polizia eta komunitate beltz osoaren artekoa izan zen polarizazioa orduan —helduak barne hartu zituen—. Bigarrena, eta funtsezkoa, sententziari eta helegiteari komunitate-erresistentziaren forma antolatuak eta politikoak jarraitu zion —besteak beste, babes manifestazioak eta eskolako haurren greba ekarri zituen erantzunak—. <sup>7</sup> Hirugarrena, gertakariak ezinegonaren eta desafekzioaren iturria seinaleztatzeko efektua izan zuen, bereziki, hirigune urbano beltzetan. Delinkuentzia beltza geografikoki eta etnikoki lokalizatu eta kokatu egin zuen hiri barneko «ghettoetan» gazteria beltzaren delinkuentzia propio gisa. 1975 urtearen hasieran, «Londres hegoaldeko delinkuentzia beltzean» eskusiboki zentratuta, albistegietako hedapen masibo eta dramatikoak iragartzen zuen gertakariak. Hortaz, hiru gaiak, «kale-lapurretaren» lanketa goiztiarrean modu sotilean txirikordatuta egon zirenak (ikusi 4 kapituluan egin analisisa), orain gai bakarrean zeuden nahastuta: delinkuentzia, arraza eta ghettoa. Era berean, puntu horretatik aurrera, esplikazio-paradigmak lekualdatu egiten dira, eta lehen baino era esplizituagoan azaleratzen dituzte delinkuentzia beltzaren arazoari dagozkion aurrebaldintza sozial, ekonomiko eta estrukturalak —eta beraz, krisiarekin delinkuentzia eta arrazakeria nahastu zuen azken katebegia ekarri zuen—.

Brockwell Parkeko gertakaria ezin da isolatuta pentsatu. 1973ko abendua bezain goiz ohartarazi zuen poliziaren eta etorkinen harremanei buruzko *Liburu zuriak* (*White paper*) zetozen hilabeteetako beharrianaz. Bereizi egin behar zen «hiritar langile, lege-obeditzaileen gehiengo zabala» eta «gazte beltzaranaren gutxiengo txikia», lan-aukera faltarekin deskontent eta «irudi luke Estatu Batuetako komunitate beltza imitatzeke irrikaz»<sup>8</sup> zegoena. «Langile» esamoldeari erreferentzia ez zen ausazkoa. Eremuotako gazte beltz langabetu kopuru esanguratsuaz gain, ebidentziak pilatzen zihoazen garai hartan, baita «lanarenganako» desafekzio gero eta handiagoaz, eta are aktiboki «lan egiteari uko egiten» ziotenez ere, bereziki bigarren belaunaldiko beltzen artean. Horixe izan zen, hain justu, *Race today* (*Arraza*

---

7 Ikusi kontakizun osoa eta zehatza *Race Today*n, 1974ko ekaina.

8 Ikusi I. MacDonald, *Race Today*, 1973ko abendua.

gaur) aldizkariak «soldatagabeen errebolta» gisa artikulatu eta garatu zuena. Garai hau izan zen, baita ere, oraindik lanean zirauteen etorkinak bete betean ekintza industrial militantearen parte bilakatu ziren garaia. Imperial Typewriter enpresako greba luzeak, asiar emakume langileen militantzia gogoangarriak eutsitakoak, hamalau aste iraun zituen 1974 erdian, eta ondorioek etorriko zen urteari eragin zioten.<sup>9</sup>

1975eko urtarrilean berriro hasiko da «kale-lapurreten» izualdia. Zikloko fase guztiz berriari emango zaio hasiera orduan. Derek Humphry-k Londres hegoaldeko delinkuentzia beltzari buruzko lanari hitzaurrea idatzi zion, esperantzarekin, berriro azalduko zituen egitateak ez zirela erabiliko aurreiritziak elikatzeke.<sup>10</sup> Baina alferrikako esperantza zen. Delituen datuen atzean zeuden oinarrizko arazoak —«pobrezia, etxebizitza eskasa, lan falta eta desagindako familiak»— Humphryren arabera ez ziren aski dramatikoak edo aipagarriak. Aipagarriagoa zen Lambeth-eko kaleko delinkuentzia «bost urtetan hirukoiztu egin zela eta 1974 izan zela erregistratutako txarrena». Edo aipagarriagoa zen Lewisham-eko «203 kale-lapurretetatik» 1974an «172 izan zirela gazte beltzek egindakoak». Kontu handiz adierazita bazegoen ere, aipu selektiborako gonbita zen artikulua, batetik, gairako sarbide nagusi gisa «delinkuentzia» bezalako auzi ikaragarri eztabaidatsua aukeratu zuelako, eta bestetik, arrazakeriaren izaera instituzionalizatuaren azpiko «oinarrizko arazoak» seinaltatzeko ezintasuna izan zuelako. Edozelan ere, beltzen beren arteko etsaitasuna eragin zuen, neurri handi batean, artikulua ulertu zen moduagatik. *London Evening News* egunkariak gaiari eskaini zion lau eguneko «gehigarrietatik» lehenengoa zabaldu zuenerako, hizkuntza eta tonua ez zeuden hain zainduta eta deskribapenak hain kontuz marraztuta. Lehenengoa, urtarri-laren 12koa, dezente gordina zen: «Londreseko bizitzaren egia biolentoa». Konparaketa aski ezagunarekin irekitzen zen testua: «Kale-lapurreta jasateko aukera gehiago dauzkazu Lambethen New Yorken baino». Jarraian azken egunetako gertakarien zerrenda ematen zen *Sunday Times* egunkariaren estatistiken bertsiio editatuarekin batera. Egiatan, *Evening Newseko* erreportajeek

9 Ikusi M. Dhondy, *Race Today*, 1974ko uztaila; ikusi baita *Race Today*, 1975ko martxoa.

10 «Danger Signals from the Streets of Lambeth», *The Sunday Times*, 1975eko urtarriaren 5ean.

ez zuten lerroburuek promestutakoa erabat ematen. Urtarrilaren 12an John Blake-n artikuluak «biztanle lokal beldurtuez' bazihar- duen ere, funtzionario lokal zenbait aipatzen zituen «jendea ez beldurtzeko» arduratuta. Eta artikulu horrek eta jarraitu zio- tenek azpimarra handiagoa egiten zuten zirkloaren aurreko faseko erreportajeek baino «inguruneari» zegokien kausetan: «jolas, opor eta opari gabe, gaztetxoek hasiera txarra daukate»; «bel- tzek sentitzen duten isolamendu sentsazio gero eta handiagoa»; «dauzkaten arazoak ulertzeko gai ez dela dirudien hezkuntza sistemaren eta identitate umiliagarriak inposatzen dizkietela di- rudien gizarte zuriaren artean harrapatuta». Eraldatutako patro- i hori ez zen unibertsala. Garai berean, *Birmingham Evening Mail* egunkaria gaira itzuli zenean —1974ko abenduaren eta 1975eko urtarrilaren artean bi azaletako berri nagusiak barne— «kale- lapurreta» izendapenaren erabilera orokortua bereizezina zen 1972 eta 73ko patroitik: «abusatzaileak, kale-lapurrak, bandaloak eta exhibizionistak jabetu dira metroaz».

Baina beste nonbaiten, esanahi-patroiaren aldaketa na- barmena *egon zen*. Ordura arte anbigua zen delinkuentzia beltzaren balizko egoera argitu eta enfokatu egin zen. Daukan traza arraziala ukaezina da orain: biktimak klase-ertaineko zu- riak dira; erasotzaileak beltzak; tokiak Londres hegoaldeko parte zehatzak dira. Zigor-politikei buruzko galderak, lehenagoko ez- tabaidetan nagusi zirenak, absente daude gehienbat; eta *arazo sozialari* buruzko ikuspuntua hartu da kasik unibertsalki.

Enfasi— eta azalpen-aldaketa horri iturrietara jarraitu behar zaio arrastoa. Londres hegoaldeko kaleko delinkuentzia- ri buruzko txosten berezi batek abiarazi zuen Humphryren artikulua, Scotland Yardek prestatu eta Barne Ministroari pasa- tutako (eta osorik egundo jendarteratu gabeko) txosten batek. Delinkuentzia beltzaren estatistiken gorakadaren izualdia eta ingurunean oinarritutako arazo-sozialei dagozkien delinkuen- tziari buruzko azalpenak, biak ala biak agertzen dira txostenean eta baita txostenari buruz egindako ondorengo iruzkinetan ere. Humphryk eta beste batzuek txostenetik aipatutako estatistikek erakusten zuten: lehenik (delinkuentzia-estatistikei buruzko egitate garrantzitsu baina ordura arte kontuan hartu gabekoa), polizia, kasuotan, biktimen eta erasotzaileen arraza erregis- tratzen hasi zela «arrazoi operazionalengatik» ; eta bigarrenik,

zenbait estatistika konparatibo beldurgarri. Besteak beste, aditzera ematen zuten delitu kopurua kasik Lambeth eta Lewishamen bezain handia zela Londres hegoaldeko beste barruti batzuetan; «erasotzaileen %80a beltza eta biktimen %85a zuria» zela; jada 1972an «persona-lapurreten» gisako ofentsek gailurra jo zutela eta gehiengo garrantzitsu bat beltzek egindakoak zirela. *Baina* diotenez, era berean, txostenean argudiatzen omen da «ez d[ela] kontrol polizialaren arazoa: Mendebaldeko Indietako gazteriak gizarte zuritik jasaten duen alienazio zabalak eragiten du[ela] kaleko delinkuentziaren gorakada».<sup>11</sup> Eta Marshall komandanteak, orduan polizia metropolitarraren komunitate harremanen departamentuko burua zenak, estatistikak iruzkindu zituenean ahalegin berezia egin zuen hiriko tentsioak, langabezia altua, belaunaldi-arrakala, identitate kulturalen arazoak eta «ahots beltz estremisten» influentzia aipatzeko faktore eragile gisa. Humphryk esan zuen egindako elkarrizketek argudio ildo hori baieztatzen zutela: «Gaur egun, arrazoitzen dute ez dagoela lan askorik eskuragarri eta edozein kasutan ere, lanok ez dituztela beltzek lortuko» (Norris Richards-en aipua, Peckham-eko gazteekin diharduen gizarte-langilearena). Esandakoaz deigarria da bi ikuspuntu ezberdin eta itxuraz kontraesankor ari direla hartzen aldi berean: delinkuentziaren kontrol polizialaren ikuspuntua, eta arazo-sozialari dagokion ikuspuntua. Gainerako hedabideek estatistika kitzikatzaileei gogor heldu bazieten ere, gutxik egin zioten uko hurrengoan erreparatzeari, «poliziak lehenengo aldiz jarri ditu populazioari, etxebizitzari, eskolari eta enpleguari buruzko estatistikak delinkuentziari buruzko datuekin batera».

Perspektiba bikoitz horren erabilerak —1972 eta 73 urteen garaiko enfasi ezberdinekin konparatuz gero— azterketa sakonagoa eskatzen du. Ghetto guneeetako komunitate beltzaren —bereziki, gaztearen— eta poliziaren arteko polarizazioak eta etsaitasunak areagotzen jarraitu zuen. Baina eguneroko jazarpen polizialari ematen zitzaion *erantzun* beltzaren tempo eta izaera aldatzen ari zen. Erantzuna zorrotzagoa, azkarragoa, eta gogorragoa bilakatu zen —batez ere, antolatua, kolektiboa eta *politizatuagoa*—. Kontzientzia etnikoaren politizazio hori gune beltzetan *kokatuagoa* ere bilakatu zen. 1970eko hamarka-

---

11 1975eko urtarrilaren 5eko *The Sunday Times*eko aipua.

daren hasieratik polizia izan da, praktikan, populazio beltzaren baitako desfekzio zabala geldiarazteko eta kontrolatzeko arduraduna, eta desfekzio hori gune beltzetara konfinatzen saiatu da. Hala ere, 1974 osteko garaian, faktore berriek errebolta beltz baten hastapeneko egoera osatzen zuten. Krisi ekonomiko gero eta larriagoak ekarri zuen, adibidez, langileria beltzak —eta langileria osoan hartzen zuen kokagune estrukturalagatik, batez ere, eskola-graduatuak lortu berritan lehenengoz lan bila zebiltzan gazte beltzek— *etnikoki ezberdina zen klase frakzio bat konstituitzea* —langabeziaren gorabeherak gehien jasateko arrisku handiengan zeudenen frakzioa hain justu—. Langile beltzen artean indarra hartzen ari zen militantzia industrialaren zantzuekin egiten zuen bat faktore horrek. Are gehiago, krisiak murrizketak ekarri zituen gastu publikoan eta ongizate estatuan —erabat kalkulaturakoak, beste behin, barrualdeko gune urbano eta beltzen kontzentrazio handiko guneek pairatu zituzaten—. Hortaz, kontzientzia beltzari esker jadanik mobilizatuta zegoen populazioaren sektorea, orain, krisi ekonomikoaren bizkortzea jasateko arrisku handiengan zegoen sektorea ere bazen. Labur esateko, krisiaren arraza eta klase alderdiak sinkronizatzen ikusten ditugu hemen bete betean. *Beltzak* polizia kontrolatzea, eta *pobreak* polizia kontrolatzeko arazoa eta *langabetuak* polizia kontrolatzeko elkarrizketak arriskua zegoen: hirurak zeuden gune urbano berberetan kontzentratuta —jakina, kontzientzia militantea ernatzea errazten duen homogeneotasun geografikoaren elementua eskaintzen zuen kontzentrazio horrek—. Ondorio praktiko guztietarako, beltzak polizia kontrolatzeko etengabeko arazoa eta *krisia* polizia kontrolatzeko arazo zabalagoa sinonimoak bilakatu ziren (emaitza hori, zoritxarrez, langabetuen aurkako eraso polizialarekin baieztatu egin zen erabat 1976ko martxoaren 19ko lanerako eskubidearen manifestazioan). Kontrol polizialaren jardunean gertatzen ari ziren funtsezko aldaketan aurrean, ez da harriztekoa polizia eta Barne ministerioa estu eta larri egotea arrazaren arazoaren dimentsio sozial eta ekonomikoak agerian gelditu zitezkeelako —eta ezinegon sozialaren kostu potentziala ekar zezakeelako— egoera orokorraren ardura nagusia zeukan estatuko mailarentzat: gobernuarentzat eta politikarientzat. Horrengatik eman ziren pausuak arazoa erantzukizunen hierarkian gora mugitzeko eta

erreferentzia markoa zabaltzeko —barne hartzeko, adibidez, hiri-sorospenari eta gizarte langintza asistentzialari buruzko auziak bezainbeste, delinkuentziari eta ordena publikoari buruzkoak ere—. *Krisiaren alderdi ezberdinen sinkronizazio* hori apuntatzen dute adierazle sozialei eginiko erreferentziek eta delinkuentziaren adierazleek. Marshall komandanteak eta beste batzuek iradokitakoaren aurka, beltzak eta gune beltzak kontrol polizialari atxikitako arazo mota askoz ere handiagoa bilakatzeko arriskua *zegoelako* bihurtu ziren beltzen baldintza sozial alienatzaileak, bat-batean, ardura «polizial».

Erantzun ofizialaren izaera azaltzen ere laguntzen du esandakoak. Krisi ekonomikoa sakondu ahala, azaleratzen ikusi dugun ikuspuntu bikoitzari erantzuten dion estrategia bikoitz baten ebidentziak daude. Estrategia «egoera baretzeko» diseinatu dute. Batetik dago hiriko sorospen programak garatzea, ongizaterako proiektu «herrikoi» beltzak era zuzenagoan laguntzea, porrotera kondenatutako komunitate garapenerako proiektuen fasea, eta are «hiriko barne zirkuluei» berriki bideratutako ezohiko laguntza ekonomikoa ere, Shore Ingurumen ministro jaunak eta Whitelaw oposizioko itzaleko kabineteko pareko zenbaki jaunak garatutakoa. Aldi berean, pausuak eman dira aginte gogor, oldarkor eta bortitza mantentzeko kaleko kontrol poliziala indartuz, bereziki «arazo-puntu» urbanoetan. Konbinatutako estrategia horrek definitzen du —hau da, pobrezia bideratutako finantziazioak gehi ordena publikoaren kontrol polizial indartsuak definitzen du— «kezka sozial» areagotuko garaiaren izaera zehatza, zehazki, gobernu laboristaren itzulerak abiarazi zuena. Izaera propioa beste norabide batetik zeukan «gaindeterminatuta». Ghetto guneak iraunkorki hondatuta zeudela nabarmentzeko lobby-lan aktibo eraberrituan ziharduten komunitate harremanen, arraza-harremanen, eta liberal zurien instituzioen aldekoagoa zen ziurrenik alderdi laborista. Hala ere, ebidentzia argiak daude hain justu garai honetan erresistentzia herrikoi eta komunitarioa komunitate beltzetan garatu ahala, paraleloki gertatu zela arraza-harremanen agentzia profesionalen sinesgarritasun, konfiantza eta legitimitate galera, eta azkenik, erakunde beltz aktibistagoetara eta estrategia beltz politizatuagoetara igaro zela ekimen gaitasuna. Komunitate beltzetan ondo errotutako eta talde militante beltzak babestutako pren-

tsa beltzaren hazkundera irudi osoaren parte erabakigarria —eta zirrargarria— da garai honetan. Baina horrek esan nahi zuen hierarkian gorago, zenbait kontraneurri ere hartuko zituztela estatuaren eta komunitate beltzaren arteko «komunitate-harreman» erabakigarriaren bitartekaritza-agentzien legitimitatea indartzeko, ez zedin ekimena militanteen eskuetara guttiz igaro. Egoera ekonomikoa kaskartuta ere hiriko sorospen programa mantentzea eta aukera berdintasunaren komisio berriaren bitartez arraza-harremanen «establishmenta» berreraikitzea, baretze eta kontentzio estrategia beraren emaitza dira. Garai honetan zehar, beraz —1974ko gertakariak abiarazitako garaian— badirudi, krisiak areagotuta eta estututa, «kontrol sozialari» eta «arazo sozialari» buruzko ikuspuntuen bateraketa dariela arrazaren arazo urbanoaren baitako indar guttiz kontraesankorrei. Hala ere, krisia luzatu eta sakondu ahala, are «kontentzio diziplinatuaren» azken ariketa horrek ere gainditu egin ditu muga ofizialak, eta arraza-arazoaren eta klase-arazoaren aurrekusi gabeko bateraketari neurri osoa hartzera behartu da gizartea. Hori gutzia, kontrola galtzen ari den krisiaren markoaren barruan. Arrastoa jarraitu diogun «hegemoniaren krisi» luzearen momentu bakoitzean egia izan da krisiaren korrelazio objektiboa eman duela *arrazak*. Hau da, krisiaren osotasunak gizarte osoan izandako inaktuak eragindako beldur, tentsio eta antsietate konplexuen gudu-zelaia erarik komenigarrienean eta esplizitue- nean proiektatu dezake *arrazak*, eta esaera eufemistikoak dioen bezala, «irtenbidea eman».

Ohi bezala, «irtenbidea emateko ariketa» hori epaitegi britainiar batean hasi zen Mendebaldeko Indietako bost gazteri bost urteko kartzela edo atxiloketa zigorra ezarri eta, esajeratu gabe, «gazte beltzen aurkako gerra deklarazio» gisa deskribatutako adierazpenekin. Izan ere, Brixton eta Clapham buruz hitz eginenez, hurrengo ahartarazi zuen Gwynn Morris epaileak 1975eko maiatzean:

Gure memorian, bizitzeko baketsuak, seguruak eta atseginak ziren gune horiek. Baina azken 25 urteetan gertatutako etorkinen beregonkortzeak erradikalki eraldatu ditu inguruak. Legea eta ordena mantentzearekin arduratuta daudenak zailtasun izugarriekin egiten dute topo. Kasu honek nabarmendu eta azpimarratu ditu ilundu ondoren ka- lean bakarrik dauden emakume zintzo, errugabe eta langileek aurre egin

beharreko arriskuak. Ohartzen naiz Mendebaldeko Indietako emakume bakar bat ere ez zutela eraso.<sup>12</sup>

Populazio urbano beltz osoaren aurkako eraso zuzen horendoren ondoren etortirako ekaitz betean, epailea hurrengo saiatu zen iradokitzen: «ez nengoen erasorik egiten herri honetan egonkortu den etorkinen gehiengo handiaren aurka, legea obeditzen duten hiritarrak direla demostratu baitute eta inolaz ere kritikatu ezin baitaitezke». Zaila da, zerbait esatearren, iradokitakoaren dirdira eta esandakoaren edukia batera jartzea. Edozein kasutan, adierazpenaren atzeko intentzioak zirenak zirela ere, soilik eskala handiko «izualdi beltz» gisa deskribatu daitekeenaren hasiera markatu zuen. Eta izualdia arindu eta lasaitu gabe mantendu zen urte osoan zehar, eta indartsuago jarraitu zuen 1976an.

1975eko urrian, Fronte Nazionalak manifestazioa antolatu zuen East End-en. *Kale-lapurreta beltzaren* aurka zegoen bereziki zuzenduta —erreserba, kaketx, eta zalantzarik gabe—. Beltzek antolatutako kontramantestazio batek egin zion aurre. Biak bananduta mantendu ziren bakarrik poliziaren gidaritza ernearen indarrari esker. Arrazaren auziak kaleak hartu zituen. Erakunde argi eta garbi faxistak, gerra baino lehenago juduetan jopuntua jarri zuten bezala, orain, beltzenganantz biratzen zebiltzanak, 1950eko hasieratik aritu ziren, nola ez, arrazaren auzitik zerbait atera nahian. Mosley-zaleek 1958ko Notting Hilleko arraza-istiluetan hartu zuten parte. 1960ko hamarkadan zehar, etorkinen aurkako erakundea propaganda arrazista gutun-azal zurietan kaleratuz aritu zen aurreiritzizko oinarria eraikitzen. 1966an, ofizialki eratu zen Fronte Nazionala —eskuin muturreko bost talderen amalgama (Imperioaren Loialisten Liga, Britainia Handiangoaren Mugimendua, Alderdi Nazional Britainiarra, Iraupen Arrazialaren Elkartea eta Alderdi Nazional Ingelesa)—. John Tyndall eta Martin Webster-en gidaritzapean, Frontea agente aktiboena bilakatu da faxismo arrazial irekia maila herrikoian hedatzen. Langile-klaseko eta klase ertain baxuko guneeetan eta eskoletan egonkorki aritu da errekrutatzen. Agerkari propioen salmentak — *Spearhead* eta *British National News*— handituz joan dira. Lehenengo hautagaia, Fountaine jauna, 1968ko Acton-eko hauteskunde partzialetan aurkeztu zen, eta galdu egin

---

12 *The Daily Mailen* aipatuta, 1976ko maiatzaren 16an.

zuen diru-gordailua. Ordutik baina, garaipen elektoral esanguratsua izan ditu. Ondoz ondoko hiru hauteskunde orokorretan borrokatu zuen, bakoitzean hautagai gehiagorekin, bakoitzean inkestetan zegokien puska handituta. Alderdiak edo alderdiaren jarraitzaileek kontseilu lokaleko hainbat eserleku irabazi zituzten. 1976ko maiatzean, hauteskunde lokaletako parte-hartzeak (176 hautagai aurkeztu zituzten hogeita hamalau barrutitan eta 49.767 boto jaso) ikaragarri arrakastatsuak izan ziren. Hogeita bat barrutitan boto liberala gainditu egin zuen. Leicester-en botoen ehuneko 23,2 eskuratu zuen; Hariney-n, 13,1; Ilington-en, 9,4. Jarraitzaileetako bat, Read jauna, Blackburn-eko kontseilu lokalerako aukeratu zuten. Babesa handitzen ari zaio Londres, West Midlands eta Leicestershire bezalako guneez berdinetan.<sup>13</sup> Gerraurreko faxismoari lotutako gaiak alde batera utzita, Fronteak politika arrazista, anti-etorkin agerikoak besarkatu eta erabateko aberriratzearen, eta legea eta ordenari dagozkion muturreko politiken alde egin du *errepertorio* nazional-sozialistako gai burges-txiki klasiko batzuekin konbinatuta —anti-bankari, anti-negozio-handi, anti-sindikatu, eta «gizon txiki» zapalduaren alde—. Krisi ekonomiko garaian antolatutako gabeko langile-klase zuria asetzeko ondoen kalkulaturik dauden gaiak darabiltza. Nola ez, pozik jaso du publizitatea eta talde beltzekin eta eragile antifaxistekin izandako kale konfrontazioetan bizitako kontestazioa. Eszenatoki politikoko agerraldi txiki baina potentea (inola ere bazter extraparlamentarioetara mugatuta ez dagoena) izan da norabide arrazista agerikoan sentimendu popularrak polarizatzeko indar garrantzitsuenetako bat. Arrazakeriazko espasmo bakoitzean, edo bakoitzetik hurbil, egon da Frontea, eta 1976 hasieratik aurrera dardarak bidali ditu gorputz politikoan zehar. Halaber, 1976 izan da argumentu sofistikatutako behar izan ez den urtea krisi orokorraren eta arrazakeria-sukarraren mediku-txostenaren *barne loturak* erakusteko. Krisiaren adierazle ekonomikoetan eta politikoetan gertatutako mugimendu bakoitzak erredukzionismo ekonomikoaren formarik muturrenera tentatzen gaitu, mugimenduok arrazaren indizearen zabukada bakoitzarekin etorri direlako berehala.

---

13 *The Times*, 1976ko uztailaren 2an.

Zaila da komunikatzea, egoki baina labur, 1976an gizartean zehar dardara sismikoak balira bezala igaro diren arraza-auzien sekuentzia eta larritasuna. Zaila da komunikatzea eman zaien estaldura mediatiko nazional eta lokalaren eskala, izaera eta intentsitatea. Martxoan galdeketa berri bat egin zuen polizia metropolitarraren komunitate harremanen adarrak eta memorandum gisa bidali zuen arraza-harremanei buruzko Komunuen Ganberako batzorde hautatura. Brixtonera soilik mugatuta, galdeketak erakutsi zuen erasotzaileen identitate etnikoari buruzko biktimen oharrek bat egiten zutela polizia atxiloketen xehetasunek ezagutarazitakoekin. Biek adierazten zuten beltzek egindako lapurretak «ehuneko 80 ingurukoak» zirela gune horretan.<sup>14</sup> Powell jaunak polizia federazioari Cambridgen eskaini zion «delinkuentziari» buruzko mintegian, lehenago aipatutakoan, kale-lapurreta zalantzarik gabe azaldu zuen «zatitutako gizarte baten ondorio gisa, eta desintegrazio sozialarekin erlazionatuta. [...] Kale-lapurretaren alderdi batzuk jarrai, iraunkor eta zaharkituak badira ere», onartu zuen Powell jaunak —adierazitakoen inposizio orokorra berresteko soilik balio zuen moduan— «hitz honek zerbait partikularki berria deskribatzen du orain. Zerbait berri hori [...] konektatuta dago gure hiri handi jakin batzuetako populazioaren osaketan gertatzen ari den aldaketekin».<sup>15</sup> Mintegi berean, John Alderson jaunak, Devon eta Kornubiako polizia buruak eta Bramshill polizia eskolako komandante ohiak proposatu zuen kaleko delinkuentzia borrokatu zitekeela «langabetuen taldeetatik atera zitezkeen bereziki trebatutako boluntario patruilekin». Apiril eta maiatz hasieran zabaldu zen pasaporte britainiarra zeukaten malawi-asiar kanporatu batzuk Britainian egonkortzea bilatzen ari zirela zioen berria. Ugandariarekin lehenago gertatu bezala, prentsa nazionaleko zenbait sekziok sistematikoki artikulatutako izu-erantzun aski sakona piztu zuen notiziak. 1973tik aurrera, asiarrei zegozkien mendeko etorkinen erregulazioak aparteko zorrotzasunarekin administratu ziren inmigrazio-kateko mutur asiar eta britainiarrean, bietan. Sarbidearen zain daudenen kopuruak gora egin zuen, eta baime-na lortu aurreko ikerketa luzeei eta sarrera-portuen prozedura

14 *The Sunday Times*, 1976ko martxoaren 28an; ikusi baita ere M. Phillips, «Brixton and Crime», *New Society*, 1976 uztailaren 8an.

15 *The Times* eta *The Guardian*, 1976ko apirilaren 12an.

sarri umiliagarriei buruzko kexak areagotu egin ziren (1974an parlamentariak ministroei helarazi zizkieten atzerapenei buruzko 1.722 kexa-gutunak erakutsi bezala).<sup>16</sup> Baina lekualdatutako asiarren «uholde» berriaren espektroak erreakzio olatu berria jarri zuen martxan. Dagoeneko klasikoa den pagaburuak abiarazi zuen olatua: Crawley-ko gizarte zerbitzuek lau izarreko hotel batean aldi baterako ostatu emandako Suleman eta Sacranie familien kasua. Asiar «uholdeen beldurra» eta ongizate prestazioen aprobeitxategien «izualdia» nahasten zituen kontakizunak aitzakia perfektua eman zuen historia arrazistaren «sasoi irekia» abiarazteko. *Sun* egunkariak eman zuen lehen berria: «asteko 600 liberako etorkinen eskandalua. Faktura erraldoia 4 izarreko hotelean bizi diren bi familiagatik». Besteek jarraitu egin zioten («diru gehiago nahi dugu» diote asteroko 600 liberako asiarek): *Daily Mail* egunkariak 1976ko maiatzaren 5ean; «Migratzaileak hemen soilik ongizate laguntzengatik»: *Daily Telegraph* egunkariak 1976ko maiatzaren 5ean). «Beste 4000 daude bidean», promes egin zuen *Sunek*. 145.000 izan zitezkeela ohartarazi zuen *Daily Express*ek hile berean beranduago. «Arnold familia landa-etxe atxikia saltzen ari da, auzokide indiarretatik ihes egiteko. Barrington familiak ondoko etxe semi-atxikiko Singh-ak toleratu egiten ditu», Mailek borobildu zuen esanez «baina nahiago lukete hor egongo ez balira». <sup>17</sup> Pentsaren oldarraldi etengabe horretan, arrazaren eta ongizatearen aurkako gaiekin nahastuta, krisiaren bi alderdi identifikatu daitezke berriro ere.

Eltzera Powell jaunak beste lehergai bat jaurti zuen. Kolpe azpimarragarrian inmigrazio gaitan erantzukizun berezidun Donald Hawley azpi-idazkariaren laguntzaileak idatzitako kanpo harremanen txosten pribatu bat harrapatu eta ezagutzera eman zuen Powellek. Gutunak argudiatzen zuen inmigrazioaren araudiak apurtzen eta ahultzen ari zirela Asian, eta Britainian berriz, laxoegi ezartzen, horrek zekarren asiar azpikontinenteko «etorkinen marea-gorakadaren» mehatxuarekin. Txosten hori, egitan, gobernuaren baitako barne gatazka baten emaitza izan zen. Alex Lyon jauna, barne ministerioko estatu ministro laborista, inmigrazio gaitan erantzukizun bereziarekin hura ere, arduratuta

---

16 Ikusi *Race Today*, 1976ko ekaina.

17 *The Daily Mail*, 1976ko maiatzaren 24an.

egon zen denbora luzez mendeko Asiarren ilara luzatzearekin eta konprometitu egin zen «herri honetan beltzentzako nola-baiteko justizia lortzen saiatzera».<sup>18</sup> Ardura horiengatik kaleratu zuten gobernutik. Sutsuki argudiatu zuen Hawleyren dokumentuaren oinarri faktualen kontra, eta izan ere, txostenari diseizio zorrotz eta gogorra egin zitzaion *Sunday Times*en.<sup>19</sup> Baina Powellen filtrazioaren ondorengo Komunen Ganberako eztabaidan, Bottomley jaunak, Komunen Ganberako batzorde hautatuko zuzendariorde ohi laboristak, adierazi zuen «egia asko dago[ela] txosten honetan»;<sup>20</sup> eta hedabide gehienek eman zuten filtrazio sentsazionalistaren berri hurrengoan gisako lerroburuekin, «Egia jalgiko da» (*Telegraph*), «Etorkinak: nola engainatzen den Britainia», «Nola jotzen zaion adarra Britainiari», «Iruzurra gelditu behar izan zenean», «Britainian oldarka sartzeko asmoa dauden jende ilara zabala», «Ezkongaiaren iruzur-trikimailu handia» (bostak ala bostak *Daily Mail* egunkariakoak).<sup>21</sup>

Garai horretan, azkenean, arrazaren gaiaren estaldura mediatiko osoak kritika mikatza jasan zuen kazetari beltzen eta hedabideetako analista zenbaiten partetik.<sup>22</sup> Hawleyren filtrazioari buruzko Komunen Ganberako eztabaidan, Roy Jenkins-ek deitoratu egin zuen britainiar hirietako indarkeria arraziala Belfasteko proportzioetara iritsiko zela zioen Powellen aurreikuspena. Baina Mellish jaunak, diziplinarako arduradun laborista ohiak, komentatu zuen nahikoa zela: «gure jendeak berak ekingo du[ela] denori damutuko zaigun moduan».<sup>23</sup> Egun berean *Telegraph* egunkariak jakinarazi zuen Brent, Lewisham eta Brixton, edo Bradford eta Liverpool bezalako guneetan beltzen langabezia «gutxienez batezbesteko nazionalaren bikoitza» zela eta Londreseko parte batzuetan «etorkinen langabezia ehuneko 50 bezain altua» zela.

*Birmingham Evening Mail* egunkariak «Handsworth: periferia haserrekorra[ri]» buruzko aste osoko erreportaje serieari bukaera eman zion maiatzaren 14ko editorialean adierazi zue-

---

18 *The Daily Telegraph*, 1976ko maiatzaren 26an.

19 «The Facts and Myths», *The Sunday Times*, 1976ko maiatzaren 30ean.

20 *The Daily Telegraph*, 1976ko maiatzaren 26an.

21 *The Daily Mail*, 1976ko maiatzaren 25ean.

22 Ikusi C. Husband (ed.), *White Media and Black Britain* (Londres: Arrow, 1975); eta Critcher et al., *Race and the Provincial Press*.

23 *The Daily Mirror*, 1976ko maiatzaren 25ean.

nez, «gazte beltz langabetuak [...] krisiaren biktima dira, ez arrazoa». Egunkariak irakurleei eskatzen zien errua mendebaldeko Midlands-etan lana agortzearen arduradunei egotzeko: «politikari burugogor, kudeatzaile txar, sindikalista marxista, langile alfer, eta gure eskaeretan diruzaleegi izan garen guztiori». «Birmingham», ziurtatzen zuen jarraian, «beti izan da hiri multiarraziala». Powellen kolpearen hasieran bertan, hala ere, Bill Jarvis-ek, mendebaldeko Midlandsetako konderri kontseiluko zuzendariak eta kontseilari laboristak, mendebaldeko Midlandsetarako inmigrazio oro eteteko deia igorri zuen. Eta arrazaren gaia benetan egon zen haustura puntuan eremu horretan Powellen jakinarazpena baino lehenagoko asteetan. Maiatzaren hasieran, Robert Relf jaunak «Salgai soilik familia ingeles baten-tzat» zioen kartela jarri zuen Leamington-en zeukan etxearen aurrean. Arraza-harremanen legearen aurka egiten zuela ebatzi zen, kartela kentzeko auzitegiaren aginduari uko egin zion eta men ez egiteagatik kartzelaratu zuten. Gose greba hasi zuen. Jarraian, Relf jauna bere burua eraikitzen duen eta inoren beharrik ez daukan «britainiarraren» enblema bihurtu zuen Fronte Nazionalak, arraza eta herriaren alde altxatzeko prest dagoena —«Eskuineko Des Warren» deitu zuen Fronteak—. Eta Relfen auzitegi-tako agerpen askotako eszenek agertokia eskaini zioten Frontearen, eta talde antifaxista eta beltzen arteko konfrontazio garratzen segidari, Winson Green kartzelaren aurreko zelai beteko batailarekin bukatu zen arte. Relf askatu egin zuten ekainaren 21ean, epailearen irizpidez, jarritako kartelari uko egin gabe eta Fronte Nazionalaren txaloaldiarekin. Bulldog-individualismo britainiarra garaile irten zen berriro. Soilik beranduago ezagutara-zi zuen *Sunday Times* egunkariak Relf jaunaren arrazakeriaren izaera kontziente eta sakona. «Beraz, txerri beltz puztu hori» idatzi zion gizarte prestazioak jasotzen zituen ekialdeko afrikar ezindu bati halako prestazioak gehiegizkoak zirela zeritzolako, «bada, benereko gorrotagarritz betetako zabor beltz hori, nahi nue-na egin izan banu, mesedea egingo niekeen estatuari eta gogor lan egiten duten gizon ingelesei zure lepo lodi lerdetsuan soka bat jarrita».<sup>24</sup>

---

24 *The Sunday Times*, 1976ko uztailaren 4an.

Ekainaren 4an, Gurdip Singh Chaggar 18 urteko punjabarra erail zuen gazte zuri aldra batek Douthall-en. Gazte asiarren aurka gazte zuriek egindako erasoen gailurra izan zen, urtearen hasieratik gradualki eskalatzen joan eta crescendo moduko batera iritsi ondoren «malawi-asiarren, lau izarreko hoteleko etorkinen izualdi» betean. Ordura arte, bi komunitate «beltzetatik» isil eta ez hain militante gisa estereotipatutakoak eztanda egin zuen komunitatearen protesta olatuan, amorerik ematen ez duen jarrera berarekin, eta izatekotan, hobeto antolatuta «basatiago» gisa izendatutako Mendebaldeko Indietako anaiek muntatutakoak baino. Asiar komunitatearen egiteko politikoa inflexio puntu kritikoa izan zen —ondorioak ez zaizkio erabat antzeman oraindik Britainiako arraza-borrokak— eta aurrekariak, hau da, Chaggarren erailketara eraman zuten eraso basatien sekuentzia osoak analisi serio gutxi edo bat bera ere ez zuen izan hedabide popularretan. Southall-eko polizia egoitza nagusiari egindako «asiar setioa» eta «mendeku oldarkorra», horiek bai, eskuarki jarri ziren egunkarien azaletan (*Sun*, *Daily Mirror*). Abuztuko oporretan, Notting Hill-eko hiru eguneko inauteri karibetar tradizionala poliziaren eta beltzen arteko istilu auresangarri bezain gogor, ireki eta eutsiezinean amaitu zen. Harriak eta botilak bota ziren, Notting Hill geltokia inguratu zen, laurogeita hamabost polizia zauritu eta hirurogeita hamabost pertsona baino gehiago atxilotu ziren. Notting Hill eta Ladbroke Grove ghettoke bizitza baldintza jasanezin, luze, amaigabea, kasik hamarkadaz gutxi gora beherako etengabeko setio egoerari zirauena, ezin auresangarriagoa zen konfrontazioan bukatu zen. «Komunitate harremanen» bi hamarkadatan gertatutako Notting Hilleko *bigarren* arraza istiluak ziren. Urrian, Powell jaunak proposatu zuen etorkin familia bakoitzari gobernuak 1000 liberako «hastapen» ordainsaria eskaini beharko liokeela jatorrizko herrirako aberriatzearen ordainetan. «Garapen bidean zeuden herrialdeentzako laguntza» ezkutu moduko bat bezala aurkeztu zen proposamena. Proposamenak ondo ilustratzen du Britainian, gerraosteko arraza-harremanen inflexio puntu bakoitzean, adierazpen estremistek eztabaida publikoko oinarrizko erreferentzia puntu onargarri berri bat jartzea lortu duten modua —bakoitzean arraza bazterkeriaren neurri ofizial bat onartzetik gero eta hurbilago—. Hedabideak ahozgora hasi ziren

galdetzen ez ote ziren egongo zenbait familia beltz lehiatsu halako eskaintza onartzeko irrikan eta gogotsu! Jarraian etorri zen iragarpena: «gorakada masiboa kale-lapurretetan Scotland Yardeko txostenen arabera», nagusiki «Mendebaldeko Indietako lanik eta aukerarik gabeko bigarren belaunaldiko nerabe etorkinei» egotzitakoak.<sup>25</sup> Segidan, Gwyn Morris epaileak eztabaidaren erdigunea hartu zuen berriro Mendebaldeko Indietako sei gazteri (16/17 urtekoak) Londreseko Hegoaldean adin ertain eta edadeko emakume zuriei lapurtzeagatik sententzia atzeratzeko ez-ohiko erabakia hartu zuenean. Halako «pandilek» sortzen zituzten «arazo sozial erraldoiaz» hausnartu ahal izateko atzeratu zuen sententzia —ziurtatu zuenez, eremu hartan «izuak hartutako» emakumeen jasotako «ehunka gutunen» argitan—. <sup>26</sup> Asteburuko gogoetaren emaitza —atzeratutako sententzia batez aparte— Borstal izeneko gazteen atxikitze-zentroarekin hasi, eta 17 urteko «liderrarentzat», zazpi urtera bitarteko sententziak izan ziren; eta «agian [...] nolabaiteko patruila justiziazaleak [...] beharrezkoak bilakatuko zirela» iradokitzea.<sup>27</sup>

Aurreko garaian bezala, delinkuentzia beltzari buruzko ardura gero eta handiagoko ziklo berri hau adierazle kuantitati-boen sekuentzia batek sostengatuta eta markatuta dago. 1969 eta 1973 artean, Lambethen «kale-lapurreta» ehuneko 147 areagotu zela jakinarazi zuen Scotland Yardek, eta pertsona-lapurreta ehuneko 143. Gehien gehienetan, lege-hausle beltzez eta biktima zuriez ziharduten. Ez dugu errepikatuko hemen «kale-lapurrete» buruzko delinkuentzia estatistikei lehenago egindako kritika orokorra. Horrela kalkulatu eta aditzera emandako zenbakiek (kalkulatzeko moduak elementu etnikoa neurriz kanpo azpimarratzeagatik Sir Robert Mark beraren kritika jaso zuen, adibidez) zeukaten oinarri faktuala zeukatela ere, ezinegon moral eta kontrol zuzentzaileen espiraletarako ematen zuten oinarri kuantitatibo «sendoa». Eta bizkor, ustez azaldu soilik egiten zuten espiralaren parte bilakatu ziren zenbakiak. Zentzu zabalagoan, direnak baino fidagarriagoak egin ahalko balira ere, zenbakiek ez dute garrantzirik. Gazteria beltzak argi eta gabi hartzen du parte gune horietan gertatzen den kaleko delitu txikietan, eta parte

25 *The Sunday Telegraph*, 1976ko urriaren 17an.

26 Ikusi *The Daily Telegraph*, 1976ko urriaren 23an.

27 Ikusi *The Daily Mail*, 1976ko urriaren 26an.

hartzen duen proportzioa erraz izan liteke lehenagoko hamar-kadako baina handiagoa. Gune horietako komunitate beltzak eta gizarte langileek uste dute horixe dela kasua, eta zenbakiak baino fidagarriagoa da hori. Galdera ez da, zehazki, zenbat, baik eta zergatik? Zein da egitate horren esanahia, garrantzia, eta testuinguru historikoa? Delinkuentziaren indize hori ezin da beste indizeetatik isolatu puzzle hau argitu nahi badugu behintzat. Testuingurua aztertzean, indize ezberdinek delinkuentzia beltzaren, lan beltzaren eta gune beltzen etengabeko higadura egoeraren intersekzio kritikoa seinalatzen dute. Are horiek ere testuingururatu egin behar dira dagokien markoaren baitan jarrita: gizartea erortzen ari den krisi ekonomiko, sozial eta politikoa. Populazio beltzari lotutako zenbaki horiek gorantz doaz tenperatura ekonomiko eta politikoak gora egin ahala. Aldaketa beraz, ez da estatistikoa, kualitatiboa baizik. Ikerketa estrukturalari dagokion gaia da eta ez kuantitatiboari.

Arazoa kokatzea da aldaketa kualitatibo horren ezaugarri nabarmenena. «Kale-lapurreta» orain zalantzarik gabe identifikatzen da klase frakzio edo lanaren kategoria jakin batekin (gazteria beltzarekin) eta eremu mota jakin batekin: askotariko gabeziadun barne-eraztunetako guneekin. Kokatzeko keinu horrek «delinkuentzia beltzaren» alderdi sozial eta ekonomikoak uzten ditu agerian, baita delinkuentzia kontrolatzeko agentzientzat ere. Zehaztutako guneak «arazo-puntu» urbano klasikoak dira, ongizate babeserako eta delituen prebentziorako zein kontrolerako arazoekin —baina baita diziplina sozial eta ordena publikoko arazoekin ere—. Hemen, «gabetzeen ziklo» zitalak langile-klasearen sekzio pobreenari eta hondoratzen ari den zein noizbehinkakoa den pobreaki —beltzari eta zuriari— eragiten dio. Horiek dira langabetu berri eta erresidualen gudarosteak errekrutatzeako guneak. Horietan bizi dira gero eta kopuru handiagoetan Thatcher anderearen «ongizate prestazioen aprobetxategiak» eta Sir Keith Joseph-en «ama ezkongabeak». Horietan ematen zaio hozkadarik eraginkorrena ongizatearen gastu publikoaren eta hezkuntza eta gizarte babesaren presioari. Kriminologoen maite dituzten «delinkuentziarako joerako» gune klasikoak diren bezala dira —krisi ekonomikoa sakontzen den baldintzetan— ezinegon sozialerako haztegi potentzialak. Hiri handietan gainera, gehien gehienetan, guneok gune beltzak izaten dira. Eta

populazio beltza indar horien guztien interseksioan kokatzen da. Populazio zibilaren sektore alienatua orain soldatagabeen gudaroste gero eta handiagoaren sektore esanguratsua da, eta zaurgarria da pobretze sozial gero eta bizkorragoaren aurrean. Zorigaitzaren mezulari asko etengabe ari da gogorarazten krisi ekonomikoak klase gizarte demokratikoen babesak higatu ditzakeela eta barne kontraesanak agerian utzi ditzakeela. Halako «konponbide latinoamerikar» baten profeziak istorio politiko komenigarriak apaintzeko daude nagusiki diseinatuta; guztiz substantzia gabekoak izan gabe halere. Krisiek antagonismoak zorroztu eta itxuraz ahaztutako defentsak berpiztu ditzakete, Heath jaunak 1972an ikasi zuen bezala, eta kontserbadoreek las-ter ikasiko luketen bezala gainez egiten duen langabezia garai betean, hainbeste babesten duten «merkatu sozialaren filosofia» erabat martxan jartzen saiatuko balira. Krisiaren kudeaketaren kostuak nola eta non jasan behar diren eztabaidatzean, adostasunerako mekanismo «normalak» lekutik erauzi eta klase-borroka zorroztu ditzakete krisiek. Krisiak erremediatu egin behar dira, eraginik txarrenak geldiarazi behar zaizkie edo arindu. Kontrolatu ere egin behar dira. Gordinki jartzearen, *polizialki behar dira kontrolatu*. Poliziak burutzen duen egitekoa da baina —estatuko «bakearen zaindariaren» posizio tradizionala higatzeko arriskua-gatik— atseginik hartu gabe. Agian horregatik hasi dira krisiak dauzkan dimentsio sozialez eta ekonomikoez modu irekiagoan hitz egiten. Bakoitzak bere erara, gobernuak eta baita Itzaleko oposizioak, ere ondo dakite hori. Askotariko auzi sozialei buruzko adostasun autoritarioaren eraikuntzak plataforma bat eman du jadanik, behar izatekotan, publikoaren babesarekin halako ekimen bati hasiera emateko.

Hortaz, azaldutako kokagunetik, krisiak zuzenean eta gordinki zapaltzen ditu «kolonia» eremuak eta populazio beltza. Ondorioak kontraesankorrek dira. Kaleratzeak areagotu ahala, eskola-graduatu beltzen gehiengo langabezia erdi-iraunkorerrerantz desbideratu ahala, komunitate beltzean egiten den gehiengo langilearen eta gutxiengo nagiaren arteko bereizketa tradizionala berdindu egiten da. Aldi berean, larriagotu egiten dira beltz pobreen eta zuri pobreen arteko ezberdintasunak. Ez da tendentzia bakarra. Krisia «sortzen» duten gatazka industrial klabe askotan —automozioaren industrian adibidez— langile

beltz eta zuriak borroka berean batera aritu dira. Izan ere, gizonetzko langile beltz gehiago dago sindikatuta (ehuneko 61) baliokide zuriak baino (ehuneko 47). Lan eremutik kanpo, baina, arrazakeria iraunkorren birulentziak banatzen ditu elkartasun loturak. Pobre beltzak eta zuriak objektiboki posizio berean badaude ere, ideologikoki hain egituratuta dagoen mundua okupatzen dute, ezen besteari erreferentzia-talde negatiboa ematera behartu daitekeen bakoitza, hau da, elkarren zorigaitzaren «begien bistako kausa» izatera. Egoera ekonomikoa estutzen den heinean, berdin areagotzen da langileen arteko lehia, eta honezkerok, ibilbide luzea izan du arraza edo kolore bereizketa terminoetan egituratutako lehiak. Hain justu ildo horretan ari da jokatzeko, oraintxe bertan, Fronte Nazionala, eragin nabarmenarekin gainera. Langile-klasearen krisia langile-klaseen arteko eta baitako krisi gisa erreproduzitzen da berriro ere arrazakeriaren mekanismo estrukturalen bitartez. Sektore kolonizatu bata bestearen aurka jartzen da. Alderdi laboristak alderdi lokalak makina elektoral aski ez-eraginkorrak bilakatu zituen aspaldi, ez dauka eskuartean, hala nahiko balu ere, efektu horren olatua gelditzeko ekintza politikorako bitartekorik. Baldintza horietan beltzak emaitza kontraesankor horien «eramaileak» bilakatzen dira; eta delinkuentzia beltza krisiaren *adierazlea* bihurtzen da kolonia urbanoetan.

### **«Bigarrentasun» estrukturak**

Krisiak areagotu egin du gizarte beltzaren estutasuna, bereziki gazteria beltzarena. Baina horrek ez lituzke ezkutatu behar lan beltzari lotutako gerraosteko migrazio garai osoan zehar martxan dauden indar eta mekanismo estrukturalak. Kolorean eta arrazan oinarritutako beltzen aurkako «diskriminazio» indizeen terminoetan neurtzen dira sarri indar estrukturalok. Pertsona beltzentzat diskriminazioa egitate nagusietako bat da gizarte honetan, eta daukan eragina sarri eta luze dago dokumentatuta. Baina diskriminazioaren neurketak iradoki ohi duena da gizon eta emakume beltzak eta haien baliokide zuriak ez daudela benetan kokagune ezberdinean gizarte britainiarraren funtsezko esturturen baitan, salbuesten baditugu praktika diskriminaziozkoak —handia zoritxarrez— etxebizitzaren alorrean, hezkuntzan, lan munduan edo eguneroko bizitzan sozialean.

Uste dugu horrek irudi faltsu bat ematen duela, arrazakeria eta praktika diskriminatzaileak salbuespen indibidual gisa tratatzen dituelako bestela egokia litzatekeen «arauarentzat». Horren ordez, gazteria beltzari arreta berezia emanda estruktura arrunt eta ohikoak zeintzuk diren aztertu nahi dugu eta garaian zehar zer efektu eragin dituzten.

Eskola eta hezkuntza sistemak dauka, guztiaren gainetik, langile-klaseko sektore ezberdinak selektiboki «kualifikatzeko» eta lanbideen hierarkiako postu gogorrenak beltzei esleitze-ko funtzio nagusia. Hezkuntza sistemak soldatapeko langilea erreproduzitu egiten du klaseetan egituratutako lanaren banaketaren baitan, lanaren banaketa teknikoaren barruko sektore bakoitzarentzat banatzen ditu trebetasun kultural gutxi gora behera egokiak, eta saiatzen da gehiengoaren zoria izango diren subordinazio eta bigarrentasun posizioetarako egokia den identitate kultural eta jarrera kolektiboa eraikitzen. Eskolak ondo edo txarto bete dezake lanaren baldintzak eta «langilea erreproduzitzeko» egitekoa: menekotasuna lortu edo erresistentzia sortu dezake. Baina ezberdintasun horiek ez dituzte murrizten dauzkan funtzio orokorrak lanaren eta langilearen munduari dagokionez. Berriki Paul Willis-ek argudiatu du are eskolak sorrarazten dituen «erresistentziarako kulturek» ere, hala nahi ez arren, bitarteko espazio kultural moduko bat eskaini dezaketela joera akademiko txikiagoa dutenen artean kualifikazio baxuko eskulanaren langile-klasearen mundu gatazkatsu baina subordinaturako beharrezko trantsizioa *ahalbidetzeko*<sup>28</sup> (eta lorpen akademikorako gai izan zein ez —eta asko *dira* gai halako lorpena aukeratzen ez dutenen artean—). Gazteria beltzari dagokionez, hezkuntza sistemak lana lortzeko eta formakuntzan aurrera egiteko aukera orokorrak eraginkorki ahitzeko balio izan du eta ondorioz langile gazte beltza lanpostuen, produkzioaren eta trebetasunen azken muturreko langile gisa «erreproduzitu» du. Azalean, eman dezake ezberdintasun gutxi dagoela langile-klaseko neska-mutil beltz eta zurien artean. Tendentzia orokor gisa egia izanik ere, horrela ez zaio jaramonik egiten, gure kalte-tan, prozesuaren espezifikotasunari. Hezkuntza sistemak eragin ezberdina dauka langile-klaseko bi sexuengan —hezkuntzak

---

28 P. Willis, *Learning to Labour* (Londres: Saxon House, 1977).

lanaren banaketa sexuala erreproduzitu egiten du klaseak determinatutako banaketa sozialaren ezaugarri estruktural gisa, eta gauza bera esan behar da gizonezko eta emakumezko gazteria beltzaz—. Hezkuntza sisteman, hezkuntza-desabantailaren erreprodukzioa lortzen da beltzentzat, neurri batean, askotariko mekanismo arrazialki zehatzei esker. Debaluazio praktikoaren bitartez, sarri oharkabean, sektore beltz horri etengabe ari zaio «kapital kulturala» desjabetzen. Batzuetan, hainbat irakasle eta ikasgelaren jarrera paternalista, estereotipatu edo arrazisten itxura hartzen du desjabetzeak. Besteetan, historiaren eta kulturaren oinarritzko aitortza faltaren itxura hartzen du eskolako «kultura» orokorrean bezainbeste programazio eta eskuliburu zehatzetan. Esandakoa bereziki nabaritzen da eskola beltzen edo nagusiki beltzak diren eskolen kasuetan, gehienbat beltzak diren eremuetan, eskolak «zuri» mantentzen direnean eta soilik bideratzen direnean, konpetentzia maila baxuan, trebetasun tekniko eta kultural zurien erreprodukzioa, ikasleek identitate etniko eta kultura propioa izanik ere. Hizkuntza da kapital kulturalaren eramaile nagusia, eta beraz, erreprodukzio kulturalaren funtsezko bitartekoa da. Kultura berri, funtsean arrotz, baten ahozko eta idatzizko hizkuntza-konpetentzia gehigarriak garatzeko formalki diseinatu zitezkeen neurriak aitzitik, aurretik existitzen ziren konpetentzia linguistikoak desmantelatzeko eta desjabetzeko bitartekoak bilakatzen dira —«adierazpen forma eskasak» direla esanez—. Haurrak hitz egiten duen patois edo kreoleraren bertsio jakinari, ingeles estandarra, beharrezko bigarren hizkuntza gisa gehitu beharrean, kreolera zuzenean ezabatu egiten da sarri adierazpen azpi-estandar izateagatik. Jarrera horren aurkako erresistentzia bizirik dago eskola beltz askotan eta desagertu beharrean Karibeko kreoleraren hazkunde eta zabalkundean neurtu daiteke mugimendu horrek daukan indarra. Gainera, gurasoek ez bezala, kreolera «hizkera normal» bezala hitz eginda entzun ez duen belaunaldiaren kasua da hori. *Hizkuntz erresistentzia* horrek eskola bera bilakatzen du, aski literalki, gudu-zelai kulturala. Trebetasunen eta konpetentzien dislokazio eta eten masiboak agerian gelditzen dira haur beltzen neurritz kanpoko kopurua bidaltzen denean, bitarteko zuzengarri hobeen faltan,

hezkuntzako ezgaitu edo «subnormal» kategorietara.<sup>29</sup> Nagusiki beltzak diren eskolek gutxitan erakusten dituzte oinarrian dauzkaten jatorri kultural ezberdinak hautu positibo gisa. «Jatorrizko» kultura zeinahi izanik ere, ikasleak bahe estu batetik sartu ohi dira korronte kultural bakar, unilateral eta preskribatu batera. Haur beltzak identitate kultural zurietara sistematikoki txertatzen dituen espektakulua adierazgarria da. Hein handi batean, Britainian haur horiek «eskolatzen» diren moduaren nahi gabeko ondorioa izateak gutxi inporta du.

Ondo ezarrita daude eskolaren, hezkuntza-lorpenaren eta posizio laboralaren arteko loturak. Lotura horiek balio izan dute, orokorrean, langileriaren baitan nabarmenki posizio jakin batzuk esleitzeko. Langile beltzak «langile ez-kualifikatuen» proportzio handiagoa dira populazio totala baino, eta semi-kualifikatuen taldean ere proportzionalki gain-errepresentatuta daude. Ondo errepresentatuta daude «lan kualifikatu» deitzen den horretan —jarraian iradokiko dugun bezala, banaketa sektoriala hemen garrantzitsua bada ere, eta kontzentrazioa eta absentsia garrantzitsuak egon arren—. Postuen hierarkian, aipatutakoak baino goragoko posizio orotan beltzak azpi-errepresentatuta daude. Hurrengo karakterizazio orokorra zehatza da eskuarki: «langile-klasearen baitan, geruza behekoena osatu ohi dute batez ere lanbide ez-kualifikatuetan eta semi-kualifikatuetan kontzentratuta, tokiko langileak sarriago lan kualifikatuetan dauden bitartean».<sup>30</sup> Lanesku beltzaren banaketa, hala ere, are esanguratsuagoa da kapitalaren sektore ezberdinetan zehar. Lanesku beltza oso kontzentratuta dago industriako sektore jakin batzuetan, fundizioan, ehungintzan, peoi orokor gisa batez ere eraikuntzan, garraioan, zerbitzu industriaren ordainsari-txikiko muturrean, eta osasun zerbitzuan. Hiru lan mota dira bereizgarriak lanpostuaren arabera, batez ere lanesku asiarrak barne hartuz gero. Lehenengoa da esplotazio-lantegi baldintzetan garatzen den eskala txikiko lanesku produktiboa, sarri kapital txiki edo ertainarekin erlazionatzen dena. Lan horren ezaugarriak destajuaren arabera soldata txikiak, sindikatze murrizta

---

29 Ikusi B. Coard, *How the West Indian Child is made Educationally Sub-Normal in the British School System* (Londres: New Beacon Books, 1971).

30 Ikusi S. Castles eta G. Kosack, *Immigrant Workers and Class Structure in Western Europe* (Londres: Oxford University Press/Institute of Race Relations, 1973) 116 orria.

eta langile taldeen arteko lehia bortitza dira. Sarri, badirudi, lantegi osoak daudela lanesku etorkinari «azpikontratatuta» —zehazkiago, maiz jarraibideak jatorrizko hizkuntzan jaso behar dituzten emakumeei—. Bigarren mota ostalaritza eta zerbitzu sektoreko kualifikazio baxuko lanak dira ohikoak zaizkien ordu luze eta baldintza higatzaileetan. Lan horren gehiengoa, «zerbitzu» lanpostuak izanik ere, modu «masifikatuan» dago antolatuta (eskala handiko cateringak edo Londreseko aireportuko garbitzaileak kasu). Hirugarrena, muntaia-kateen gisako lan oso mekanizatu, biziki kapitalizatu, errutinizatu eta errepikakorrek dira sarri nazioarteko industria lantegi handien enpresa-kideetako adar «lokaletakoren» batean gertatzen direnak. Industria-sektore oso kapitalizatuak dira horiek lanaren prozesuaren muntaia-katedun antolaketa aurreratuarekin eta makineria garestiaren bitartez lanekuaren esplotazio maximoa bermatzeko helburuarekin. Itxuraz «aurreratuak» diren baldintzak baldintza, halako lanak batez ere «kualifikazio» baxu samar eta elkartrukagarrien erabilera dakar, eta txandaka antolatutako lan erregularra produkzio fluxu egonkorra bermatzeko. Mota horretako «zehaztasunezko lanekuak» produkzio modernoko sektore liderretan enplegatzen badira ere —garraioaren industrian, adibidez—, hain zuzen lanesku mota horri jazarri zaizkio «deskualifikazio» eta «masifikazio» prozesu gupidagabeak.<sup>31</sup> Espero litekeenaren kontra, langile beltzen ehuneko 43 ari da lanean 500 langile baino gehiagoko lantegietan, tokiko langile zurien ehuneko 29.5arekin alderatuta. «Langile beltzen kasik herenak egiten du lan txandetan, langile zurien ehunekoaren bikoitzak baino gehiagok».<sup>32</sup> Produkzio modernoetako sektore aurreratuotako lanesku beltzaren presentzia esanguratsuak ematen du ezagutzera ekonomia orokorrean lanesku beltzak jasaten duen esplotazio maila. Enpresetako asko dira nazioartekoak eta eragin multinazionalakoak, enpresa-kideak hedatuta dituztelarik ez soilik herrialdean bertan, baizik eta nazioartean ere. Hemen, Britainiako lanesku beltzak nazioarteko kapital modernoarekin daukan harremana eta Hegoaldeko Europako lanesku migrazioaile «zuriak» «urrezko trianguluko» langileekin (hazkundera

31 Ikusi Braverman, *Labor and Monopoly Capital*; eta A. Gambino, «Workers Struggles and the Development of Ford in Britain», *Red Notes Pamphlet*, 1 liburukia, 1976.

32 C.I.S. eta Institute of Race Relations, *Racism: Who Profits?*, 1976 (guk etzanduta).

bizi duten Iparraldeko Europako herrialde kapitalistetakoekin) daukana berdina da. Azken urteetan, beraz, industria britainiarren ur geldietara konfinatuta egotetik urruti, langile beltzek «abangoardiako» sektore garrantzitsua osatu dute; eta disputa industrial nagusietako batzuetan modu esanguratsuan hartu dute parte (adibidez, Fords, Courtaulds, I.C.I., Imperial Typewriters, Standard Telephones eta Mansfield Hosiery kasuetan).

Bi prozesu daude martxan hemen eskulan beltzaren deskonposizio eta berkonposizio izugarriaren efektu bikoitza dakartenak —ondorio oso esanguratsuko prozesuak biak—. Lehenengo krisiaren eta langabeziaren berehalako inpaktua da. Krisia sakondu ahala, langabezia bilakatu da krisiak bideratutako industria britainiarren berezigarrietako bat, eta lehenagotik Britainian bizi zen lanescu beltzarengan izan du berehalako inpaktua. Lanaren departamentuko estatistikek iradokitzen dute «etorkinen langabezia batez besteko ehuneko 5.5 nazionalaren bikoitza izatera iritsi daitekeela [...] eta 1975etik aurrera, erritmo berean handitu dela».<sup>33</sup> Eskola-graduatu beltzen artean langabezia batez besteko nazionala baino lau aldiz handiagoa da, eta eremu urbano askotan eskola-graduatu berrien ehuneko 60 baino gehiago dago orain lanik gabe. Lan aukeren eskasia horrek dakar beltzak lanpostu kualifikatuen hierarkian are beherago mugiaraztea. Krisia bukatzen bada, bukatzen denean, oso posible da beltzek langileria osoan daukaten posizio orokorrak okerrera egitea tokiko langileekin konparatuz gero.

Bigarren prozesua epe luzeagokoa da, baina azken finean esanguratsua. 1950eko hamarkadaren hasieran, industria britainiarra hedatzen ari zenean eta langile faltan zegoenean, laneskua Karibeko eta asiar azpikontinenteko lanescu soberrakinetik xurgatu zen. Garaian (eta egiazki ziklo osoan zehar) langile etorkinen eta lan bakanteen arteko korrelazioa erabat dago hurbil. Krisi garaietan, eta bereziki oraingo fasean, etorkinen kopurua erori egin da. Gutxiago iristen dira, eta jadanik hemen daudenen proportzio altuagoa baztertzen da langabeziara. Laburtzeko, lanescu beltzaren enplegu «eskaintza» igo eta erori egin da kapital britainiarren beharrianekin harreman zuzenean. Literalki, lanescu beltza xurgatu eta kanporatu egin

---

33 *Ibid.*

da kapital metaketan gertatutako zabukadekin eta hondoratzeekin harreman zuzenean.

Prozesu horretan faktore ekonomiko, politiko eta ideologikoez bat egiten dute. Nagusiki kapital britainiarren azpiko eskakizun eta erritmoek gobernatu dute lanesku beltzaren fluxua. Baina fluxua *erregulatu* duena, noski, ekintza legegilea izan da (hau da, politikoa). Eta arrazakeriaren goraldia (ideologia) izan da industria britainiarrean lanesku beltza fluxu gisa eta etengabe «aldakorra» den faktore gisa erabiltzeko zorua prestatu duena. Hemen, lanesku beltzaren posizioa kapitalaren beraren sektore-berregituraketaren testuinguru zabalagoan kokatu behar da. Gero eta gehiago, Europa kapitalistak osotasunean dauka Europa Hegoaldeko lanesku migratzaileko sistemaren beharrezana —Italia, Portugal, Espainia, Turkia, eta Ipar Afrika—. «Langile gonbidatu» horiek unitate ekonomiko izugarri merkeak dira, egoiliarak ez diren heinean, ez baitaude mendekorik, eta John Berger-ek *Zazpigarren gizon baten* (*A seventh man*) hain grafikoki deskribatu zuen existentzia tenporala bizi baitute.<sup>34</sup> Bizitza produktiboaren gorenean errekrutatzen dituzte. Baina kapitalismo aurreratuak ez du lan-indar horren erreproduzioaren kostuetako bat bera ere hartzen bere gain. Ez da soilik «fluxu» hori hobeto doitu eta erregulatu daitekeela sektore aurreratuetakoa industrien langileen beharrezanetara, baizik eta iraunkortasunik ezak, dependentsiak eta isolamenduak zaurgarri eta otzan egiten duela langileria, eta muntaia-kateen baldintzetara aise moldagarria. 1960ko hamarkadako erdialdera arte, patroi britainiarra ezberdina zen, eta emaitza «kaskarragoa» zekarkion Britainiari beste herrialde Europarrekin konparatuz gero, *zeukaten* langileria migratzailea egonkortua baitzen, herritartasun eskubideekin, eta mendekoekin. Eta Britainia egin zen langileria horren «erreproduzio kostuen» erantzule (hezkuntza, osasun eta pentsio eskubideak, besteak beste). 1960ko hamarkadako erditik geroztiko inmigrazioaren legedia, beraz, langile beltzen estatusaren eta herritartasun eskubideen aurkako eraso gisa ulertu behar da, langile migratzaileen eskaintzaren erregulazio zurrunagoaren aurrebaldintza gisa. Hortaz, inmigrazioaren alorreko lege ezberdinek jaitsi eta estutu egin dituzte kualifikazio zehatzentzako

---

34 J. Berger, *The Seventh Man* (Harmondsworth: Penguin, 1975).

eskakizunak: mendeko pertsonen sarbidean murrizketa gogorra; eta langile migratzailearen estatusaren eraldaketa —patrial/ez-patrialaren eta Commonwealth Zahar/Berriaren arteko bereizketen bitartez— egonkortua izatetik «langile gonbidatua» izatera pasatzea. Garai berean, lanesku beltzaren fluxua irmoki murriztu den bitartean, gorakada zorrotza egon da «benetako kanpotarrei» emandako baimenetan —adibidez, Europako herrialde txiroagoetako «langile gonbidatuei»—. Sivanandan-ek labor-labor adierazi bezala: «Commonwealthetik 1971ko legea baino lehen etorritakoak [...] ez dira etorkinak, egonkortuak dira, egonkortu beltzak. Legearen ondoren etorritako beste batzuk daude; langile migratzaile hutsak dira horiek, langile migratzaile beltzak».<sup>35</sup> Beltzei ezarritako murrizketa politiko andana, ideologia arrazistaren gorakada eta esplizituki antietorkinak diren erakundeen gorakada, beltzak bizi diren eremuetan diziplina soziala gogortzea, eta populazio beltzaren «desegonkortze» orokorra, beraz, ezin zaizkio norbanako edo enpresa jakin batzuen «jarrera diskriminatzaileari» soilik egotzi. Gerraosteko garaian lanesku beltza metropoliko kapitalera subsumitzeko moduaren ezaugarri estrukturalak dira. Lehenago gertatu bezala, kapitala bera krisi ekonomikoaren baldintzez ari da baliatzen dauzkan epe luzeko «beharrizanekin» bat egiten duten indar ideologiko eta politikoen bitartez lanesku beltzaren *berregituraketa* nagusi bat bultzatzeko. Horregatik ez dauka zentzurik langile beltzen eta egiten duten lanaren posizioa ulertzen saiatzea momentuko «diskriminazioaren» kontingentzien arabera. Kapitalismo modernoaren ezaugarri estruktural batez ari gara hitz egiten, eta kapitalaren metropolietan lanesku beltzak egun daukan egiteko erabakigarriaz berregituraketa fase nagusi batean. Castles-ek berriki argudiatu du hemen zirriborratutakoak kapital monopolistaren tendentzia *estrukturaletako* bat errepresentatzen duela (fenomenoa zenbateraino den berria zehazki baloratzeko lehenagoko migrazioen eta emakumezko laneskuak lanpostuetan egiten duen sartu-irtenezko mugimenduaren testuinguruan kokatu beharko balitz ere).<sup>36</sup> Castlesek gehitzen du lanesku migratzaileak hornitzen diola kapitalari esplotazio tasarik *altuenak*

---

35 A. Sivanandan, *Race, Class and the State* (Londres: Institute of Race Relations, 1976).

36 Castles eta Kosack, *Immigrant Workers and Class Structure in Western Europe*.

jazartzen zaizkion lanekuaren sektorea —eta monopolio garaian are garrantzitsuagoa bilakatzen den ezaugarria da horixe halako fasean irabazi tasak erortzeko daukan joera nabarmenagoa kontuan hartuz gero—. Hortaz, laneku migratzailea estuki integratuta dago zeharo kapitalizatutako produkzio kapitalista jakin baten hedapenarekin eta krisien mugimendu ziklikoekin (hau da, kapitalaren egituraketa organikoaren tasa altuarekin). Era berean, Castlesen esanetan, egiteko erabakigarria betetzen du faktore desinflaziogile gisa krisi kapitalista garaietan —krisien kudeaketarako funtsezko mekanismoetako izanik «slumpflazioak» ezaugarritutako ekonomietan—.

Etorkin beltzen populazioaren bizitoki-kontzentrazioa da daukaten posizio estrukturalaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Mendebaldeko Indietako langile gehien-gehienak hiriko barruti txiroetan daude kontzentratuta, nola ez, izan ere, hasiera batean, pertsona batek bakarka ordaindu zezakeen alokairuko bizitokia eskuragarri baitzegoen bizikide askoko etxebizitza merke samarretan. Ondorengo migrazioak patroia berori sendotzeko joera izan du. Antzekoa bultzatu dute lagunarte, familia-kide eta elkartasun lotura bila aritzeak; beltzen soldata maila txikien eta beste eremuetako etxebizitzaren garestitzearen arteko arrakalak; eremu txiroetako hiri administrazioen etxebizitza politikak; eta etxebizitza-agente eta hipoteka-enpresa batzuen praktika diskriminatzaileak bezalako beste faktore batzuek ere. Jabe absenteen etxebizitzaren hondatze eta abandonuak, alferrik galdutako etxebizitzaren merkatuarekin egindako epe laburreko irabazi espekulatzaileak, eta etxejabe estortsioegileen larderiazko taktikak —batzuetan, beroriek ere etorkinak izanik eta beltz zein zuri, familia beltzen posizio zaugarria esplotatzen dutelarik— izan dira populazio beltzaren gehiengoaren etxebizitza baldintzen ezaugarri egonkorak. 1970eko etxebizitza-prezioaren inflazio garaian, eta alokairuko etxebizitzari buruzko legislazio berriak estututa, etxejabeentzat errazagoa egin zen sarri eraikuntzak eraitsi eta lursailak urbanizatzea, edo berrurbanizatzeak saltzea. Eta ondorioz, alokatutako etxebizitzaren eskuragarritasuna are gehiago murriztu zen, hain justu familia beltzentzat esanguratsua zen etxebizitza merkatuan. Bizitoki duina bermatzea lehen baino zailagoa egin da bakarrik bizi diren gizon eta emakume beltzentzat, edo etxebizitza merkatuan sartu nahi duten

familia berrientzat.<sup>37</sup> Heldu beltzen etxebizitza egoerak okerrentz egin duenez, bakarrik bizi nahi duten gizon eta emakume gazte beltzentzat are bizkorrago okertu da egoera. Gazte beltz helduei birtualki ezinezkoa egiten zaie haien kasa bizitoki duin bat prezio xumeetan aurkitzea; eta edozein kasutan, langabezian daudenez gero, proportzio handiagoan ezin dute eskatutako alokairua ordaindu, are alokairuak «arrazoizkoak» direnean ere. «Kaleetan alderrai ibiltzea», aterperik gabe lo egitea eta «etxegabetasuna» bezalako goranzko fenomenoak eta okupazioa, beraz, beltzek egungo hiri industrial Britainiarretako etxebizitza-merkatuetan daukaten posizio estrukturalak ainguratuta daude.

Orain arte jorratutako alderdi estruktural bakoitzean zera ikusi dezakegu: klase posizioa eta lanaren banaketa langile-klase osoarentzat erreproduzitzen den modu orokorrak laneku beltzaren geruzan forma ezberdindu eta berezia hartzen duela. Kasik «lanaren banaketa arrazial» bat dirudiena erreproduzitzeko balio duten mekanismo bereziak daude lanaren banaketa orokorraren barruan, eta banaketa orokor horren ezaugarri estruktural gisa. Mekanismo horiek ez dira soilik arrazari bereziki dagozkionak. Eragin ezberdindua daukate sexu eta belaunaldi ezberdinetan langileria beltzaren *baitan bertan*. Hortaz, mekanismook balio dute arrazialki segmentaturiko klase edo klase frakzioetan klasearen fragmentazio politikoa bultzatzeko eta ainguratzeko, eta elkarren aurkako lehian jartzeko. Horregatik da garrantzitsua arraza bera ikustea langileria beltzaren posizioaren eta erreprodukzioaren ezaugarri estruktural gisa —eta baita klasearen kontzientziaren kategoria espermental gisa ere—. Arraza, langileria beltzarentzat egungo kapitalismoaren ordena sozialaren estruktura kritikoa da.

Historiak eginkizun esanguratsua dauka istorio honean. Esplotazio komertzial kolonialaren garaiak eta ondorengo inperialismo ekonomiko eta militarren garaiak funtzio garrantzitsua bete zuten Britainiaren iraganeko eta egungo posizio ekonomikoa bermatzeko orduan. Supremazia arrazialaren inskripzioa ere bizitza sozial ingelesaren gainazalean zehar inprimatu zuen, gainbalio-produkzioaren eta desjabetzearen

---

37 Ikusi Notting Hill People's Association Housing Group, *Losing Out*, 1972, Notting Hill People's Association Housing Group, 60 St Evan's Road, London W.10; eta J. Greve, D. Page eta S. Greve, *Homelessness in London* (Edinburgo: Scottish Academic Press, 1971).

esferaren barruan zein kanpoan. «Goi inperialismotik» langile-klase britainiarrak osotasunean, edo bestela, gutxienez «langile-aristokraziak» ateratako etekin ekonomikoei buruzko eztabaida bizirik dago. Ez dago zalantzarik, batetik, langile-klase britainiarraren baitan barne-lehia eta aurkakotasun harremanak ezartzeak (adibidez, kotoiaren industriako langileak beste sektoreen aurka), eta bestetik, kolonialismoak, aurkakotasun harremanak jarri zituela martxan, osotasunean, Britainiako langile-klase metropolitarraren eta langileria kolonialen artean. Are gehiago, garai inperialak arma ideologikorik eraginkorrena eta sarkorrena eskaini zien klase dominatzaileei. Izan ere, Lehen Mundu Gerrara arteko klase gatazken banaketan garaian, zeukaten hegemonia zabaltzea bilatu zuten klase dominatzaileek gero eta indartsuagoa eta batuagoa zegoen, eta gero eta konfiantza handiagoa zeukan proletariotzaren gainean, bereziki inperialismo popularraren eta arraza nagusitasunaren ideologien bitartez. Inperioaren gainbeheraren eta gerraosteko nazio independentzien aldeko mugimenduen gorakadaren garaian, «harreman kolonialak» barneratu egin ziren lanesku etorkina inportatzeari esker. Langile-klase britainiar eta kolonialen arteko klase interesen estruktura ezberdindua, momentu horretan, ekonomia domestikoaren barruan erreproduzitu zen, modu konplexuan, sarri tokiko langileriak egingo ez lituzkeen lanpostuak betetzeko inportatutako lanesku etorkina erabili zenean, enplegu beteko baldintzetan. Gaur egun arte, kapitalismoak laneskua halako barne banaketadun forman jarraitu du erreproduzitzen. Langileria domestiko zuriaren sektore aurreratuek borrokan lortutako abantailak langileria beltzaren lepotik eskuratzea izan da gerraosteko garaiko prozesu horren alderdi esanguratsuetako bat. Arraza izan da mekanismo nagusietako bat lantokiaren barruan bertan zein kanpoan, barne banaketadun langileria erreprodukzioa lortzeko. Historia honen argitan, Britainiako klase dominatzaileek metatu dituzten «etekinen» artean ez dira soilik gehitu behar itsasoz gaindiko ekonomia kolonialen esplotazio zuzena zein zeharkakoa, eta hedapen ekonomikoaren garaian langileria kolonial horrek tokiko langileria ekarri zion ezinbesteko gehigarria. Gehitu behar dira, baita ere, krisi eta beherakada ekonomiko garaian, langileria hori lerro arrazialen arabera segregatuta mantendu dituzten barne banaketak

eta gatazkak —klase batasuna bere kasa, osotasunean, gai zenean herria bultzatzeko langabezia, behin behinekotasuna, eta lansarien eta soldata sozialen murrizketak ez ziren «soluzio» ekonomiko baterantz—.

Labur-labur azaldu dugu nola forma historiko jakin baten baitan estruktura ezberdinak konbinatzen diren proletariotza beltza «erreproduzitzeko» helburuarekin eta hirietako gazteria beltza dela proletariotza horren frakzio oso nabarmen eta zaurgarria. Azpimarratu nahi dugu talde etniko ezberdinen harreman sozialak luze-zabal markatzen dituzten estereotipo eta jarrera arrazistetan oinarritutako praktika diskriminatzaileen katalogaziotik aski ezberdintzen den zerbaitetan jarri dugula arreta —jarrera horiek doilorrak, apalgarriak eta deshumanizatzaileak direla ahaztu gabe—. Gure arreta bereizten da, baita ere, sarri egiten den «arrazakeria instituzionalaren» kritikatik —egitateek arrazakeria gizarte harremanetara eta jarreretara mugatuta ez dagoela dioen argumentua argi berresten badute ere, eta etxebizitzaren eta lan merkatuena bezalako eremu instituzionalen berezko parte direla (hau da, merkatu horiek daukaten funtzionatzeko moduaren ezaugarri sistematikoa dela arrazakeria eta ez dagoela soilik instituziook administratzen dituzten pertsonalaren «begirada» arrazistari lotuta)—. Guztia-ekin, gizarte osoko klase-harremanak forma espezifiko batean eta eskala hedatuan erreproduzitzeko helburuarekin estruktura ezberdinek *batera funtzionatzeko* daukaten moduari eman diogu arreta. Eta ohartu gara arrazak, erreproduktzio sozialaren prozesu konplexuko sektore bakoitzaren ezaugarri estrukturala izanik, langile-klasea arrazialki estratifikatuta eta barne antagonismoz «erreproduzitzeko» balio duela. Horregatik, askotariko ingurumen erreformismoetatik bereizi nahi dugu gure hurbilketa (gorago masa-komunikabideen iruzkinean aipatu bezala) erabat koropilatutako estrukturak banatutako eta bereizitako instituzioen batura bezala tratatzen dituztelako, eta estruktura horiek ulertzen dituztelako, ez klase baten baldintza sozial objektiboak erreproduzitzeko betetzen duten egitekoaren arabera, baizik eta halabeharrezko (eta ondorioz, nabarmenki erreformagarriak liratekeen) «jarrera pertsonal diskriminatzaileen» arabera. Estrukturei ematen ari gatzazkie arreta: kapitalaren «logika» nagusiaren barruan lanean dabiltzan heinean, langile-klase

beltzaren baldintza sozialak produzitzen eta erreproduzitzen dituzten estrukturei, klase horren mundu produktiboari eta unibertso sozialari forma ematen dieten estrukturei, eta klase horretako kide eta agenteei egiturazko subordinazio posizioak esleitzen dizkieten estrukturei. Erakusten saiatu gara osotasunean langile-klase britainiarraren «produktzio baldintzak erreproduzitzeko» egiteko kritikoa betetzen duten estrukturek klase hori arrazialki banatuta eta fragmentatuta produzitzeko egiten dutela lan. Arraza, argudiatu dugu, klase-harremanen erreproduktzioaren osagarri klabea da, ez soilik kategoria etniko jakin batekoak diren taldeek arrazialki modu diskriminatzailean tratatzen dituztelako beste talde batzuk, baizik eta arraza delako oinarri material eta soziala sortzen duen faktoreetako bat «arrazakeria» ideologia gisa sendotu dadin. Estructura ekonomiko sozialetan funtsezkoa den elementua bilakatu da arraza eta «ontzat ematen diren» bizitzako baldintza materialen alderdietako bat gehiago bezala ezagutzen du langile-klaseko belaunaldi berri bakoitzak. Belaunaldi bakoitzean, gazteria beltza ez da abiatzen isolatutako norbanako-talde bat balitz bezala, halabeharrez hezten dena modu jakin batzuetan bizi eta lan egiteko, eta diskriminazio arrazialarekin heldutasunera bidean egiten duena topo. Belaunaldi bakoitzean, gazteria beltza aurrez ezarritako klase posizio jakin batetik abiatzen da, determinatuak diren prozesuekin forma objektiboan produzitutako posiziotik, eta ez gazteek beraiek eraikitakotik; eta klase posizio hori aldi berean da posizio arraziala edo etnikoa.

Baina arrazak funtzio bikoitza betetzen du. Modalitate nagusia ere bada klase horretako kide beltzek esturaturatutako subordinazioa «bizi», sentitu eta ulertzeko, eta horrenbestez subordinazio horren *kontzientzia hartzeko*. Arrazaren modalitatearen bitartez, konprenitzen, kargua hartzen eta erresistitzen dute beltzek esplotazioa, klase egoera propioaren ezaugarri objektibo gisa. Arraza beraz, ez da soilik «estrukturen» elementuetako bat. Langile-klase beltza lanesku beltzaren klase-borrokaren — eta beraz *kultura propioen*— elementu klabeetako bat da. Arraza, kolorea eta etnizitatearen kontraideologiaren bitartez egiten da bizi duen egoera objektiboaren kontradikzioen jabe, eta antolatzen da «borrokarako». Bereziki orain ari da gertatzen esandakoa gazteria beltzarentzat. Klase sektorearen posizio jakin horri,

arrazak eskaintzen dio bitarteko lotura «patu» edo «destino» gisa inskribatutako egiturazko bigarrentasun posizioaren, hau da, subordinazioaren, eta bigarren mailako jendea izateko esperientziaren, hau da, kontzientziaren, artean. Arrazaren modalitatearen ezaugarria da estrukturek sistematikoki esplotatu, baztertu eta subordinatzen dituzten horiek deskubritzea haiek direla klase esplotatua, baztertua eta subordinatua. Hor-taz, arrazaren modalitatearen baitan eta bitartez adierazten da erresistentzia, oposizioa eta matxinada *lehenengoz*. Mailarik sinpleenean, agerikoenean eta azalekoenean, arrazak kontzientziaren estrukturetan daukan zentraltasuna, gizon eta emakume gazte beltzen bat-bateko azalpenetan eta adierazpideetan harra-patu daiteke. Arrazak barrenetik estrukturatzen ditu dauzkaten askotariko esperientzia sozialak. Jarraian, adibidez, irakurri 18 urteko Paul, lanaz hitz egiten:

Beti jasotzen duzu kontu hori, adibidez, horra ondora lan bila joan nintzenean, eta gizonak esan zidanean: «ez zaitez arduratu deitzen bazai-tut beltz sasikumea edo negroa edo beste edozer, txantxa bat besterik ez delako». Esan nion gorde zezala lana berarentzat. Bota zuen, «ez daukat koloreari buruzko aurreiritzirik», eta horrela dena. Baina kirtenkeria da gizon batek zuzenean horrelako galdera bat egiten dizunean.

Edo Leslie, Paulen esperientziaz hitz egiten:

Paul lan bila joan zen eta gizon zuriak dio, ile afroa daramazu eta es-tiloa aldatu behar duzu. Ni izan banintz ostikoka egingo nioke. Ostikoka egingo nioke *rassclatt* horri. Ostikoka egingo nioke zakilean. Sasikume os-tia hori. Ez dut gizon zuri batentzat ere lanik egin nahi. Beltzok denbora luzez aritu gara haientzat lanean. Ez dut haientzat egin nahi lanik. Lehen ez nituen pertsona zuriak gorroto. Oraindik ere ez ditut guztiak gorroto. Baina haiek irakasten didate nola gorrotatu.<sup>38</sup>

### **Kultura, kontzientzia eta erresistentzia**

Bigarren dimentsio kualitatiboa sakonago aztertzeari ekingo diogu orain: kontzientzian, ideologian eta kulturaren al-daketak, eta aldaketak erresistentzia eta matxinada beltzen moldeetan. Hemen, garrantzitsua da, berriro ere, Mendebal-deko Indietako gazteek okupatzen duten posizio ezberdinaz

---

38 P. Gillmanek Hollowayko Harambee ostatuako gazteria beltzari buruz azaldutakoa; «I blame England», *The Sunday Times*, koloretako gehigarria, 1973ko irailaren 3an.

ohartzea gurasoekin eta asiar baliokideekin konparatuz gero. Mendebaldeko Indietako langileez hitz egitean gorago irudikatutako unibertso *estrutural* antzekoa bizi dute gizonezko eta emakumezko asiarrek. Modu baten baino gehiagotan, banalero arrazialak jarraitzen dituen esplotazio sistemikoagoaren menpe egon dira asiarrak —lantegi «asiarretako» banaketa fisikoaren gisako mekanismoen bitartez adibidez—. Agian, ondorioz, daukaten borroka moldeak forma kolektibo antolatu industrialaren lehenagoko etapa batean hartu zuen. Hala ere, Asiatik «migratzaile» kultura eta kultura karibetarra ezberdinak diren kolonialismo eta mendeko ekonomia baten emaitza dira. Le-kualdatze goiztiarraren, esklabotzaren eta plantazio gizartearen bitartez, kultura karibetarrek fragmentazio kulturalaren prozesu zorrotzagoa jasan zuen. Kultura asiarra, beraz, kohesiboagoa eta babesleagoa da gazteekin. Lan produktiborako kontratatutako asiarez gain, sektore independente esanguratsua existitzen da —merkatariak, dendariak, salerosle txikiak— eta sektore horrek Mendebaldeko Indietako gazteriarentzat eskuragarri dagoena baino enplegu mota posible zabalagoa eskaintzen dio asiar gazteriarri, langile autonomo independentearena barne. Hala ere, bigarren belaunaldian bereizketa horiek behera etortzen hasten dabilzala erakusten duten seinale garbiak daude. Gazteria beltz afro-karibetarren posizioa ezberdindu egiten da egun, modu esanguratsuan, baita Karibeko lehenengo belaunaldiko migratzaileek okupatzen dutenetik ere. Karibeko langilerien patua —lana daukanarena bezainbeste aldi baterako edo iraunkorki langabezian dagoenarena— metropoliko ekonomiari lotuta egon da aspalditik. Gerrarteko krisi ekonomikoak —Mendebaldeko Indietako azukrearen gainbeherarekin batera, hau da, esportaziorako laborantza ekonomia nagusiaren gainbeherarekin batera— beranduago kolpatu zuen Karibia Britainia baino. Gerra osteko baldintzetan, laneskua gogoz zegoen ekonomia britainiarra erakarritako gizon eta emakumeak, modu askotan, gerra osteko oparotasunaren ifrentzua, aurpegi alternatiboa ziren: langabetu kolonialak, hiri karibetarreko aldi baterako laneskua eta langabetuak, plantazioetako landa eremuko langileak, eta barnealdeko landa eremuko masetatik erakarritako iraupeneko nekazariak. Langabezian eta azpienplegatuta egotea da daukaten bizitzaren baldintza materialaren ezaugarri itxuraz

iraunkorra eta orokorra. Pobrezia kolonial endemikoak emigraziora bultzatuta, haien jatorrizko irlek bete ezin zitzaizketen ordainsari ekonomiko eta sozialen beharrian desesperagarrian, iritsi bezain pronto diziplinatzen ziren masiboki soldataren bitartez. Darcus Howe-k *Punch (Ukabilkada)* aldizkariko ale batetik (1965eko abuztuaren 21ekotik) pasarte argigarri bat aipatzen du eta agerian uzten du hasiera horietan kapitalak lanesku beltzari jazartzen zion logika gupidagabea:

Etorkin orok kapitalaren gordailu bat errepresentatzen du. Pertsona bat lan produktiborako hazteak, hezteak eta trebatzeak 4.000 liberako kostua dauka, eta kopuru hori dohaineko esportazio gisa transferitzen da migrazioa gertatzen denean dena delako lekutik[...]. Britainiak, enplegu betearekin eta berreraikuntzarako programa izugarriari ekin behar zaion honetan, urgentziaz behar ditu etorkinak. 50 milioiko populazioa daukagu, 25 milioiko populazio langilea, eta talde produktibo horixe da gure haur eta pentsiodun guztiak elikatzen eta janzten dituen, eta aterpea ematen diena. Lanean ari den etorkin berri bakoitzak populazioaren erdi ez-produktiboari emanez laguntzen du. Galdetu alemaniarrei nola lortu zuten oparotasuna erdieste 1945eko hondamendiaren ondotik. Lan gogorarekin? Bai. Baina milioika etorkinez indartutako langileria batekin.<sup>39</sup>

Soldata baxua zen baina diziplina zorrotza. Etorkinek lana aurkitzen zuten, baina sarri txarrena eta gazikien ordaindutakoa. Bizitokia topatzen zuten barnealdeko eratzun urbanoetan nonbait baina eskasa eta hondatua. Klima ez-abegitsu batean eta kultura ez-abegitsu batean egonkortzen ziren «bizimodu propioa eraikitzeko». Lantegietako lan astuna; ordu luzeak eta lanaldi gogorrak Londreseko garraio publikoan; sukaldeetako eta beste zerbitzu industrietako emakumeentzako lan bero sapa neketsua; peoi-lana; erratza pasatzea; kualifikazio txikiko lantegi-lana. Pasarte dramatiko eta gorria da hau karibeko langile-klasearen «berregitearen» historian. Garai horretan, karibeko langile-klasearen patua sistematikoki gaindeterminatzen dizkio lanak eta soldatak, soldatak eta lanak. Hala izanik ere, kontzentrazio beltz altuko eremuetan —Paddington-en, edo Brixton-en, edo Moss Side-n— lanesku beltzaren gogorarekin batera, «koloniako» lanesku karibetarraren bizitza loratzen hasi zen astiro. Mendebaldeko indiarren langile-klase errespetagarria-

---

39 D. Howe, «Fighting Back: West Indian Youth and the Police in Notting Hill», *Race Today*, 5 liburukia, 11 zbk., 1973ko abendua.

ren etxeetan kontu pribatua izan zen hasieran: gortinak itxita hotzaren eta iluntasunaren kontra; joan-etorri diskretuak auzokide sudurluzeen begiraden kontra; lanaren ondoren dendetara zihoazen estalitako emakumeak; ilunetatik presaka itzultzen ziren umeak; lauretan hasten ziren neguko arratsak. Baina eremu batzuetan askotariko «kolonia» kultura bat hasi zen forma hartzen, eta adierazten ez soilik «errespetagarrien» lorpen apalak, baizik eta langabetu eta erdi-langabetu urbanoen, gau-klubetako atezainen eta domino-gizonen erritmo natibo jatorrizkoagoa, eta koloretsuagoa. Toki horietan, Kingston mendebaldeko etxola-eremuaren edo Port-of-Spain natiboaren zertxobait birsortzen ari zen:

Para-pintoa (jamaikar dado-jokoa) gailen nagusitzen zen apustu-etxea zen langilearen soldatak langabetuaren poltsikoetara eta poltsikoetan zehar zirkula-arazten zuen instituzioa. [...] zuzeneko produkzioan benetan ziharduten mendebaldeko indiarrek alternatiba aurkitu zieten ondo definitutako tabernen eta bingo-etxeen orduei, hau da, estatuko legeek gobernatzen zituzten eta lan egunarekin harmonian beharko luketen instituzio horiei. Taberna klandestinoetako apustu orduak lan orduaren erritmoen aurka eta erritmoetatik kanpo funtzionatzen zuten, eta estatuko legeetatik aske. Erakutsi zuten oztopo nagusi bat zirela kapitalak langilea kontrolatzeko daukan tendentziarentzat, ez soilik lantegietan baizik eta langilearen bizitzaren ordu guztietan. 1955erako instituziook ondo ezarrita zeuden Notting Hillen. [...] 1957rako egunkari bateko lerroburuak oihukatzen zuen «Gizon beltzak, burdel zaindaria eta droga» eta eskatzen zuen «gainbegiratze zorrotzago bat Mendebaldeko Indien komunitatean azaleratzen ari den gau-klubean ezta darentzat».<sup>40</sup>

Jarraian etorri zen Mendebaldeko Indien komunitatearen aurkako lehenengo eraso nabarmenki arrazista: 1958ko arraza istiluak. Beste nonbaiten eztabaidatu dugu zehatzago laneku karibetarraren gerraosteko historian Britainian bizitako inflexio puntu historikoa. Hemen garrantzitsua da gogoratzea, besterik ez, kaleko liskarrei, harri jaurtiketari, irainei, mendebaldeko indiarren etxeetako leihoak apurtu eta swastikekin lohitzeari hasiera gazte zuriek eman bazioten ere (antolatutako mugimendu faxistak kontu handiz planifikatutako interbentzioak xaxatuta) istiluek haustura handia ekarri zutela, ez soilik pertsona beltzen eta Teddy Boys-en arteko «harreman adiskidetsuetan», baizik

---

40 *Ibid.*

eta komunitate beltzen eta zurien artekoetan ere. Hortaz, liskarrek momentu erabakigarria markatu zuten —«bizi eta bizitzen uzteko» neurriei esker— erosotasunez egonkortzeko aspirazio beltzen eta hauteman zitekeen errealtate gogorraren artean. «Notting Hillek» ez zuen soilik setiopean zegoen komunitate beltzaren espektakulua erakusten. Komunitate beltzaren lehenengo erantzun politiko antolatura eraman zuen, Mendebaldeko Indietako talde eta eragile lokalen kontzentrazioa; eta polizia ere ekarri zuen. Jarraian polizia diskriminazioaren beldurra ere iritsi zen —auzo beltzei zuzenean jazarritako kontrolerako indar gisa, inoiz kendu ez duten presentzia bat jazarrita—.

1950eko hamarkadaren bukaerarako, *asimilazio beltzaren* estrategia neurri sozial liberalen helburuen artean mantendu egin bazen ere, bizirauteko molde errealista gisa baztertu egin zen beltzen gehiengo handiarentzat. Beltzek ezingo zuten gizon eta emakume «zuri» bilakatu itxuretan, estiloan eta kulturatan, ezta nahi izango balute ere —eta gutxi batzuk hala nahi zuten—. Ezingo zuten, hein batean, sinpleki ezinezkoa delako talde edo klase batentzat identitate kultural propioa pentsamenduaren bitartez soilik mudatzea. Hein batean, objektiboki, oso zoru ezberdinetan zetzatelako zen hori horrela., unibertso sozial eta ekonomiko nabarmenki ezberdin bat esleitu baitzitzairen asimilazio ereduak eskaini beharko lituzketen populazio zurien sektoreekin alderatuz gero. Eta beste hein batean, hori horrela zen asimilatu beharko lituzkeen gizarte zuriak praktikan ez zuelako halakorik inolaz ere gertatzerik nahi, zeuzkaten agintari eta ordezkariak esaten zutena esaten zutela. Eskalan beheago, *onarpenaren* estrategia zegoen. Onarpenak esan nahi zuen komunitate beltzak bere gain hartzea eta ontzat ematea egotzi zitzairen bigarren mailako hiritarren rola. Aldi berean, esan nahi zuen, komunitate zuria onartzeko prest egotea beltzak haien artean bizi zirela, beti ere ezberdin eta bereizita iraun bitartean. Konpromisozko konponbide horretan langile-klase zuri errespetagarriaren baitan komunitate beltzak izan zezakeen *inkorporazio diferentziala* zegoen nagusiki eztabaidan. Eraitza izango litzateke, ez langile-klase zuri errespetagarriarekin fusioa, baizik eta klase horren barruko «segregazio informala», hau da, klase subordinatu baten kultura. Lehenengo belaunaldian Mendebaldeko Indietako hainbat familia egonkortu ziren, arrakasta maila handiago edo

txikiagoz, negoziatutako konponbide horrekin. Familia horien artean trantsizio garaiko abangoardiako Mendebaldeko Indietako familia sakrifikatuak zeuden: modu ezberdinetan egin zuten borroka, baina beti baliokide zuri errespetagarrien ondoan, eta soldataren diziplinapean haientzat eta seme-alabentzat «bizitza duin» bat eraikitzeko, eta egiten zutena barrurantz gordeta. Ez zen bizitza asebetea, baina jasan zitekeen bizitza zen. Izan ere, bizi zituzten bazterketa eta porrot erlatiboaren esperientziak ez zirela, derrigorrez, arrazaren patu sistematikoa sinetsita zeuden, eta «seme-alabek» arrakasta izateko aukera izango zutela gurasoek porrot egitera destinatuta zeuden moduetan. Horixe da pazientzia beltz amaigabearen bidea, honezkerok ondo higatuta dagoena.

Beste estrategia posible bat zen «onarpenaren» konponbidearekin zetorren *banaketa* eta bazterketa endemikoarekin zerbait osoagoa garatzea eta hedatzea. Baina «mendebaldeko indiar kultura» Britainian errotuko bazen eta biziraungo bazuen marko sendo bat eta oinarri material bat ezinbestekoak zeuzkan: mendebaldeko indiarren enklabe-komunitate bat eraikitzea hain zuzen ere —kolonia-gizarte baten jaiotza. Maila batean ghetto «koloniaren» formakuntza erantzun defentsibo kolektiboa izan zen. Komunitate beltzak barrura begiratzea zekarren. Espazio defentsiboan jarritako enfasia nabarmenagoa bilakatzen da arrazakeria publikoaren aurrean, eta 1960ko hamarkadan zehar arrazakeria bizkor garatu zen «koloniako» mugetatik kanpoko gizartean. Hartzen zituen formatako batean, «koloniako bizitza» erreakzio defentsiboa zen —lerroak estutzea zen— arrazakeria ofizialaren aurka, hau da, 1964ko Smethwick-eko hauteskundeek, 1960ko hamarkada erdialdeko etorkinen aurkako legediak, Powellismoak eta sorterriratzeko lobbyaren sorrerak markatutako arrazakeriaren aurka. Beste zentzu batean, kolonia-gizarte bat fundatzeak esan nahi zuen barruko kohesio kulturala handitzea eta ghetto mugen barruko komunitateko populazio beltzaren lerroen artean elkartasuna handitzea. Espazio kultural bat irabaztea esan nahi zuen bizitza sozial alternatibo beltz bat loratzea posible egiteko. Barne koloniek beraz oinarri materiala eskaintzen zuten susperraldi kulturalerako. Lehenik eta behin, «Mendebaldeko Indietako kontzientzia» suspertzeko oinarri materiala, jadanik ez baitzen bakarrik buruetan edo memorian

mantentzen bizirik, kalean egiten zen ikusgarri. Eta bigarrenik (beltz amerikarren matxinaden ondoren) «kontzientzia beltz» boteretsu eta erregeneratu bat suspertzeko oinarri materiala. Orduan kale, auzo, kafetegi eta taberna jakin batzuen «kolonizazioari» ekin zitzaion, eliza ebanjelisten areagotzeari, igande eguerdietako himnoen abesteari eta igerileku lokaletako bataio kolektiboari, denda indiarretan fruta eta barazki karibetarrek gainez egiteari, taberna klandestinoari eta larunbat gauetako blues-a, ska eta soul-a saltzeari —«barruti natiboaren» jaiotza hiri ingelesaren bihotzean—.

«Kolonia» beltzaren berreraikuntzak askotariko bizi-raupen estrategia berriak ekarri zituen komunitate beltzaren baitara. Gehiengoak egunero lanera koloniatik kanpora joanez bizirauten zuen. Hala ere, beste batzuek behin betiko egoitza ghettoaren barruan hartuta bizirauten zuten. Gero eta gehiago, lanesku beltz errespetagarriaren soldatek «kolonia» beltzera bueltan zirkulatzeko joera zeukaten, eta horrenbestez, mundu sozial beltz bereizi baterako oinarri ekonomikoa ematen zuten. Era berean, «koloniak» oinarri material eta soziala ematen zuen kontzientzia berri batentzat —barruan sortutako identitate kultural beltzarentzat—. Pertsona beltzak, betirako migratzaileak ziren haiena ez zen lurrean eta aste bukaerara iristeko gogor egiten zuten borroka. Baina jada ez zuten barkamenik eskatzen zirena izateagatik: Mendebaldeko Indietako pertsonak, jaioterri eta ondare propioarekin, eta beltzak guztiaren gainetik. Mendebaldeko Indietako neska batek esan bezala: «sasikume beltz deitzen badidate esaten dut 'beltza naiz eta harro nago, baina sasikumea, ez horixe'». <sup>41</sup>

Aldi berean, «koloniako bizitzak» lan gogorraren eta soldata baxuen ibilbide errespetagarriaz gaindiko biziraupen modu *alternatiboetarako* posibilitatea sortu zuen: batez ere, askotariko salerosketa informalak, praktika erdilegalak, trikimailuak eta delitu txikiak, hau da, ghetto-bizitza orotan klasikoki *trapitxeo* gisa ezagutzen dena. Trapitxeoa «koloniako» bizilagunentzat biziraupen estrategia arrunt, beharrezko eta ezaguna den bezainbeste da arrotza eta arraroa trapitxeoaz ezer ere ez dakitenentzat.

---

41 Gillman, «I blame England» lanean aipatua.

Sarri, errakuntzaz, delinkuentzia profesionalaren sinonimotzat hartzen da. Iritzi liberalak maiz arretea eman dio urteko delitu estatistiketan pertsona beltzak proportzionalki azpi-errepresentatuta egoteari. Baina 1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960koaren hasieran, delitu txiki jakin batzuekin identifikatuta gelditzen da «kolonia». Arruntenak ziren burdel-zaintzailearena, diru sarrera immoraletatik bizi zenarena eta droga saltzailearena. Darcus Howek barne ministerioaren 1957ko memorandum bat aipatzen du eta bertan poliziari hurrengo ebidentziak emateko eskatzen zitzaion: «kolonia» beltzetako «eskala handiko delituenak», «pertsona zuriekin zeukaten nahasketa mailarenak», «legez kontrakotasunen egitateenak», «burdel kudeaketarenak» eta «bizi diren baldintzenak». Howek gogoratzen du, gainera, barne ministroak 1958ko arraza istiluei buruzko adierazpenei sarrera eman ziela «neurri batean bizioak» sorrarazten zituen «zailtasunei» erreferentzia eginez, eta iradokiz gobernuak «mespretxagarriak» deportatzeko boterea hartuko zuela, agian. Beltz errespetagarrien eta «elementu mespretxagarrien» arteko bereizketa gai arrunta bilakatu da arrazari buruzko sintaxian (gorago azaldutako klase sektore ezberdinen artean arrakala bat irekitzeko saiakera goiztiarren oihartzunak dakartza bereizketak, XIX. mendearen hasieran «txiro merezidunaren» eta «klase arriskutsuen» artekoa bezalakoa eta «langile-klase errespetagarriaren» eta «zaborraren» artekoa mende horren bukaeran bertan). Hala ere, «trapitxeoaren» eta delituaren arteko identifikazio sinplearekin gertatzen den bezala, «beltz onen» eta «beltz mespretxagarrien» arteko bereizketak desitxuratu egiten du «kolonian» bizitzera kondenatutakoei trapitxeoak eskaintzen dien aukeraren izaera.

Trapitxtoa eta delinkuentzia profesional edo antolatua aski ezberdinak dira. Trapitxtoa zalantzarik gabe gertatzen da legearen alderdi ilunean edo urrunean. Daukaten buru-zorroztasunaren arabera bizi dira trapitxeroak. Horregatik lurzoru batetik bestera mugitzera daude behartuta, trapitxto zaharretatik ihes egitera eta berri batzuk martxan jartzera, jokoan mantenduko badira. Noizean behin, «jokoak» iruzurra, proxenetismoa eta lapurreta txikiak ekar ditzake. Baina konexioei eutsi egiten dieten eta «koloniako» bizitzaren infrastruktura bere horretan mantendu egiten duten pertsonak ere badira trapitxeroak. Beti norbait eza-

gutzen duten pertsonak dira, gauzak gertatu arazten dituztenak, ondasun urrietarako sarbidea daukatenak, eta «koloniako» alderdi errespetagarrienera «beharrizan» ez hain errespetagarriak asebeste diezazkioketenak. Gau-klubetan ematen dute denbora, blues jaiak antolatzen dituzte, domino jokoak atontzen dituzte, badakite zein egunetan produzitzen duten ron zuria destilategi ilegalek. Haien alde funtzionarazten dute sistema, eta sistema bera funtzionarazten dute. Ezinbestekoak dira «koloniarentzat»; «kolonian» bizi baina lan beste nonbaiten egiten duten horiek ez bezala, «kolonian» bertan bizitzea eta «koloniatik» bizirautea aukeratu dutelako. Errutinazko lan egonkorrari uko egitean, horren orde, existentzia ekonomiko ezegonkorragoaren gorakadekin eta beherakadekin konformatzen dira. Gauzak ondo doazenean, trapitxeroak kalea estiloz hartzen duten gizonak dira, eta behin behineko zorte onaren erakusketa ikusgarria egiten dute: «*primerako katuak*» dira. Baina jokoan oso gutxi daukate epe luzeko arrakasta. Malcolm X-k ghettoke trapitxero guztien artean ospe-tsuenetakoak, kaleetako bizitzatik Elijah Muhammad-enagana «konbertitu» ondoren, behinolako lekuetara itzuli zela gogoratzen du eta:

beste hainbesteren ohiko patuak entzun zituela. Balak, labanak, kartzela, droga, gaixotasunak, erotasuna, alkoholismoa... garai zaharretan kaleko hiena eta otso gogor gisa ezagutzen nituen hainbeste biziraule lastimagarriak ziren orain. Trikimailu guztiak ezagutu zituzten baina gainalde horren azpian gizon beltz txiro, ezjakin, prestakuntzarikgabeak ziren. Bizitzak ondo tratatu eta ospea eman zien. Nahikoa ondo ezagutu nituen garai zaharretako hogeita bost-batekin egin nuen topo, eta bederatzi urteko tartean, murriztuta zeuden alokairurako eta janarirako dirua kostata lortzeko ghettoke biltzaile-trapitxeko txikiak. Batzuk, orain, hiriko erdigunean egiten zuten lan: mezulariak, atezainak, halako gauzak.<sup>42</sup>

Malcolm Harlem-er ari zen idazten, AEBtako ghettoen artean ondoen ezarritakoaz, aberatsenaz eta ondoen antolatutakoaz.

1950 eta 1960ko hamarkadetako «kolonia» ingelesetan, kaleetan lan egitea erabakitzen zutenentzat ez zegoen uzta oparorik. Bazegoen estilo jakin bat. Eta ez genuke gutxietsi behar «primerakoa izatearen» eta «arrakastatsua izatearen» estiloak

---

42 Malcolm X eta Haley, *The Autobiography of Malcolm X*, 315-16 orr.

zer-nolako goraino kargatutako kapital kulturala ematen zuen, batez ere, modu errespetagarriagoan bizirauteko borrokan, zantzu agerikoegiekin, ozta ozta aste bukaerara iristen zebiltzala zerakusten jendez inguratuta egotean. Erromantikotasun oso gutxiarekin edo bat ere gabe, alderrai ibiltzea, langabezia eta etxegabea izatea ziren trapitxeo ingelesaren bereizgarriak Malcolmen «zoot» trajeak eta bankari kontserbadoreen zapatak baino. «Kolonian» ingelesean benetan arrakastatsuak diren lanaldi osoko trapitxero gutxiago daude. TrapitxEOa «biziraupen estrategia bezala» ikusi beharko litzateke gehiago. Tartean sartutako gehien gehienak lan egonkorra aurkitu ezin dutenak dira, besterik ez. Klasearen sektore langabetuak direlako praktikatzan dute trapitxEOa —lanesku beltzaren «erreserba-armadako» aitzindari-taldea direlako—. Talde horrentzat eskala txikiko edo halabeharrezko delinkuentzian edo iruzurretan parte hartzea da biziraupenaren eta gosez hiltzearen arteko ezberdintasuna. Langabezia beltzaren goranzko kurbarekin batera, beraz, «kolonian» trapitxeotik bizi direnen kopuruak gorantz egin du egonkorki. TrapitxEOra erakarrita dagoen beste pertsona klaseetako bat, sinpleki, «Gizonarentzat» egin beharreko errutinazko lan egonkorretara makurtuko ez dena da. Nahiago dute daukaten fortuna kaleak lan egitean arriskatzea gizon zuriaren «kaka-lana» hartzea baino, edo langabeziako lerroetara elkartzea baino. Azken horien kopuruak ere gora egin du. Hirugarren talde bat «koloniano» bizitza martxan mantentzen duten horiena da, engranajeak labaintzen dituztenena, bazterreko ekintza kultural mota guztien sorkuntzaren abiada handitzen dutenena, eta horrek «kolonia» ordezkoko komunitatea izatea dakar, etxea deitu daitekeen zerbait nahiz eta pobretze materiala bizi. Hiru pertsona mota horietan daude bananduta kriminal txikiak, engainatzaileak, proxenetak eta iruzurgileak. Zentzu zabalagoan, «kolonian» bizi den oro ari da «iruzurrean». Familia beltz errespetagarriek iruzurrak behar dituzte trapitxeroek bezainbeste. Azkenek «jokoa» ekonomikoki bizirauteko behar badute, lehenengok kulturalki bizirauteko behar dute. Nola ez, trapitxeo sareek alderdi desatseginak daukate Mendebaldeko Indietako familia elizkoi errespetagarriek ezagutzea nahiago ez dituztenak. Lehenengo migratzaile belaunaldiak lan egonkor baina eskertzarrekoarekin hartutako engaiamendua, eta lan egin beharrean kaleko bizi-

tzarekin eta trapitxeoarekin bigarren belaunaldiak hartutakoa da komunitate beltzean «belaunaldi arrakala» artikulatzen den forma *nagusia*. Hala ere, «koloniako» komunitatearen presioek —zelata eta kontrol polizialaren, langabeziaren eta arrazakeria ofizial edo instituzionalaren bitartez— egonkorki egin dute gora, eta ondorioz, «koloniaren» baitako gazte eta zaharren arteko banaketa, edo bide errespetagarria aukeratu dutenen eta trapitxeoz bizirautea aukeratu dutenen arteko banaketa, ezabatu egin da. Orain, barmeko lerroak estutzeko tendentzia indartsuagoa dago mehatxu partekatu eta oldarkorren aurrean. «Kolonian», hasiera batean etsaitasun zuri orokortuaren unibertso mehatxatzailearen aurka egiteko erreakzio defentsiboa izandakoa, biziraupenerako estrategia berrietarako defentsa-basea bilakatu da orokorrean komunitate beltzarentzat.

Gazteria beltzak biziraun eta bizitza bat eraiki behar izan du etorkinen lehenengo olatuak estreinakoz sortutako estrategia multzotik aukeraketa eginda. Baina dagokien klasearen eboluzio historikoan etapa ezberdin batean topatzen dute bizi duten subordinazioa. Kolektiboki garatu dituzten erantzun ekonomiko eta kulturalak, beraz, modu adierazgarrian bereizten dira jatorrian gurasoentzat eskuragarri zeuden horietatik. Lehenengo olatuak «kolonia» eraiki zuen; bigarren belaunaldia jaio egin zen «kolonian». Belaunaldi hori da «koloniaren» benetako seme-alaba. Ez daukate beste etxerik. Gurasoak trantsizio garaiko migratzaile klase guztiek elkarbanatzen duten kontzientzia bikoitzaren jabe dira. Bigarren belaunaldia «kolonia» beltzeko kontzientzia eskusiboaren jabe da. Daukaten bizipen goiztiarrena gizarte zuriaren bihotzean erasopeko kokagune batean dagoen enklabe beltzarena da. Segregazio arrazialarekin koskortu dira bizitzako egitate gisa. Dilip Hiro-k azaldu bezala, gazte beltzek ez dute arrazen arteko integrazio sozialaren zantzu bisualik ikusten helduen munduan; ez dute arrazialki nahastuta dagoen heldu talderik atzematen kalean ibiltzen edo tabernetatik irteten; lagun zuri batek ere ez du haien familia bisitatzen; ezagutzen dituzten zuri bakarrak lanen bat egiten dabiltzanak dira (postariak, irakasleak, kontagailu-irakurleak) edo gizarte-laguntzaileak eta gizarte-langileak.<sup>43</sup> Eskoletako populazio beltza handitu egin da;

---

43 Hiro, *Black British, White British*, 81 orr.

baina elkarren arteko adostasunez, banalerro etnikoen arabera-ko segregaziora jo dute. Gazteria beltzak gurasoei ukatu zitzaizen bizipen bat ere izan dute: eskola sistemaren bidezko desjabetze kulturala. Klase bereko kide zurien ondoan lan kualifikatu eta semi-kualifikatuaren lerroetan dagokien tokia hartzeko hezkuntza-kualifikazioekin hobeto hornituta daudenez, lanpostuen eta aukeren estruktura are bortizkiago ixten zaiela sentitzen dute —ez gaitasunengatik, baizik eta arrazagatik—. Arrazakeria ingelesa, estruktura material gisa eta baita presentzia ideologiko gisa ere, ezin zaie behin behineko aberrazio bat izango balitz bezala justifikatu, hau da, oharkabekeria zuriaren emaitza izango balitz bezala. Sistemak funtzionatzen duen modua da. Daukaten esperientzia propioan da gizarte ingelesa «arrazista» —*arrazaren bitartez funtzionatzen du*—. Ezin dute lehenengo belaunaldiko etorkinen optimismoaren iturri nagusi bera erabili: denak hoberantz egiten duela denborarekin. Izatez, gauzak askoz ere okerragora egin dute nabarmenki. Eguneroko diskriminazioari eta lan aukeren galerari, etsaitasun zuriaren antolaketa politikoa gehitu behar zaio orain, senitartekoen mugitzeko gaitasuna gobernatzen duten desgaitze legal berriak —polizia jazarpenaren presio etengabea kaleetan, guztiaren gaineratik—. Ezerk ez dizu kolonia batean bizi zarela argiago uzten «indar okupatzailearen» etengabeko presentziak baino. Ez daukate etxe dei dezaketen ezeren oroitzapen hoberik ihes egiteko: «etxea» Willesden Junction, Handsworth, Paddington, Moss Side eta St Annes dira. Etengabeko barne erbesteratuak dira. «Paul-ek» Peter Gillmani-iesan zion bezala:

Barbadosi esaten diot nik etxea. Hau ez da etxea. Afrikari esaten diot etxea. Horixe da etxea. Ni ez naizelako hemengoa. Hemen jaio arren ez naiz hemengoa eta ez diot nire buruari ingeles deitzen. Izan ere, ez dut nire burua deitzeko arraza ingelesarekin zerikusirik daukan ezer erabiltzen. Haien herrialdean dagoen arrotza bezala tratatzen naute.<sup>44</sup>

Irudi negatibo horrek ez du hemen garapen gehiagorik behar. Egia da, baita ere, alde positiboagoari dagokionez, metropoliko bizitzaren errealtateak ez duela «koloniako» belau-naldi gaztea gurasoen belaunaldia bezain beste mehatxatzen. Pazientziaz iraun eta bizirauteko gogo gutxiago daukate; gizarte

---

44 Gillman, «I blame England» lanean aipatua.

zuriarenganako errespetu gutxiago; eta konfiantza oldarkorra-  
goa daukate nor diren pentsatzeko orduan. Zentzu horretan,  
«koloniak» identitate kultural alternatibo positiboak eraikitze-  
ko oinarria eman du. Lehenengo belaunaldiko beltz asko nekez eta  
minez pasatu behar izan da trantsizio puntu horretatik. Wallace  
Collins, Mendebaldeko Indietako arotzaren autobiografian era  
elokuentean dago adierazita:

Desilusioarekin bukatzea erabaki nuen, gizon zuriaren gizartearen  
munstrokeria errukigabe bezain lotsagabearekin.[...] Metamorfosia nire  
barruan gertatu zen ni ohartu gabe, nire jendearekin nahasten hasi nin-  
tzen arte.[...] Nire jendeak desiratzen eta nahi ninduela sentitu nuen. [...]  
Bertakoa nintzen.<sup>45</sup>

Bigarren belaunaldia sinpleki belaunaldi beltza da, bada-  
ki beltza dela eta ez da beste ezer izan beltza ez denik. Daukan  
kontzientziak Ras Tafariek «*groundation*» deituko luketena jaso  
du oinarritzko eta beharrezko ezagutzan. Oso nekez gertatzekoa  
da, beraz, belaunaldi horrek inoiz pausuak ematea asimilazio-  
rako bidean. Asimilazioaren aukera, irtenbide kolektibo gisa, ez  
du soilik gizarte zuriak itxi ofizialki, baizik eta beltzek beraiek  
ere aktiboki itxi dute ate hori, barrutik, eta buelta eman diote  
giltzari. «Onarpen» estrategia deitu dugun horrek ere ez dauka  
gomendatzeko askoz gehiagorik. Gurasoen pairamen infinitua  
gazteria beltzak isiltasunezkoegia den irtenbide gisa ikusten  
du orain —sarriegi «Gizonaren» aurrean errenditzea eta amore  
ematea zekarrena—. Lanaren eremua bera da gazteria beltzak  
gurasoek gogoz kontra onartu behar izan zutena erresistitzen  
eta arbuiatzen duten gudu-zelai nagusietako bat. 17 urterekin  
Dilip Hiro ingeniari apendizak kontatu zuenez, «langileburuak  
esan zidan erratza pasatzeko.[...] Bazegoen peoi zuri bat (eta  
haren lana zen) ezertan ere ez, eta ezetz esan nuen. Kalera-  
tu egin ninduten. Aitari kontatu nion eta esan zidan, 'erratza  
pasatu behar zenuen'. Aitari esan nion, 'zurituta zaude, ingele-  
sek burua usteldu dizute'». <sup>46</sup> 18 urteko «Paulek» esan zion Peter  
Gillman-i: «etxetik bota ninduten. Zaharrari ez zitzaion gusta-  
tzen bizitzarekin egiten ari nintzena. Trapitxeoan ari nintzen,  
hemendik eta handik dirua ateratzen, lanik egin gabe, eta ez

45 Hiro, *Black British, White Britishen* aipatua, 80 orr.

46 *Ibid.*

zizaion gustatzen eta horregatik esan nuen banindoala. La-runbat gaez irten nintzen eta kisketaz itxi zuen atea eta ez zidan utzi berriro etxean sartzen». <sup>47</sup> Beste gazte batek ezberdin azaltzen du:

Nire ambizioa da aita Londreseko garraio publikotik ateratzea. [...] Ez dut lotsarik bertan lan egiten duelako, hori ez da ezer, aita gizon langilea delako eta familia handi bat atera duelako aurrera, eta horregatik errespetua merezi duelako. Kontua da txartelak batzen egiten duela egun osoa autobus horretan eta hori ez da batere ona. Gustatuko litzaidake inoiz berarengana joatea eta esatea, «aita, emazkiezu txartelak eta deskantsatu, hartu zure txartelak eta deskantsatu, besterik ez». Esaten du harro dagoela gogor lan egiteaz eta hori guztia, baina benetan nori gustatuko litzaioke autobus baten irtetea hotz honekin herri honetan. Inori ere ez. Eta ez du inporta zer esaten duen, badakit arreta eman diodalako eta badakit ez zaiola gustatzen. Baina badaki beranduegi dela berarentzat esateko, «begira, mutil, ez dut lanik egingo, trapitxeoan arituko naiz edo beste zerbait egingo dut edo musika joko dut —artista bat izan edo apustulari bat—.» Beranduegi da. Erantzukizun bat du, baina pertsona gazte gisa kontsideratu eta esan behar duzu, «hara, begiraiozu zaharrari, herri honetara etorri zen aberastasun bila eta autobus batean dago egunero eskaileretan gora eta behera, oihuka, 'bidai-txartel gehiago'!» Esan behar duzu sistema honek funtzionatzen duen modua kontuan hartuta soilik pausu bat gorago egongo naizela ni, eta gero nire semea ni baino pausu bat gorago egon beharko litzatekeela.[...] Eta horrela beti. Norbaitek egin behar du nire familian salto, familia guztiak gora egin dezan. <sup>48</sup>

Eskola-graduatu beltzak barneratzeko gai zen bitartean, lan merkatuk gazteria beltzari espektro okupazionalako «kaka-lanaren» muturra esaten dioten hori esleitzeko joera zeukan. Baina langabezia sakondu ahala, langile multzoko azken muturrerantz doazenak bilakatzen dira klaseko erreserba-armada langabetua. Langile gisa behar zituen sistemak horretarako ere ez ditu behar gehiago, eta horrenbestez, daukaten posizio objektiboak okerre-  
ra egiten du. Baina prozesu objektibo hori kolektiboki ulertzeko eta erresistitzeko moduan gertatzen ari den aldaketa da faktore dinamikoa. Ondorioz, «lanik ez izatearen» esanahi politikoa eta eduki soziala erabat eraldatu da barrutik. Lan egin ezin dutenak ohartzen ari dira ez dutela baldintza horietan lanik egin nahi. Langabetuak «kontzientzia negatiboko» forma berri bat ari dira

47 Gillman, «I blame England» lanean aipatua.

48 «The Black Youth Speak», *Race Today*, 1975eko apirila.

garatzen enplegaezinak izatearen kondizioaren bueltan. Noski, behin behineko egoera izan daiteke kondizio hori, eta ondorioz kontzientzia forma iragankorra. Beherago eztabaidatuko dugu horrela balitz halako posiziotik sistemaren negazioa den beste ezer antolatzea posible den ala ez. Bitartean, «berez» klasea den sektore beltz hori hasi da «beretzako» den indar politikoa bilakatzeko prozesua egiten:

Baldintza ekonomikoek [...] herri honetako jende masa langile bihurtu zuten lehenik. Kapitalaren konbinazioak egoera komun bat sortu zuen masa horrentzat, interes komunak. Masa hori klase bat da jada kapitalaren aurka, baina ez oraindik beretzako klase bat. Borrokan [...] masa hori batu egiten da eta bere baitarako klase gisa konstituitzen du bere burua. Defendatzen dituen interesak klase interes bilakatzen dira. Baina klaseen arteko borroka, borroka politikoa da.<sup>49</sup>

Berebiziko garrantzia dauka aldaketak. Noski, ez du Marxek zirriborratutako lerro klasikoa jarraitzen. «Lanik ez izatearen» esperientzia komuna da itxuraz katalizatzailea ematen duena produkzio sozialeko konbinazioaren diziplina baino gehiago — oraindik lanean dabiltzan sektoreentzat militantziaren tempoa nabarmenki aurreratu bada ere—. Aldaketa kualitatibo hori ez da berez gertatu. Historia propioa dauka. Identitate beltzaren aurkikuntzarekin hasi zen, eta zehazkiago esanda, emigrazioaren esperientziaren barruan «koloniako» bizitzaren sustrai afrikarren berraurkikuntzarekin. «Koloniako» populazioan gertatutako berpizte «afrikarra» gerraosteko iraultza afrikar nazionalistek elikatu eta babestu zuten. Baina eduki positiboa —eta baita «koloniarren» mugen eta bizitzaren baitako materializazio argia ere— 1960ko hamarkadaren hasieratik aurrerako Amerikar Estatu Batuetako askapen mugimendu beltzetatik jaso zen eta ghettoetan zehar hedatu ziren matxinada beltzetatik, «beltza ederra da» eta «botere beltza» eslogan mobilizatzaileetatik:

Lehen pentsatzen nuen beste guztiak bezalakoa nintzela. Baina gero ohartzen hasi nintzen. Lehenengo aldia 1965ean izan zen Watts-en istiluak egon zirenean. Munduko gauza guztiei begira jarri nintzen eta ohartu nintzen gizon beltz bat bezala hasi behar nuela portatzen, eta arro egon behar nuela eta hori guztia».<sup>50</sup>

49 Marx, *The Poverty of Philosophy* (Mosku: Foreign Languages Publishing House, 1956).

50 Gillman, «I blame England» lanean aipatua.

Aktibista politikoen eskutik etorritako komunitate beltzaren politizazio aktiboko garai beteena izan zen hura, eta barne hartzen ditu Stokely Carmichael eta Malcolm Xk Britainiara egindako bisitak. Pantera Beltzak bezalako taldeek garatutako erresistentzia beltzaren estiloa, eta Seale, Cleaver, Newton, George Jackson eta Angela Davis bezalako agintariek sortutako etniaren irudi positiboak izan ziren «koloniako» gazteria beltzaren imajinazioa lehenengo harrapatu zutenak, eta ez hainbeste «botere beltzak» doktrina politiko gisa. Garapen britainiar eta amerikarren arteko identifikazio puntu garrantzitsuenetako bat izan zen, hain justu, mugimendu amerikarrak «ghetto bizirau-penaren politikaren» gainean eraikitzeko izan zuen modua, eta «trapitxeroari» eman zion esangura politiko berria. Langile-klase beltzak zeukan rolararen estereotipo guztiz negatiboa positiboki birdefinitu zen 1960ko hamarkadako pizkunde kultural beltzean. Ez zen soilik matxinada beltz amerikararen ordezkari eta agintari entzutetsu askok kale bazterren delinkuentziako bizitzan hasi zuela ibilbidea. Kontua zen mugimenduaren bultzada guztia zegoela diseinatuta mugimendu politikoa behetik gora beltzen artean eraikitzeko —eta horrek esan nahi zuen «koloniaren» barruko oinarritik, ghettoaren espazio defentsibotik abiatzea—. Pantera Beltzek gidatzea espero zitzaizkeen «tropa» bakarrak ghettoko langile-klaseko beltz lunpenak ziren. Kaleetako anai-arrebak ziren «armetan burkide».

1960ko hamarkadaren amaieraren eta 1970eko hamarkadaren artean, erresistentzia kulturalaren haziak ez dira soilik ernamuindu herrialde osoko Harlem britainiarretan zehar, are loratu ere egin dira —baina oraingoan forma afro-karibetar berezigarrian—. Ez zegoen beharizanik ghetto ipar amerikarretako estilo edo irudiak literalki mailegatzeko. Kaleko bizitzak zoru afro-karibetarrean sustrai bereizgarri propioak zeuzkan. «Koloniako» beltzen artean Ras Tafarianismoaren erlijio-politika apokaliptikoaren berpiztea, eta «kolonia» anglo-karibetarren musikaren soinuak —rock-steady blue-beat-a, ska eta reggae-a— eta jamaikar «rude boy-en» estilo «gogorra» konbinatu egin ziren matxinadari hiztegi eta sintaxi berri bat emateko, askoz ere sintonizatuagoa zegoena kaleetako alderrai bizitzara kondenatutako horien existentzia materialarekin eta kontzientzia emergentearekin. «Rasten» iruditegi berpizlearen bitartez, des-

jabetuen musikaren bitartez (eta gehitu behar da, desjabetuak zirela Kingstonen bezainbeste Brixtonen edo Handsworthen) eta reggae soinu sistemen erritmo gidari etengabearen bitartez, «Babilonetik» askatzeko esperantza etorri zen. Afrikara-itzul-  
tzeko sektaren «kultura», Ras Tafariena, funtsezkoa da hemen. Azken urteetan Brixtonen eta Kingstonen, bietan, behinola baz-  
terrekoa eta gorrotatua zen taldearen janzkerak, sineskerak, filosofiak eta hizkuntzak eman dute oinarria hirietako gazte beltzen sektoreen artean kontzientzia beltza orokortzeko eta erradikalizatzeko. Nazionalismo kultural beltz indartsu baten iturria da. «Zapalduen erlijio» horrek reggaearen erritmo eta iruditegian gorpuzturik, gizon eta emakume beltz gazteen bu-  
ruak bereganatu eta gorpuzak astindu egin ditu.<sup>51</sup> Britainiak, pertsona beltzak zapalduta eta oinazean bizi diren herri horrek; pertsona beltzak *egon* badauden baina *bertakoak* ez diren lurralde horrek; bakartzearen, desjabetzearen eta jazarpenaren herrialde horrek, era perfektuan sintetizatzen du kredo Ras Tafariarraren «Babylon-a». «Bakea eta maitasuna» esanez agurtuko dute elkar anaiek «etxe» barruan. Baina «Babyloni» musikak «zigor makila» promesten dio, eta anaiei promesten die «boterea» —«utzi bote-  
*reari erortzen*»—. Dominazio kultural zuriaren zeinu oro haren negatibo eta kontrako gisa itzulikatuz, eta zapalkuntza kultura «sustraietatik» gora sufrimendu eta borroka kultura gisa berrira-  
kuriz, inarrote kultural horren esnatzeak eduki berria ematen dio ukitzen duen ekintza orori eta esanahi berriarekin betetzen ditu Lambethen zein Kingston mendebaldean. Beltzen arteko herri mugimendu berri baten jatorri-puntu ideologikoa da: ma-  
txinada politiko ez organizatu baten lehen haziak. «Kolonien» kontrol polizialaren hedadurak; gazte beltzen aurkako «jazarpe-  
naren» arbitrariotasunak eta bortizkeriak; «gazte etorkinei» zein delinkuentziari buruzko antsietate publiko eta izualdi moral gero eta handiagoak; eta ghetto-  
ko tentsioak arintzeko eta arazoak «baretzeko» diseinatutako proiektu sozial eta komunitarioen tamainak, oraindik guttiz zehaztu gabeko moduan, gudu-zelai

---

51 Ikusi D. Hebdidge, «Reggae, Rastas and Rudies: Style and the Subversion of Form», C.C.C.S. Stencilled Paper 24 zbk., C.C.C.S., University of Birmingham, 1974; berreiz inprimatuta, forma laburragoarekin, *Resistance through Rituals* lanean, ed. Hall eta Jefferson; eta R. Nettleford, *Mirror, Mirror* (Londres: CollinsSangster, 1970).

«politiko» bat kontrolpean edukitzeko inpresioa indartzeko balio dute soilik, «koloniaren» barruan eta kanpoan.

Heldu beltz errespetagarri askori oraindik iruditzen zaio «lanik ez izatearen» bizitza eta delitu txikien denboraldi osoko bizitza biziraupen arazoentzako legez kanpoko irtenbide desesperatua dela eta aurka egiten diola komunitateari. Espero dute eta otoi egiten dute behin behineko egoera izan dadin. Aldi berean, gero eta asaldatuago daude «koloniako» gazteak hautu horretara eramaten dituen esplotazio mailagatik eta zapalkuntza arbitrarioagatik, orain, beste edozein modutan biziraun ezin dezaketenen aurkako errutinazko kontrol erantzuna bilakatu baitira. «Koloniako» populazioaren zati edadekoago batentzat delinkuentzian sartu-irten alderraia jadanik alderdi egonkorra bilakatu da daukaten existentzia ekonomiko ezegonkor eta prekarioan. Gazteria beltzari dagokion egoera bi disposizio horietatik bereizi egiten dela ematen du. Adibidez, gaur egun ezinezkoa da esatea zenbat eskola-graduatuak ezin duen lanik lortu, zenbatek ez lukeen halako lanik hartuko, eta zenbat ari den lan egiteari uko egiten estrategia politiko eta positibo gisa. «Trapitxero» bizitzaren ziurgabetasuna hobea izan daiteke, kualifikaziorik gabeko lantegi-lanaren monotonia aurreikusgarria baino. Orain bertan, edozein kasutan ere, aukerarik ere ez dago eskura lan merkatura lehenengoz iritsi den gehiengoarentzat. Baldintzotan aipatutakoak bezalako bereizketa sotilak egiteko saiakera alferreko ariketa izan daiteke. Ez du kontuan hartzen hautuak nola dauden baldintzatuta. Biziraupenaren auzi material konkretuak agente askeen hautu arrazionalerako kalkulu argiz ebatzi ahalko balira bezala tratatzen ditu. Portaera soziala buruko erabakien mailara murrizten du, irizpide moral unibertsalen arabera eginak balira bezala, eta erabat ustekabeen gaur egungo muga legalak ezartzen diren moduarekin kointzidituko balute bezala. Gazteria beltzak delinkuentziarekin daukan harreman ambiguoak ezin da horrela ulertu. Eskuragarri dauden kontakizunek argi eta garbi erakusten dute gazte beltz gutxi batzuek egiten diotela aurre, batetik, lan gogorraren, eta bestetik, delinkuentziaren arteko hautu argiari, eta behin betiko ebatzen dutela estrategia baten ala bestearen alde. Faktore eragileetako bat, hain justu, bi belau-naldien artean dagoen ezberdintasuna da bizirauteko arazoan aurrean hartzen dituzten jarrerai dagokienez. Lan egiteko gai

izan gabe edo gogorik gabe, eta kaleko bizitza arduragabeagoak erakarrira, gazte beltzak ohartzen dira ez direla gurasoen etxean gatazkarik gabe bizitzeko gai. Baina behin etxetik irtenda ere ez dago bizitzeko lekurik ezta diru sarrera egonkorreko iturririk ere langabezia bizirauteko. Trapitxtoa edo noizbehinkako ebasketak dira egoera horrentzako behin behineko soluzio berehalakoak eta erabat aurrikusgarriak, etxegabetasuna, «kalean lo egitea» eta alderrai ibiltzea bezala. Kolonia beltz orok dauzka gela, kafetegi eta ostatu propioak, batzuetan eskaini egiten direnak, eta sarriagotan sinpleki okupatu —kolonizatu— egiten direnak, eta bertan, gazte beltz erne eta azkarrak, beroki eta oihalezko txanoetan, krisiari eutsi egiten diote, ez besterik. Sarri, tokiko kafetegi-jabe beltz batek pena hartu eta gela edo espazio bat garbituko die gutxienez berotan egon daitezen. Beste eremu batzuetan, gizarte langile beltzak, kasik bitartekorik gabe, gazteon «denbora libre» iraunkorra antolatzen saiatzen dira eta ekintza erabilgarriren edo probetxugarriren baten bilakatzen. Baina alderrai ibiltzea eta prekarietatea amaigabeak dira. Langile-klase beltzaren frakzio horrek soldatagabekoen eta lanik gabekoen egiteko tradizionalen jarduten du: ezer egin gabe, denborapasan, bizirauten saiatzen. Errealitate horren kontra «zergatik hautatzen dute delinkuentzia?» galdetzea gordinkeria praktikoa dela ez da gehiegi esatea.

Patroi jakin batzuk azaleratzen hasi dira hemen. Delinkuentziaren alderdi ilunean barrena lehenengo pausua noizbehinkako ebasketekin dator: postu irekietatik edo supermerkatuetatik gauzak harrapatzea. Bigarrena, harrapaketa handiagoaren tentazioa da —poltsikoetatik eta erosketa otzaretatik kentzea, diru-zorroa lapurtzea—. Aukerak hobeak dira eta harrapaketa handiagoa da kale irekian, espazio urbano anbiguoetan eta alfer-lurretan, edo metro geltokiaren labirintoan. «Hiriko goiko parteetan» alderrai ibiltzen hasten da zenbait eta antolaketa sozialagoa eskatzen du jarduerak orduan —bikoteka lan egitea edo konexio katea antolatzea ebatsitako diru-zorroa pasatzeko— sare egonkorragoa. Gero eta gehiago, bizitza ebasketa arrakastatsuen menpe gelditzen da. Klasearen frakzio bat ari da *kriminalizatzen*. Ebidentzia guztiek iradokitzen dute legezko bizitzaren bazterretan modu horietan biziraute-ra behartutakoen kopurua langabetu kopuruarekin bat ari dela

handitzen eta bizitza horretan parte hartzen dutenen adin muga erortzen ari dela. Mutil horietako batzuk orain prest daude delinkuentzia profesionalizatuan errekrutatu ditzaten, eta delituak —ez noizbehinkako ebasketa aurrikusezinak, baizik eta etxe hutsetan, sarri egun argitan, egindako indarrezko sartze planifikatuak— ohiko bizibidea bilakatzeko promesa dakar: *ordezko lanbide bat*. Adin tarte jakin batera mugatuta dago ebasketetan eta lapurreta txikietan parte hartzen dutenen kopurua. Tarte horrez gaindi, tendentzia da edo alde batera uztea, batez ere lana lortzeko besteko zortea izan baduzu, edo bizitza estilo kriminal egonkorragoan graduatzea. Ebidentzia orok argi erakusten du are delinkuentziaren «alderdi ilunaren» parte diren bitartean ere, gazteriaren gehiengoak erregulariki jarraitzen duela lana bilatzen. «Kale-lapurretak» biziraupenerako delituen artean formarik bortxazkoenak, planifikatuak eta gupidagabeenak ez du errepresentatzen azaldu berri dugun patroizabalagoaren frakzio ñimiño bat besterik. Soilik alderrai dabilen populazioaren sekziorik zailduenak praktikatzen du, eta delinkuentzia konbentzionalean parte hartzera edo gelditzera behartutakoek ere alde batera uzteko joera daukate.

Aukera izugarri gaindeterminatu horien logiketan harapatuta daudenek egindako aukerak kontzientzian nola berreskuratzen eta eraldatzen dituzten kontu ezberdina da. Izan ere, ez baitira mutil eta neska zuri arruntak, ondo garatutako eta egokitutako subordinazio kontzientzia bat jadanik eskuragarri daukatenak. Baztertutako talde beltza dira mundu zuri dominatzailean. Eta garatzen ari diren kontzientzia beltzak ezagutza moduko bat eman die, errudimentarioa bada ere, bide jakin batzuetarantz bultzatzen dituzten indarren izaera sistematiakoaz, eta baita arrazakeriaren printzipio estrukturatzaileaz ere, indarrean dagoena eta zeinaren biktima diren. Gazte beltz gutxiak *aukeratzen dute* delinkuentzia kontzienteki gizarte zuriaren aurkako mendeku politiko gisa. Baina kontzientziak eta arrazoiek ez dute modu horretan funtzionatzen. Posibleagoa da baliagarri zaizkien biziraupen estrategia apurretako batera bultzatuta edo eramanda sentitzean, bizi duten egoeraren definizio kolektiboa garatzea; eta, garatzean, arrazakeriari eta arrazakeriaren sistemari buruzko sentimendu eta emozio kargatuen erreserba eskuragarritik tira egitea. Bizipen konkretuetan, maiz, ekintza

praktikoei jarraitu egiten diete arrazoiek eta arrazionaltasunek, ekintza, esanahi eta zio-hiztegiek, aurretik etorri beharrean. Horrek ez du esan nahi aitzakia komenigarriak besterik ez direnik, edo estaltzeko istorioak. Esan nahi du ekintza patroï jakin batzuk atzerabegiradan iruzkindu eta berrinterpretatu daitezkeela progresiboki azaleratzen diren esanahien arabera. Hasiera batean, bizi baldintzen —patuaren— emaitza dirudiena, antolaketa sozial eta historiko partikularren emaitza gisa ulertzen da amaieran. Modu higiezinan aldagaitz gisa bizitako eta norbere baldintzen eramaile gisa inskribatzen dituzten estrukturetan «emandako» existentzia moldeak agentzia edo praktika positiboagoan eraldatu daitezke horrela. Horrek gazteria beltzaren artean delinkuentziari buruz dauden jarrerak eta ulerkerak sakonki anbiguo mantentzea dakar: bizi duten bizitza alde guztietatik gobernatzen duen arrazakeriaren ethosarekin estalita, eta hala ere, estrategia politiko kontziente edo antolatu gisa era argian artikulatu gabe. Ematen du delinkuentzian parte hartzen duten zenbaitek ez daukatela delituari buruzko sentimendu berezirik. Horixe da haien bizitza eta poliziaren lana da haiek gelditzea edo harrapatzea. Badakite, atzemanetz gero, segur aski tratamendu berezi, gogor eta bortxazkoa jasango dutela. Kriminal profesionalaren ardura, existentzia propioaren kondizio baldintza gisa, poliziaren eskuetatik urrun irautea da. Lanbidearen arriskueta bat da denboraldi bat kartzelan ematea. Beste askorentzat, hala ere, delinkuentziaren alderdi ilunera bultzatuta sentitzeak soilik konfigurazio zabalago baten baitan hartzen du zentzua. Sistematikoki esplotatzen eta baztertzen dituen gizartearen ordezkari eta «pertsonifikazio» gisa ikusten dituzte topo egiten dituzten zuriak —biktima zein polizia—. Hortaz, delinkuentzia sentimendu eta ideia politizatuagoz dago anbiguoki beteta. Ghettoiko «liskartiaren» eta «gizon gogorraren» estatus tradizionalari dago lotuta, eta aldi berean, zapalkuntza zuriaren aurkako borroka eta erresistentziarako bitarteko berria adierazten du —sarri modu leundu, orokortu edo apokaliptikoan—. Bi sentimendu-estrukturak batera existitzen dira ekintza patroï beraren baitan. Eta sentimendu estrukturok ikusgarri bilakatzen dira hurrengoak konbinatzeko moduetan: egun argiz jendez betetako lekueta lapurreten lotsagabekeria burugabea, biktima

zurien berariazko hautaketa, eta ghettorik at Londreseko West End-en ebasketa aberatsagoak lortzeko egitandi planifikatuak.

«Ez dugu gure jendea ukitzen. Ez dut inoiz pentsatu gizon beltz bati egitea» konfesatu zuen gaztetxo batek. «Gizon beltz batek ez lidake niri egingo. Baina badakit gizon zuri batek egingo lidakeela. Gizon beltz batek badaki denok ari garela berdina sufritzen. Denok saiatzen gara trapitxeatzen bakoitza bere erara» ohartarazi zuen bigarren batek.<sup>52</sup>

Halako glamour bat atxiki dakioke behin behinean delinkuentzia txikiaren bizitzari. Baina modu horretan luzez biziraun behar dutenen kontakizunek edo gaur egun atxiloketa-zentroetan edo kartzeletan indarrak galtzen ari direnen kontakizunek argi eta garbi erakusten dute ez daukala ezer ezta lausoki ere erromantikorik. Existentzia prekario, nahaspilatsu, desesperatua da beti indarkeriaren mugan dagoena eta edozein arrazoirengatik parte diren guztiak suntsitzen dituen. Poliziaren etengabeko arretak eta jazarpenak jarraitzen dio, eta ilundu ostean kalean dagoen edozein beltz gazte multzokatzen ditu poliziak kategoria berean. Erroko kausa komuna beharizan material huts, xinplera jarraitu daiteke. Londreseko Harambee-ko Herman anaiak benetan zeukan arrazoia ohartarazi zuenean:

Ez dago delinkuentzia profesionalerako asmorik hemen. Gertatzen dena da momentu batean gose direla eta dirua behar dutela. Mutil bat kalean dago, eta ez du janaririk ezta bizitokirik. Epaitegietara noa egunero eta ikusten ditut mutil klaseak eta ofentsen izaerak —ez dut inolaz ere gaitasun kriminalik ikusten bertan—. Baina ez dut uste epaitegiek mutilok bizi duten estutasuna onartzen dutenik.<sup>53</sup>

Pertsona gazte beltz bakoitzak «kale-lapurretaren» konponbideraino hartutako ibilbide biografiko partikularra berberaikitzea ezinezkoa bada ere, aski erraza da gisa honetako biografia tipiko bat eraikitzea. Nerabe beltzak eskola uzteko zorian dio: «eskolara zoazenean, ezberdintasunaz ohartzen zara, ohartarazten dizute. Haiek (ume zuriek) barre egiten dute zutaz. Hasieran haiek limurtzen saiatzen zara —gozokiekin, izozkiekin, eta antzekoekin—. Baina orduan egun batean ezin duzu gehiago jasan. Erasokor jartzen zara, benetan erasokor, eta astindua ematen diezu»<sup>54</sup> (horra mutil batek egunen batean jazarri deza-

52 Gillman, «I blame England» lanean aipatua.

53 *Ibid.*

54 Hiro, *Black British, White British*, 79 orr.

keen «kale-lapurretaren» indarkeria, medioetako lerroburek, epailearen homiliak eta barne ministerioko estatistikariak tes-tuingurutik abstraituko dutena, biografia horretan dago jadanik inskribatuta, berdin dio haur horren buruan zer urrun dagoen ibilbide kriminalaren aukera). Etor-kizunerako aukera bat ere ez da onegia, eta okerrera egiten ari dira. Zortea badauka «etor-kizunik gabeko» lanpostu erreskada bat izango du langabezia aldi luzeekin tartekatuta —eta gero eta gehiago, ezta hori ere—. Gurasoek badakite momentu gogorra ari dela igarotzen; baina bizipen mingots propioetatik badakite baita ere zer datorkion lan egonkorra aurkitzeko gai izango ez bada. Lagunekin alde-rrai ibiltzen hastzen da eta etxeko oihukaldiak sarkorrogoak eta ohikoagoak bilakatzen dira. Etxerako handiegia da jadanik eta pobreegia bizimodu independenterako; baina goiz ala berandu, ezer aldatzen ez bada, etxea utziko du. Orain kalean dago modu iraunkorrean. Agian lagun baten etxera joango da bizitzera; ohe bat aurkituko du beltzen ostatu batean edo kalean bertan egingo du lo aterperik gabe. Ez zaio kalean sarriegi ikusiko. Poliziak ilundu ostean aurkitzen badu, gelditu eta galdekatu egingo dute, agian baita haztatu ere. Ez dauka helbide egonkorrik. Oraindik ez du ofentsarik egin; baina inolako helbururik gabe, on zein txar, ilundu ostean egonean dauden gazte beltzen taldeak jopuntu errazak dira. Poliziarik ez zaio gustatzen daukaten itxura, duten ibilkera, daramatzaten bero irauteko oihalezko txanoak, dituzten moduak eta lotsagabekeria. Gazteei ez zaie gehiegi gustatzen kaskoaren azpian dagoen aurpegi zuri ofizialaren begirada. Ba-koitza besteak noiz salto egin dago zain. Gehienetan norbaitek egin egiten du salto (mutil hori ez da oraindik «lege-hausle bat», oraindik ez da «bakearen asaldatzaile bat»); baina bi identitate horiek, bulego-sarjentuak madarikatu egingo dituen eta epaile sententziatzaileak kontra egingo dien bi identitateak, jadanik patuan dauzka inskribatuta). Talka gertatzen da «txakurrekin» eta eztanda egiten du. Ihesean daude orain; baina ez dago nora korrika egin kalean gorago ez bada. «Negro-isekak» oraindik gaueko airean dilindaka dirau: «bat batean tipoa ikusten duzu eta diozu, tira...».<sup>55</sup>

---

55 Gillman, «I blame England» lanean aipatua; ikusi baita ere V. Hines, *Black Youth and the Survival Game in Britain* (Londres: Zulu Publications, 1973).

Baina eman dezake krimenak berak erresistentziarako oinarri bat kapaz dena gero eta gazte gehiago delinkuentziaren lerroetara errekrutatzen bultzatzen dituzten bizi-baldintzak eraldatzeko edo are aldatzeko ere? *Badira* trapitxeoa eta delinkuentzia txikia klase-estrategia bideragarri baterako oinarri potentzialak? Edo «kontzientzia kriminalaren» patua da soilik kontzientzia forma sasi-politiko gisa mantentzea, oposiziorako oinarri espontaneo eta bat-batekoa emateaz gain, krimena «konponbide» bideragarri gisa produzitzen eta erreproduzitzen duten estrukturetara *egokitzea* ahalbidetzen duena? Ez da krimena hain justu forma bat langile-klasearen soberakina irentsi bitartean sekzio hori politikoki ez-aktibo erretratzen duena krimena patuari lotuz —*kriminalizatuz eta suntsituz*? Horiek ez dira soilik kontzientzia terminoetan bakarrik erantzun daitezkeen galderak. Ez dira krimenaz bakarrik arduratuta ebatzi daitezkeenak ere.

### **Delinkuentzia beltza, proletariora beltza**

Puntu honetan, urrundu egin behar dugu gazteria beltzaren sekzioetako batzuk «kale-lapurretaren konponbidera» daramatzen berehalako logikatik. «Delinkuentziak» estrategia politiko gisa daukan bideragarritasuna baloratzeko, langileria beltzaren parte kriminalizatua berraztertu behar dugu langile-klase beltzarekin osotasunean daukan harremanaren arabera, eta daukan posizioa determinatzen eta gobernatzen duten harremanen arabera —batez ere, produkzio-molde kapitalistaren egungo fasean daukan funtsezko posizioaren, eta lanaren banaketa sozial eta lan soberakinaren egikaritze eta apropiazioan daukan egitekoaren arabera—. Egungo koiunturako gatazka politikoarekin delinkuentziak daukan harremanari buruz egiten ari garen balorazioan harreman estrukturelok barne hartu behar ditugu.

Azken urteetan, gizarte-historialariek gero eta arreta handiagoz aztertu dituzte mendebaldeko Europako gizarte industrial kapitalista garatuetan proletariora klasikoaz gaindi, beste klaseek egindako matxinada sozialak eta insurgentzia politikoak. Neurri batean, gizarteotako langile-klasearen kontentzio politiko luzearen emaitza izan dira azterketok, eta baita beste tokietako eraldaketa historiko nagusiak proletarioraz gaindiko klaseek abiatu dituztela ohartzearen emaitza ere —iraultza txinatarrean

nekazariak hartutako lekua adibiderik esanguratsuenen besterik ez da—. Beraz, nekazarien iraultzen azterketan egiteaz gain, eta (Latinoamerikan bezala) nekazarien sektore esanguratsua eta baita garabidean dagoen langile-klase industrialaren sektore esanguratsua daukaten gizarteotan sortzen ari diren estrategiari buruzko auziez gain, matxinada sozialeko beste forma batzuk ere aztertu dituzte —istilu eta matxinada aurreindustrialak, hiriko jende-osteak, landa eremuko ezinegonak, bidelapurreta soziala eta beste—. Hala ere, ikuspegi ortodoxoa nagusitzen dela dirudi eta esaten dute, gizarte industrial garatuei dagokienez, klase pobreen eta lunpenen «matxinadak», edo elementu kriminalen eta «klase arriskutsuen» ekintzetan inskribatutako erresistentzia quasipolitikoaren formak ezin direla epe luzeko interesekoak izan funtsezko herri mugimenduez arduratuta daudenez. Azterketoi (errebelde primitiboei, proletariotza lurgabearen in-surrekzioei, eta bidelapurreta sozialari buruzko liburuekin<sup>56</sup>) ekarpen nagusienetakoa egin dion Hobsbawm irakasleak berak termino erabat argietan ezarri ditu mugak. Argudiatzen duenez, azpimundu kriminalak «antisozialak dira balio propioak kontzienteki ezartzen dituzten heinean nagusi diren balioen aurka». Baina:

Azpimunduak (adibidez, nekazari bidelapurrek ez bezala) gutxitan hartzen du parte herri mugimendu eta mugimendu iraultzaile zabalagoetan, behintzat mendebaldeko Europan [...]. Gainjartze agerikoak daude bereziki ingurune batzuetan (hiri handietako etxola barrutietan, pobre semiproletarioen kontzentrazioetan, eta «bazterreko» gutxiengoaren ghettoetan besteak beste) eta kriminal ez-sozialak protesta sozialaren ordezko izan daitezke edo idealizatu egin daitezke ordezko gisa. Baina orokorrean, halako kriminaltasun motak interes txikia dauka historialari sozialarentzat eta langile mugimenduen historialarientzat.<sup>57</sup>

Gizarte industrial kapitalista aurreratuetan funtsezko klase iraultzailea proletariotza delako da aipatutakoa horrela. Kapitalaren baitan eta kapitalaren bitartez sortzeaz gain, kapitalaren aurkako borroka proletariotzak antolatu du —kolektibo eta «metodiko» egin du— soldataren diziplinan, eta lan sozialaren baldintzetan eta harremanetan hezitako klase baten borroka

56 E. J. Hobsbawm, *Primitive Rebels* (Manchester University Press, 1959), *Labouring Men, Bandits*.

57 Hobsbawm, «Conference Report», *Bulletin*, 25 zbk., 1972ko udazkena.

izan delako. Faseetan antolatutako klase gatazkaren historia dago horrela presente, eta borroka formarik aurreratuena daukan agentzia historikoa laneku antolatuaren borroka izatea ondorioztatzea dakar kapitalismoaren garapenaren gaur egungo fasean:

Herri mugimendu kontzientea eta bereziki langile mugimendua garatu ahala, protesta sozialen forma «kriminalen» egitekoa txikiagotu egiten da; noski, «delinkuentzia politikoa» dakarten kasuetan izan ezik [...]. Langile mugimenduen historialarientzat «delinkuentzia sozialen» ikerketa langile pobreen historiaurreko formazio garaietan, herrialde aurre-industrialetan, eta ziur aski eferbeszentzia sozial handiko garaietan da garrantzitsua, baina bestela bazterreko ardura bat izango da soilik.<sup>58</sup>

Beste nonbaiten, Hobsbawnek argudiatu du:

Azpitundua (izenak berak dioen bezala) antigizartea da, mundu «zuzenaren» balioak itzulikatuz existitzen da —hitzak dioen bezala, «okertuta» dago— baina horrez gain parasitikoa da mundu «zuzen» horrekin. Mundu iraultzailea ere mundu «zuzena» da. [...] Azpitundua iraultzen historian sartzen da classes dangereuses-ak classes laborieuses-ekin nahasten diren heinean soilik, nagusiki hiriko auzo batzuetan, eta sarri autoritateek errebeldeak eta matxinoak kriminal eta gaizkile gisa tratatzen dizutelako. Baina printzipioz, bereizketa garbia da.<sup>59</sup>

Auzi oso garrantzitsuak mahai-gaineratzen ditu argudiaketa horrek.

«Kriminal pobreen» mugimenduak, itxuraz, Gramscik «organiko» beharrean «koiuntural» izendatutakoa direla ulertzeko baldintzak ari dira azpimarratzen Hobsbawn eta beste batzuk. Hiru proposizio dakartza horrek. Klase kriminalek ezin dute herri mugimenduetan funtsezko egitekorik bete, lehenik eta behin, daukaten posizioa bazterrekoa delako bizitza produktiboari eta halako formazio sozialen harremanei dagokienez. Bigarrenik, historikoki proletariotzari dagokionez bazterrekoak bilakatu direlako, eta borroka politikoaren antzokiaren erdigunean proletariotzak ordezkatu dituelako. Hirugarrenik, klaseak beharrezkoa duen kontzientzia kontuan hartuz gero, estratu sozial horrek tradizionalki garatzen duen kontzientzia forma ez delako egozia, klaseak produkzio-molde bat beste batengatik ordezkatzeko

---

58 *Ibid.*

59 Hobsbawm, *Bandits*, 98 orr.

helburua baitu. Hortaz, «klase arriskutsuen» bizitzak eta balioek mundu burgesaren itzulikatzea errepresentatzen badute ere, azken finean, mundu burges horren mugen artean mantentzen dira —mundu horrek konfinatzen ditu eta horrenbestez parasitikoak zaio—. Agerian utzi da jada halako interpretazio ortodoxoek «delinkuentziaren teoria marxista» garatzeko orduan izan duen eragina. Alvin Gouldner-ek, adibidez, adierazi zuen:

Desbideratuak eta kriminalak klase-borrokari egiteko erabakigarriak beteko ez luketen *lumpenproletariotza* gisa ikustean, eta areago, indar erreakzionarioek erabili ditzaketen talde gisa ikusten, marxistek ez zeukaten normalean delinkuentziaren eta desbideratzearen teoria sistematiko bat garatzeko helbururik. Labur-labur, proletario zein burges izan gabe, eta borroka politiko zentralaren periferian kokatuta, kriminalak eta desbideratuak ethezainak eta neskameak ziren kasurik onenetan, lantza-eramaileak, aktore koloretsuak agian, baina izenik gabekoak, eta okerrena dena, «misio» historikorik gabekoak. Auzi «garrantzitsuagoen» ikerketara emana zeudenek —boterea, borroka politikoa eta klase gatazka— baztertu egin zituzketen. Izan ere, baztertu egin behar zituzten.<sup>60</sup>

Idazle marxista batzuek argudiatu ere egiten zuten delinkuentziaren eta desbideratzearen arazoak «pentsatzeko» beharrezko kontzeptuak berak arrotz zitzaizkiola Marxen alor kontzeptualari —hau da, materialismo historikoaren problematikari teoria gisa—. Esandakoa oinarri hartuta, Hirst-ek argudiatzen du definizioz ezin dela «delinkuentziaren teoria marxistarik» egon.<sup>61</sup> Helduaroko lanetan —*Kapitalan* gehienbat— Marxek delinkuentziari buruzko ikuspuntua hartu egiten duela argudiatzen du Hirstek, hau da, kritika moraletik aldendu egiten dela, eta horren ordez, ikuspuntu erabat materialistaren proposamen zientifikoa oinarritzen dela. Marko horren barruan, delinkuentzia (lapurreta) birbanatzailea da soilik. Prostituzioa, apustu-jokoa eta iruzurrak bezala, lan produktiboa baino gehiago, lan «ez-produktibo» mota bat da, eta «ilegala» izan badaiteke ere harreman kapitalista normalak gobernatzen dituzten arauen arabera, gehienetan «kapitalista» da daukan forman (adibidez, ekimen kriminal antolatuen kasuan) —hau da, atxikitzen zaion

60 A. Gouldner, «Foreword», Taylor, Walton eta Young-en, *The New Criminology* lanean, xii orr.

61 P. Q. Hirst, «Marx and Engels on Law, Crime and Morality», *Critical Criminology* lanean, ed. Taylor, Walton eta Young.

sistemara parasitikoki dago egokituta—. Posible da delinkuentziaren «bazterreko» posizioaren analisisa garatzea Marxek «klase kriminalei» egotzen zien izaerari eta egitekoari arreta emanda. Proletariotzak produkzio-molde kapitalistaren edozein eraldaketan hartzen duen zentraltasuna gainbalioaren iturri gisa produkzioan hartzen duen eginkizunagatik da. Produkzio-moldeak egokitzen dio posizioa proletariotzari.

Posizio horrek —eta ez Marxek *Filosofia*ren *miserian*<sup>62</sup> eta lan goiztiarragoetan aipatutako agente historiko kolektiboaren kontzientzia-hartze prozesuak— definitzen du laneku produktiboa molde kapitalista sozialismo bilakatzeko borrokan aurrera egiteko gai den klase bakar gisa. Proletariotza eta burgesia dira beraz, eskema horretan, funtsezko indar politikoak. Beste klaseak edozein formazio sozialetan gertatzen diren produkzio-molde baten baino gehiagoren konbinazioaren ondorioz existitzen dira; baina ezin dira indar erabakigarriak izan klase-borroka politikoan. Marxek iradokitzen du borrokaren momentu jakin batzuetan proletariotzak aliantzak bilatuko dituela beste klase subordinatu batzuekin. Eta proposatzen du aliatu horiek burgesia txikia, hirietako luntzenproletariotza, nekazari txikiak edo laneku laborariak izan daitezkeela. Baina Hirstek ondorioztatzen du Marxen ustetan luntzenproletariotza ezin fidatuzko klase aliatua zela. Izan ere, lapurretaren, estortsioaren, eskean ibiltzearen, prostituzioaren eta apostu-jokoen bitartez langile-klasetik parasitikoki bizitzeko joera dauka luntzenproletariotzak: «dauzkaten interesak diametralki oposatzen dira langileenetatik». Are gehiago, daukaten posizio ekonomiko prekariora dela-eta, «estatuko eta klase agintarietako elementu erreakzionarioek» eroserrazak dira. Hortaz, argudioak dioenez, delinkuentzia-ekintza indibidualak kapitalismoaren biktimek eginiko borondaterik gabeko ekintzak dira: «ez, finean, existitzen den ordenaren aurkako matxinada politikoen formak, baizik eta ordena horretarako egokitze gutxi gora behera erreakzionarioak».<sup>63</sup> Modu agerikoagoan «politikoak» diren delituek ere, Luditek makinak apurtzen zituztenean kasu, borroka forma bat-bateko, espontaneo baina azken batean desegokia errepresentatzen dute, ez daudelako zuzen-

---

62 Marx, *The Poverty of Philosophy*.

63 Hirst, «Marx and Engels on Law, Crime and Morality», 218 orr.

duta «produkzio baldintza burgesen aurka, baizik eta produkzio baldintzen aurka orokorrean». Borroka iraultzailearen oinarri gisa, halako ekintzak alferrekoak dira; eta egiteko bakarra «borrokarako forma eta ideologia horiek eraldatzea da».<sup>64</sup>

Zenbateraino zen historikoki zehatza Marxek *lunpenproletariotzaren* izaera eta egituraketaren analisia? Argi dirudi Marxek eta Engelsek idatzi ahala garai victoriar erdialdeko Ingalaterra-ko eta Pariseko «klase arriskutsuak» zeuzkatela buruan. Pasarte klabeetako bat Marxek *Brumairearen hemezortzian* garatutako 1851ko krisian izandako egitekoaren analisia da. *Lunpenproletariotza* klase orenen detrito kriminal gisa agertzen da pasarte grafiko horretan —*desklasatuak* gizaki aldraren azpian—:

Bizibide ezezagun eta ilun samarreko *roué* porrot egindakoekin batera, burgesiaren seme ustel eta abenturazaleekin batera, baziren arloteak, soldadu lizentziatuak, preso ohiak, galeretatik ihes egindako esklaboak, alprojak, txerpolariak, *lazzaroniak*, zorro-lapurrak, saltinbankiak, jokariak, *maquereauxak*, burdel-jabeak, zamaketariak, literato eskasak, organo-jotzaileak, trapuketariak, literato eskasak, organo-jotzaileak, trapuketariak, zorrotzaileak, galdaragileak, erromesak; hitz gutxitan esanda, frantsesek *bohème* esaten dioten jende-masa guttiz desegin, zehaztugabe, lauso eta alderria.<sup>65</sup>

Ezaguna da zerrenda Engelsen *Langile-klasearen egoera Ingalaterran*<sup>66</sup> (*Die Lage der arbeitenden Klasse in England*) laneko orrietatik edo Mayhew-k eginiko Londreseko ekialdeko bizitzaren kontakizunetik.<sup>67</sup> Galdetzekoa da osaketa sozial zehatz hori daukan klase geruza hain erraz identifikatu daitekeen kapitalismo monopolistaren baldintzen baitan. Kontua ez da soilki Marxen iragarpen historiko eta politikoak iraungita daudela esatea. Burgesia txiki zaharra, proletariotzaren aliatu izateko Marx eta Engels noizean behin optimistago agertzen zen hura, bizirik dirau oraindik baina nabari gutxiago dira. Eszena politikoan agertu egiten denetan, okupatzen zuen posizioagatik bakarrik Marxek aurreikusgarria zeritzon egiteko erreakzionarioa betetzen du burgesia txikiak —Frantzia poujadismo mota askotarikoe-tan adibidez, eta faxismoaren gorakadan, Alemanian, 1930eko

---

64 *Ibid.* 219 orr.

65 Marx, «The Eighteenth Brumaire», 267 orr.

66 F. Engels, *The Condition of the Working Class in England* (Londres: Panther, 1969).

67 Mayhew et al., *London Labour and the London Poor*, IV liburukia.

hamarkadan—. Baina esandakoarekin batera, estratu berriak azaleratu dira forma monopolistetaranzko aldaketaren ondorioz eratorritako produkzio kapitalistaren funtsezko berrantolatetatik —batzuetan «burgesia txiki berri» gisa izendatutakoa—. Estratu horren identifikazio ekonomikoak eta daukan izaera politiko eta ideologikoak benetako arazo konplexuak dakartzkio teoria marxista garaikideari. Klaseen estratuetan eta osaketan gertatzen diren halako barne aldaketek bete betean egiten dute bat Marxen helduaroko gogoetekin. Konplexutasun horretan murgiltzear zegoen *Kapitalaren* eskuizkribua eten egiten zenean. Formazio kapitalista garaikideetan *lunpenproletariotzari* nork eta zerk erantzuten dion galdekatzen duen auzia, beraz, ez da espekulazio alferra. Eta ondoren datorren eztabaidak, hau da, bi-zimodu gisa delinkuentzian parte hartzen duen oro analitikoki «lunpen» kategoriari dagokion ala ez galdetzeak lanketa teoriko eta argitzaile serioa behar du, eta ez da behaketa enpiriko hutseko arazoa.

Produkzio kapitalistaren harreman ekonomikoetan konstituitutako klaseen arteko harremanak eta harreman horiek klase-borroka politikoaren antzokian indar politiko gisa agertzen diren formak ez dira, ezta ere, kontu sinplea, bereziki Marxen teoria helduagoaren kokagunetik galdekatuz gero. Baina lan berankorra —*Kapitalan* forma ekonomikoez eta metatze kapitalistaren harremanez burututako analisia— aldendu egiten da Marxen idazlan goiztiar batzuetatik, batez ere produkzio kapitalistaren «mugimendu-legeen» baitan langile-klaseak hartzen duen posizioari erreparatzen badiogu. Lehenago, Marxek proletariotza zapaltzaileekin borrokan ari zen klase «zapaldu» gisa ikusteko joera bazeukan, *Kapitalak* erabat berrantolatuko du argudioa produkzio kapitalistaren beraren zoruaren gainean eta auto-hedapenaren zirkuituaren baitan. Produkzioaren barruan langileak jasaten duen esplotazioak (hau da, lan-indarra identifikatzeak prozesu guztia eusten duen, gainbalioaren iturria gainlanean ezartzen duen eta «kapital» gisa egikaritzen duen «mekantzia» gisa) ematen dio Marxi *Kapitala* lanean «iraultza teoriko izugarria» egiteko oinarria. Kapitalak lan-indarra esplotatzeko eta gainbalioa erauzteko bide ugari zeuzkan eskura —hasteko, lan eguna luzatzea; gero, kapital konstante gisa lan-indarraren esplotazioa intentsifikatzea makineria aurreratuen

produkzio-indarra areagotzeari esker; eta horrela langilea gero eta era zuzenagoan subsumitzea—. Baina, zeukan forma zeukala, kapitala ezin zen existitu egun batez ere produkzion gabe. Eta produkzion ez zen posible, klasetan estrukturatutako produkzio kapitalistaren harremamen baitan, lan produktiboaren esplotaziorik gabe. Ondoren, Marxek gizarte kapitalisten funtsezko mekanismoa funtsezko harreman horretatik azaleratzen ziren kontraesanetan kokatu zuen —hau da, produkzio «indar» eta «harremanen» artean—. Produkzioaren esferatik kanpoko beste forma asko ziren beharrezkoak «kapitalaren zirkuitua» bermatzeko —merkatu, elkartruke eta zirkulazio harremanak; familiaren eremua, zeinak soldaten bitartez lan-indarra berriren baitzuen; produkzio-molde hori ezartzen zen gizartea gainbegiratzen zuen estatua; eta beste asko—. Azken finean, produkzio kapitalistaren zirkuitu osoak gainerako esfera horiek guztiak behar zituen —beranduago «erreprodukzio esfera» deitu diren horiek hain justu—. Eta behar zituen, baita ere, askotariko klaseak, eta klaseok esplotatutako klase-estratuak. Baina «azken buruan» produkzio harremanek menderatzen zuten zirkuitu konplexu osoa. Eta beste esplotazio formak, eta beste harreman sozialak produkzio mailako funtsezko kontraesanen arabera pentsatu behar ziren, azkenean. Marxek *Kapital*ako hainbat lekutan azaltzen du esandakoa:

Ordaindu gabeko gainlana produktore zuzenetatik ponpatzeko forma ekonomiko zehatzak determinatzen du agintarien eta aginduen arteko harremana, produkzion bertatik sortu, eta jarraian, elementu determinatzaile gisa erantzuten diolako. [...] Produkzio-baldintzen jabeek produktore zuzenekin daukaten harreman zuzena —lanaren metodoen garapenean fase zehatz bati, eta horrenbestez daukan produktibitate sozialari naturalki dagokion harremana— da beti sekretu intimoena ezagutzera ematen duena. Hots, estruktura sozial osoaren oinarri ezkutu, eta oinarri horrekin batera subiranotasunaren eta dependentziaren arteko harremanaren forma politikoa ezagutzera ematen du, hau da, estatuari dagokion forma zehatza. Horrek ez dio eragozten oinarri ekonomiko berdinari —eta berdina da daukazan baldintza nagusien kokagunetik begiratuta— gradazio eta bariazio itxuraz infinituak erakustea baldintza empiriko ezberdin zenbaezinak, ingurune naturala, harreman arrazialak, kanpoko eragin historikoak eta beste hainbeste direla kausa.<sup>68</sup>

68 K. Marx, *Capital* (Londres: Lawrence & Wishart, 1974) I liburukia, 791-2 orr.; eztabaida garrantzitsu baterako, ikusi J. Gardiner, S. Himmelweit eta M. Mackintosh, 'Women's

Ikuspuntu horretatik ondorioztatzen dugu, delinkuentziari eta *lunpenproletariotzari* buruzko goragoko eztabaidaren inplikazio hertsietatik aldentuta ere, delinkuentziatik bizi den klase edo sektoreetatik azaleratzen den borroka politikoa ezin dela izan, analitikoki, hain zentrala produkzio harremanetatik eratortzen diren kontraesanentzat. Analisiaren mailarik sinpleenean, besterik gabe ez dago estrategikoki kokatuta kapitalaren «mugimendu-legeen» baitan. Hala ere, irakurketa horrek ez du aipatzen zein den estrukturaliki klase baten parte kriminalizatuak daukan egitekoa klase horretako bertako *soldatadunei*, hau da, sektore produktiboei, dagokienez. Eta langileria beltzaren sektore «soldatadunen» eta «soldatagabeen» arteko harremana, kapitalarekin daukan harremanean gaur egungo forman, zein den galdekatzen duen auzira gatoz berriro horrela. Horri buruz, Marxek zerbait erabakigarria zeukan esateko *Kapitalan*, hots, —langabetuen estratu ezberdinez hitz egiteko— «laneskuaren erreserba-armada» izendatutakoak metatze kapitalistaren funtsezko erritmoekin zeuzkan harremanei buruz. Gai honi helduko diogu momentu baten.

Lehenengo eta behin, hala ere, ohartarazpen bat egin behar dugu Marxen kapitalaren teoria, finean, teoria produktibista deitu den forma horietako baten gisara erabiltzearen kontra —kapitalari ezerk inportako ez balio bezala zuzenean «lan produktiboan» parte hartzen duten masa langileen sektoreaz gain—. Marxek, baike, erabili zuen lan «produktibo» eta «ez-produktiboaren» arteko bereizketa, ekonomista politiko klasikoen definizioa jarraituta baina aldentuta. Lan produktiboa gainbalioaren produkzioan zuzenean parte hartzen zuen sektore huraren, kapitalarekin zuzenean elkartrukatzen dena. Langileriaren beste sektore askok, kapitalak berdin berdin esplotatuta egonik ere, ez zuten zuzenean gainbaliorik produzitzen, eta elkartrukea ez zuten kapitalarekin egiten, diru-sarrerekin baizik: «lanak zirkulazio hutsaren prozesuan ez ditu erabilera-balioak produzitzen eta ondorioz ezin du baliorik edo gainbaliorik gehitu. Lanesku ez-produktiboen talde horrekin batera daude diru-sarrerekin

---

Domestic Labour', *Bulletin of the Conference of Socialist Economists*, IV liburukia, 2 zbk. (ii), 1975eko ekaina.

zuzenean mantendutako langile guztiak, izan zerbitzariak zein estatuko langileak».<sup>69</sup>

Teoria marxistaren eremu konplexu eta eztabaidatuenetako da lan produktibo eta ez-produktiboaren teoria, eta dauzkan ondorioak ez digute hemen zuzenean eragiten. Marxek ezagutu zuen kapitalismoan, «lan ez-produktiboa» gutxi garatuta zegoen erlatiboki eta sarri alferrean zeudenei, besteen lanaren parasitoei, edo bazterretako produktoreei mugatzen zitzaion. Ezin daiteke berdina esan kapitalismoaren forma modernoetara buruz, langileriaren sektore «ez-produktiboa» eta zerbitzariena izugarri hedatu baita, kapitalarentzat zalantzarik gabe *klabeak* diren funtzioak betetzen dituztelarik; eta langileen proportziorik handiena diru-sarrerekin aritzen baita elkartrukean (estatu langileak, adibidez), gainbalioaren produkzio zuzenean parte hartzen dutenen proportzioa txikitzen ari dela dirudielarik. Baldintza horietan, lan «produktibo» eta «ez-produktiboaren» arteko banalerroa —itxuraz Marxentzat aski simplea— gero eta zailagoa bilakatu da marrazten emaitza argiak lortzeko. Hala ere, bereizketa garrantzitsua izan daiteke langile-klase modernoan dauden askotariko geruzak, eta estratu berrien posizioak eta identitateak identifikatzeko. Dena den, argi dago argudioa nahastu egin dela bereizketa nabarmenki gaizki ulertu delako, baita Marxek egin zuen moduan ere. Lan «ez-produktiboa» soilik Marxen zentzu peioratibo eta friboloan interpretatu da batzuetan —ekonomikoki eta politikoki hutsala izango balitz bezala—. Argi eta garbi, Marxek ez zion adiera hori eman eta *Kapitalaren* bigarren bolumenaren irakurraldi batek, zirkulazioa eta erreprodukzioa luzaz lantzen duen horrenak, berehala ematen du hori aditzera. *Kapitalaren* argudio osoak demostratzen du gainbalioa produzitzeko kapitalaren esferari zuzenean lotuta ez dauden harremanak zein garrantzitsu eta beharrezkoak zaizkion kapitalaren egikaritzeari, eta kapitalaren hedapenari eta erreprodukzioari. Kapitalak literalki ezingo luke ibilbidea edo zirkuitua burutu inguruko esfera «horietan zehar igaro» gabe. Gainera, jarraian adierazi zuen kapitalak ez duela soilik gainbalioa zuzenean produzitzen duen klasearen sektorea *esplotatzen*. Beste klase sektore asko *esplota-*

---

69 I. Gough, «Productive and Unproductive Labour in Marx», *New Left Review*, 76 liburukia, 1972.

tzen ditu kapitalak, esplotatzeko modua gainbalioaren erauzketa zuzena ez bada ere. Hortaz, «produktibo» eta «ez-produktibo» kontzeptuak analisiaren helburuetarako mantendu behar baditugu ere langile-klasearen estratu ezberdinak identifikatzeko, ez dago Marxen azalpenik produktiotik kanpora esplotatutako estratuak eta klaseak «hutsalak» edo beharrezkoak izango ez balira bezala tratatzeko, kapitalaren dialektika kontraesankorretik kanpo:

Marxen helburua lan produktibo eta ez-produktibo kontzeptuak garatzeko orduan ez zen langileak banatzea. Justu kontrakoa [...] kontzeptu horiez lagunduta Marxentzat posible izan zen ikertzea balioa nola hedatzen den produktioaren prozesu zuzenean eta nola zirkulatzen duen erreproduktzioaren prozesuan.<sup>70</sup>

Puntu hori garrantzi handikoa da marxismoaren eta mugimendu feministaren baitan emakumezko etxeko langileak kapitalean hartzen duen posizioari buruz azkenaldian gertatutako eztabaidarentzat, eta erakusgarri gisa balio digu guri. Eztabaidari hasieran egindako ekarpenetako baten, Seccombe-k argudiatu zuen «etxeko lana» ikuspuntu marxistatik «ez-produktibo» gisa ebatzi behar dela, eta itxuraz iradokitzen zuen horrexegatik ezin zitekeela halako oinarritik borroka politiko erabakigarriarik antolatu kapitalaren aurka kontraerasotzeko gai zenik<sup>71</sup> (antzeria, analogiaz argudiatu liteke ez dagoela kapitalari eragiten dion borroka politikorik antolatzerik soldatagabe beltzez, «delinkuentzia» ekintza funtsean birbanatzaileetan parte hartzen duten trapitxero beltzez, eta nagusiki zerbitzu sektoreetara eta «ez-produktiboetara» mugatutako gizon eta emakume beltzez osatutako oinarriarekin). Seccomberen planteamendua- ren alderdi asko jarri ziren zalantzan eztabaida teoriko luze eta garrantzitsuan.<sup>72</sup> Ondorengo ekarpen batean, Seccombek argitu

---

70 P. Howell, «Once more on Productive and Unproductive Labour», *Revolutionary Communist*, 3-4 zbk, 1975eko azaroa.

71 W. Seccombe, «The Housewife and her Labour under Capitalism», *New Left Review*, 83 liburukia, 1973.

72 Adibidez, M. Benston, «The Political Economy of Women's Liberation», *Monthly Review*, 1969ko iraila; P. Morton, «Women's Work is Never Done», *Leviathan*, 1970ko maiatza; S. Rowbotham, *Woman's Consciousness, Man's World* (Harmondsworth: Penguin, 1970); J. Harrison, «Political Economy of Housework», *Bulletin of the Conference of Socialist Economists*, 1974ko udaberria; C. Freeman, «Introduction to 'Domestic Labour and Wage Labour'», *Women and Socialism: Conference Paper 3*, Birmingham Woman's Liberation Group -eskuragarri 26 Lonsdale Rd helbidean, Harborne,

egin zuen zeukan posizioa.<sup>73</sup> Etxeko lana zentzu hertsian «ez-produktiboa» izan bazitekeen ere, «langile-klaseko etxekoandreak merkantzia jakin baten produkzioari egiten dio ekarpena —hau da, lan-indarraren produkzioari [...] eta prozesu horren bitartez hartzen du parte produkzio sozialean—».<sup>74</sup> Halaxe da familiaren eta sexuaren araberako lan-banaketaren bitartez gertatzen den lan-indarraren erreprodukzioa, Marxen zentzu hertsian, produkzio-molde kapitalistaren funtsezko existentzia-baldintzetako bat. Eta kapitalak langileari erauzten dionaren parte bat ematen dio banaketa horri —kapital aldakorra— eta, «erreprodukzioa» gertatu dadin, soldata gisa «aurreratu» egiten dio langileari eta haren familiari. Etxeko lana «ez-produktiboa» izan badaiteke ere balioa produzitzen du, ados dago Seccombe. Kapitalak esplotatu egiten du —zehazkiago, birritan esplotatzen du sexuaren araberako lan-banaketaren bitartez, eta funtsezkoa da kapitalaren mugimendu-legeentzat—. Sexuaren araberako lan-banaketaren bitartez kapitala kapaz da jabetzeko «ez soilik esfera ekonomikoaz, baizik eta gizarteko esfera guztiez [...] balioak kapitalaren babes zuzenetik kanpo gertatzen den lana erregulatzen [baitu]».<sup>75</sup>

Gure argudio nagusiarekin zuzenean lotuta ez badago ere, etxeko lanari buruzko digresio horrek kontuan hartzekoak diren emaitza batzuk dakarzkigu. Etxekoandreak produktiboki «ezer egiten ez duela» ematen du: *lanean dihardu* baina ez dirudi *lana egiten* duenik. Dagokion esfera —etxea— atzematen da, beraz, itxuraz kapitalaren bihotz produktiboaren espektroko beste muturrean egongo balitz bezala: soberakoa, bazterrekoa, alferrikakoa. Hala ere, lan-indarraren erreprodukzioari egiten dion ekarpenarekin, eta familia-kontsumoaren agente gisa daukan egitekoarekin, etxekoandreak produkzio kapitalistarentzat ezinbestekoa eta berebizikoa den harremana sostengatzen du. Ekarpn hori berezko produkzio-prozesutik banatu, zatitu, se-

---

Birmingham B17 9RA; J. Gardiner, «Women's Domestic Labour», *New Left Review*, 89 liburukia, 1975 (jatorrian *Women and Socialism: Conference Paper 3ko* hitzaldi gisa inprimatuta, 1974); M. Coulson, B. Magas eta H. Wainwright «The Housewife and her Labour under Capitalism -A Critique», *New Left Review*, 89 liburukia, 1975 (jatorrian *Women and Socialism: Conference Paper 3ko* hitzaldi gisa inprimatuta, 1974); eta Gardiner, Himmelweit eta Mackintosh, 'Women's Domestic Labour'.

73 W. Seccombe, «Domestic Labour: Reply to Critics», *New Left Review*, 94 liburukia, azaro-abendua 1975.

74 Coulson, Magas eta Wainwright, «The Housewife and her Labour under Capitalism».

75 Seccombe, «Domestic Labour».

gregatu eta konpartimentalizatu egiten dela da garrantzitsua. Eta une berean harremana konektatu eta ezkutatu egiten duena *sexuaren araberako* lan-banaketaren bitartekaritza bera da, lan-banaketa *sozialaren* barruko estruktura gisa. *Forma jakin horretan*, kapitalak «dauzkan babesak» hedatu egiten ditu halatan diharduela iruditu gabe. Eta emakumeak etxetik kanpoko lanera eramaten direnean ez dira soilik espektro okupazionalako mutur nagusiki kualifikatu gabeen, sindikatu gabeen eta «ez-produktiboan» agertzen, baizik eta sarri, baita «etxeko lan» edo «emakume-lan» gisa hautematen diren eta antzeko izaera daukaten lan motetan —bakarrik etxetik kanpo egiten direla (zerbitzu-, ehungintza-, elikadura-ofizioak eta beste)—. Braverman-ek argudiatzen du emakumeak «lanesku erreserba osagarri nagusia» bilakatu direla AEBtako ekonomian, hau da, oinarrian «gaizki ordaindutako, zerbitzari lanpostu ‘osagarrietaranzko’»<sup>76</sup> mugimendua gertatu dela. Seccombek nabarmentzen du kapitalak etxeko lanaren gainean daukan eragina hedatzeko bide erabakigarrietako bat dela etxeko lanetik «lan produktibora» zer proportzio eramaten duen erregulatzea edo zenbat ateratzen dion. Izan ere, «[kapitalak] estrukturatzen du populazio langileak erreserba-armada industrialarekin dauka[n] harremana, eta etxeko andreak armada horretako partaide latente eta sarri aktiboak dira».<sup>77</sup> Paralelismo estuegiak egiten saiatu gabe, hurrengo esan dezakegu: (1) emakumeen eta beltzen borrokek biek estrategia arazo larriak erakusten dituztela borroka sektoriala klase-borroka orokorrago batekin lerrokatzeko orduan; 2) biek posizio estrukturalki zatikatua okupatzen dutelako izan daitekeela hori, edo esplotazio kapitalistari «estruktura bikoitz» baten bitartez lotzen zatzaizkielako —*sexuaren araberako* banaketa klase-harremanen barruan lehenengoan, eta banaketa *arraziala* klase-harremanen barruan bigarrenen-; 3) biek daukaten harremana argitzeko giltza ez dela bakoitzak zuzenean *soldata* jasotzen duen ala ez galdetzea, bakoitzaren proportzio bat, momentu oro dagoelako enplegatuta —hau da «soldataduna» delako— gainerakoa «soldatagabea» den bitartean; 4) Giltza

---

76 Braverman, *Labor and Monopoly Capital*.

77 Seccombe, «Domestic Labour».

laneskuaren erreserba-armadan sartu-irteneko mugimenduaren gainean kapitalak daukan kontrolean datzala.

Seccomberekin izandako eztabaidan, etxeko lana «produktibo» gisa kontuan hartzeko arrazoiketa indartsuena Selma James eta Mariarosa Dalla Costak egindakoa izan zen *Emakumeen boterea eta komunitatearen subertsioa* (*The power of women and the subversion of the community*) lanean.<sup>78</sup> «Soldatak etxeko lanentzat» kanpaina kapitalaren aurka zuzenean ekiteko potentzial subertsibodun mobilizazio feministarako estrategia izan zen bi horientzat. Selma Jamesen *Sexua, arraza eta klasea* (*Sex, race and class*) lanean analisis borroka beltzetara hedatzen da.<sup>79</sup> Lehenengo testuaren sarrerak era argian adierazten zuen argudiaketaren muina, eta azpimarratzen zuen lan egiteari uko egiteak zeukan balio estrategikoa:

Familia kapitalismoan [...] nagusiki *produktio sozialerako* gunea da. Lehenago, ustezko marxistek esaten zutenean familia kapitalistak ez zuela kapitalismoarentzat produzitzen, ez zela produktio sozialaren parte, emakumeen *botere sozial* potentziala arbuizatzea zekarren horrek. Edo hobe esanda, emakumeek etxean botere sozialik izan ezin zutela pentsatuta, ezin zuten ikusi emakumeek etxeetan ekoitzi egiten zutela. Zure produktioa ezinbestekoa bada kapitalismoarentzat, produzitzeari uko egitea, *lan egiteari* uko egitea, botere sozialerako funtsezko palanka da.<sup>80</sup>

*Sexua, arraza eta klasean* emakumeak eta beltzak bezalako taldeek bere gain hartzen dituzten borrokak azaldu eta klase-borroka osotasunean elkartzeko moduaren interpretazio berritzaile baterantz hedatu zuen argudiaketa Selma Jonesek. Nagusiki, *kas-ta eta klase* kontzeptuen lanketa berri batean oinarritu zen Jones. «Manufakturak», Marxek *Kapitalan* argudiatu zuenez, «soldaten eskalari dagokion lan-indarren hierarkia garatzen du».<sup>81</sup> Lan-banaketa internazionalak, Selma Jonesen hitzetan, «lan-indarren hierarkiaren» areagotze batera darama, hau da, langile-klasea zatitu egiten du arraza, sexu, nazio eta belaunaldien banale-rruetan zehar. Eta klase osoan daukaten posizioaren bizkar, klasearen sektore bakoitza mugatu egiten du «kastaren» baitan

---

78 S. James eta M. Dalla Costa, *The Power of Women and the Subversion of the Community* (Bristol: Falling Wall Press, 1972).

79 S. James, *Sex, Race and Class* (Bristol: Falling Wall Press, 1975).

80 James eta Dalla Costa, *The Power of Women*, 6 orr.

81 K. Marx, *Capital* (Londres: Lawrence & Wishart, 1974) | liburukia.

daukan posiziora. Marxek gehitu zuenez, «funtzio mugatu batek bizitza osorako bereganatzen eta jabetzen du langile individual bakoitza, [...] hierarkiaren askotariko operazioak langileen artean partzelatzen dira langileek dauzkaten gaitasun natural eta ikasitakoen arabera»<sup>82</sup> (Marx, noski, garapen kapitalistako beste fase batez ari zen idazten. Argudiatzen zuenez, «industria modernoak» lan-banaketa ezberdina zekarren. Selma Jonesek «lan-indarren hierarkia» kontzeptuaren hedapena ez du garapen kapitalistaren beranduagoko fase horretarako defendatzen). Klaseen zatiketak —lan-indarren hierarkiak— ahulezia erreprezentatzen du kapitalaren aurrean. Baina, argudiatzen denez, gaur-gaurkoz ez da posible klase-estrategia «orokor» alternatiborik (eta puntu honetan argudiaketak C. L. R. James-enari, hau da, ziurrenik egundainoko marxista karibetar itzal handikoenak eta entzutetsuenak dioenari, jarraitzen dio hurbiletik zera azpimarratzen duenean: molde leninistako abangoardia-alderdi batek ere ezin duela aldarrikatu barne-zatiketa hain handiko klasearen «izenean hitz egiten» duela). Borrokaren azentua beraz (eta Jamesen beraren ohartarazpenekin egiten du bat honek) klasearen sektore bakoitzeko ekintza propio autonomoan datza. Sektore bakoitzak «botere autonomo» propioa sentiarazi behar du lehenik; eta «norbere bizipenen espezifikotasuna» erabilita «klasea eta klase-borroka definitu [...]. Guk uste dugu, identitatea —kasta— klasearen substantzia bera dela».<sup>83</sup> Soilik sektore bakoitzeko borroka autonomoaren bitartez sentiaraziko da «klase boterea» osotasunean. Argudiategi hau, *Race today*<sup>84</sup> aldizkarian garatu da teorikoki, eta Britainiako talde beltz aktiboen artean tendentzia politikorik indartsuena bihurtu da. Borrokan dauden talde beltzen ekintza propioetan eta autonomian bermatzen da; eta gero eta langabe beltz gehiagok borrokaren gai garrantzitsuena «lan egiteari uko egitea» dela identifikatu du. Gazte beltzen langabezia tasa handia «lan egiteari uko egite» politiko kontzientearen parte gisa berrinterpretatzen dute. Lan egiteari uko egite hori erabakigarria da kapitalari kontraerasotzen diolako. Esan nahi

---

82 *Ibid.*

83 James, *Sex, Race and Class*, 13 orr.

84 Adibidez, Howe, «Fighting Back»; I. MacDonald, «The Creation of the British Police», *Race Today*, 1973ko abendua; eta F. Dhondy, «The Black Explosion in Schools», *Race Today*, 1974ko otsaila.

du klasearen sektore horrek uko egiten diola jadanik lan produktiboan ari direnen aurkako lehian sartzeari. Horrenbestez, *ukoa egiten dio* «laneskuaren erreserba-armadaren» egiteko tradizionalari —hau da, oraindik lanean dabiltzan horien negoziazio gaitasuna ahultzeko erabili daitekeen tresna izateari—. Ondorioz, «irauli egin zuen langileria etorkinetik ahalik gainbaliorik handiena lortzeko kapitalaren plana».<sup>85</sup> Gehienbat klasearen «lanik gabeko» geruza horren aurka diharduen ekintza poliziala «soldatagabeak» soldatapeko lanera itzultzeko saiakera gisa definitzen da. Ez dago «soldatagabeak» alderatzerik diziplinarik eta antolaketarik gabeko «lunpenproletariotza» tradizionalarekin. Langile-klase beltza eskusiboki kapital britainiarraren arabera ulertzen delako gertatzen da identifikazio faltsu hori. Baina, benetan, lanesku beltza ondo ulertzeko modu bakarra lehenagotik Karibean indar sozial kohesibo gisa garatu den klase bezala ere ikustea da —kapitalaren forma «kolonialekin» bisean bis—. Testuinguru kolonialean «soldagabetasuna» estrategia klabeetako bat zen. Ez da harrizkoa soldata gabeko sektoreak babeserako daukan sare eta kultura instituzionala «kolonia» metropolitarran bertan berreraikitzea. Bukatzeko, bigarren belaunaldiko gazte beltzen iritsierak «ez dakar soilik klase langabetuen kopurua handitzea, baizik eta baita aldaketa kualitatiboa gertatzea ere klasearen osaketan bertan». Belaunaldi berri horrek konfiantza eta ausardia berria dakarkio «soldatagabetasunaren» bitartez egiten den borrokari.<sup>86</sup>

Selma Jamesek *Sexua, arraza eta klasea*en lehenengoz zirriborrotutako posizioa hedatu eta garatu egin da *Power of women collective* (Emakumeen boterea kolektiboa) taldearen *Guztia lana ordainketarik gabe* (*All Work and No Pay*) izeneko panfletoan.<sup>87</sup> Testu horretan, errepikatu egiten da «lan-indarren hierarkiari» buruzko argudio originala, emendio interesgarri eta nabarmen batekin. Erakusten dute ezkututzen ari dela etxeko lanaren soldatagabetasunak berezkoa zaion merkantzia-produkzio kapitalistaren izaera erreala; eta gizonezko langileari «familia-soldata» ordaintzeak estrukturatzen duela emakumezko langileriak gizonarenganako daukan dependentzia. Horrek

85 Howe, «Fighting Back».

86 *Ibid.*

87 *Power of Women Collective, All Work and No Pay* (Bristol: Falling Wall Press, 1975).

daukan izena «soldataren patriarkatua» da —eta sexismoa da daukan emaitzetako bat—. Egiten gabiltzan analogian, langileklase zuriari dagokionez lanesku beltz osoak daukan posizio estrukturalki ezberdindua dependentzia estrukturatuko forma gisa ulertu daiteke antzera, eta emaitzetako bat da arrazakeria —edo esamolde bat sortzekotan «soldata harremanaren arrazakeria»—. Hala ere, eman arreta Barbara Taylorren kritika sarkorrari.<sup>88</sup> Emakumezkoen eta etxeko lanaren analisisia produkzioaren eta ideologiaren, esturkturaren eta superesturkturen arteko ustezko homogeneotasunean edo homologia perfektuan hain zuzenean oinarritzea jartzen du auzitan. Horixe da Cambridge eta Gutmores-*Race Today*ren posizioari buruz *The black liberator* (Beltz askatzailea) agerkarian aurreratu zuten kritika nagusietako bat.

Gehitu behar da, *Race today*ren diskurtsoan, garapen kapitalista metropolitarraren fase garaikideaz oraindik erabat teorizatutako azalpenik ez badago ere, beltzen posizioari buruz egin dituzten analisi batzuk nahikoa hurbil daudela teoria marxista italiar garaikidearen korrante nagusietako batek garatu duenetik (batzuetan «eskola italiarra» deitzen denetik<sup>89</sup>). Oso orokorki, tendentzia horrek garapen kapitalistaren egungo fasea Marxek Kapitalaren hirugarren liburukian «kapital sozial» gisa ezaugarritu zuen moduan identifikatzen du. Izugarri hedatutako erreproduktzio prozesuan, jabetza *privatu* gisa ulertutako kapitalaren abolizio progresiboan eta metaketa prozesuaren sozializazioan, eta gizarte osoa kapitalarentzako nolabaiteko «lantegi soziala» bilakatzean oinarrituta, «hainbat kapital» kapital bakarrean subsumitzea dakar kapital sozialak. Bada fase horretan, estatua kapital sozialaren sinonimo bilakatzen da progresiboki —kapitalaren «buru pentsalaria»— eta integrazio, harmonizazio, arrazionalizazio eta errepresio funtzioak bere egiten ditu, ordura arte partzialki kapitalaren ardurak zirenak. Kapitalaren —eskala internazionaleko— kontzentrazio hori

---

88 B. Taylor, «Our Labour and Our Power», *Red Rag*, 10 zbk., 1976.

89 ikusi M. Tronti, 'Social Capital', *Telos*, 1973ko udazkena; M. Tronti, «Workers and Capital» *Labour Process and Class Strategies* lanean, Conference of Socialist Economists pamphlet, 1976; S. Bologna, «Class Composition and the Theory of the Party» *Labour Process and Class Strategies* lanean; Gambino, «Workers Struggles and the Development of Ford in Britain»; G. Boldi, «Theses on the Mass Worker and Social Capital», *Radical America* lanean, maiatza-ekaina 1972.

parekatu egiten da proletariotzaren (berriro ere, eskala internazionalako) kontzentrazio eta masifikazio gero eta handiagoekin. Kapitalaren osaketa organikoa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da langilearen «proletarizazioa». «Kapital sozialaren» araberako kapitalaren berrosaketa jada, nagusiki, hiru faktoreren bitartez gertatu da: lanaren prozesuaren berrantolaketak, produkzioari teknika «fordistak» aplikatzeari esker; kudeaketa ekonomikoan gertatutako iraultza keynestarra; eta langile-klasearen instituzio antolatuen «integrazioa», demokrazia sozialari eta erreformismoari esker. Kapitalaren berrosaketak, beraz, aldi berean, «berrosatu» egin du langile-klasea. Langile-klasea progresiboki deskualifikatzeko eta produkzio prozesu masifikatuetan subsumitzeko tendentziak «masa langilea» sortzeko tendentzia dakar. produkzio-molde aurreratuetan funtzionatu arren, «masa langilea» ez da lehenagoko kapitalismoko langile kualifikatu zaharra, baizik eta, literalki, lanaren prozesu fragmentatu eta automatizatuko atal batetik bestera mugitu daitekeen langilea, eta herrialde batetik bestera mugitu daitekeena (lanesku migratzailearen erabilera da adibide klabea Europako herri aurreratua goetan). Klasearen berrosaketa «produktibo» horrek berrosaketa politikoa ere badakar —lehenagoko fase bateko klase-borrokarako erakunde eta erreflexu zaharrak desmantelatzeko, eta klase-borrokak erresistentzia militanteko forma berriak sorraraztea zuzenean lan-prozesu berriko esplotazioaren aurka, eta sarri zuzenean «produktio-puntuan» bertan—. Ondorioz, langileen erresistentzia zuzeneko —«espontaneotasun antolatuko»— formetako askok, lehenago erresistentzia sindikalista gisa ulertzen zirenek, metatze eta produkzio kapitalistaren baldintza berrien aurrean borroka molde aurreratua errepresentatzen dute orain. «Masa langile» hori Marxen «langile abstraktuaren» gorpuzte konkretua da. Argudioan gehiago sartu gabe ere, erraz ikusi daiteke analisi hau lanesku beltzak (eta beste «lanesku» migratzaileak) industria britainiar modernoko sektore «aurreratuetan» daukan posizio zehatza argitzeko hedatu egin daitekeela. Baina hedatu daitekeela baita «erresistentzia zuzeneko» formek —lan egiteari uko egitea bezalakoek— esanahi eta posizio estrategiko aski ezberdina hartu dezaketela argitzeko ere. Hau da, langile-klasearen sekzio erabakigarri batentzat hartu dezakete klase-borrokaren forma eta ez soilik bazterreko sekzio batentzat.

Une honetan erabilgarria da *The black liberator* kolektiboak lanesku beltzari buruz eta soldatagabe beltzei buruz aurreratzen duen analisi guztiz ezberdinari begiratzea. Cambridge eta Gutsmore kritikoak dira *Race today*ren posizioarekin, eta aurka egiteko erabilitako argudio nagusiak hurrengoak dira. Lan egiteari uko egitea benetako fenomenoa da lanesku beltzaren baitan eta bereziki gazteria beltzaren baitan, baina borroka ideologikoaren erakuslea da eta ez borroka politikoarena. Ez du kapitala «zuzenean iraultzen», izan ere, langile-klase osoa, belza eta zuria, enplegatuta balego ere, kapitalak eginiko lanaren esplotazio-tasa ez litzatekeelako ezinbestean intetsifikatuko. Horrenbestez, langile beltzak era klasikoagoan «laneskuaren erreserba-armada» gisa pentsatzen ditu kolektiboak (arrazialki ezberdindutako armada mota berezia). Produktiboki zein ez-produktiboki erabili egiten dituzte kapitalaren erritmo eta beharrianen arabera. Hortaz, langile-klase orokorraren *estratu azpiproletarioa* osatzen dute. Produktiboki enplegatzen dituztenetan «gainesplotatu» egiten dituzte, gainbalio maila erlatiboki handiagoa erauzten dietelako. Esplotatu eta jazarri egiten dituzte bi maila ezberdinetan: langile beltz gisa (gainesplotazioa) eta gutxiengo arrazial gisa (arrazakeria). Zalantzan jartzen da sektore horri dagokionez poliziak daukan funtzioa klase-borrokaren baldintzak zuzenean erregulatzea dela, eta langile-klasea soldatapeko lanari lotzea dela. Kontrara, argudiatzen da (goian aipatu bezala) estatuaren (politikoa denaren) mailaren murrizketa faltsua dakarrela maila ekonomikora. Etxeko lanari buruz Seccombek eginiko argudiaketarekin esplizituki eta zuzenean lerrokatutako posizioa hartzen dute,<sup>90</sup> eta gutxienez Hirsten argudioarekin partekatzen duen zerbait<sup>91</sup> da soldatagabekoen sektorearen «lan egiteari uko egitea» matxinada quasipolitiko gisa ulertzen duela kasurik onenean, eta ez erabat formatutako klase perspektiba gisa. Analisi teorikoko ezberdintasun kritikoak daude bi posizioen artean, eta biek —ezinbestean— borroka politiko beltzaren garapenarentzat estrategia zuzenari buruzko balorazio ezberdinetara garamatzate. *Race today*ren posizioak garabidean dagoen borroka beltzaren di-

---

90 Ikusi A. X. Cambridge, «Black Workers and the State: a Debate Inside the Black Workers' Movement», *The Black Liberator*, 2 liburukia, 2 zbk., urria-maiatza 1973-4, 185n orr.

91 Hirst, «Marx and Engels on Law, Crime and Morality».

namika autoaktibatzailea azpimarratzen du, soldatagabe beltzek argi eta garbi borrokari babes klabeetako bat ematen diotelarik. Bitartean, Cambridge eta Gutsmorek, *The black liberatoren*, esplotazioaren eta jazarpenaren aurka garabidean dauden beltzen borroka industrial eta komunitarioak babesten badituzte ere, borroka horiek forman «ekonomista» eta « korporatibo» gisa definitzera<sup>92</sup> behartuta daude ezinbestean garai honetan. Hala ere, bi posizioak ados daude laneku beltzaren askotariko sektoreak «gainesplotatu» gisa definitzean; eta bi posizioentzat klasearen estratu arrazialki ezberdina osatzen dute beltzek, besteak beste, Hirstek aurreratu bezala,<sup>93</sup> izaeran «lunpenproletariotza» kontzeptu tradizioaletik bereizi egiten dena.

Gogoratuko dugunez, Marxek lunpena «gizarte zaharreko maila beheenetako ustelkeria geldo hori»<sup>94</sup> izendatu zuen. Engelsek honela ezaugarritu zituen:

Lunpen proletariotza, klase guztietako elementu deprabatuena zaborra, hiri handietan egoitza zentrala ezartzen duena, alienatu guztien artean txarrena da. Jende-oste hori ezin errazago erosi daiteke eta erabat lotsagabea da [...] Gizatxar horiek zaindari gisa erabiltzen dituen edo sostengu gisa behar dituen langileen agintari orok, horixe egiteagatik ez besterik, mugimenduaren aurkako traidorea dela erakusten du.<sup>95</sup>

Darcus Howek irudi oso ezberdina aurkezten digu:

Eta orain zehazki langabetuez egin nahi dut hitz. Karibean kontua ez da egun batetik bestera zaudela langabe, alderrai zabiltzala gosez eta erabateko etsipenez. Guztiz gezurra da hori. Badakit ezker zuriaren partetik jaso nuela lehenengoz horrela pentsatzen zuela jendeak. Langabetuez hitz egiten dutenean, populazio miserable, zapaldu, kolpatuaz dihardute, langile-klasearen sekzio bat osatuko, eta modu batera edo bestera, borroka propiorik izango ez balute bezala. Eta hala, aipatzen dudana Karibeko langabetuak soldatarik gabekoak, inolako soldata ofizialik gabekoak, aberastasunik gabekoak, gizarteko sekzio kartsu eta boteretsua osatzen du. Beti izan da horrela. Kulturalki populazioaren sekzio horretatik da-

---

92 Ikusi A. X. Cambridge eta C. Gutsmore, «Industrial Action of the Black Masses and the Class Struggle in Britain», *The Black Liberator*, 2 liburukia, 3 zbk., ekaina-urtarrila 1974-5.

93 Marx, «The Eighteenth Brumaire», 44 orr.

94 Itzultzailearen oharra: Hall-ek oker aipatzen du hemen *Brumairearen hemezortzia*, aipua benetan *Alderdi komunistaren manifestukoa* da eta Jakinek 1998an argitaratutako itzulpenetik ekarri da liburu honetara.

95 F. Engels, «Preface to «The Peasant War in Germany», *Marx-Engels Selected Works* lanean, 2 liburukia, 646 orr.

toz metalezko perkusio bandak, kalipsoa eta reggaea. Karibean existitzen den kultura *nazional* apurra populazioaren sekzio horren kartsutasunetik dator.<sup>96</sup>

Klasearen sekzio horrek normalean «trapitxeoari» esker biziraturen du —soldatarik gabeko munduan biziraupena «errazionatzeko» ekintza gisa deskribatzen du Howek trapitxeoa, eta orokorrean delinkuentziara jotzea ez dakarrena—. Kartsutasunaren zentzu bera azaleratzen da lanaren umiliazioa ekiditeari eta baita trapitxeoa bezalako ekintzekin klasea *diziplinatze*ko moduari buruzko apamen positiboetan:

Nire ustez *gutxiengoak* egingo litzuke kriminal izendatutako ekin-tzak, lapurretak, ebasketa erasokorrak eta antzekoak. Egun horietan normalean gertatzen dena litzateke nolabait zure nortasun sozial osoak garatzen dituela soldata-puskak jasotzeko trebetasunak. Trapitxero taldearen buru gisa indar fisikoa edo buru-azkartasuna erabiliz gertatzen da hori —eta horrenbestez, langile-klasearen sekzioa «trapitxeo» izeneko kontzeptu eta forma orokorraren bitartez diziplinatzen da—. Jamaikan ganja edo halako edozeren trapitxeoarekin —eta ez dut uste ganja delitua denik zentzu horretan—. Nire aburuz denak dira umiliaziorik ekartzen ez duten errazionamendu forma ezberdinak.<sup>97</sup>

Bitartekoon bidezko biziraupenak kontzientziazio *politikoa* eragiten du. Howek honakoa dauka esateko Trinidadeko lehen ministroak eta polizia-komisarioak trapitxero taldeen arteko gerra krudelenetako bat amaitzeko eta talde horiek «konbentzitzeko» egindako hitzartzeari buruz:

Ezin zuten konfrontazioa aukeratu, orokorrean, langile-klasearen sekzio hori mugimendu nazionalistaren beso armatua zelako, mugimendu nazionalistako sekzio afrikarrarena. Izan ere, indiarrek agintari politiko afrikarrak batzar eta antzekoetan suzko armekin erasotzeko joera zeukatenean, sekzio afrikarraren beso militarra osatu genuen. Horregatik limurtu egin behar gintuzten beti. Eta lehen ministroa agertzen da eta gerra bukatzeko negoziatzen du trapitxero taldeko buruarekin eta poli-ziarekin. Momentu horretan klasea berebiziko boterea daukan sekzio gisa hasten da bere buruaz jabetzen, eta ondorioz langabeziaren auzia galdekatzen hasten gara.<sup>98</sup>

---

96 Howe elkarrizketa pertsonal batean.

97 *Ibid.*

98 *Ibid.*

Oinarritzko hezkuntza kualifikaziodun gazteen deriba etengabea soldatagabeen lerroetara gehitzeak klasea eraldatzen lagundu zuen. Eta beste behin, armadak (nagusiki langabetuez osatutakoak) Trinidadeko 1970eko krisi politikoan zehar manifestazio masiboak erreprimitzeari uko egitea da horren adibidea:

Langile-klasearen sekzio hori, produkzio kapitalistaren mekanismoak berak diziplinatuta, antolatuta eta batuta ez bazegoen ere, ezinbestean zegoen, nolabaiteko modu quasidiziplinatuan, trapitxeoak kontzentratuta eta sozializatuta gizartean esku hartzeko eta armada zatitzeko, eta eszenatokira igo zedin langile-klaseari lekua egiteko.<sup>99</sup>

Soldatagabe trinitatearren historia interpelatu horrek esangura zuzena dauka, Howen esanetan, egoera britainiarra ulertzeko orduan, jakin badaki ere halako paralelismo politiko sinpleak iradokitzeak arriskuak dakartzala. Are gehiago, Howek ez du ukatzen klasearen sekzio horrek joera negatiboak erakusten dituenik (adibidez, elementu kriminalek hornitzen dituztela polizia informatzaile gehienak). Baina azpimarratu egiten du joerok klase osoan existitzen direla, eta ez dagozkiela zehazki soldatagabeei. Oso ezberdinak dira soldatagabe beltzaren kontzepzio hori eta *The black liberatoren* editoreek emandakoa. Azkenontzat, proletariotza beltz osoa hobeto ulertzen da azpiproletariotza gisa: bi mekanismo zehatzen objektu den langile-klasearen estratu gisa —*gainesplotazioa* eta *zapalkuntza arraziala*—:

Mekanismo zehatzon txirikordatzek gainbalioaren erauzketaren erreprodukzio prozesua hurrengo kasuetan erabat hedatuz funtzionatzen du: azpi-proletariotzaren esplotasio tasa —hau da, *gainesplotazioa*— altua den lekuetan; langabetuak, masa beltzak lanekuaren erreserba-armadaren neurri kanpoko sekzioa osatzen duenetan; eta klase-borroka propioak zapalkuntza arrazialaren eta kultur inperialismoaren aurka, tokiko langile-klase zuriak dauzkan ekinbideez aparte, ekintza-formak konbinatzen dituenetan.<sup>100</sup>

Cambridgek esaten jarraitzen duen bezala «ekonomia metropolitarrako langile beltzei propio dagokien gainbalioaren

---

99 *Ibid.*

100 A. X. Cambridge, «Glossary», *The Black Liberator*, 2 liburukia, 3 zbk. Ekaina-urtarrila 1974-5, 280 orr.

erauzketa bereizia oraindik ondo ulertu gabe» badago ere, *laneskuaren erreserba-armada* kontzeptuak (eta armada horren sekzio neurrigabea osatzen duten heinean masa beltz langabeen armada ere bada ezinbestean) aldentze erabakigarria markatzen du *Race todayk* «soldatagabeei» buruz egiten duen argudiaketatik. Honela definitzen du Cambridgek erreserba-armada:

Langile-klasearen gainlana da *produkzio modu kapitalistaren* bizitza-odola, ezinbestekoa *produkzio-baldintzen erreprodukzio hedaturako*. Halaber, gainlan horrek sortzen duen kapitalaren metatzearekin batera, ez da soilik gertatzen langileen esplotazio-bitartekoan erreprodukzioa (enplegua), baizik eta baita berezkoa zaien baztergarritasunarena (langabeziarena). *produkzio-molde kapitalistaren* erreprodukzioa produkzioarako merkatu berriak eta sektore ez-produktiboak etengabe aurkitzean datza. Lotura horretan, kapitalismoak beharrian bikoitza dauka: batetik, esplotazioarako beti prest dagoen lan-indar masarena, posible egiten duelako langile produktiboen masa handiak produkzioaren momentu erabakigarria igortzea produkzio eskala kaltetu gabe; eta bestetik, langile horiez libratzearena, esplotazioak irabazi gehiagorik ez dakarrenean. Horrenbestez, produkzio kapitalistak beharrezkoa dauka langileriaren parte bat etengabe *laneskuaren erreserba-armada* «langabetu» eta «azpienplegatu» baztergarrira bultzatzea. Inperialismoak menderatzen duen munduko ekonomian, langabe egonik, masa beltzek *laneskuaren erreserba-armada* industrialaren sekzio esanguratsua osatzen dute, eta gero eta nekezago erabiliko dituzte produkzioarako, izan ere, lanaren produktibitatea areagotzen ari baita kapital zentralizatuaren testuinguruan.<sup>101</sup>

Zenbait zailtasun analitiko bete-betean ari dira azaleratzen orain esplikaturako posizioak bata bestearen ondoan jartzearen ondorioz —azpimarratzekoa da posizio guztiak marko marxistaren barruan daudela planteatuta—. Marx eta Engelsek argi eta garbi esaten zuten *lunpenproletarior*tza eta «klase arriskutsuak» «zaborra» zirela —klase guztietako elementu deprabatu—. Existentzia ekonomikoen moduei dagokienez parasitikoak izanik, kanpo daude, baita lan produktiboaren markotik ere. Lan produktiboaren markoan egoteak bere horretan ekarriko luke, sistema produktiborako sarbide puntuan bertan, kapitalaren eragina mugatzeko eta atzeraka botatzeko gai den borroka iraultzailerako gaitasuna izango lukeen klase kohesibo bakarrean fintzea eta moldekatzea. Darcus Howek ez du elementu lunpe-

---

101 *Ibid.* 279 orr.

na klase guztietako hondakin eta zepa gisa ulertzen, baizik eta langile-klasearen sektore identifikagarri bezala —Mendebaldeko Indietan eta Britainian, *bietan*, *soldatagabetasun* posizioa zokoratu eta halako oinarritik borroka maila autonomoa garatu duen sektorea da —gai izan da soldagabeen estrategiaren bitartez kapitalari kalte ekonomiko eta politiko latza eragiteko eta kapitalaren asmoak «iraultzeko»—. Argi eta garbi, utzi egin dio zentzu marxista klasikoan *lunpenproletariotzaren* deskribapen klasikoa izateari. Cambridgek eta Gutsmorek langileria beltz guztia proletariotzaren *estratu gainesplotatua* dela ulertzen dute. Langile-klase zuriaren azpian daukan posizio, gutxi gora behera, iraunkorrak *azpiproletariotza* izatea dakarkio. Beraz, esplotazio eta zapalkuntza arrazialak «gaindeterminatzen» du jasaten duen esplotazioa. Azpiproletariotza horren zati soldatagabeak ez dauka Marx eta Engelsek egotzitako «lunpen» izaera, eta ezta *Race todayk* iragarritako funtzio politiko estrategikoa ere. Klasikoki *gaur egun kapitalak enplegatu ezin dituen azpiproletariotza beltzaren sektoreak* dira horiek. Horrenbestez, «laneskuaren erre-serba-armadaren» funtzio klasikoa betetzen dute —soldatadun sektoreen posizioa ahultzeko erabili daitezke, baina soldatagabetasuna bera sektore horien kontentzioaren erakusgarria da, kapitalari eraso egiteko oinarria izan beharrean—.

Deskribapen horien arteko ezberdintasunaren iturri nagusietako bat aipatzen dituzten kapitalismoaren garapeneko fase eta garai historiko ezberdinetatik dator. Marx eta Engels etxeko lanetik lantegietako lanerako trantsizio garaia ari ziren behatzen eta garapen kapitalista «klasikoaren» aro historikoa. Landa eremuko populazioak lantegi-produkzio guneetaranzko joerak, lantegi-lanaren diziplinaren garapenak, eta produkzio-sistema zaharragoen desegiteak ekarri zuen lehenengo proletariotza industrialia sortzea mutur batean, eta beste muturrean, pobre arruntak eta behartsuen klaseak. Hobsbawm eta Rudéren ikerlanetan,<sup>102</sup> XVIII. mendearen amaieran agertzen diren Wilkes-ak dira «Errege eta herriaren aldekoen», eta hirietako «jende-oste» eta bestelako «jendetzen» artean, bigarrenak

---

102 Ikusi G. Rudé, *Paris and London in the Eighteenth Century* (Londres: Fontana, 1952); G. Rudé, *The Crowd in The French Revolution* (Oxford University Press, 1959); Rudé, *Wilkes and Liberty*; Rudé, *The Crowd in History*; eta Rudé eta Hobsbawm, *Captain Swing*.

ikusi daitezkeen azken aldia eszenatoki politikoko gidaritza lanak egiten —beherantz zihozen komertzioetako artisau espezializatuekin eta kriminal txikiekin batera—. Ondoren, nola ez, sistema kapitalistako giza-detritu hori —biktima zerrenda amaigabekoa— txabola-gune masifikatueta metatuko da, eta (Hobsbawnek argudiatu bezala) sarri «langile-klaseekin» gainjarriko da hirietako etxola-eremuetan bizitzeagatik. Baina ordutik galtzen joango da garrantzia historikoa. Biek, *Race todayk* eta *The black liberatorrek*, kapitalismoaren *hurrengo* fasearen azalpenean oinarritzen dituzte analisiak —monopolioaren hedapen garaian, Leninek «inperialismo» izenburupean kapitalismoko «goren» gisa deskribatu, eta azkena izatea espero dugun fasean—. Leninen oinarritzko tesiaren lerro nagusiak ezagunegiak dira luze azaltzeko —produkzioaren gero eta kontzentrazio handiagoa; monopolioak lehia ordezkatzeta; kapitalaren frakzio agintarien arteko boterea kapital industrialetik finantzazkora aldatzea; gainprodukzioaren eta azpikontsumoaren krisiak sakonagotzea; lehia biziagotzea itsasoz bestaldeko merkatuengatik eta itsasoz bestaldean kapitalaren inbertsiogune errentagarriengatik; eta horrenbestez, «etsaitasun inperialen» eta munduko gerren garaia abiatzea—. <sup>103</sup> Kapitalismoaren garapeneko fase berriak, Leninen ustetan proletariotzaren *barne* osaketan eta estrukturan izango zuen eragina da guretzat garrantzitsua. Argudiatu zuen kapitalismo globalaren itsasoz bestaldeko inbertsioekin eta barnealdeetako esplotazioekin lortu zitzaizketen irabazi askoz handiagoek proletariotzaren «goiko» geruza erostea —sare inperialistara gehitzea eta zeukan punta zorrotz iraultzailea kamustea-ahalbidetuko liekeela klase agintariei etxean. Proletariotzaren *baitan* bereizketa *nabariagoak* sortuko lirateke horrela, «goiko» eta «beheko» sektoreen artean. Erostea lortzen zen geruzarentzat Leninek asmatutako terminoa izan zen «langile aristokrazia». Leninek uste zuen, gainera, arrakala handitu egingo zuela, proletariotza *britainiar osoaren* (goiko eta behekoaren) eta, kate inperialaren beste muturrean zegoen proletariotza kolonial «gainesplotatuaren» artean. «Langile aristokrazia» kontzeptua, proletariotzaren barne banaketa eta sekzionalismoa

---

103 V. I. Lenin, «Imperialism, The Highest Stage of Capitalism», *Selected Works in One Volume* (Londres: Lawrence & Wishart, 1969); ikusi baita ere R. Owen eta B. Sutcliffe (ed.), *Studies in the Theory of Imperialism* (Londres: Longmans, 1972).

azaltzeko bide gisa, ez zen berria. Hobsbawnek ohartarazten du esamoldea «gutxienez, XIX. mende erditik aurrera erabili zela langile-klaseko geruza bereizgarri batzuk deskribatzeko, hobeto ordaintzen, hobeto tratatzen, orokorrean ‘errespetagarriagozat’ jotzen zirenak eta gainontzeko proletariotzarekin konparatuz gero moderatuagoak zirenak».<sup>104</sup> Izan ere, Leninek oniritziz aipatu zuen Engelsek Marxi idatzitako gutuna (1858ko urriaren 7koa), zeinean lehenengoak azpimarratzen zuten: «proletariotza ingelera gero eta burgesagoa bilakatzen ari da, eta ondorioz, finean, ematen du nazio guztien artean burgesena, burgesiarekin batera, aristokrazia burgesa eta proletariotza burgesa edukitzea saiatzen ari dela. Mundu osoa esplotatzen duen nazioarentzat hein batean justifikagarria da hori».<sup>105</sup> Engelsen sumindura ironikoak barne hartu egiten du, jadanik: i) langile-klase metropolitarraren baitan barne estratifikazio berriak agertzea; eta ii) proletariotza kolonialaren gainesplotaziotik botere inperialistaren proletariotzak etekin ekonomikoa ateratzen duela (eta ondorioz, klase agintariak onura politikoa lortzen dutela) azaltzen duen ideia-aren ernamuina. Azpitik begiratuta, sistema kapitalistaren marko globalaren barruan, etxeko proletariotza baretzeko gainirabaziazko produktuzko xedearekin neurritz kanpo esplotatzen den proletariotza koloniala estrukturalki da jadanik etxeko proletariotzaren azpiproletariotza. Ez da harritzekoa beraz, beranduagoko fase batean, proletariotza kolonialaren sekzio batzuk metropolian lan egitera erakartzen direnean, egiteko sekzionalki egokituekin sartzen direla harreman produktiboetara —hau da, *barneratutako* azpiproletariotza gisa—. Metropolietan errepikatu egiten da azpiklase horrek langile-klase zuri metropolitarrari dagokionez historikoki beti bete izan duen egiteko ekonomikoko subordinatua. Neurri batean, arrazakerian oinarritutako bereizketa ideologikoen bitartez gertatzen da hori, ekonomia metropolitarraren barruan eragiten dituzten ondorioek aipatutako subordinazioa ideologikoki erreproduzitzen baitute, eta langile-klase osoaren barruan banaketa «iraunkor» —edo kasta— gisa legitimatzeko balio baitute. Baina argazkia ez da osorik ikusten emigrazioa baino lehenago proletariotza kolonialaren osaketa ekarri zuten

104 Hobsbawm, *Labouring Men*, 272 orr.; ikusi baita ere J. Foster, *Class Struggle and Industrial Revolution* (Londres: Weidenfeld & Nicolson, 1975).

105 Lenin, «Imperialism» lanean aipatua, 247 orr.

azpiko baldintzei begiratu arte. Eta hor ere, noski, «soldatagabetasun» egoera gainesplotazioaren *baldintza* itxuraz ezinbestekoa eta etengabekoa dela topatzen dugu:

Dela bizibideetatik —langabezia edo azpienplegu egoera kronikoan bizi direlako— edo kultura politikoetatik —ezarritako langile urbanoen bizitza estilo eta pentsamoldea bereganatu ez dutelako-, landa eremuko eta herri txikiagoetako migratzailez osatutako proletario egonkortugabeen populazio urbanoaren hazkunde izugarria da egungo hirugarren munduaren ezaugarri nagusietakoa. India eta Txina bezalako herrialdeak nekazari gizarteak dira nagusiki. Baina Argentinan, Txilen, Venezuelan eta Uruguain populazioaren %40 baino gehiago bizi da 200.000 biztanle baino gehiagoko herri edo hirietan. [...] Urtero milaka errekruta berri iristen dira saldoka faveletara, barriadetara, bidonvilletara, shanty-townetara edo nahi duzunetara, kartoiz, gasolina bidoi zapalduz eta enbalatze-kutxa zaharrez eginiko kanpalekuetara. Kategoria sozial hori deskribatzeko darabilgun terminoa darabilgula ere, bada garaia, oso hedatuta badago ere, *lumpenproletariatza* termino marxista erabat iraingarri, oker eta analitikoki nahasgarria alde batera uzteko. «Azpiklase» edo «subproletariatza» egokiagoak dirudite «industrializaziorik gabeko urbanizazioaren» biktima horiek ezaugarritzeko.<sup>106</sup>

Posible da halako «azpiklasea», Worsley-k idazlan garrantzitsuan deskribatu bezala, zentzu hertsian «ez-produktiboa» izatea, klase horretako kideak ez baitaude enplegu produktibo arruntetan. Baina hirugarren munduko gizarteetan, shanty-townak bizitzaren ezaugarri iraunkor eta estrukturala diren tokietan, ezin dira inola ere «bazterrekotzat» hartu. Asko dira kopuruz eta are gehiago ari dira hazten; daukaten jardun ekonomikoak, iragankorra eta prekarioa izanik ere, funtsezko garrantzia dauka gizarte osoarentzat; eta daukaten indarra konparagarria da, sari, oso txikia eta batzutan zentzu klasikoan existitu ere egiten ez den proletariatza urbanoarenarekin. Amilcar Cabral agintari portugaldar-afrikarrak bi kategoria ezberdinez hitz egin zuen «deserrotuen» artean —«azken aldian landa eremutik datorren gazte jendea», eta «eskaleak, nagiak, prostitutat, eta abar»— eta bigarren kategoriaz esan zuen: «erraz identifikatu daiteke eta erraz deitu geniezaioke lumpenproletariatza, Ginean proletariatza deitu genezakeen edozer izango bagenu behintzat».<sup>107</sup>

106 P. Worsley, «Fanon and the 'lumpenproletariat'», *Socialist Register* 1972 lanean, ed. Miliband eta Saville.

107 Ibid lanean aipatua.

Eta zehazki daukaten egiteko politikoari dagokionez, desjabetu urbanoen talde horrek, lanarekin zein lanik gabe, kronikoki azpienplegatua edo langabetua, edozein bitartekorekin bizimodua nekez aterata —legearen baitan, kanpo eta tartean-, eta etengabe biziraupenaren mugan egonik, «jende kolonizatuaren indar espontaneoenetako eta erradikalki iraultzaileenetako bat» osatzen zuela zioen Fanonek.<sup>108</sup> Haiek ziren, nekazariekin batera, «lurreko kondenatuak».

Hemen bi modu itxuraz dibergente dauzkagu hurrengoak ulertzen saiatzeko: langile-klase beltzaren posizioa eta izaera; eta eskuragarri dauzkan borroka politiko motak eta kontzientzia politikoen formak. Bide dibergenteok honela laburbildu daitezke. Lanesku beltzaren proportzio gero eta handiagoarentzat gorantz doan eta pertinentea den kondizio gisa arreta *soldatagabetasunean* jarriz gero, baina lanketa testuinguru metropolitarraren mugatuta, soldatagabeak hondoratzeko ari diren klase frakzioa dirudite, kapitalarentzako hutsalak diren heinean pobrezia kanporatuak. Eta horrenbestez, indartsua da tentazioa Marx eta Engelsek eginiko «lunpenproletariotza» klasikoaren deskribapen goiztiarretara asimilatzeke analitikoki. *Race today*k hautsi egiten du lotura horrekin lanesku beltza bi «historiaren» arabera birdefinitzen duenean. Lehenik eta behin, lanesku *karibetarraren* sektore bat da, eta horregatik, zentrala da jatorrizko langile-klase karibetarraren borrokaren historia eta kondizio propioentzat. Bigarrenik, «masa langile» deskualifikatu, gainesplotatu gisa sartu ohi dute harreman kapitalista metropolitarran. *Race today* kolektiboan lanesku beltzaren muga historikoak horrela berrirudikatzen direnean, esan daiteke «soldatagabetasuna» —bi testuinguru ezberdinotan— birdefinitzeko gai direla borroka forma positibo gisa, borroka forma pasibo gisa behar: gehiengoaren parte eta ez langile-klasearen «bazterreko» espe-rientziaren parte. Hau da, posizio bat kulturaliki eta ideologikoki guztiz *betea* eta anplifikatua, eta horrenbestez, klase-estrategia bideragarriarentzat oinarria emateko gai dena. Hirugarren eta «lehen» munduko ikuspuntuaren konbinazioari esker, beltz soldatagabeak oso ezberdinak dira lunpen tradizional «zabor pasibo ustel» harekin konparatuz gero. *Race Today* bezain arduratuta

---

108 F. Fanon, *The Wretched of the Earth* (New York: Grove Press, 1963).

dago *The black liberator* karibetar eta «hirugarren munduko» politikarekin. Baina Britainiako lanesku beltzaren posizioa nagusiki langileria migratzailea zuzenean subsumitzen dituen kapitalismo britainiarraren egungo klase-harremanen arabera aztertzen du. Hau da, ez du historikoki aztertzen, iraganeko kapital «kolonialaren» mekanismoen arabera, baizik eta estrukturalki, kapital britainiarraren mekanismoen arabera eta egungo koiunturan. Inporta zaiena da nola subsumitu den lanesku beltza metropoliko kapitalaren eraginpean —hau da, azpiproletarioritza gisa— eta zer harreman dituen gobernatzen den lanesku beltzak kapitalarekin —hau da, ez «soldatagabetasunaren» estrategian adierazitako borroka kulturalaren arabera, baizik eta laneskuaren erreserba-armadaren mekanismo klasikoagoen bitartez—.

Zoru bera aztertzeke beste modu bat izango litzateke kontu handiagoz bereiztea, batetik, maila ekonomikoak lanesku beltzarengan daukan determinazioa, eta bestetik, borrokaren praktika politiko eta ideologikoak. Ezin dugu argudio hau une honetan gehiegi garatu, baina dakartzan aukerak zirriborratze hutsarekin aski zaigu.

Langile-klase beltzaren sektore soldatagabearren tamaina edozein puntutan determinatzen duena ez da hainbeste gutxiengo batek «kaka-lan hau gehiago ez onartzeko» daukan estrategia politikoa. Gehiago dira Marxek aztertutako «laneskuaren erreserba-armadaren» geruza ezberdinen tamaina eta izaera estrukturatzen duten funtsezko erritmo ekonomikoak. Alabaina, posizio hori (klase-harreman ekonomikoek) esleitu zaienez ere posible da esleipen hori klase-borrokaren (politiko eta ideologikoen) estrategia positiboagoa bilakaraztea. Klase-borroka politikoaren formak klasearen lehenagoko bizirau-pen eta erresistentzia moldeetara lotuko lirateke horrela, eta izatez, iragan aurremetropolitarretik eratorriko lirateke. Hasieran hala balirudike ere, azken posizio hori ez dago «jatorrien historia» batekin mugatuta. Izan ere, *orainaldian bertan* existitu daitezke faktore politikoak lanesku beltzarentzat halako borroka politikoa aipatutako oinarritik egiteko posibilitateak birsortzen. Jarraian datorren atalean, egungo koiunturan kapital metropolitarrari aurre egiteko borroka politikoaren formak determinatzen lagundu ahal izan duten zenbait faktoreren arrastoari jarraitu diogu. Bestalde, halako azalpenak «historizista» izateagatik jaso

dezake objektzioa: *oraingo* borroka formak iraganetik eratorritako tradizioen arabera azaltzen ditu. Puntu honetan, egungo beltz soldatagabeen tamaina eta posizioa gobernatzen duten funtsezko indar determinatuen efektua daukaten mekanismo ekonomikoak gogoratzeak berebiziko garrantzia dauka. Marxen lanekuaren «erreserba-armadaren» analisisa garrantzitsu horrek berriro. Marxentzat, lanekuaren erreserba-armada industrialia («gainpopulazio erlatiboa») kapitalaren metaketaren ezaugarri iraunkorra bilakatzen da soilik eskulanez industria modernorako trantsizioaren ondoren, kapitalak «benetako kontrola» hartzen duenean. Industria modernoarentzat beharrezkoa da «erreserba-armada industrialaren edo gainpopulazioaren formazio etengabea, absortzio handiago ala txikiagoa eta erreformazioa». Produktzio-eremu berrietara hedatu ahala, kapitalak «gizon masa handiak bat-batean puntu erabakigarrietara igortzeko aukera izan behar du, beste esfera batzuetako Produktzio-eskalari kalterik egin gabe».<sup>109</sup> Kapitalismoak beraz, ez zuen soilik erreserba-armada baztergarri bat behar, armada horren tamaina eta izaera ere saiatu zen gobernatzen —hau da, kapital metaketaren arabera, sekzio ezberdinak produktiora eramaten edo langabeziara kanporatzen zituen erritmoa gobernatzen—. Horrenbestez, Marxentzat, erreserba-armadaren auzia metatze kapitalistaren zikloarekin zegoen nagusiki lotuta. Laneku «hil» eta «bizia-  
ren» (makinen eta langileen) arteko proportzioa handitu ahala, soldatapeko langilearen sekzio bat «aske utzi» zen beste nonbaiten eskuragarria izan zedin kapitalak behar zuen moduan eta momentuan. Erreserba-armadaren presentziak, beraz, enplegatutakoen soldatak eta baldintzak determinatzen ere laguntzen zuen. Erreserba-armada handia zenean, langile enplegatuak soldata baxuagoak onartzera behartuta zeuden erraz ordezkatu zitezkeelako. Erreserba-armada «iraunkorren» presentziak, ondorioz, enplegatuetan eragin konpetitiboa zeukala ulertzen zen, eta kapitalarentzat lan-indarrak zeukan balioa murrizten zuela. Erreserba-armada txikia bada, langileak posizio hobean daude soldata altuagoak eskatzeko. Baina irabazietan eta kapital metatzean horrek dakarren erorreragatik kaleratzen dira langileak lanetik, eta orduan, erreserba-armada handitu egiten

---

109 Marx, *Capital*, I liburukia, 633 orr.

da, eta soldata mailen erorrera eragiten du edo gorakada geldo-  
goa.<sup>110</sup> Ziklo horretako fase ezberdinetan, kapitalak mugimendu  
dinamiko propioaren bitartez etengabe osatzen eta berrosatzen  
du langile-klasea: mugimenduaren beharrezko ezaugarri gisa  
sortzen du langabezia maila jakin bat, tendentziari beste nola-  
bait kontra egiten ez zaion bitartean. Kasu honetan kritikoa da  
«lan-indarrarean berrosaketaren» argudiaketa. Soldatapekoak  
aldi baterako erreserba-armadara jaurtitzen direnez gero, ez  
dira zertan produkzio-sektore berdinetan berrenplegatu behar,  
ezta kualifikazio maila berdinetan ere. Biak ala biak, «deskuali-  
fikazioa» eta ordezkapena —laneskuaren sektore bat merkeagoa  
den beste batengatik aldatzea— beraz, ezaugarri zentralak dira  
erreserba-armadaren formazio eta disoluzio prozesuan. Horrek  
«langile-klasearen parte bilakatzen den laneskuaren jatorriei  
buruz galdetzeraz garamatza» laneskua erreserba-armadatik  
produktoria erakartzen denetan; «arbuiorako joerak bestalde,  
lanesku enplegatu zein langabetuaren patuari buruz galdetzeraz  
garamatza (langile talde jakin batzuk baztertzeke joerari buruz,  
adibidez)».<sup>111</sup>

Izan ere, Marxek geruza edo estratu ezberdin ugari be-  
reizten zituen «erreserba-armadaren» barruan: estratu mugikorra  
sektore produktiboaren bihotzean produktiotik baztertu eta pro-  
duktoria berriro erakarritakoez osatzen zuten; estratu latentea  
ziren, nagusiki, ekonomia ruralerako hedapen kapitalista gertatu  
ahala nekazaritza-produkzioan zihardutenen artetik lekualdatu-  
koak; *geldiak* ziren «iraunkorki» irregularki enplegatutakoak. Hiru  
horiek ezberdinak zirek «lunpenproletariotzarekin» konparatuz  
gero —hau da, «klase arriskutsuekin»-, eta *pobretasunarekin* kon-  
paratuz gero —hau da, «adoregabeak eta zarpailak eta lan egiteko  
gai ez direnak [...] industriaren biktimak» zirenekin—. Pobretasu-  
na, gehitu zuen Marxek, «lanesku-armada aktiboaren ospitalea da  
eta erreserba-armada industrialaren pisu hila».<sup>112</sup> Ikusiko dugun  
bezala, ez dago berezko arrazoirik, sistema global gisa, metropo-  
lian bezala, mekanismook kapitalismoaren bazterreko poloetan  
ere bizirik dihardutela ez pentsatzeko —hau da «hinterland» ko-

---

110 Ikusi Castles eta Kosack, *Immigrant Workers and Class Structure in Western Europe*, 4 orr.

111 V. Beechey, «Female Wage Labour and the Capitalist Mode», eskuizkribu argitaragabea, University of Warwick, 1976.

112 Marx, *Capital*, I liburukia, 640-5 orr.

lonialetan—. Hortaz, pixkat gorago zirriborratutako argudiaketa aldatu egin behar dugu hemen. Proletariotza kolonialaren sektore langabetu, soldatagabe, semi-enplegatu eta «baztertuen» tamaina eta garrantzia ezberdina izan daiteke gizarte metropolitarekoarekin konparatuz gero; baina daukan formazioa Marxek *Kapitalako* argudio erabakigarrian zirriborratutako erritmo motekin egon daiteke gobernatuta, kapital kolonialarekin *bisean bis*.

Metatze kapitalistaren legeentzat langabetuen erreserba-armada industrial bezain funtsezkoa da «lanesku-armada» produktiboaren tamaina. Baina duela gutxira arte behintzat, forma klasikoan mantentzea gero eta zailagoa bilakatu zen gerraosteko europar mendebaldeko herrialde garatuetan. Hemen azaldu ezin daitezkeen faktore konplexu zenbaiten ondorioz —besteak beste, langile mugimenduaren indarra handitzearen ondorioz— kapitalismoak, biziraungo bazuen, hedapen produktibo jarraia eta jatorrizko langileria-erantzako «enplegu bete» lortzen saiatu behar izan zuen. «Erreserba-armada» bat izateko beharizanaren aurka zioan hori. Horregatik zen beharrezkoa «erreserba-armadari» ordezkoa aurkitzea: garestia edo politikoki onartezina izango ez zen ordezko bat —orduantxe kapitalismoaren mugimendu zikloen ondoriozko langabezia zen bezalakoa—. Kapitalismo modernoak bi «erreserba» iturri nagusi erabili ditu: emakumeak eta lanesku migratzailea. «Arazo horien aurrean mendebaldeko Europako kapitalismoak hartutako konponbidea Europa hegoaldeko eremu azpigaratuetakoa edo hirugarren munduko langile etorkinak enplegatzea izan da».<sup>113</sup> Langileok beti hartu izan dute parte, baina gerraosteko baldintzetan gizarte horietako estruktura ekonomikoaren ezaugarri *iraunkorra* bilakatu dira (Bravermanen arabera, ekialdeko laneskua eta latinoamerikarra bilakatu den bezalatu gerraosteko ekonomia amerikararentzat). Langile migratzaileek *erreserba-armada industrial modernoaren oinarri iraunkorra* osatzen dute orain. Hedapen produktiboaren garaian, Karibetik eta asiara azpikontinentetik xurgatu zen produkzioarako laneskua. Pixkanaka, krisi ekonomikoaren hozkada sentitu ahala, praktika murriztaileagoa ezarri zen —«erreserba-armadaren» parte bat jadanik zegoen lekuan, Karibeko eta Asiako jatorrizko herrietan, gelditzera

---

113 Castles eta Kosack, *Immigrant Workers and Class Structure in Western Europe*.

behartu zen—. Orain, krisi ekonomikoaren sakonean, «erreserba-armadaren» zikloaren beste muturrean gaude: kontrolaren eta kanporatzeen fasean. Bitarteko garaian jadanik, emakumeak eta hegoaldeko Europako zenbait lanesku hasiak ziren erreserba-armada beltza «ordezkutzen». 1970eko hamarkadan, «enplegu betearen» aurkako oldarraldiak horma politiko guztiak eraitsi ditu; eta «erreserba-armadaren» geruzen berrosaketa indar betean ari da gertatzen. Lan bila hiri britainiarretako kaleetan alderrai dabiltzan gazte beltzak dira errekruten artean azkenak eta gordinenak.

### «Lurreko kondenatuak»

Argudiaketa azken bururaino jarraitu dugu: inperialismoak martxan jarritako metropoliko langile-klasearen estratifikazio berrietatik hasi eta hirugarren munduko gizarte kolonialetako langileriaren geruzen antolaketa erabat ezberdineraino, inperialismoan eta neoinperialismoan zehar. Gizarte kolonialetako eta Britainiako langile-klasearen arteko loturaz sakonago jardun behar dugu orain. Lehenik eta behin, berreskuratu behar da langile-klase beltzak, osotasunean, bi historia ezberdin baina gurutzatari erantzuten diola: Karibeko lanekuaren historia eta langile-klase britainiarraren historia. Bi historiok batera kontuan hartzen saiatzeagatik letorkeen argudiaketa-bide batek esaten du kapital britainiarraren hedapen faseak erakarritako lanesku beltzak biziraupenerako modu, itxura eta klase-borrokarako molde propioak garatzen dituela krisi ekonomikoaren ondorioz langabeziara behin behinean edo iraunkorki jaurtitzen denean. Eta «erreserba-armada» zuriaren edo *lunpenproletariotzaren* antzekoak badira ere, askoz hobeto ulertzen direla beste, lehenagoko, historia koloniala kontuan hartuz gero. Hortaz, klasearen «posizio bikoitzari» buruzko proposamen horrek argi berria ematen dio estraturik autokontzienteenaren ibilbide eta politika potentzialak ulertzeko moduari. Bigarrenik, hirugarren munduaren loturak ikuspuntu berria gehitzen dio langabeziaren, bazterketaren eta *delinkuentziaren* arteko harremanari. Britainian argia izaten jarraitu dezake batetik Marx, Engels eta besteek «lunpen» gisa deskribatutako horien eta bestetik langabetuen erreserba-armadara behin behinean jaurtitako lanesku produktiboaren sektoreen arteko ezberdintasunak. Baina adibidez,

(Akkra barrutiko Nima herriko) azpiproletariotza kolonialari buruzko ikerketa bakarretako (baina gero eta ugariagoetako) batean «langabetu» eta «azpienplegatu» kategoriak guztiz baztertzera iristen da Keith Hart, eta nahiago du diru sarrera «formal» eta «informalen» aukerez hitz egitea. Hartek dioenez, enplegatuek ere osatu egin behar dituzte dauzkaten diru sarrera apurrak, eta horrenbestez, «eguneroko bizita ekonomikoaren ezaugarri zentralak bilakatzen dira maileguak hartzea, enplegu-aniztasuna, familiaren menpe eta kreditupean bizitzea, hiriaren barruan lursailak lantzea, eta delinkuentzia».<sup>114</sup> Hirugarrenik, ekonomia kolonialetako «deserrotu» pobreen egiteko eta kontzientzia politiko potentzialari buruzko teoriak, Fanonek proposatutakoak bezalakoek, atzerabegirako eragin izugarria izan dute superperzen ari den *metropolitako* pertsona beltzen kontzientzietan. Britainian, adibidez, ikuspuntu fanoniarren eragina, neurri batean, iraultza afrikarren bitartez gertatu da, eta beste neurri batean Estatu Batuetako mugimendu beltzen bitartekotasunari ezker. Hortaz, hainbat mailatan, «azpiklase» edo *lumpenproletariotza* kolonialaren arazoa zuzenean dago lotuta «azpiklase» beltzaren posizio eta kontzientzia politiko potentzialari buruzko edozein eztabaidarekin. Eta horrek orain, gero eta gehiago, forma baztertu eta kriminalizatua hartzen du Britainian. Hiri kolonialetako deserrotu pobreen kopurua, osaketa soziala eta posizio ekonomikoa nabarmen aldatuko da, noski, hirugarren munduko eremu batetik bestera. Chris Allan-ek, laburpen-idazlan erabilgarrian, hiri kolonialetako pobre urbanoen sektore zabala deskribatzen du langabetu gisa, estatus baxukoa, beste talde sozial menderatzaileekin harreman gutxiduna, bazterreko existentzia ekonomikoduna, normalean hiriko eremu ezberdin batean edo beste herri batean bizi dena, eta orokorrean, gainerrako komunitateek «paria sozial» gisa kontsideratua.<sup>115</sup> «Parien» artean, estatus horretara jaio egiten direnak —«paria» familien umeak «paria» etxola eremuetan hazitakoak— eta «paria bilakatzeko prozesua jasan egiten dutenak bereizten ditu. Bereizketa egiten du, baita ere, lana galdu eta iraunkorki eta semi-iraunkor-

114 Worsley, «Fanon and the 'lumpenproletariat'» lanean aipatuta, 23 zbk..

115 C. Allan, «Lumpenproletarians and Revolution», *Political Theory and Ideology in African Society*, seminarioko aktak, Centre for African Studies, University of Edinburgh, 1970.

ki langabetu diren horien, eta hirietara alderrai iritsi zirenetik benetan inoiz lanik izan ez dutenen artean. Bi kategorietako asko landa-eremuko barne-migratzaileak izango dira (Marxen «erreserba-armadaren» kategorietako bat). Paria helduen bi talde motek bizimodua kostata aterako dute noizbehinkako lan eta salerosketa txiki andanarekin —eta delinkuentziarekin—. Bizipen afrikarraz, dio:

Gero eta gehiago gertatzen ari den legez, lanpostu egonkorren bat topatzea lortzen ez badu, migratzailea kontaktu zerrenda batekin jarriko da harremanean. Hasieran familiakideekin eta gero ezagunekin, norekin eta noren lepotik bizitzeko, zerrendako azken kideak babesteari uzten dion arte, eta lanpostu parasitikoetatik erabat bizi behar duen arte: noizbehinkako salerosketa txikia, kotxe garbiketa eta zaintza, eskaletasuna, proxenetismoa edo prostituzioa, lapurreta txikiak, agintari politikoen hala nolako jazarpenak, zapata garbiketa, botila garbiketa, mandatugilea eta aldizkako lan kualifikatu gabea.

Enplegu zerrenda horretako elementu zenbait gora behera, segituan hitz egin liteke, adibidez, Jamaikako mendebaldeko Kingstoneko «paria» eremuez. Taldeak barne hartu ditzake Sol Tax-ek «zentimo-kapitalismo»<sup>116</sup> izendatutako jardun ekonomikoaren parte diren noizbehinkako edo kaleko salerosleak. Talde horrek osotasunean daukan heterogeneotasuna azpimarratzen du Allanez eta baita pariak existitzen diren modu ezberdinak ere:

Langabetuak baztertu bilakatzen dira, eta etxebizitza merkeko guneetara joaten dira. Lapurtu egiten dute bizitzeko, jardunaldi osoko kriminal bilakatu daitezke, eta herriko are gune isolatuagoetara joan. Beltzentzat zaila da biak aurkitzea, lana eta etxebizitza, eta edozein kasutan gehien-goak paria sozial eta psikologiko gisa tratatzen ditu. Fanonen hitzetan, halako edozein paria bilakatu daiteke «esperantzarik gabeko gizadiaren hondarra, suizidioaren eta eromenaren artean harrapatuta».<sup>117</sup>

Berrikiago, iraunkorki «baztertutako langileriaren» hazkundera aritu dira ikertzen ekonomialari latinoamerikarrak. Ekonomiako sektoreetako bat nazioarteko merkatu kapitalistara progresiboki gero eta gehiago egokitu ahala, beste muturreko langileriaren sektore esanguratsua ekonomiaren «bazterreko pororantz» ari da bultzatzen. Quijanok adibidez, gero eta handiagoa

116 S.Tax, *Penny Capitalism: A Guatemala Indian Economy* (Washington: Smithsonian Institute, 1953).

117 Allan, «Lumpenproletarians and Revolution».

den eta esplizituki izendatzen duen «erreserba gainpopulazioaren» posizioa aztertzen du.<sup>118</sup> Halako populazioa, adierazten duenez, beste behin Marxen bereizketari erantzuten dion forma ezberdinetan existitu egiten da. Sektore «mugikorrak» daude: txandaka enplegatzen eta enpleguetatik kanporatzen direnak hedapen eta kontrakzio ekonomikoko zikloen arabera. Sektore «latenteak» daude: enpleguetatik kanporatutako langile ruralak edo landa eremuan lana lortzeko gai ez direnak, hirietara alde-rrai iritsitakoak. Sektore «intermitentea» dago: enplegu iraunkor baina irregularra daukana, adibidez, etxetik lan egiten dutenez osatua. Ondoren, «lunpenproletariatza» dago edo proletariatza zarpaila, sarri eskaleek, prostitutek eta kriminalek osatzen dutena: erabat langabetuak eta inolako diru sarrerarik ez daukatena, pobrezia iraunkorreko egoerara bultzatutakoak. Quijanok azterketan aurrera egin ahala, argudiatzen du ikertzen ari den egoera partikularrean (hau da, sektore kapitalista gidaria eta aurreratua daukan ekonomia latinoamerikarretako batean) «gainpopulazio» hori ez dela jada, zehazki, «erreserba-armada» bat. Izan ere, gainpopulazio horrek inoiz berritua enplegatua izateko oso aukera gutxi ditu, are oparotasun ekonomikoko egoeretan ere; eta horrenbestez, utzi egiten dio era askotan kapitalaren «palanka» izateari.

«Azpiklaseko» geruza ezberdinen arteko barne bereizketak argi definituta ez daudenez eta gizarte mota batetik bestera nabarmenki ez datozenez bat, nahasketa gertatzen da «lunpenproletariatza» izendapen orohartzailea erabili delako denei batera erreferentzia egiteko eta segituan deskribapen gutxiesgarriak denei egotzi zaizkielako, Marx eta Engelsek kontzeptua sektore jakin batentzat soilik erreserbatu bazuten ere —egoera historiko zehatz jakin batzuetatik hartu zen «lunpena», XIX. mende Erdiko mendebaldeko Europako hiri industrialetako behartsuen klaseetatik—. Errebisioak, beraz, teoriaren bertsio ortodoxo edo klasikoari aurka egiten dioten bertsio gisa ikusi izan ohi dira. Errebisioak egitan, politikoak dira ekonomikoak baino gehiago. Eta neurri batean egin dira 1917tik hona iraultzek forma «puru» edo klasikoa izan ezik beste edozein forma hartu dutelako. Aldaketa erabakiga-

---

118 A. Quijano Obregon, «The Marginal Pole of the Economy and the Marginalised Labour Force», *Economy and Society*, 3 liburukia, 4 zbk., 1974.

ria gertatu da borroka iraultzailearen kokaguneari dagokionez Europatik hirugarren mundura —hau da, mendebaldeko Europarekin konparatuz gero ekonomia eta klase egitura ikaragarri ezberdineko gizarteetara lekualdatu da—. Testuinguru horietan, proletariotza industrialahula da erlatiboki, eta batzuetan existitu ere ez da eginen. Aldaketak lehen lerrora ekarri du klase zapalduen eta «burgesia nazionalaren» arteko aliantzen formari buruzko auzi deserosoa, bereziki, nazionalismoa nagusi den garaian, eta ez iraultza soziala (bereizketak, noski, ez dira inoiz hain argiak). Praktikan, galdera horiei erantzun ezberdinak eman zaizkie agertoki ezberdinetatik. Baina izan Asian, Latinoamerikan edo Afrikan, konponbide mota bakoitzak zenbait aldaera argi eta garbi «ez marxista» edo errebisionista dauzka. Txinarena da iraultza soziala bilakatu zen borroka nazionalistaren adibidea, zeina nekazariak, alderdiak eta armada gorriak gidatutako garaipen militarrekin bukatu baitzen. Era berean, lanketa teorikoari esker, «maoismoak» gorpuztu egin zuen, baldintza objektiboak gaindituta eta nekazalgoak nekazalgo izateagatik zeukan egiteko klabeaz gain, enfasia jartzea borondate kolektibo «subjektiboaren» garrantzia behinenean (ezinbestean proletariotzaren alderdiaren gidaritzapean). Maok berak *elementu desklasatu* izendatzen zituen (soldaduen, bidelapurren, ebasleen, eta abarren) errekrutamendu sutua barne hartzen zuen borondate horrek. Schramm-ek, adibidez, adierazten du:

Wang eta Yuan-en gertaerak [bi bidelapur buruzagiri erreferentzia da, izan ere, alderdiko eta armadako koadroak «langiletu zitezen» komite zentralak emandako aginduen aurka eginez 1928an Maok bidelapur horiekin batu baitzituen indarrak] inplikazio zabalak ditu berez. Oraindik ere Maoren marxismoaren bertsioaren bereizgarri gisa, giza borondateari emandako garrantzia islatzen du, faktore objektiboak eman beharrean. Pixkat beranduago, armadako *elementu desklasatu*en ehuneko izugarri altuaren presentziaz ziharduela, Maok baieztatu zuen erremedio bakarra entrenamendu politikoa areagotzea zela «elementu horietan aldaketa kualitatiboa eragiteko».<sup>119</sup>

Kubaren kasuan, lidergo iraultzaileak Castroren gidaritzapean eginiko estrategia politiko eta militarren maisutasunezko

---

119 S. Schram, *Political Leaders of the Twentieth Century: Mao Tse-tung* (Harmondsworth: Penguin, 1966) 127 orr.

konbinazioari esker, iraultzen eredu europar puruaren desbideratze are «latinizatuagoa» garatu zuten. Kasu horretan, «goitik» zetorren iraultza nazionalistaren ondoren, iraultza sozialera zeraman gerrilla ibiltarien *fokuen* erabileran oinarritutako konponbide militarri buruzkoa zen ardura —Debray bezalako idazleek garatutako estrategiak eragin handia izan zuen Latinoamerikan, gutxienez Guevara boliviarraren oihanean hil zen arte—. Debrayk gogoratzen digu Guevarak *fokuen* estrategiaren aurrebaldintzak ezarri zituela *Gerrilla gerra (La guerra de guerrillas)* lanaren aitzinsolasean.<sup>120</sup>

Kubako iraultzak hiru ekarpen oinarritzko egin dizkio estrategia iraultzaileari Latinoamerikan: 1) indar herritarrek gerra irabazi dezakete armadaren kontra; 2) ez da beti beharrezkoa iraultzarako baldintza guztiak betetzea —zentro insurrekzionalak sortu ditzake baldintzok-; 3) Amerika azpigaratua borroka armaturako gudu-zelaiak landa eremua izan behar du funtsean.<sup>121</sup>

Ez dira azaldu behar estrategia horrek Latinoamerikan izandako arrakastak, porrotak eta geldiuenearen ondoren etortzeko birbalioztatzea, argi ikusteko zein ezberdina den agertoki hori edozein agertoki klasikorekin konparatuz gero, batez ere nagusiki borroka politiko eta militarrean parte hartuko duten klaseen egituraketari dagokionez.

Hala ere, Fanonek egiten dituen «errebisioek» erantzuten diete egokien gure ardurei Aljeria eta beste afrikar borroka batzuek idazten duenean. Fanonek zapalkuntza kolonialaren auziaren *indakeriazko* konponbideari (eta ez soilik konponbide militarri) eman zion arreta berezia, indakeriaren praktikak «batera osotasun gisa» elkartzan dituelako kolonizatuak, eta aldi berean, norbanako gisa askatu egiten duelako «natiboak gutxiagotasun-komplexutik, etsipenetik eta gelditasunetik: izukaitz bihurtzen du eta errespetu propioa berrezartzen dio».<sup>122</sup> Worsleyk ohar garrrantzitsua egin du esan duenean Fanon ez dela «praktika sozial gisa» indarkeria antolatugabe espresiboaren aldeko apostolua.<sup>123</sup> Esanguratsuagoa da guretzat. Fanonek borroka kolonialeko klase

120 C. Guevara, *Guerrilla Warfare* (Harmondsworth: Penguin; 1969).

121 R. Debray, «Castroism: the Long March in Latin America», *Strategy for Revolution* lanean aipatua (Harmondsworth: Penguin, 1973) 39 orr.; ikusi baita ere R. Debray, *Revolution in the Revolution?* (Harmondsworth: Penguin, 1968).

122 Fanon, *The Wretched of the Earth*, 73 orr.

123 Worsley, «Fanon and the 'lumpenproletariat'».

sozial klabe gisa ulertzen zituen nekazalgora —«herrialdeko indar iraultzaile espontaneo bakarra»— eta *lunpenproletariotza*, «jende kolonizatuaren indar iraultzaile erradikalenetakoa eta espontaneoenetakoa»:

Gizateria-masa honen barruan, shanty-townteko jendearen artean, lunpenproletariotzaren bihotzean aurkituko ditu matxinadak aitzindari urbanoak. *Lunpenproletariotzak*, goseak hilik dagoen hordak, tributik eta klanetik erazutakoak osatzen duelako jende kolonizatuaren indar iraultzaile erradikalenetakoa eta espontaneoenetakoa [...]. Behin osatuta dagoenean, lunpenproletariotzak indar guztiak daramatza herriaren «segurtasuna» arriskuan jartzera eta gainbehera atzeraezinaren ikurra da, menderakuntza kolonialaren bihotzean beti presente dagoen gangrena. Proxenetak, istiluzaleak, langabetuak eta kriminal txikiak, atzetik bultzatuta, askapen borrokara jaurtitzen dira langile sendoen gisan.<sup>124</sup>

Garrantzitsua da gogoratzea Fanonek nazionalista iraultzaileen egitekoa ere funtsezkoa zela uste zuela —«ilegalistena»—. Alderdi nazionalista erreformisten aurka, landa eremura atzera egin, nekazalgorarekin identifikatu, harengandik ikasi, eta koalizio iraultzailearen abangoardiako estratua bilakatu ziren —«indar politiko potentea»—.<sup>125</sup> Era berean, Fanonek onartu zuen nekazarien altxamendu espontaneoak ezin zuela bere kasa gerra iraultzailea irabazi. Eta aitortu zuen «zapaltzailea [...] izugarri abila izango dela *lunpenproletariotzaren* ezjakintasuna eta ulertgaitzatasuna erabiltzen».<sup>126</sup> Zioenez, «atzetik bultzatu» egin behar ziren. Hala eta guztiz ere, uste zuen *lunpenproletariotza* —argi eta garbi kategorio oso zabal eta aski gaizki definitua Fanonen analisisian— gai dela egiteko politiko iraultzailea izateko eta baita erreakzionarioa ere. Bere idazlanek bizipen Aljeriarra kanporantz orokortzeko helburu nabarmena zeukaten, «etxola eremu urbanoetako populazioaren hondo sakoneko hamarnaka mila pertsona iraultzarako erreserba izatera eraldatu egin [bait] ziren masa anarkikoa, etsitua, eta despolitizatua izatetik».<sup>127</sup>

Fanonen tesia sakonki kritikatu dute haren heriotzaren ondoren etorri diren urteetan. Adibidez, badirudi Worsleyk arrazoia daukala dioenean Cabralek *lunpenproletariotzaren*, eta

---

124 Fanon, *The Wretched of the Earth*, 103-4 orr.

125 I. L. Gendzier, *Franz Fanon: A Critical Study* (London: Wildwood House, 1973) 207 orr.

126 Fanon, *The Wretched of the Earth*, 109 orr.

127 Worsley, «Fanon and the 'lumpenproletariat'», 40 orr.

orokorrean *desklasatu*en egitekoaz emandako balorazio neur-tuagoa historikoki zehatzagoa izan dela Fanonek emandakoa baino. Cabralen bertsioa da, eta ez hainbeste Fanonena, Gineako baldintza zehatzetan klase-estratu ezberdinen egiteko politikoa determinatzen lagundu zuten faktore sozial eta kultural espezi-fikoekin sentiberena dirudiena: «Lima ez da Bissau, eta Bissau ez da Kalkuta». Hala ere, Worsleyk era berean argudiatzen du adibide horiek erakusten dutena dela espektro iraultzaileko kontzientzia-formak, borroka moldeak eta posizio jakinak ezin zaizkiela «sektore bakarrari» modu *iraunkor*rean *egotzi*: «antzeko gauzak esan ziren historian emakumeei, beltzei, proletariotzari, herri kolonialei, eta beste askori buruz». *Lunpenproletariotzaren* kontzientziaren formak, kasurik onenetan, korporatiboak edo «komunalak» izateko *tendentzia* edukiko badute ere, Worsleyk go-goratzen digu etxoletako bizitza, egiatan, existentzia forma oso antolatua eta estrukturatua dela, eta ez «pobrezia kulturetan» bizi direnen artean sarri bultzatutako «erabateko desantolaketa soziala». Eta *posible da* borroka modu ezberdin batera erakartzea, beti ere, lunpenproletariotzak dauzkan existentzia molde mate-rialetan eragiten badute baldintzek, antolaketak eta gidaritzak orain arteko gelditasun kateak hautsi eta benetako borroka poli-tikorako oinarria garatzeko. Beste batzuk, sarri oinarri ezberdin batetik dihardutenez lanean, eszeptiakoagoak izan dira bazte-rreko klaseek luketen ekintza kolektiborako potentzialtasunari dagokionez.<sup>128</sup>

Worsley, hala ere, ohartu zen Fanonen argudioek jatorrizko Aljeriaren antzik ez duten lekuetan aurkitu dutela erresonantzia-rik handiena —bereziki «Paris eta Berlineko ekintza zuzenaren berpizkundean, baina batez ere, Estatu Batuetako ghetto beltze-tan, Fanonen liburua milakatan saldu baita bertan»—. Gazteria iraultzaile zurien baitako ikuspuntu fanoniarraren «jabetzeak» ez digu zuzenean eragiten hemen. Terrorismoa eta indarke-ria arma iraultzaile gisa erabiltzeak, eta *lunpenproletariotzaren* egiteko klabeak aldaera zentrala osatzen dute anarkismoaren tradizio historiko batzuetan, eta 1960 eta 1970eko hamarkade-tan zehar lehen lerroa hartu zuten aldaera horiek parlamentuz

---

128 Ikusi, adibidez, R. Cohen and D. Michael, «Revolutionary Potential of the African Lumpenproletariat: a Sceptical View», *Bulletin of the Institute of Development Studies*, 5 liburukia, 2-3 zbk., 1973ko urria.

kanpoko ezker muturreko talde iraultzaileek mendebaldeko alderdi komunistak atzean utzi zituztenean. Hirugarren munduko borroka iraultzaileekin batez ere ikasle mugimenduek zeukaten identifikazio ideologikoagatik ere etorri zen jabetze hori. Baina Estatu Batuetako mugimendu beltzaren baitako fanonismoaren adopzioa eta adaptazioa da guretzat zuzenean aipagarriagoa: lehenik eta behin, edonongo pertsona beltzen kontzientzia gartzeko izan zuen eraginagatik, baita Britainian ere; eta bigarrenik, iradoki zuelako gizarte eta borroka kolonialeko egoeran abiatu zen analisi politikoa posible zela kapitalismo garatu urbanoetako gutxiengo beltzen baldintzetara moldatzea eta transferitzea. Estatu Batuetako mugimendu beltzaren momenturik gorenean, beti egon ziren beltzen artean hegemonia lortzeko leian zeuden erretorika eta ideologia zenbait. Baina, leiak gora behera, aldaketa erabakigarria eskubide zibilen ikuspuntu integrazionista eta erreformistadun fasea utzi zenean gertatu zen botere beltzarekin, nazionalismo kultural afro-amerikarrarekin, musulmanekin eta (era berean separatistak ez baziren ere) Pantera Beltzekin identifikatutako fase iraultzaile eta separatistara bidea egiteko. Mugimendu beltzaren baitako joera ezberdin horietako askok komunean dauzkaten elementu ideologiko klabeak berreraikitzen saiatuz gero, ohartuko gara baldintza afrikarretatik afrikarretarako berrantolaketa saiakera egiten dutela: Cleaver-en *lunpenproletariatza* txertatu zela Fanonenean.

Mugimendu beltz amerikarrentzat Afrikarekin identifikatzeak identitate kultural historiko afrikar beltz komuna berraurkitzea esan nahi zuen. Une berean, azpigarapenaren, zapalkuntzaren eta gainesplotazioaren berraurkikuntza ere eragin zuen. Hori guztia erarik argienean hiri afrikarretako ghetto beltzetan aurkituko zuten, Estatu Batuetako populazio beltzaren baitan, eta ondorioz, desantolaketa sozialeko «baliabiderik gabe itotako enklabe» gisa estatikoki definitzeari utzi zioten eta *barne kolonia* gisa berreraikitzen igaro ziren. «Kolonia» beltza «metropoli» inperialetik askatzeko borrokarekin konparatuz gero, aukera berdintasunaren hedapena baliatuz sistema sozial eta ekonomiko zurian integratzeak galdu egin zuen esangura esperientziala. Worsleyk adierazten duenez, barne kolonia horiek, berez, «lehenengo munduaren» barruko hirugarren munduaren zati gisa ulertzen zituzten —«hirugarren mundu» terminoak,

beraz, harreman ekonomiko, sozial eta kultural esplotatzaile multzo bereizgarria adierazten zituen, eta ez eremu geografiko multzoa—. Beste borroka batzuk —Vietnamgo gerra, adibidez— esanguratsuagoak izango ziren agian «askapena etxera bueltan ekartzeko» helburudun estrategia garatzeko orduan. Baina Fanon beltzen artean erabakigarria izan zen «mentalitate kolonialaren» analisiak ghetto kultura ulertzeko zeukan egokitasunagatik, eta mentalitatearen eraldaketarako posibilitateaz Fanonek proposatutako tesiagatik borrokak «eskubideen» helburu mugatutik «askapenaren» helburu iraultzaile zabalagora bidea egiten zuen heinean.

Termino ekonomikoetan, populazio beltz amerikarra klase gainesplotatu berezia da langile-klase (zuri) zabalagoaren barruan. Edozein momentutan kopuru handietan errekrutatzen dituzte lanpostuen mailarik baxuenetarako, eta gehiengo nabarmena baztertuta, azpienplegatuta, edo langabetuta dago iraunkorki. Politika beltza, beraz, ez da gai izan inoiz soilik abangoardia industrial aurreratuarekin funtzioantzeko, edo soilik produkzio puntuaren inguruan garatzeko. Barruti propioarengana hurbilpen «populistagoa» egitera egon da behartuta, eta *komunitatearen* oinarritik lan egitera. Hor ghetto oinarria eta langabetuen politizazioaren garrantzia bilakatu ziren faktore politiko klabeak. Panterak, adibidez, programa ez-sektario zabalean oinarrituta, langabetuak borrokara errekrutatzerara irten ziren, ez hasieran koloniako «trapitxero» bizitzarekin zeukaten identifikazio erromantikoagatik, baizik eta horixe zelako zeukaten barruti potentzialaren bizipen eta baldintza errepresentatiboa. Klase-estratu tipikoki antolatugabeari diziiplina eta antolakuntza politikoa eramateak zekartzan zailtasunen erabat jabe izanik egin zuten hurbilketa. Zapalkuntza arraziala zen klase horrek bizitzako baldintza material eta kultural propioak hautemateko zeukan bitarteko zehatza, eta horrenbestez, arrazak osatzen zuen klase geruzaren autokontzientzia eraikitzeke modu zentrala. Zaila da arrazak sektore guzti horren bizitzaren ezaugarri estrukturatzaile gisa zeukan garrantzia ukatzea. Egiazki, «probeziaren aurkako programaren» garaian zenbait beltzentzat lortutako onura garrantzitsuek baina erreforma horiek langile beltzen pobrezia estructuralari aurre egiteko izandako porrotak

ekarpen positiboa egingo zion arrazaren zentralitatea onartzeari zapalkuntzen osagai klabe gisa.

Baina Panterentzat ghettoaren politizazioari ekiteak ezinbestean zekarren estrategia propioa aurkitzea, identitate kultural eta egiteko politiko positiboa topatzea ghettoko jardun ekonomiko nagusiarentzat: trapitxeoarentzat. Trapitxeroa arrazakeria eta langabeziaren konbinazioaren produktua zen. Eta hala ere, eskaintzen zuen auzoko gazte beltzentzako jokatibide positiboen eredu apurretakoa ere: zapalkuntzak kikiltzen ez zuen apurretakoa, soldata-txikiko pobrezia eguneroko errutinara lotuta ez zegoen apurretakoa. Ghettoan denak ez ziren trapitxeroak, ezta inondik ere. Baina trapitxeroaren irudia positiboki onartuta zegoen —eta horrek funtsezko garrantzia dauka, izan ere, Hobsawmen «bidelapur sozialak» kriminal tradizioaletatik bereizten zituen komunitatean zeukaten toki «onartua» baitzen)—.<sup>129</sup> Huey Newton-ek, Bobby Seale-k eta Panteren gainontzeko gidaritzak ekin zioten politika beltzaren eraldaketak zera proposatzen zuen: soldata-txikiko lanaren, trapitxeoaren, klase ertaineko «eskubide zibilen» politikaren eta nazionalismo kulturalaren separatismoaren munduetatik altermatiboa zen politika iraultzaile beltzaren forma bat. Horrek esan nahi zuen oraindik biziraupen estrategia batera edo bestera atxikita zeuden beltzak errekrutatzea. Baina Panterek eman zioten konponbidea ez zen aita beltzaren munduaren gainean aldarrikatzen, ezta langile beltzarenean, baizik eta esnatu berri zen *anaiaren* munduaren gainean. Eta «anaia» ezinbestean beti trapitxeroa ere bazenez, «anaiari» onartzen zitzaion potentzia-rekin zetorren alternatiba politikoak agintea hartuko bazuen, «lunpen-politika» izan *beharko* zuen nahitaez. Begirada hori ez zen Pantera Beltzen alderdiaren taktikena bakarrik, baina Pantera Beltzek eraman zuten gehienek baino urrunago eta arrakasta handiak izan zituen. Kasu entzutetsuak —Malcolm X, Eldridge Cleaver eta George Jackson-ek trapitxeo eta delinkuentziazatik eginiko konbertsioak— ez ziren adibide amaigabeen artean eza-gunenak besterik. Lumpen politikak esan nahi zuen, lehenik eta behin, zapalkuntzaren ezaugarri berehalakoenen kontrako erresistentzia ghettoaren espazio defentsiboaren barruan garatu

---

129 Ikusi Hobsbawm, *Bandits*.

behar zela. Aktibista beltzen eta poliziaren arteko gerra irekira eraman zuen horrek. Prozesuan zehar, politizatu egin zen ghettoaren barruan poliziak zeukan «kolonia» kontrolatzeko egiteko tradizionala. Beste borroka iraultzaileetatik ekarritako adibideei esker, «autodefentsa armatuaren» estrategia osagarria bultzatu zuen horrek. Berezi Panteren artean autodefentsa horrek ez zuen esan nahi modu simple eta abenturistan indarkeria espontaneoaz jabetzea. Komunitate beltzaren aurkako jazarpen polizial gogorak eskatzen zuen autodefentsa neurria zen. Gainera, *lan eredugarria* zen: komunitateari ikusaraztea zeukan boterea erabiltzen bazuen, zeuzkan eskubideen alde irmo mantentzen bazen, eta «bide guztiak erabiliz» bere burua defendatzeko prest bazegoen, zapalkuntza forma berehalakoena eragotzi zitezkeela. Hala, komunitate indargabea, eta subordinazio kolonialaren mentalitatean eskolatua, zera bihurtu zitekeen: indar sozial antolatua, autokontzientea eta aktiboa. Bigarren estrategia, ekin-tzak komunitate-autolaguntzan oinarritzen saiatzea zen. Beste behin, bi alderdi zituen estrategiak: komunitatearen baitan infrastruktura sozial alternatibo baten hastapenak abian jartzea; baina baita komunitateari ikusaraztea autoekintza forma autentikoak antolatzeko, kontrolatzeko eta garatzeko zeukan gaitasun propioa. Azpimarratzeko puntu garrantzitsua hemen da Panteren gidaritzat taldea bezalakoena estrategiak aldi berean zeudela diseinatuta ghetto koloniako jendearen gehingoaren bitzita baldintzetan errotzeko, eta praktika politiko kontzientearen bitartez baldintza beroriek eraldatzeko. Garrantzitsua da bi alderdiok kontuan hartzea, izan ere, azken urteetan ikuspuntua parekatu egin baita ghetto jendeak zapalkuntzen aurrean egitea aukatzen duen guzti horren eta edozeren baieztapen espontaneo sinplegoen artean. Panterek ez zuten inoiz sinistu ezta argudiatu masa beltzen biziraupen estrategia guztiak eraldaketa politikoko prozesu aktiborik gabe politiko bilakatu zitezkeenik.<sup>130</sup>

Mugimendu beltzak zeuzkan gainerako politika konplexuagoekin alderatuz gero, azken urteetan, «borroka armatuaren» gaiak izan du arreta handiagoa hartzeko joera. Neurri batean, Panterak eta beste mugimendu beltzak polizia

---

130 ikusi Seale, *Seize the Time*; eta H. P. Newton, *Revolutionary Suicide* (New York: Ballantine Books, 1974).

konfrontazioetan deuseztatu eta suntsitu dituztenetik, men-  
debalde garatuko borroka moldeetan terrorismo urbanoa eta  
gerrilla gerra era zabalagoan praktikatu direlako gertatu da  
hori. Baina Panterek mundu garatuko beste toki batzuetako  
komunitate beltzen artean izandako eragina baloratuz gero, bi  
tendentzia aski ezberdin horiek nahasteak, lagundu beharrean,  
oztopatu egiten du gure ulerkerara. Seale, Newton eta Cleaver  
guztiz kontziente ziren, noski, urrundu egiten ari zirela borro-  
ka iraultzailea egiteko edozein formula klasikotik. Cleaverren  
idazlanetan argi irakurtzen da hori, positiboki onartzen due-  
nean «lunpenproletariotza» izendapenaren erabilera; edo baita  
Sealen kasuan ere, inoiz zera adierazi zuenean, «Marx eta Le-  
nin ziur asko hilobietan bihurrituko liriateke lunpenproletario  
afroamerikarrak Pantera Beltzen alderdiaren ideologia sortzen  
ikusi ahalko balituzte».<sup>131</sup> Kapitalismo industrialaren bihotzean  
politika beltzarentzat txirikordatzen saiatzen ari ziren hari  
konplexuen eta eragin kulturalen jabe ere baziren. Sealek go-  
goratzen du:

Nire emazte Artie-k umea izan zuenean esan nuen, «Malik Nkrumah  
Stagolee Seale da negro honen izena». Stagolee auzoko negro gaizto bat  
zelako eta ez zuelako kaka inorengandik hartzen. Malcolm X-ekin bezala,  
egin behar zenuen guztia Stagolee antolatzea zen, politikoki kontziente  
izanaraztea. [...] «Kartzelatik irten den negroak *badaki*», esan ohi zuen  
Huey-k. «Kartzelatik irten den negroak gizona biluzik eta hotzez ikusi du,  
indarrak batzea lortu badu, Malcolm X bera bezala irtengo da kartzelatik.  
Ez zara inoiz arduratu beharko beragatik. Zurekin egingo du bidea». Hori  
da Hueyk kontatu zuena, eta nik esan nuen «Malik Malcolmengatik [Mal-  
colmen izen musulmana El Hajj Malik Shabazz zen] Nkrumah, Stagolee  
Seale».<sup>132</sup>

### **Harlemetik Handsworthera: guztia ekarri etxera bueltan**

Kapitulu honetan «kale-lapurretaren» eduki soziala araka-  
tzen saiatu gara, eta beraz, «kale-lapurretaren» politikek borroka  
beltzarekin daukaten loturez egin ditugu zenbait galdera. Helbu-  
ru nagusia ez da izan behin-betiko erantzunak ematea, guretzat  
azalpen posible bat osatzen zutela ziruditen elementuak azter-  
tzea baizik, eta horrenbestez, gogoeta politiko baten oinarria

---

131 Seale, «Foreword», *Seize the Time* lanean.

132 *Ibid.* 4 orr.

ematea. Jarraian, garatutako argudiaketaren bidea berrartu nahi dugu laburpen gisa.

«Kale-lapurreta» izendatutako ekintza kriminalek eta «kale-lapurretari» asimilatu dizkieten delinkuentzia beltzaren patroiek ikerketa honen abiapuntua besterik ez dute osatzen. Behin eta berriro azpimarratu dugu ekintza kriminalen *atzekaldera* jotzeko betebeharra, hau da, delinkuentzia beltza efektu gisa sortzen duten baldintzetara. Labur-labur aztertu ditugu patroi horiei gehien erantzuten dioten gizarte taldeari zuzenean eragiten dizkieten estrukturak, hau da, gazteria beltzari. Argudiatu dugu klase frakzio gisa soilik ulertu daitekeela gazteria beltza behar bezala —adinak eta belaunaldiak definitzen duen frakzioa, baina baita gerraondoko migrazio beltzaren eta langile-klase metropolitarrak beltzaren osaketaren historian daukan *posizioak* definitutakoa—. Jarraian, klase hori beltz soldatapeko langile-klase gisa produzitzen eta erreproduzitzen duten estrukturei begiratu diegu, zeintzuek mekanismo zehatzen bidez posizio zehatzak esleitzen dizkieten gizarte kapitalista metropolitarrak garaikidearen harreman ekonomiko eta sozialen baitan. Estruktura horiek definitu ditugu, ez «diskriminazio arrazialeko» ezaugarriak erakusten dituzten aparteko instituzio multzo gisa, baizik eta *arrazaren bitartez funtzionatzen duten* eta elkarrekin korapilatuta dauden estruktura gisa. Hezkuntza sistemaren, etxebizitza merkatuaren, egitura okupazionalaren eta lan banaketaren bitartez erreproduzitutako klase-harremanen arabera definitutako gazteria beltzaren posizioa ezin da inolaz ere arrazakeriaren markotik kanpo analizatu. Arrazakeria ez da soilik gainerako enplegatuekin beltzek topo egiten dituzten jarrera diskriminatzaileak. Belaunaldi batetik bestera, langileria beltza arrazialki zehatzak diren leku eta posizioetan «erreproduzitzen» duen mekanismo konkretua da arrazakeria. Beltzei kapitalismo garaikidearen klase-harremanen baitan posizio bakarria adskribatzea da prozesu konplexu horren emaitza, hau da,aldi berean, langile-klase zuriaren posizioaren aldamenekoa da nolabait (klasearen frakzioa izanik lanesku beltza), eta hala ere, zatiketa gisa ezberdinduta dago. Baldintza horietan, klase-harremanek etengabe gaindeterminatzen dituzte harreman etnikoak, baina ezin dira biak estruktura bakarrean nahastu. Arraza eta klasearen konbinazio horretatik datorren posizioari *bigarrentasun* posizioa

deitu diogu. Aurreko bi kapituluetan definitutako egungo krisiaren koiunturan, langile-klasearen posizioa orokorrean dago presiopean. Gizartea erradikalki eraldatzea posible izan arte, posizio horrek okerrera egiten jarraituko du funtsezko dimentsio bakoitzean zehar. Ekonomikoki, klasea gero eta langabezia handiagoa ari da jasaten orain, eta bitartean,aldi berean eskatzen zaio krisiaren kostua eta konponbidea bere gain hartzeko. Politikoki, lehendik erreforma-prozesu desorekatu bati esker irabazitako posizioak drastikoki higatzen eta lehengoratzen ari dira. Ideologikoki, hegemonia krisi betean, langile-klasearen posizio aurreratuenak eta eragile errepresentatzaileak eraso ideologiko sistematikoa ari dira jasaten, erasookin zelai ideologikoa «kontsentsu autoritarioa» bilakarazi nahi baita irtenbide gogorrek eta politika erreakzionarioak inposatzearen alde dagoena. Lanesku beltzaren posizioa, kapitalaren prozesuetara subordinatuta, higatu egiten ari da eta bizkorrago higatuko da daukan logika propio bereiziatatik. Delinkuentzia da prozesu horren ondorio auresangarri eta aski ulergarrietako bat —estrukturak nola funtzionatzen duten ikusita ondorio ekidinezina da gauak egunari jarraitzen dion bezala, «nahita bilatu gabekoa» bada ere—. Honaino ez dago azalpenaren mailan edo maila teoriakoan arazorik. *Badaude*, noski, estrategia eta borroka arazo handi eta funtsezkoak: «delako delinkuentzia beltzaren goranzko indizeak», sistemari kontrol eta kontentzio arazoak dakarzkionak, komunitate beltzari ere dakarkio arazoa. Eta arazoa da klasearen sekzio esanguratsua gutxi gora behera iraunkorki *kriminalizatzea* ekidin behar dela.

Hemen, hala ere, arazoak hasi besterik ez dira egiten. Izan ere, langile beltza, gizona zein emakumea, azpiproletariotza gisa erreproduzitzen duten estrukturak arrazaren bitartez funtzionatzen duten bezala, era berean, erantzun gisa lekua hartzen hasi diren erresistentzia eta borroka formek —naturalki eta zuzenki— *arrazaren arabera* kristalizatzeko joera daukate. Arrazakeriaren jardunaren bitartez hasiak dira beltzak sistemak nola funtzionatzen duen ulertzen. «Kontzientzia beltz» jakin baten bitartez hasi dira klase posizio propioaz jabetzen edo «kontzientzia hartzen», posizio horren aurka antolatzen eta «borroka egiten». Arraza bada lanesku beltza sisteman zehar daraman elementu eroalea, aldi berean da zirkuitu lehengoragarri bat klase-borro-

karen forma eta erresistentzia moldeak mugiarazten hasteko. Eta delinkuentzia beltzak, «kale-lapurretak» barne, harreman konplexu eta *anbigua* dauka halako klase-erresistentziaren eta «kontzientzia-erresistentziaren» formekin. «Kolonía» beltzaren formazioaren historia ikertzean —kolonia bera izanik aurretiko «bigarrentasun» faseen aurkako defentsa estrategia— erakusten saiatu gara delinkuentzia, sasidelinkuentzia, bazterreko salerosketa eta trapitxeoa komunitate beltzarentzako biziraupen molde egokia bilakatu zituen prozesu konplexua. Eta beraz, erakutsi dugu zorua eta sareak sortu zirela eta ezarri zirela kultur ohitura jakin batzuk, «koloniaz» kanpokoentzat gutxiengoaren delinkuentzia-bizitza baziruditen ere, zoru, sare eta ohitura horiek populazio beltz osoaren biziraupenari gutxienez modu askaezinean gelditu zirela lotuta, erabat bategin ez zutenetan. Guztiz argi dago *delinkuentziak*, bere horretan, ez duela konponbiderik ematen langile beltzak aurrez-aur daukan arazoarentzat. Esplotazio sozial eta ekonomikoetatik eratorrita ere, finean, gabeziara egindako adaptazio sinbiotikoa besterik errepresentatzen ez duten askotariko krimenak daude. Delinkuentzia, bere horretan, ez da ekintza politikoa, bereziki kriminalek eta biktima gehien-gehienek klase posizio kasik bereiziezina daukatenean. Halabeharrez, ez da ezta ekintza «quasipolitikoa» ere. Baina egoera jakin batzuetan, eman *ditzake* klase kontzientzia oposizionala izateko alderdi batzuk, edo alderdi horien adierazle gisa definitu daiteke. Delinkuentzia langile-klase beltzaren bigarrentasun arazoarentzako konponbide gisa goretzi gabe ere, momentu batez soilik gogoetatzeak erraz erakusten du gazteria beltz langabetuaren sekzio etsitu batek biktima zurién aurka eginiko lapurretek, zorro-ebasketek, tiradizoek eta indarkeriazko ebasketa ekintzek adierazpen ito eta desplazatua eman diezaioketela bazterkeria iraunkorraren bizipenari. Adierazten denaren eduki politikoa, eduki horrek batzuetan hartzen dituen forma «kriminaletara» ez murriztea da hemen funtsezkoa.

Delinkuentzia eta gazteria beltzaren auziek, beraz, modu konstantean garamatzate klase beltz osoaz gogoetatzerá —azpi-proletariatza beltzaz-, delinkuentzian aldi batez edo iraunkorki parte hartzen dutenek klase osoaren frakzio kriminalizatua osatzen baitute. Nola ulertu langile-klase beltz horren posizioa? Nola uztartu delinkuentziaren auzia borroka formekin?

Interpretazio sendo batekin egin dugu topo. Argudiatu denez, lotura ez datza «delinkuentziaren» egitatean bertan, *soldatagabetasun* posizioan baizik. Delinkuentziak «adierazi» egiten duen une berean ezkutatu egiten duena zera da: proletariotza beltzaren gero eta soldatagabetasun handiagoa. Baina bi bide daude «soldatagabetasun» izaera hori ulertzeko eta soladagabetasuneko oinarritik sortzen diren edo sortu daitezkeen antolaketa politikoaren eta kontzientzia ideologikoaren formak ulertzeko. Interpretazioetako batek jadanik «soldatagabetasunean» kontzientzia quasipolitiko baten presentzia ikusten du nagusiki: masa langile berriaren —sarri langile migratzailearen— kontzientzia «lan egiteari uko egite» gero eta hedatuagoan adierazten da. «Lan egiteari uko egiten» dioten horiek bizirauten jarraitu behar dute, eta delinkuentzia da zalantzarik gabe «soladagabeei» gelditzen zaien biziraupen modu urrietako bat. Baina horrek garrantzia txikiagoa dauka sistema definitzen duen estruktura nagusietako baten ukazioak dakarren «bigarrentasunaren» arbuio positiboa kontuan hartuz gero —hau da, langile beltza sistematikoki lanesku kualifikatu gabeen lerroetara bidaltzen duen produkzio-harremanen arbuioa—. Ebidentzia argiek diote beltzen erresumina areagotzen ari dela sistema kapitalistak langile beltzari eskaintzen dizkion lan aukera mugatuengatik. Argi dago, baita ere, erresuminak bat egin duela aukera mugatu horiei ezinbestean jarraitzen dioten zapalkuntza arrazistei erresistitzeko, borrokatzeko eta aurka egiteko borondatearekin. Interpretazio horrek, beraz, komunitate beltzetan oraintxe bertan gertatzen ari den martxa ezberdinetako kontzientzia eraldaketaren oinarri materialari «zentzua ematen» laguntzeko gaitasuna dauka. Hau da, laguntzen du maila ideologiko eta politikoetako garapenei zentzua ematen. Baina, krisia sakondu ahala, argi gelditzen da kopuru handietan «lan egiteari uko egiten» dioten beltz horiek premiatik bertute ari direla egiten: eskola-graduatu gazte beltzentzat ez dago kasik lanik batere ezta uko egiteko ere. Kaleko trapitxero bizitzari esker bizirautea ezinezkoa egin zaien sekzioa handia izanik ere, *are handiagoa da*, eskainiz gero, lana hartuko luketen beltzen kopurua. Hortaz, «soldatagabetasunaren» argudioak indarra galdu egiten du gaur egun klasearen erreprodukzioa gertatzen ari den maila ekonomikoa ulertzeko orduan. Kapitalaren aurkako konfrontazio ekonomikoa, politiko

eta ideologiko betea izango balitz bezala gertatzen da borroka ekonomikoaren forma mugatu baten apropiazioa. Argudio honi, berebiziko garrantzia daukan zerbait gehitzen zaio azpimarratzean laneku beltza bi historia gurutzaturen emaitza dela, eta ez historia bakarrarena. Lanesku migratzaile beltzaren metropoliko zuzeneko subsumtzioaren parean proletariotza kolonial beltzaren subsuntzio hedatua kokatzea da beharrezkoa, mundu mailan inperialismoaren bitartez gertatzen dena. Britainiako langile-klase beltzaren funtsezko ezaugarri bereizi zenbait argitzen ditu horrek, baina oraindik ez du behar bezala azaltzen zer mekanismok gobernatzen duen klasearen erreproduzio soziala *gaur egungo* egoeran, gaur egungo koitunturan, eta bereziki harreman ekonomikoen mailan.

Maila horretan azalpen alternatiboak gaia argitzeko gaitasun handiagoa daukala dirudi. Ezaugarri abakigarri gisa tratatzen du kapitalismo metropolitarrako produkzio-harremanetan laneku beltzari ematen zaion sarrera arrazialki segmentatuta, eta hortaz, baita langile-klase zuriari dagokionez hartzen duen azpiproletariotza posizioa. Horixe da gaur egun kapitalak lan-indar beltza esplotatzeko daukan moduaren ezaugarririk garrantzitsuena. Posizio estruktural horrek azaltzen du kapitalarekin daukan harreman estrukturatua, eta baita proletariotzaren beste sektoreekin daukan barne harreman kontraesankorra ere. Horrenbestez, areagotzen ari den «soldatagabetasun» egoera kapitalaren zikloen eta metatze mekanismo klasikoen arabera azaltzeko gai da: hau da, «laneskuaren erreserba-armada industrialaren» osaketaren arabera. Langile beltzen borrokek sektore industrialean gertatu zein ez, soldatapeko gisa irauten duen klasearen sektoreak borrokatuta zein «soldatagabeek», esangura politiko eta ideologiko kritikoa daukate klasearen kohesio, militantzia eta borrokarako gaitasun gero eta handiagoarentzat. Baina maila ekonomikoan esangura txikiagoa daukate posizio horretatik: oraindik ere nabarmenki «korporatiboak» dira izaieran —«kapitalaren logika» osoaren barruko borroka dira, eta ez logika osoaren aurkakoak—. Hemen azaleratu dira, orduan, lanesku beltzak laneskuaren erreserba-armadan daukan egitekoari buruzko galderak: kapitalaren dependentzia formazio prozesuan; «laneku migratzaileak» —beltz, hego-europar, ipar-afrikar zein latinoamerikarrak— gaur egun daukan egiteko zehatza kapita-

lismo aurreratuko nonahi; eta lan produktibotik zikloaren puntu honetan bertan azkar kanporatzen —bartzertzen— ari diren horien posizioari buruzko galderak. Auziari ikuspuntu ezberdin askotatik begiratu ondoren, gai izan gara erakusteko kapitalak lan produktiboan mantentzen direnak esplotatzeko beharra izateaz gain, *beharra* daukala baita ere produktibotik kanporatzen direnak esplotatzeko, hau da, lanetik kanpo pobretutakoak, edo hala nolako «bazterketa» iraunkorreko posizioa jaurtitakoak, edo kapitalaren ziklo produktibo irregularrera beste behin errekrutatzen direnean bigarren mailako lan merkatuen operazioetan zehar mugiarazten direnak.

Mekanismo horien aurrean sistematikoki —langile migra-tzaile gisa orain edonon, krisi kapitalistaren garaian— zaurgarri agertzen den klase frakzio oso baten posizioa ulertzeko hainbat modu daude. Horietako bat da *lunpenproletariotza* tradizionalaren araberakoa. Izendapen hori bideragarri egiten duena zera da: delinkuentziaren eta kaleko bizitza arriskutsuaren gero eta beharrian handiagoa dagoela biziraupenerako modu nagusi gisa. Baina argi eta garbi erakutsi daiteke ez dela inolaz ere *lunpenproletariotza* ezein zentzu klasiko edo erabilgarritan. Ez dauka *lumpenak* kapitalarekin daukan harremana posizioari, kontzientziari ezta egitekoari dagokionez ere. Argiago izan daiteke, agian, kapitalismoak azpigaratutako «hinterland» kolonialetako «*lunpenproletariotza*» bezalakoa. Baina hori ere ez da, ezein zentzu esanguratsutan, *lunpenproletariotza* tradizionala, eta hala izendatzeak kapitalismoak mundu kolonial eta postkolonialean daukan mekanismorik funtsezkoenei ezikusiarena egitea dakar. Eredu horietako «lanesku baztertuaren» tamaina, posizioa eta hazkundera ez da hondoratze bidean berpiztu daitekeen frakzio txiki baten patua, baizik eta azkar hedatzen ari den baldintza komun eta beharrezkoa. Hiri kolonialean, geruza horrek Marxen erreserba-armadaren estratu *latenteari* erantzuten dio bete betean —kapitalaren fluktuazio irregularren ondorioz nekazaritza lanetik kanporatutakoak dira—. Sektore horrek eta «*lunpenproletariotza*» tradizionalak, biek, neurri batean delinkuentziaz bizi izatea ez da garrantzizkoa estratua zer den identifikatzeko orduan kapitalarekin daukan harremanean.

Halako analisi «klasikoagoaren» arazoa da lehenengo argudioaren ifrentzua dela. Gaitasun argitzaile nabaria dauka

maila ekonomiko eta produktiboan, edo harreman «ez-produktiboen» mailan. Baina ez ditu gauzak behar beste azaltzen maila politiko, kultural eta ideologikoan. Lanesku beltzaren sektore «soldatagabea» Britainian «erreserba-armadaren» estratu mugikorra edo geldia izan daiteke. Baina ez ditu tradizioz estratu horri dagozkion kontzientzia politikoaren formak erakusten. Puntu horretan behartuta egon gara, berriro ere, argudioaren ibilbidea birbideratzera. «Lurreko kondenatuak» deitu ditugunen eta kondenatuon borroka politikoen historia garaikidea aztertu dugu, eta behin maila ekonomikoa argitu eta neurri batean «zuzendu» ondoren, Britainiako beltzen artean berriki gertatutako garapen batzuen historia kontingente bat bueltan ekartzeko saiatu gara. Onenean ere historia anbigua denez, ez die planteatutako auziei «erantzuna» ematen, baina arazook ebazteko ekarpen esanguratsua egiten du. Historia horretako arrakastarik handienak eta sakonenak metropoliaren bihotzetik urrun lortu dira. Garapen kapitalistaren formarik aurreratuenen erdigunera orduan eta gehiago hurbildu ahala gero eta lorpen politiko txikiagoak erakusten ditu. Afrika, Txina eta Kubako eraldaketak gauza bat dira, baina orain arte, heroikoak izanik ere, Estatu Batuetako masa beltzen borrokak izandako indar eraldatzailea zorrotz mugatuta egon da. Estatu Batuetako esperientziak metropoliko gazte beltz militanteen artean martxan dagoena azaltzeko gaitasunik badu ere, ez du erakusten berehalako arrakasta lortzeko aukerarik. Eta ahuleziaren alderdi bat, baita Estatu Batuetako kasuarekin konparatuz gero ere, kontzientzia «kriminala» kontzientzia politikora eraldatzeko orain arteko porrot orokorragatik neurtu liteke zehazki.

Posizioa esajeratu gabe, beraz, analisirako arazo zail batekin egiten dugu topo —praktika eta estrategia politiko teorikoki sendoak garatzeko orduan eragin pertinenteak dituen arazoarekin—. Langile-klase beltzaren formazio sozialak dauzkan maila ezberdinen artean dauden —maila ekonomiko, politiko eta ideologikoen artean dauden— etenen, desadostasunen, dibergentzien, eta korrespondentzia falten arazoak dihardugu. Luze eta zabal ari dira auzia eztabaidatzen gaur egun, baina gure intentsioa ez da gai teorikootan gehiago sakontzea. Horren orde, egitekotan, eztabaidaren ondorio praktikoa, estrategikoa eta politikoak nabarmendu nahi ditugu. Zuzenean esatearren, aurrez aurre ditugun

arazoak beltzen artean garatzen dabiltzan borroka politikoen formei dagozkienak dira kontraesan propioak eusten dituzten esturkturatarako *egokiak* izan daitezzen. Ezin dugu hemen korapilo politiko hori askatu. Hala da, hau ez da horretarako liburua eta ezin dugu estrategiari eta borrokari dagozkien arazoontzako konponbide bizkorrik proposatzen ari garenik pentsatu. Berariaz egin diogu uko auzi horretan zuzenean sartzeari, uste dugulako borrokan ebatzi beharreko gaia dela, paperean beharrean. Gure argudioak, hala ere, erantzunak bilatu daitezkeen zorua garbitzeko eta alderdi batzuk azpimarratzeko balio izan duela espero dugu.

Badago, hala ere, atal honetan planteatutako auziak birpentsatzen hasteko dimentsio bat. Irakurleek gogoratuko dute kapituluaren hasieran behin eta berriz azpimarratu dugula *arrazaren* posizio estrategiko eta estrukturala. Argudiatu dugu lanesku beltza erreproduzitzen dituzten esturkturak ez daudela soilik arrazarekin tindatuta, baizik eta arrazaren bitartez funtzionatzen dutela. Kapitalismoaren produkzio-harremanek formazio sozialaren maila edo instantzia ezberdinetan —ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan— klaseak modu ezberdinetan artikulatzen dituztela pentsatu dezakegu. Maila horiek produkzio-molde kapitalista jakin baten esturkturen «efektuak» dira. Mailen «autonomia erlatiboa» —mailen artean bat etorri behar ez izatea— eztabaidatu dugu lehenago ere. Formazio sozialaren «maila» bakoitzak behar ditu «errepresentazio-bitarteko» independenteak —klase ekonomikoaren borrokaren, borroka politikoaren eta borroka ideologikoaren maila bakoitzean klasetan esturkturatutako produkzio-molde kapitalista «agerrarazteko» bitartekoak hain justu—. Arraza intrintsekoa da beltz langile-klaseak maila horietako bakoitzean *modu konplexuan konstituitutzen* diren moduentzako. Arraza tartean sartzen da lanesku beltza, gizon zein emakume, praktika ekonomikoaren mailan agente ekonomiko gisa banatuta dagoen moduan —eta banaketak ondorioz dakartzan klase-borroketa—. Arraza tartean sartzen da klase beltz langilearen frakzioak «politikaren antzokian» indar politiko multzo gisa konstituituta dauden moduan —eta konstituitze prozesuek ondorioz dakartzaten borroka politikoetan—. Eta arraza tartean sartzen da ideologia emergenteen eta konzientzia formen «subjektu» kolektibo eta indibidual bezala osatutako

klasea artikulatzeko moduan —eta artikulaziook ondorioz dakartzaten ideologiagatik, kulturagatik eta kontzientziagatik egindako borroketan—. Horrenbestez, arrazaren eta *arrazakeriaren* gaiak zentraltasun teoriko bezain praktikoa hartzen du lanesku beltzari eragiten dioten harreman eta praktika guztietan. *Arraza-harreman* gisa funtzionatzen du klase frakzio hori klase gisa konstituitzeak eta *arraza-harreman* gisa funtzionatzen dute hala inskribatzen duten *klase-harremanek* ere. Banaezinak dira biak. Klasea bizi egiten den modalitatea da arraza. Klase-harremanak jasaten diren bitartekoa ere bada. Esandakoak ez du zauririk sendatzen segituan ezta hesirik gainditzen ere. Baina ondorioak dauzka *klasearentzat osotasunean*, existentzia baldintzekin dauzkan harremanak sistematikoki eraldatzen dizkiolako arrazak. Borroka molde batzuk determinatzen ditu. Eta ematen du eraldatu nahi dituen estrukturen aurkako borrokaren *egokitasuna* neurtzeko kriterioetako bat ere.

Gaur egun klase langilearen baitan «banalerro arrazialean» artikulatzen diren barne zatiketak pentsatzeko eta erantzuna antolatzeko daukagun moduetan eragiten du esandakoak. Ez gara goitik datozen inposizio hutsez ari. Zatiketek kapitalari on egiten badiote ere ez dira dauzkan engainurik onenak. Zatiketak ideologia praktikotetan garatu eta eraldatu badira, langile-klase zuriaren «zentzu komuna» bilakatu badira, ez da klase zuri hori norbanako arrazisten aurrean inozoa delako edo erakunde arrazisten harrapakina delako. Langile-klasearen kontzientzia ideologia arrazistaren sintaxian artikulatu nahi dutenak, noski, agente klabeak dira maila ideologikoko borrokan: eragin pertinateak dauzkate. Baina benetako harremanetan jarduten dutelako daukate lortzen duten arrakasta maila, estrukturen benetako efektuekin egiten dutelako lan, eta ez demonioak konjuratzen azkarrak direlako. Arraza beraz, ez da soilik «pairatzera» behartutako beltzen arazoa. Ez da, ezta ere, arrazakeriaren orbanak infektatutako langile-klase zuriaren sekzioei edo klase erakundeei soilik dagokien arazoa. Eta ezin da inolaz ere gainditu inokulazio liberaleko dosi handi bakarrarekin tratatu daitekeen birusa balitz bezala. Kapitalak klasea osotasunean erreproduzitzen du, arrazak estrukturatuta. Neurri batean, «arrazakeria» efektu gisa daukaten barne zatiketen bitartez menderatzen du kapitalak zatitutako klasea. Klase-erakunde

errepresentatzaileak blokeatu eta desaktibatu egiten ditu, neurri batean, arrazialki zehatzak diren estrategia eta borroketara konfinatzen dituelako, eta ez dituztelako dauzkaten mugak eta hesiak gainditzen. Arrazaren bitartez suntsitu egiten dira maila politikoan klase osoa benetan egoki errepresentatzeko —hau da, kapitalismoaren aurka, arrazakeriaren aurka errepresentatzeko— erakundeak eraikitzeke saiakerak.

Kapitalismoaren aurka etengabe sortzen ari diren sekzio borrokak norbere buruaren aurka zatituta dagoen klasearen estrategia defentsibo *beharrezkoak* dira. Horrenbestez, kapitalaren etengabeko kontrolerako guneak ere badira. Langile-klase zuriak eta dauzkan erakunde ekonomiko eta politikoak (gaur egun ez baitauka erakunde ideologikorik modu egokian errepresentatzen duenik) kidetasunagatik edo anaiarteko elkartasunagatik arrazakeriaren aurka «gure anaia beltzen» izenean borrokatzeke zabaltzen direnean, funtsean ulertzen dituzte gaizki haien buruak eta hartzen dituzten posizioak. Eta gauza berbera gertatzen zaie erakunde beltzei borroka propioaren izaera gaizki ulertzen baitute kamarada zuriekin aliantza taktikoak sortu ala ez eztabaidatzen dutenean. Esandakoa ez da inolaz ere interpretatu behar borroka bateratu baterako, fronte komun baterako, dei taktiko bat bezala — «zuriak eta beltzak, elkar zaitezte eta borrokatu!» esan ohi da *oraintxe bertan* halako formako borroka garatzeko ezintasunari aurre eginez erabat—. Horixe esan ohi da ondo jakin arren gerraosteko kapitalismo aurreratuko klase-historiaren momentu kritiko guztietan borroka *ezinbestean* zatitu egin dela atal estrategiko banakatuetan. Baina analisiak badauka logika jakin bat azken bururaino eraman beharrekoa. Gehitu beharrekoa da borroka beste behin forma zatikatuan agertzen den une oro kapitala sartu egiten dela eta bete egiten duela hutsunea. Argudio teorikoak zera esateko eskatzen digu: klasearen sekzio bakoitzak kapitalari klase gisa egin behar diola aurre, eta ez besteekin izan dezaketen elkartasunagatik, baizik eta *klaseagatik beragatik*. Bestela, Marxek *Brumairearen hemezortzian* ohartarazten zuenez:

milioika familiaren baldintza ekonomikoek beren bizitza, interesa eta kultura beste klase batzuen bizitza, interes eta kulturatik bereizten dituzten neurrian eta klase horiekin aurrez aurreko antagonismoan jartzen dituzten neurrian, klase bat osatzen dute familia horiek. Baina, bestal-

de, [...] tokiko harremana besterik ez dagoen neurrian eta beren interes komunek ez dutenez sortzen ez elkartasunik, ez batasun nazionalik, ez organizazio politikorik, ez dute osatzen klase bat. Beraz, ez dira gai beren klase-interesak defendatzeko beren izenean

Delinkuentziara garamatza horrek berriro. Oraingoan, delinkuentzia beltzak klase zatiketaren eramaile lanak egiten dituela ikusi dezakegu. Klasea beltzen eta zuriaren artean zatitzeari oinarri materiala ematen dio, izan ere, delinkuentzia beltz frankoren kasuan (langile-klase zuriaren delinkuentzia frankoren kasuan bezalaxe) klasearen zati batek bestea «errobotzen» baitu materialki. Zatiketari figura ideologikoa ematen dio, delinkuentziaren jatorrian dagoen klase pobrezia arrazaren sintaxi ulergarriegira eraldatzen duelako, eta etsai faltsu bat finkatzen duelako: kale-lapur beltza. Horrenbestez, eutsi egiten dio zatiketa politikoari. Momentuz eragile beltzek eta komunitate beltzak defendatzen dute gazteria beltza, jasandako jazarpenaren aurrean. Eszenatoki politikoan «kaleko kriminalen defendatzaile» gisa agertzen dira. Baina delinkuentziara sistematikoki bultzatzen den klasearen sektore hori ez defendatzeak iraunkorki kriminalizatutakoen lerroetara abandonatzea lekarke.

«Kale-lapurretaren» izuak daukan hasiera itxuraz simpletik eratortzen den logikari jarraitzen saiatu gatzazkio ikerketan zehar. Ahalegindu gara logika hori ahalik eta modurik osoenean berreraikitzen. Argi beharko luke berreraikuntzak ez dakarrela «kale-lapurretaren» onespelik era moral sinpleren baten, edo positiboki gomendatzerik estrategia gisa, edo «kale-lapurretarekin» erromantikoki identifikatzerik «konponbide desbideratu» gisa. *Race today*ko editorialak adierazi bezala: «momentu honetan kale-lapurretara jotzeak esan nahi du gazteriak ez duela ulertzea lortu langile-klase zuriaren parataideei bere horretan dirua indarrez edo lapurretaz hartzeak hankaz gora jartzen dituela lan kapitalistaren esklabotzaren kontra egindako borrorak. Ez dira langile zuriak dirua daukatenak». Gainera, erabilitako indarkeria-ekintzak burutzen dituztenak desaktibatzeke eta degradatzeko efektua dauka eta nagusiki ekintza horien jomuga diren etsaiak momentuan bertan «konpentsatu» egiten ditu. Horrela ikusita, balirudike beltzen «kale-lapurreta» eta beste edozein gaztek egin dezakeen «kale-lapurreta» portaera multzo mota berdina direla; baina daukan eduki eta posizio soziala kontuan harturik, ez da

batare berdina klase osoari dagokion problematikari dagokionez. *Race today*ren editorialak gehitzen zuen: «lan egiteari uko egiten diotenen alde agertzen gara aho betez. Azaldu dugu ekintza hori botere iturria dela klase osoarentzat. Kale-lapurretaren aurka gaude irmoki. Kale-lapurreta indargabetasunaren adierazpen gisa ikusten dugu, soldatarik gabe egotearen emaitza».<sup>133</sup> «Kale-lapurreta» «auzi moral» erraza dela uste dutenei soilik irudituko zaie bi proposamenak kontraesankorrek direla, eta baita «kale-lapurretak» daukan adiera soziala itxurarik azalekoenetatik eta berehalakoenetatik modu gardenean irakurrita konprenitu dezaketela uste dutenei ere.

Kondizio hori bere horretan «klase osoarentzat botere iturria» dela zalantzan jartzeko arrazoiak izan ditugu, hala formulatu egin denetan. Estrategia politiko posible baterako oinarri gisa, delinkuentziari beharrean, delinkuentzia sortzen duten baldintza ekonomiko, politiko eta ideologikoei aurre egin diegunean gaiak konplexuagoak bihurtu dira ezinbestean. Estrategiaren, analisiaren eta praktikaren alderdirik zailenak elkartzen dituzte. Dena delakoagatik analisia egiteko modua onartzen ez dutenentzat ere azterlana erabilgarria izango dela espero dugu. Horrela izan dadin dago eginda. Ikusi dugunez, adibide historiko garrantzitsuak daude hain justu aztertutako klase-estratua borroka politiko esanguratsuen oinarri bihurtu dela erakusteko. Baina ikusitako baldintzak ezberdinak dira nolabait hemen nagusitzen direnekin alderatuz gero —gutxienez klase osoa kapitalaren kontrolpera subsumitzeko modua ezberdina izan delako hemen—. Worsleyk arrazoa dauka gogoratzen digunean «Aljerko gudua» irabazi zuten paraxutista frantsesak izan zirela Pontecorvo-ren pelikulako heroi *lunpenak* eta ez Ali la Pointe —eta nazio borroka arrakastatsua izan bazen ere, ez zirela *lunpenak* izan Aljeriako lurra oinordetzan jaso zutenak—. Beltzak mundu kapitalistaren bihotzean politikoki antolatutako saiakerarik serioenetakoa errepresentatu zuten Pantera Beltzek; baina sarraskitu eta suntsitu egin dituzte. Egitate bat da gaur gaurkoz ez dagoela politika aktiborik, antolatutako borroka formarik, ezta estrategiarik modu egoki eta erabakigarrian esku hartzeko gai denik soldatagabe beltzen quasi-matxinadan

---

133 «The Police and the Black Wageless», *Race Today*, 1972ko otsaila.

eta kapaz denik delinkuentziarekin egiten diren zapalkuntzen jabetze faltsuak *gelditzeko* —kontzientzia kriminalizatua zerbait politikoki iraunkorragoa eta osoagoa bilakatu dadin beharrezko eraldaketa kritikoa hain justu—. Esandakoa ez da inondik ere alor horretan lan politikoa ez egiteko argudiaketa. Baina ohar garrantzitsua da kontzientzia protopolitiko ez nahasteko klase-borroka eta praktika antolatuarekin. Beharrezko abisua da hausturaz eta eraldaketaz beharrean eboluzio naturalez, beren kasa, espontaneoki, besterik gabe beste zerbait bihurtzeko esperantzarekin egungo erresistentzia moldeen alde egiten duen edozein estrategiarentzat.



# LAU

## «POPULARRA» DESERAIKITZEKO OHARRAK<sup>134</sup>

Lehenik eta behin, kultura popularraren ikerketako periodizazioei buruz esan nahi dut zerbait. Arazo zailak dakartza periodizazioak kultura popularraren kasuan —eta ez natzaizue soilik historialariei eginiko keinu moduko bat bezala proposatzen ari—. Haustura nagusiak deskriptiboak dira orokorrean? Kultura popularretik bertatik datoz orokorrean, edo kanpokoak izanik ere eragin egiten dioten faktoreetatik? «Kultura popularra» zer beste mugimendu eta periodizaziorekin dago lotuta esanguratsuki? Ondoren, «popularra» terminoarekin dauzkadan arazo batzuk azaldu nahi dizkizuet. Kasik «kultura» terminoarekin dauzkadan bezainbeste arazo dauzkat «popular» terminoarekin. Bi terminoak batera jartzen dituzunean, zailtasunak aski ikaragarriak izan daitezke.

Nekazaritza-kapitalismorako trantsizio luzean zehar, eta, ondoren, kapitalismo industrialaren formazio eta garapenean, borroka gutxi gorabehera etengabea dago langile jendearen, klase beharginen eta pobreen kulturagatik. Gertaera horrek izan behar du kultura popularraren oinarriari eta eraldaketei buruzko edozein ikerlanen abiapuntua. Klase popularren kulturaren, tradizioen, eta bizitzeko moduen formengatik bizitako borroketan azaleratzen dira, behin eta berriro, historia horretan zehar gertatutako indar sozialen oreka eta harreman aldakorrak. Kapitalari klase popularren kultura interesatzen zitzaion, izan ere, kapitalaren inguruan antolatutako ordena sozial berri oso baten

---

134 Itzultzailearen oharra: saiakera hau lehenengoz 1981ean argitaratu zen Raphael Samuel-ek editatutako *Herriaren historia eta teoria sozialista (People's history and socialist theory)* liburuko kapitulu gisa.

eraikuntzak, berreziketa prozesu, nahiz eta aldizkakoa izan, gu-txi gorabehera etengabea behar zuelako, zentzurik zabalenean. Eta tradizio popularrean datza jendea «erreformatzeko» erabil-tzen ziren formen aurkako erresistentzia-gune nagusietakoa. Horregatik egon da kultura popularra luzaroan, tradizioari eta bizitza-forma tradizionalei lotuta —eta horregatik ulertu da gaizki kultura popularraren «tradizionalismoa» bulkada kontser-badore huts baten emaitza balitz bezala, atzera begira dagoena eta anakronikoa—. Borroka eta erresistentzia —baina baita ere, noski, apropiazioa eta *des-jabetzea*—. Behin eta berriro, bizitze-ko modu partikularren suntsiketa aktiboa da benetan ikusten ari garena, eta moduok zerbait berrian eraldatzea. «Aldaketa kulturala» edukazio oneko eufemismoa da forma eta praktika kultural batzuk bizitza popularraren erdigunetik kanporatzen eta aktiboki baztertzen dituen prozesuarentzat. Moderniza-ziorantz doan Martxa Luzean zehar besterik gabe «zaharkituta gelditu» beharrean, gauzak aktiboki bultzatzen dira albo bate-ra, zeukaten lekua beste zerbaitek hartu dezan. Magistratuak eta polizia ebanjelikoak toki «ohoragarriagoa» daukate, edo izan beharko lukete, kultura popularraren historian sarri aitortu izan zaiena baino. Debekua eta proskripzioa baino garrantzitsu-a goa da elementu sotil eta iheskor hori: «erreforma» (gaur egun dauzkan ñabardura positibo eta nabariak barne). Modu batera edo bestera, «herria» da maiz «erreformaren» objektua: sarri, noski, herriaren onerako egiten da —«herriaren mesedetan»—. Gaur egun, borroka eta erresistentzia aski hobeto ulertzen dugu erreforma eta eraldaketa baino. Baina kultura popularraren iker-ketaren bihotzean «eraldaketak» daude. Existitzen diren tradizio eta ekintzen gainean egindako lan aktiboaz dihardut, berrela-borazio aktiboaz, ezberdinak bihurtu daitezten: «iraun» egiten dutela dirudi —baina, aro batetik bestera, herri langileak harre-man ezberdina eraikitzen du bizi den moduari dagokionez, eta elkarrekin, «besteekin» eta bizitza baldintza propioekin dauzkan harremanak definitzeko moduari dagokienez—. Eraldaketa da giltza klase beharginen «moralizazioaren», pobreen «desmora-lizazioaren», eta herriaren «ber-heziketaren» prozesu luze eta hedatuan. Kultura popularra ez dute, zentzu «puruan», prozesu horien aurkako erresistentziatzeko tradizio popularrek osatzen;

ezta prozesu horiengan eta horiei gainjartzen zaien formek ere. Eraldaketak landu egiten diren zorua da kultura popularra.

Kultura popularraren ikerketan, hortxe hasi beharko genuke beti: kultura popularraren jardun bikoitzean, ezinbestean barruan dauzkan kontentziosko eta erresistentziazko mugimendu bikoitzean.

Kultura popularraren ikerketak dialektika horretako bi polo alternatiboen artean zabukada sekulakoetan aritzeko joera izan du —kontentzioa/erresistentzia—. Atzerakada harrigarri eta txundigarri zenbait ere eduki izan ditugu. Pentsatu, adibidez, ulerkeria historikoaren nolako iraultza benetan ikaragarri esanguratsua iritsi den XVIII. mendeko Ingalaterrako «edukazio oneko gizartearen» eta Whig-en aristokraziaren historia herri iskanbilatsu eta gobernaezinaren historia gehitzeari esker itzulikatu denean. XVIII. mendeko behargin pobreen, klase popularraren, eta «deslaien eta desordenatuen gisakoen» tradizio popularrak, sarri, formazio birtualki independente gisa agertzen dira orain: garai oparo eta baketsu samarretan, etengabeko oreka ezegonkorreko egoeran onartuak; eta izualdi eta krisi garaietan, desplazamendu eta espedizio arbitrarioetara jazarriak. Hala ere, formalki «harresiaz haraindiko» jendearen kulturak baziren ere, gizarte politikotik eta boterearen triangulutik at bazeuden ere, egiatan, ez ziren inoiz egon indar sozialen eta harreman kulturalen eremu zabalenetik kanpo. «Gizartea» etengabe estutzeaz gain, tradizio eta praktika andanaren bitartez, gizarteari lotuta eta konektatuta bizi ziren. «Aliantza» lerroak bezainbeste zeuden zatiketa lerroak. Halako oinarri kulturaletatik abiatuta, eta sarri, legearen, boterearen eta autoritatearen aginduetatik urruti, «herriak» etengabe mehatxatzen zuen eztanda egitearekin. Eta eztanda egiten zuenean, babes politikoaren eta boterearen eszenatokia hartzen zuen indarrez mehatxuzko zalaparta eta deiadarrarekin —txirula eta danborrez, insignia eta efigiez, aldarri eta erritualez, eta askotan, diziplina erritual, popular harrigarri—. Guztiarekin ere, ezegonkorki baina etengabe hertsatzen zituen paternalismo, laineza, eta terrore mota delikatuak erabat irauli gabe. Hurrengo mendean, klase «beharginak» eta «arriskutsuak» erreformatzaileek irrikaz ezarri nahi zuten bereizketa sotil horren abantailarik gabe bizi zirenean (*kulturala* bezainbeste morala eta ekonomikoa zen bereizketa; eta legeria

eta erregulazio mordoas asmatu zelarik bereizketa horretan zuzenean eragiteko), eremu batzuek enklabe birtualki zeharkaezinen izaera mantendu zuten luzaroan. Birtualki, mendearen iraupen osoa behar izan zuten «legea eta ordenaren» ordezkariak —polizia berriak— enklabeotan helduleku erregular eta ohikoaren itxuradun ezer lortzeko. Hala ere, aldi berean, masa beharginen eta pobre urbanoen kulturetan egindako barneratzea sakonagoa eta jarraituagoa izan zen garai hartan —era jarraigoan «hezitzailea» eta erreformatzailea— ordutik honako beste edozein momentutan baino.

Kultura popularren behar bezalako periodizazioa trabatzen duen zailtasun nagusietako bat 1880ko hamarkadaren eta 1920ko hamarkadaren artean gertatutako klase popularren kulturaren gertatutako eraldaketa sakona da. Historia osoak daude oraindik idatzi gabe garai horri buruz. Baina, benetan ustean dut Gareth Stedman Jones-en garaiari buruzko «Langile-klase ingelesaren berregitea» artikulua zerbait funtsean eta kualitatiboki ezberdineratzen eta garrantzitsura bideratu duela gure arreta, testuaren zehaztasunetan ziuraski gauza asko zuzenak ez badira ere. Aldaketa estruktural sakoneko garaia izan zen. Zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta sinestuago gaude garai horretan dagoela nonbait *gure* historiari —eta gure dilema partikularrei— abiada ematen dioten faktore eta arazoaren ardatza. Guztia aldatzen da —ez da soilik indar harremanetan aldaketa, baizik eta borroka politikoaren zoruaren beraren berrantolaketa gertatzen da—. Ez da ausa hutsezkoa, egun, kultura popular «tradizional» gisa pentsatzen dugun horren hainbeste forma bereizgarri garai hartatik datozela edo garai hartan agertzen direla daukaten forma jakinena. 1790eko eta 1840ko hamarkadetarako egin dena, eta XVIII. menderako egiten ari dena, erradikalki egin behar da orain krisi «sozial inperialista» deitu dezakegun garairako.

Garago egindako argudiaketa nagusia egia da, kualifikaziorik gabe, garai honetarako ere, kultura popularrari dagokionez behintzat. Ez dago langile-klasearen kulturari dagokion geruza banandu, autonomo edo «autentikorik» aurkitzerik. Aisialdi popularreko formarik berehalakoenak, adibidez, saturatuta daude inperialismo popularrez. Espero genezakeen besterik? Nola azalduko genuke, eta zer *egingo* genuke menderatutako klasearen kulturaren ideiarekin, zeinak barne formazio eta bereizketa kon-

plexu eta guzti, harreman oso zehatza ezarriko balu kapitalaren berregituratze nagusietako batekin; eta berregituratze horrek aldi berean gainerako munduarekin harreman propioak izango balitu ezarrita? Nola azaldu loturarik konplexuener bitartez harreman eta baldintza material multzo aldakorrei kateatutako herri batek ideologia dominatzaile boteretsuenak —inperialismo popularrak— ikutu gabe mantendutako «kultura bat» nola edo hala eraikitzeko gaitasuna izatea? Nola, ideologia hori bereziki —zeukan izenarekin kontraesanean— herriari zuzenduta bezainbeste, bideratuta zegoenean mundu kapitalistaren hedapenaren baitan aldatzen ari zen Britainiaren posizioa?

Pentsatu prentsaren, hau da, adierazpide kultural nagusietako baten, eta herriaren arteko harremanez eta historiaz, inperialismo popularraren auziari lotuta. Itzuli gaitezen desplazamenduaren eta gainjartzearen gaira. Orain argi ikusi dezakegu XIX. mende Erdiko klase ertainaren prentsa liberala tokiko langile-klasearen prentsa erradikalaren bazterketa eta suntsiketa aktiboaren ganean eraiki zela. Baina, prozesu horrez gain, zerbait kualitatiboki berria gertatzen da XIX. mende bukaera eta XX. mende hasiera aldera esparru honetan: langile-klaseko audientzia heldu eta garatu jakin bat masiboki txertatzen zaio prentsa *popular* komertzial mota berri bati. Ondorio kultural sakonak izan zituen prozesu horrek, zentzu hertsian soilik auzi «kulturala» izan ez bazen ere. Behar izan zuen oinarriaren eta estruktura kapitalistaren industria kulturalaren berrantolaketa osoa; behar izan zuen lanaren prozesu eta teknologia forma berriez baliatzea; eta behar izan zuen masa merkatu kultural berrietan zehar aritzeko banaketa forma berriak ezartzea. Baina eragindako efektuetako bat zalantzarik gabe izan zen klase menderatu eta menderatzaileen arteko harreman kultural eta politikoen berrosaketa. Hau da, «gure bizimodu demokratikoaren» oinarri irmoa dela lirudikeen demokrazia popularra geldotzearekin estuki lotuta egon zen prozesu hura. Atarramentuak era bistakoegian dauzkagu oraindik gurekin: gradualki uzurtzen den heinean orduan eta zaratatsuagoa eta birulentoagoa bilakatzen den prentsa popularra; kapitalak langile-klaseentzat antolatzen duen prentsa; guztiarekin ere, «azpiratuon», «Gure» hizkuntzan eta kulturaren eragin handiko sustraiak dituen; klasea bere buruari formarik tradizionalistenean errepresentatzeko boterea dauka-

na. «Kultura popularraren» historiaren txatal horrek benetan merezi du deskorapilatzea.

Noski, ezinezkoa litzateke egiteko horri ekitea, gaur egun, «kulturari» buruzko eztabaidan inondik ere agertzen ez diren kontu askori buruz hitz egin gabe. Kontuok kapitalaren berre-  
raikuntzarekin, eta kolektibismoen gorakadarekin, eta estatu «hezitzaile» mota berri baten formazioarekin daukate zerikusia, aisialdiarekin, dantzarekin, eta kanta popularrarekin daukaten bezainbeste. Lan historiko serioaren eremua den heinean, lanaren historiari eta haren instituzioei buruzko ikerketaren gisakoa da kultura popularrari buruzko ikerketa. Kultura popularrean interesa agertzeak desoreka nagusi bat zuzentzea esan nahi du, omisio esanguratsu bat markatzea. Baina azkenean, historia zabalago eta orokorrago batekin loturak sortzean bihurtzen da emankorren.

Garai hori aukeratu dut —1880ko eta 1920ko hamarkaden artekoa— kultura popularraren interes eraberrituarentzat benetako aurrekaria ezartzen duen kasuetako bat delako. Lehenagoko garaiei buruz oraindik egiteke dagoen lan historiko garrantzitsuari balioa inolaz ere kendu gabe, egiatan uste dut kultura popularra gureak daukanaren antza hartzen hasten den garai bat gertutik ikertzean soilik egingo zaiela aurre benetako zailtasun (teoriko bezain enpiriko) askori, hau da, gureak dauzkan interpretazio arazo mota berberak mahaigaineratzen dituen garai batean, eta gureak ere badiren galdera garaikideen zentzuarekin osatuta dagoen garai batean. Susmo txarra hartzen diot gutxi gorabehera kartismoaren gainbeherarekin batera, supituki eta ustekabeen, gelditu egiten den «kultura popularraren» interesari. Ez da ausazkoa gutako oso gutxi ari garela 1930eko hamarkadako kultura popularrean lanean. Susmoa daukat zerbait bereziki deserosoa gertatzen dela, batez ere sozialistentzat, 1930eko hamarkadan ez denean langile-klasearen kultura militante, erradikal, heldu bat agertzen —egia esateko— gutako gehienek agertzea esperoko genukeenean. Kultura popular «heroiko» edo «autonomo» hutsaren ikuspuntutik, 1930eko hamarkada garai aski idorra da. «Idorte» hori —lehenagoko aberastasun eta aniztasun ezustekoa bezala— ezin da kultura popularraren barrutik soilik azaldu.

Oraingoz, hitz egiten hasi gara, ez soilik etenez eta al-daketa kualitatiboez, baizik eta baita haustura oso gogor batez

ere, apurketa sakon batez —bereziki gerraosteko garaiko kultura popularraren garaian—. Eta kasu horretan, auzia ez da soilik klaseen arteko harremanen aldaketari buruzkoa, baizik eta aparatu kultural berrien metaketa eta hedapenari buruzkoa, eta jendearen arteko harreman eraldatuei buruzkoa. Baina izango litzateke inor kultura popularraren historia bat idazteari ekiteko gai, industria kulturalak iraultza teknologikoaren gainean ezarritako monopolizazioa kontuan hartu gabe (esan gabe doa «iraultza teknologiko sakon» bat ere ez dela inoiz, ezein zentzutan, «soilik» teknikoa)? Klase popularren kulturaren historia idaztea esklaboki klase horien barrutik, hau da, kultura dominatzailearen produktiorako instituzioekin etengabeko harremanean egoteko moduak ulertu gabe, XX. mendean ez bizitzea da. Argudiaketa argi dago XX. mendeari dagokionez. Uste dut berdin balio duela XIX. eta XVIII. mendeetarako ere.

Honaino «zenbait periodizazio arazo».

Jarraian, «popular» hitzari buruz esan nahi dut zerbait. Terminoak zenbait esangura ezberdin izan ditzake: ez guztiak erabilgarriak. Hartu zentzu komunena daukan esangura: «popular» esaten zaie gauzei jende masek entzuten, erosten, irakurtzen, kontsumitzen eta, itxuraz, bete betean gozaten dituztelako. Terminoaren «merkatu» definizioa edo komertziala da hori, sozialistei alergía ematen diena. Jendearen kulturaren degradazio eta manipulazioarekin lotzen da aski egokiro. Nolabait, hitza gorago erabiltzen aritu naizen moduaren aurkako zuzena da. Hala ere, desegokia izanik ere, esangura hori osorik baztertzeko bi erreserba dauzkat.

Lehenengoa. Egia bada, XX. mendean, jende andanak *bene-tan* kontsumitzen eta are egiatan gozaten dituela gure industria kultural modernoaren produktuak, orduan, ondorioztatzen da herri beharginaren kopuru oso esanguratsua barne-hartu behar dutela halako produktuen audientziek. Orain, komertzialki hornitutako «kultura» mota horretan parte hartzeko formak eta harremanak guztiz manipulatzaileak eta degradatuak badi-ra, kultura mota horretaz gozaten duen eta kultura mota hori kontsumitzen duen herriak berak egon behar du, edo ekintza horiekin degradatuta, edo bestela, «kontzientzia faltsuko» behin betiko egoeran bizitzen. Hornitzen zaiena jendearen opioaren forma eguneratua dela ohartzen ez diren «drogazale kulturalak»

izan behar dute. Epai horrek zuzen, duin eta handinahi sentia-razi gaitzake, masa manipulazioaren eta engainuaren agenteen —industria kultural kapitalisten— aurka egiten ditugun salake-tengatik. Baina ez dut uste harreman kulturalen deskribapen egoki gisa luzaroan iraun dezakeen ikusmoldea denik; eta are gutxiago langile-klasearen kulturari eta izaerari buruzko ikus-puntu sozialista gisa iraun dezakeenik. Azken finean, jendea indar erabat *pasibo* eta lauso gisa ulertzea ikuspuntu sakonki ez-sozialista da.

Bigarrena, horrenbestez: egin diezaiokegu iskin arazo horri kultura popular komertzial askoren alderdi manipulatzai-leari eman beharreko arreta premiazko eta ekidinezina galdu gabe? Kultura popularraren teoriarari eta kritikari erradikalek eginbehar horretarako darabiltzaten zenbait estrategia zalan-tzagarriak dira nire irudiz. Bat, kultura popularra beste kultura «alternatibo» oso bati kontrajartzea da —«kultura popular» autentikoari— eta iradokitzea, kultura komertzial ordezkoez ez dutela «benetako» langile-klasea harrapatzen (klase hori zernahi izanik ere). Alternatiba heroikoa da hori, baina ez oso sinesgar-ria. Funtsean, botere kulturalen harreman erabat funtsezkoak —menderakuntza eta subordinaziozkoak— aintzat hartzen ez dituela da ulertzen ez duena. Kontrara, baieztatu nahi dut ez dagoela «kultura popular» autentiko, autonomorik, eta erabat botere eta menderakuntza kulturalen harremanen indar-ere-mutik kanpo dagoenik. Bigarrenik, ezarpen kulturalaren boterea izugarri gutxiesten du irakurketa horrek. Argudio labainkorra da hori, argudiatu *bezain pronto*, norberak egiten baitu posible in-korporazio kulturalaren tesiarekin bat egiteagatik akusazioak jasotzea. Kultura popularraren ikerketa bi polo aski onartezinon artean ari da mugitzen etengabe: «autonomia» hutsa ala isola-mendu totala.

Nik neuk, ez dut uste beharrezkoa edo zuzena denik bie-tako bat ere ontzat hartzea. Jende arrunta ez denez drogazale kulturala, guztiz gai da antzemateko nola ari diren langile-klasearen bizitzaren errealtateak berrantolatzen, berreraikitzen eta birmoldatzen, besteak beste, *Coronation kalea* (*Coronation Street*) telesailen bizitza hori errepresentatzen (hau da, erre-presentatzen) den moduaren bitartez. Industria kulturalak benetan daukate errepresentatzen duten hori berrantolatzeko

eta birmoldatzeko boterea. Kultura dominatzaile edo hobetsiaren deskribapenetara errazen egokitu daitekeenaren arabera, errepi-kaz eta aukeraketaz, guri buruzko definizioak inposatzeko eta jazartzeko boterea daukate. Horixe da botere kulturalaren metaketak —bitarteko kultura-sortzaileak gutxiengoaren eskuetan egoteak— benetan esan nahi duena. Inposatutako definizio horiek ez daukate gure buruez jabetzeko boterea; ez dute gudan funtzio-natzen pantaila zuriak izango bagina bezala. Baina, bai, klase menderatuen sentimendu eta pertzepzioen barne kontraesanak hartu eta berrantolatu egiten dituzte. Errekonozimendurako espazio bat aurkitu edo garbitu *egingo* dute inposatutako definiziooi erantzuten diotenentzako. Menderakuntza kulturalak benetako efektuak dauzka, ahalguztidunak eta orohartzaileak ez badira ere. Jazarritako forma horiek eraginik ez daukatela argudiatu-ko bagenu, jendearen kultura bakartutako enklabe gisa existitu daitekeela argudiatzea bezalakoa izango litzateke, botere kulturalaren banaketatik eta kulturaren indar harremanetatik kanpo. Ez dut uste hori horrela denik. Areago, kultura dominatzaileak aurrera daraman borroka etengabea gaudela uste dut, ezinbestean desparekoa eta irregularra, eta kultura popularra behin eta berriro desantolatzeko eta berrantolatzeko helburua daukala; hau da, definizio eta forma propioak forma dominatzaileen multzo barne hartzaileago baten baitan ixteko eta konfinatzeko helburua daukala. Erresistentzia puntuak daude; badaude, baita ordezkapen momentuak ere. Horixe da borroka kulturalaren dialektika. Bizi ditugun garaiotan, etenik gabe egiten du aurrera borroka erresistentziaren eta onarpenaren, arbuioaren eta errendizioaren lerro konplexuetan zehar, eta horrek egiten du kulturaren eremua izatea halako etengabeko gudu-zelaia. Behin betiko garaipenik lortzen ez den baina posizio estrategikoak irabaztea eta galtzea beti posible den gudu-zelai bat.

Lehenengo definizio hau, beraz, ez da erabilgarria gure helburuetarako; baina harreman kulturalen konplexutasunaz sakonago pentsatzera bultzatu gaitzake, botere kulturalaren errealtateaz eta ezarpen kulturalaren izaeraz pentsatzera. Kultura popularrak ematen dituen formak ez badi-ra soilik manipulatzaileak, orduan, bestelako xarma faltsuekin batera, eta irudibiltzeekin, tribializazioekin eta zirkuitu laburrekin batera, errekonozimendu eta identifikazio elementuak

ere badaudelako da: badago jendeak erantzun egiten dion esperimentzia eta jarrera errekonozigarrien birsorkuntzaren antza daukan zerbait. Arriskua dator forma kulturalak osotasun gisa eta koherenteak izango balira bezala pentsatzeko joera daukagulako: ala guztiz ustelak, ala guztiz autentikoak. Aldiz, erabat kontraesankorrak dira; eta kontraesanez baliatzen dira bereziki «popularraren» eremuan funtzionatzen dutenean. *Daily Mirror* egunkariaren hizkuntza ez da Fleet street-ekoen «neohizkera» baten eraikuntza hutsa, eta ez da egunkari horrek daukan langile-klaseko irakurleek benetan hitz egiten duten hizkuntza ere. Benrilokismo linguistikoaren espezie oso konplexu bat da kazetaritza popularraren brutalismo degradatua abileziaz konbinatzen eta korapilatzen duena langile-klasearen hizkuntzari dagozkion tolesgabetasunaren eta bizitasunaren elementu bereizgarri batzuekin. Ezin du iraun sustraiaetako elementuetako batzuk benetako herri hizkuntzan, hizkuntza «popularraren» mantendu gabe. Ez litzateke urrunegi iritsiko elementu popularrak populismo demotikoko espezie lataratu eta neutralizatu batean birmoldatzeko gai izango ez balitz.

«Popularraren» bigarren definizioa errazagoa da onartzen. Definizio deskriptiboa da. Kultura popularra «herriak» egiten dituen edo egin izan dituen gauza horiek guztiak dira. Terminoren definizio «antropologiko» batetik hurbil dago: «herriaren» ohiturak, azturak eta usadioak. Herriak daukan «bizimodu bereizgarria» definitzen duen hori. Definizio honekin ere bi zailtasun dauzkatzat.

Lehenik, hain justu, deskriptiboegia izateagatik iruditzen zait susmagarria. Xuabe esateagatik diot horrela. Egiatan, infinituraino hedatzen ari den inbentarioan dago oinarrituta. Birtualki «herriak» inoiz egin duen *edozer* sartu daiteke zerrendan. Usoei jaten ematea eta zigiluen bilduma egitea, horman itzalezko ahateak egitea eta lorategiko gnomoak. Arazoa da zerrenda amaigabe hori, deskriptiboa ez den moduren batean, kultura popularra ez den horretatik nola bereizi.

Baina bigarren zailtasuna da garrantzitsuagoa, eta gorago egindako argudiaketa bati dago lotuta. Ezin dugu kategoria bakarrean «herriak» egiten dituen gauza guztiak bildu, beste barik, ohartu gabe benetako bereizketa analitikoa ez dela zerrendatik bertatik —gauza eta ekintzen kategoria bizigabe horretatik—

sortzen, oposizio klabe batetik baizik: herria / herriarena ez dena. Hau da, zentzu horretan, elitearen kulturaren edo kultura dominatzailearen eremu zentralari dagokionaren, eta «periferien» kulturari dagokionaren arteko oposizio eta tentsioak dira «popularraren» printzipio estrukturatzailea. Oposizio hori da kulturaren eremua etengabe estrukturatzen duena «popularra» eta «ez-popularra» kategorietan. Baina ezin dituzu halako oposizioak soilik era deskriptiboan eraiki. Izan ere, gararik garai, kategoria bakoitzaren *edukiak* aldatu egiten baitira. Forma popularrak balio kulturalen nabarmendu egiten dira, eskaile-ra mekaniko kulturalen gora egiten dute, eta kontrako aldera egiten dute bidea. Beste gauza batzuk galdu egiten dute balio kultural jasoa, popularraren baitan jabetu egiten dira, eta prozesuan eraldatu. Printzipio estrukturatzailea ez dago kategoria bakoitzeko edukiekin osatuta —eta berriro diot, edukiok aldatu egingo dira garai batetik bestera—. Aitzitik, bereizketari eta desberdintasunari eusten dioten indar eta harremanez dago osatuta: orokorrean, edozein momentutan forma edo ekintza kultural elitistatzat hartu daitekeenaren eta ezin daitekeenaren arteko bereizketari eusten dioten indarrez. Kategoriek iraun egiten dute, inbentarioak aldatzen badira ere. Are gehiago, instituzio eta prozesu instituzional multzo oso bat beharrezkoa da kategorietako bakoitza sostengatzeko eta bien arteko ezberdintasuna etengabe markatzeko. Eskola eta hezkuntza sistema da instituzio horietako bat: bereizten ditu, batetik, kulturaren alderdi balioetsia, ondare kulturala, eta transmititu beharreko historia, eta bestetik, «baliorik gabeko» alderdia. Aparatu literario eta akademikoa da beste bat: ezagutza mota balioetsi batzuk banatzen ditu beste batzuetatik. Gertaera garrantzitsua, beraz, ez da inbentario deskriptibo hutsa —kultura popularra molde deskriptibo atemporal batean izozteko ondorio negatiboa ekar dezakeena— baizik eta kulturaren eremua kategoria hobetsi eta erresidualetan etengabe zatitzen eta markatzen ari diren botere harremanak dira garrantzizkoak.

Horrenbestez, aski deserosoa izanik ere «popularraren» hirugarren definizio batekin konformatzen naiz. Definizio honek sustriak garai konkretu batean, klase jakin batzuen baldintza sozial eta materialetan dauzkaten forma eta ekintzei erreparatzen die, tradizio eta praktika popularretan gorpuztu diren

forma eta ekintzei. Zentzu horretan, definizio deskriptibotik baliagarria dena mantendu egiten du. Baina aurrera egiten du azpimarratuz kultura popularraren definiziotik funtsezkoena zera dela: «kultura popularra» bera kultura dominatzailearekin tentsio (harreman, eragin, antagonismo) jarraituan definitzen duten harremanak. Dialektika kulturalean polarizatutako kulturaren ulerkera da. Forma eta ekintza kulturalen eremua etengabe aldatzen ari den alor gisa tratatzen du. Alor hori formazio dominatzaile eta subordinatuetan etengabe estrukturatzen duten harremanei erreparatzen die ondoren. Menderakuntza eta subordinazio harremanok artikulatzen dituen *prozesuari* begiratzen dio. Prozesu gisa tratatzen ditu: gauza batzuk aktiboki hobesten dituen prozesua beste batzuk tronugabetu daitezten. Kulturaren alorra definitzen duten indar harreman despareko eta aldakorak dauzka erdigunean. Horixe da borroka kulturaren eta borroka kulturalak dauzkan askotariko formen auzia. Kulturaren eta hegemoniari buruzko auzien arteko harremana da arretagune nagusia.

Definizio honetan, arreta hartu behar diguna ez da kultura popularraren «autentikotasunaren» edo osotasun organikoaren auzia. Izatez, zentzu horretan, forma kultural kasik guztiak kontraesankorak izango direla aitortzen du, elementu antagonistiko eta ezegonkorrez osatuta. Forma kultural baten esanahia eta alor kulturalean hartzen duen lekua edo posizioa ez dago daukan formaren barruan inskribatuta. Daukan posizioa ere ez dago behin eta betiko finkatuta. Aurtengo sinbolo edo lelo erradikala datorren urteko moda gisa neutralizatuko da; eta hurrengo urtean nostalgia kultural sakonaren objektu bilakatuko da. Gaurko kantautore erradikalak, bihar, *Observer* egunkariko koloretako magazinaren azalean bukatuko du. Sinbolo kultural bati, esanahia, sinbolo hori barne hartzen duen eremu sozialak ematen dio, hau da, artikulatzen eta zabaltzen duten praktikek. Inporta dutenak ez dira kulturaren objektu intrintseko edo historikoki finkoak, baizik eta harreman kulturalen egungo egoera. Itzulingururik gabe eta modu sinpleegian esateko: axola duena kulturaren baitako eta kulturari buruzko klase-borroka da.

Inbentario ia guztiek egingo digute traizio. Forma «burgesa» da eleberria? Erantzuna historikoki behin behinekoa izan

daiteke soilik: noiz? Zer eleberri? Norentzako eleberriak? Zer baldintzatan?

Voloshinov izena erabili zuen teoriarari marxista apartak zeinuaz —praktika adierazle ororen elementu klabeaz— inoiz esandakoa egia da forma kultural guztientzat:

Klaseak ez du bat egiten zeinu komunitatearekin, hau da [...] komunikazio ideologikorako zeinu multzo berdinen erabiltzaileen osotasunarekin. Hortaz, hainbat klase ezberdinek erabiliko dute hizkuntza bat eta bera. Ondorioz, orientazio ezberdineko azentuak gurutzatu egingo dira zeinu ideologiko guztietan. Zeinua klase-borrokaren gudu-zelaia bilakatzen da. [...] Orokorrean azentu gurutzaketa horri ezker mantentzen du zeinuak bizitasun eta dinamismo propioa eta garatzen jarraitzeko gaitasuna. Gizarte borrokaren presiotik ateratako zeinuak —nolabait esatearren, gizarte borrokaren mugetatik harago eramandakoak— indarra galtzen du ezinbestean, alegorian endekatzen da eta adierraztasun sozial biziaren objektu bilakatu beharrean, ulermen filosofikoarena bihurtzen da. [...] Klase agintariak zeinu ideologikoari klaseez gaindiko izaera eternala egotzi nahi diote, zeinuan bertan gertatzen den balio sozialen epaien arteko borroka barnerantz eramateko edo agortzeko, hau da, zeinua ez-azentuala egiteko. Egiatan, Janok bezala, zeinu ideologiko bizi orok bi aurpegi dauzka. Egungo edozein birao laudorio bilakatu daiteke; egungo edozein egia ezinbestean askorentzat gezurrik handiena eman dezake aditzera. Zeinuaren barne dialektikazko ezaugarri hori krisi sozialen edo aldaketa iraultzaileen garaian soilik azaleratzen da guztiz argitara.<sup>135</sup>

Borroka kulturalak, noski, askotariko formak hartzen ditu: inkorporazioa, distortsioa, erresistentzia, negoziazioa, errekupe-razioa. Raymond Williams-ek izugarritzko laguntza eman digu prozesu horietako batzuk momentu emergenteen, erresidualen eta inkorporatuen artean berezita zirriborratu dituenean. Oinarritzko eskema hori hedatu eta garatu egin behar dugu. Borrokari dinamikoki begiratzea da garrantzitsua: prozesu historiko gisa. Indar emergenteak antzinako historiako mozorroarekin ber-ragertzen dira; indar emergenteek, etorkizunera begira, indar aurreratzaila galdu egiten dute, eta atzera begira jartzen dira; gaurko haustura kulturalak biharko balio eta esanahi sistema dominatzaileen babes gisa berreskuratu daitezke. Borrokak aurrera darrai, baina ia inoiz ez leku berean, esanahi edo balio beragatik. Iruditzen zait prozesu kulturala —botere kulturala—

---

135 A. Voloshinov, *Marxism and the Philosophy of Language*, New York 1977.

gure gizartean, lehen instantzian, «tradizio handian» zer gehitu behar den eta zer ez ezartzen duen lerro banatzaile hori marraztean datzala garai bakoitzean, beti leku ezberdinean. Hezkuntza eta kultur instituzioek, egiten dituzten gauza positibo guztiekin batera, muga hori kontrolatzen eta diziplinatzen ere laguntzen dute.

Horrek guztiak kultura popularreko termino labainaz, «tradizioa» terminoaz, berriro pentsarazi beharko liguke. Tradizioa kulturaren elementu berebizikoa da, baina zerikusi gutxi dauka forma zaharren iraunkortasun hutsarekin. Zerikusi handiagoa dauka elementuak elkarri lotu eta artikulatu diren moduarekin. Antolaketa horiek ez daukate posizio finkorik edo inskribaturik kultura nazional-popular batean, eta ez daukate, inolaz ere, nolabait esatearren, tradizio historikoaren korrontean zehar aldaketarik gabe daramaten esanahirik. Ez da soilik «tradizioaren» elementuak berrantolatzea posible dela, praktika eta posizio ezberdinekin artikulatzeko, eta esanahi eta garrantzia berria hartzeko. Sarri gertatzen da, baita ere, borroka kulturalak tradizio ezberdin kontrajarriak topo egin eta gurutzatzen diren tokietan hasten direla formarik zorrotzenetan. Forma kultural bat tradizio batean ezarri beharrean, bereizi egin nahi dute eta erresonantzia edo azentu berri bat eman. Tradizioak ez daude betiko finkatuta: inola ere ez, halako posizio unibertsal batekin eta klase bakar bati lotuta. Kulturak «borroka modu» gisa ulertuta, eta ez «bizitzeko modu» banakatu gisa, etengabe gurutzatzen dira. Borroka kultural esanguratsuak intersekzio puntu horietan sortzen dira. Pentsatu XVIII. mendean legezketasun, konstituzionalismo, eta «eskubideen» hizkuntza jakin bat nola bihurtu zen gudu-zelaia, bi tradizio dibergenteren gurutzaketan: batetik, «maiestate eta terrorearen» aristokraziaren «tradizioaren», eta bestetik, justizia popularraren tradizioen artean. Gramscik hurrengo azaltzen du «borondate kolektibo» berri bat sortzeko moduei eta kultura nazional-popular bat eraldatzeko moduei buruzko galderari behin-behineko erantzuna ematen dionean,

Fase historiko berriko lehenengo ordezkariak konposatu ideologiko berriari egiten dioten kritika da inporta duena. Ideologia zaharretako elementuek zeukaten pisu erlatiboari dagokionez bereizte eta aldaketa prozesu bat eragitea egiten du posible kritika horrek. Lehenago bigarren

mailakoa eta subordinatua, are ustekabekoa zenari, orain lehen mailako tokia ematen zaio —konposatu ideologiko eta teoriko berri baten nukleoa bilakatzen da—. Kolektibo zaharra disolbatu egingo da dauzkan elementu kontraesankorretan, elementu subordinatuak sozialki garatzen diren heinean.<sup>136</sup>

Horixe da kultura eta tradizio nazional-popularraren zoria gudu-zelai gisa.

Kultura popularrari egiten zaizkion barrura begirako hurbilketa isolatuen aurkako ohartarazpena egiten digu horrek. Hau da, «tradizioa» bere horretan balioetsita eta ahistorikoki tratatuta, forma kulturalak jatorrizko momentutik bertatik beren baitan esanahi edo balio aldagaitz finkoren bat gordeko balute bezala aztertzen dituen hurbilketen aurkako ohartarazpena egiten digu. Posizio historikoaren eta balio estetikoaren arteko harremana auzi garrantzitsu eta zaila da kultura popularraren. Baina forma eta praktika kulturalen jatorrizko momentuan ezarrita, estetika popular unibertsal moduko bat garatzeko saiakera guztiz okerra da kasik ziurtasun osoz. Zer izan daiteke eklektikoagoa eta ausazkoagoa oraintxe bertan gazte askok beren buruak apaintzeko aukeratu dituzten atzoko jantzien kutxatik arpilatutako sinbolo hilen eta saski-naskien mihizadura hori baino? Sinbolo, zati eta atal horiek erabat anbiguoak dira. Horien bitartez aldarrikatu daitezke milaka kausa kultural galdu. Noizean behin, ikur guztien gainetik, beste zirtzilkerien artean, daukan esanahi eta konnotazio kulturean betiko finkatu —solidifikatu— beharko litzatekeen ikurra aurkitzen dugu: swastika. Eta, hala ere, hor dirau zintzilik, neurri batean —baina ez guztiz— XX. mendeko historiako erreferentzia kultural historiko sakonetik askatuta. Zer esan nahi du? Zer ari da adierazten? Daukan esangura aberatsa da, eta aberaski anbigua: zalantzarik gabe ezegonkorra. Ikur beldurgarri horrek esangura-aukerak mugatu ditzake, baina ez darama esangura bakarraren garantiarik bere baitan. Kate batean swastika eramateagatik «faxistak» ez diren gazte beteta daude kaleak. Bestalde, agian posible da izatea... Ikur horrek esan nahi duena, azken finean, gazte kulturaren arabera izango da, ez hainbeste gauzaren beraren sinbolismo intrintsekoaren arabera, eta gehiago izango da, adibidez, Fronte nazionalaren eta

---

136 A. Gramsci, *Selections From the Prison Notebooks*, New York, 1971.

Liga anti-naziaren arteko indarren orekaren arabera; White Rock-aren eta Two Tone Sound-aren artekoaren arabera.

Ez da soilik ez dagoela garantia intrintsekorik zeinu kultural edo forma baten baitan. Ez dago garantiarik ezta forma bat, inoiz borroka esanguratsu bati lotuta egon zelako, beti klase adierazle bizia izango denik ere, publikoki eztabaidarazten duzun bakoitzean «sozialismoaren hizkuntza hitz egingo» balu bezala. Adierazpide kulturalak sozialismoaren alde lerratzen badira, bizirik dagoen borroka baten praktika, forma eta antolaketetara lotu direlako da, hau da, borroka horrek sinboloez jabetzea eta konnotazio sozialista ematea lortu duelako. Kultura ez dago jadanik iraunkorki, borroka hasi baino lehenago, klase baten baldintzekin inskribatuta. «Kulturala denari» azentu sozialista emateko arrakasta edo porrota da, hain justu, borroka.

«Popular» terminoak harreman oso konplexuak dauzka «klase» terminoarekin». Jakin badakigu hori, baina sarri mine-tan gabilta ahazteagatik. Langile-klasearen forma partikularrez egiten dugu hitz; baina «kultura popular» termino barne hartzaileagoa darabilgu ikerketa eremu orokorrak jarduteko. Ez dago zalantzarik esaten aritu naizenak zentzu gutxi izango lukeela klase ikuspuntuari eta klase-borrokari erreferentzia egin gabe. Baina argi dago, baita ere, ez dagoela harreman zuzenik klase baten eta forma edo praktika kultural jakin baten artean. «Klase» eta «popular» terminoak erabat lotuta daude, baina ez dira guztiz elkartrukagarriak. Arrazoia begi bistakoa da. Ez dago «kultura» bereizi beterik, klase zehatz «osoei» paradigmatikoki finkotasun historikoz atxikita dagoenik —klase kulturaren formazio aldakor, eta argi eta garbi bereiziak, egon badaude ere—. Klase kulturek borroka zelai berean gainjartzeko eta gurutzatzeko joera daukate. «Popular» terminoak kulturak klaseekin daukan harreman nolabait desplazatu horixe adierazten du. Zehazkiago, «klase popularrak» osatzen dituzten indarren eta klaseen arteko aliantzari egiten dio erreferentzia. Zapaldutakoen kultura, baztertutako klaseena: eremu horrexetara garamatza «popular» terminoak. Eta kontrako aldea —zer dagokion zeri eta zer ez erabakitzeko botere kulturala daukanaren aldea— definizioz da ez beste klase «oso» bat, baizik eta «herria» ez dena eta «klase popularrak» ez direna osatzen duten beste klaseen, estratuen eta indar sozialen aliantza hori: boterearen blokea.

Herria boterearen blokearen kontra: horixe da eta ez hainbeste «klasea-klasearen-kontra», kulturaren zorua polarizatzen duen kontraesan-lerro zentrala. Kultura popularra, bereziki, kontraesan horren inguruan dago antolatuta: indar popularrak boterearen blokearen kontra. Borroka kulturalaren lurzoruari espezifikotasun mota propioa ematen dio horrek. Baina «popular» terminoa, eta are gehiago termino horrek erreferentzia egin behar dion subjektu kolektiboa —«herria»— erabat problematikoak dira. Problematikoa bilakatzen da, adibidez, Thatcher andereak hurrengo bezalako esaldiak botatzeko daukan gaitasunagatik, «sindikatuaren boterea mugatu behar dugu horixe delako herriak nahi duena». Adierazpen horrek iradokitzen dit, «kultura popularra» kategoriarentzat eduki finkorik ez dagoen bezala, ez dagoela, ezta ere, atxiki dakioken subjektu finkorik —«herria»—. «Herria» ez dago beti hor, atzealdean, betiko leku berean, ikutu gabeko kulturarekin, aldaketarik gabeko libertate eta instintuekin, normandiar kateen edo dena delakoaren aurka borrokan, soilik «deskubritu» eta eszenatokira berriro ekarri ahalko bagenitu bezala, dagokien tokian zutitu eta aintzat hartuko balira bezala. Klaseak eta norbanakoak indar popular gisa konstituitzeko gaitasuna: horixe da borroka politiko eta kulturalaren izaera. Zatitutako klaseak eta banatutako jendeak —kulturak bezainbeste beste faktore batzuegatik zatituak eta banatuak— indar kultural demokratiko-popularra *bilakaraztea*.

Ziur esan dezakegu *beste* indar batzuek ere «herria» beste zerbait bezala definitzeko interesa daukatela: gehiago diziplinatu beharreko «herria», hobeto gobernatu, modu efektiboagoan polizialki kontrolatu, eta dauzkaten bizimoduak «kanpoko kulturetatik» babestu beharreko «herria», eta beste. Bi alternatiba horien zerbait daramagu gure barruan. Batzuetan boterearen blokearen aurkako indar gisa konstituitu gaitzke: benetan popularra den kultura eraikitzea posible egiten duen irekidura historikoa da hori. Baina gure gizartean, ez bagaude konstituituta halako indar gisa, kontrako gisa konstituituko gaituzte: indar populista efektibo gisa, botereari «baitz» esaten diona. Kultura popularra boteretsuen kulturaren aldeko eta kontrako borrokan esku hartzen den gunetako bat da: borroka *horretan* jokoan dagoena irabazi edo galtzeko gunea ere bada. Adostasunerako eta erresistentziarako gudu-zelaia da. Neurri batean hegemo-

nia eraikitzen eta bermatzen da bertatik. Ez da sozialismoa edo —jadanik erabat formatutako— kultura sozialista bat sinpleki «adierazi» egingo den esfera. Baina sozialismoa konstituitu daitekeen lekuetako bat da. Horregatik inporta du «kultura popularrak». Bestela, egia esango badizut, ez dit fitsik ere axola.

### **Irakurgai gehiago**

Bailey, Peter, *Leisure and Class in Victorian England 1830-1885*, Londres 1978.

Hall, Stuart and Whannel, A.D., *The Popular Arts*, Londres 1964.

Johnson, Richard, 'Three problematics: elements of a theory of working-class culture', *Working-Class Culture, Studies in History and Theory*, John Clarke, Charles Chrichter eta Richard Johnson editore Londres 1979.

Malcolmson, R.W., *Popular Recreation in English Society, 1700-1850*, Cambridge 1973.

Nowell-Smith, Geoffrey, 'Gramsci and the national-popular', *Screen Education*, Udaberria 1977.

Stedman Jones, Gareth, 'Working-Class culture and working class politics in London, 1870-1890', *Journal of Social History*, Uda 1974.

Thompson, E.P., 'Patrician society, plebeian culture', *Journal of Social History*, Uda 1974.

Williams, Raymond, 'Radical or popular', *The Press We Deserve*, James Curran editore, Londres 1970.

**3**

# **ZIMENDUAK**

**KULTURA ETA  
MATERIALISMOA**



# BOST

## KODETZA ETA DESKODETZA TELEBISTA-DISKURTSOAN<sup>137</sup>

Telebistaren garrantziari buruzko bi gai aipatu dira jardunaldi hauetarako: «telebista-hizkuntzaren» izaerari arreta ematen dion gai izugarri zehatza batetik, eta bestetik, «kultur politika eta programei» buruzko ardura guztiz orokorra eta lausoa. Lehenengo begi-kolpean, ardura bi horiek norabide ezberdinetarantz garamatzatela dirudite: lehenengoak auzi formaletarantz, eta bigarrenak gizarte eta politika auzietarantz. Nire helburua, hala ere, bi ardurei marko beraren barruan eusten saiatzea da. Nire xedea da iradokitzea kultur analisisan gizarteko esturturen eta prozesuen, eta esturture formal edo sinbolikoen arteko interkonexioa erabat erabakigarria dela. Nire hausnarketak prozesu komunikatiboko kodetze/deskodetze momentuei buruzko auziaren bueltan antolatzea proposatzen dut; eta oinarri horretatik abiatuta argudiatzea gurea bezalako gizarteetan, emisioko produkzio-eliteen eta dauzkaten audientzien arteko komunikazioa, ezinbestean dela «sistematikoki distortsionatutako komunikazio» forma. Argudiaketa honek, hortaz, eragin zuzena dauka politika kulturaletan, eta bereziki, «audientziak telebista-komunikazioa hobeto, modu eraginkorragoan, jasotzeko» laguntzera bideratutako hezkuntza-politiketan eta antzekoetan. Horrenbestez, oraingoz, oinarri semiotiko/linguistikoa mantendu nahi dut «telebista-hizkuntzara» egindako hurbilketan. Iradoki nahi dut,

---

137 Itzultzailearen oharra: 1973an Leicester-eko Unibertsitateko Masa-komunikazioaren ikerketarako zentroak antolatutako «Telebista-hizkuntzaren irakurketa kritikoan formakuntza» izeneko jardunaldietarako aurkeztutako hitzartzea. Urte berean, Birmingham-eko kultur ikasketa garaikideetarako zentroaren «Noizbehinkako txantiloisaiakera» gisa argitaratu zen.

hala ere, ikuspuntu hori behar bezala gurutzatzen dela, batetik, estruktura sozial eta ekonomikoekin, eta bestetik, Umberto Eco -k berriki «kulturen logika»<sup>138</sup> izendatu duen horrekin. Esan nahi dut ikuspuntu semiotikoa hartuko badut ere, ez dudala ulertzen halako ikuspuntuak soilik telebista-diskurtsoaren antolaketa immanenteari buruzko ardura formal itxia adierazten duenik. Prozesu komunikatiboko «harreman sozialei» buruzko ardura gehitu behar zaio ikuspuntuari eta, bereziki, telebista-hizkuntza- ren erabileran dauden askotariko «kompetentzia» motei buruzko ardura<sup>139</sup> (produkzioaren eta harreraren muturretan).

Halloran irakasleak behar bezala proposatu du «masa-komunikazioaren prozesu osoa» ikerketzeko auzia, muturretako batean mezuaren produkzioaren estrukturekin hasi, eta beste muturrean audientziaren pertzepziora eta «erabilerara» iritsi arte.<sup>140</sup> Orohartzailea, egokia eta beharrezkoa da «prozesu komunikatibo guztia» azpimarratzea. Hala ere, merezi du gure buruari gogorarazteak beste produkzio motekin konparatuz gero, komunikazioan, produktuak ezberdin egiten duen zerbait bereizgarria daukala, eta baita produkzio eta zirkulazio praktikek ere. Produkzio praktiken eta estrukturen «objektua» mezu baten produkzioa da, hau da, zeinu-eroale baten produkzioa, edo hobeto esanda mota jakin bateko zeinu-eroalea, eta beste edozein komunikaziorekin edo hizkuntzarekin gertatzen den bezala, kodeak erabiltzearen bitartez daude antolatuta, diskurtso bateko kate sintagmatikoen barruan. Produkzioaren aparatuek eta estrukturek igortzen dute mezua, momentu zehatz batean, «hizkuntza» arauen arabera osatutako eroale sinboliko gisa. «Forma fenomenal» horretan gertatzen da «produktuaren» zirkulazioa. Noski, halako eroale sinbolikoaren transmisioak ere substratu materiala behar du: bideozinta, filma, transmititzeko eta jasotzeko apartuak, eta beste. Forma sinbolikoan ere gertatzen da audientziaren segmentu ezberdinen arteko «produktuaren»

---

138 Umberto Eco, «Does the Public Harm Television?», Prix Italia mintegirako aurkezpena, Venezia, 1973.

139 Ikusi Dell Hymes-ek «performantzia» eta «kompetentzia» kontzeptuen bitartez hizkuntza-ren ulerkera transformazionalari egiten dion kritika: «On Communicative Competence,» *Socio-linguistics* aldizkarian, J. B. Pride eta Janet Holmes editoreak (Harmondsworth, Erresuma Batua: Penguin, 1972).

140 J. D. Halloran, «Understanding Television,» Council of Europe Colloquy-rako hitzaldia, *Understanding Television* University of Leicester, 1973.

harrera eta banaketa. Behin harrera eta banaketa lortuta, eta zir-kuitua burutuko bada, mezua berriro itzuli behar da gizarteko estruktoretan barrena. Hortaz, ikerketa lanak «soilik edukiaren analisitik eratorritako aztarnak jarraitzera» inolaz mugatu nahi ez badut ere, mezuaren forma sinbolikoari aitortu behar zaio posizio pribilegiatua daukala elkartruke komunikatiboan. Eta aitortu behar dugu «kodetze» eta «deskodetze» momentuak, prozesu komunikatibo osoari dagokionez soilik «erlatiboki autonomoak» badira ere, momentu determinatuak direla.<sup>141</sup> Gertakizun historiko gordina ezin da bere horretan transmititu, adibidez, telebistako albistegietan. Telebista-hizkuntzaren entzun-ikusizko formen baitan bakarrik jaso dezake adiera gertakizunak. Gertakizun historikoa hizkuntzaren zeinupetik igarotzen den momentuan bertan, hizkuntzak adiera emateko dauzkan «arau» formal konplexu guztietara makurtzen da gertakizuna. Paradoxikoki adieraztearren, gertakizuna «istorio» bilakatu behar da lehenik, ondoren bihurtu ahal izateko gertakizun komunikatiboa. Momentu horretan, hizkuntzaren azpi-arau formalak dira «dominatzaileak», noski, adiera ematen dioten gertakizun historikoari edo adiera emandako gertakizunaren ondorio historikoei existentzia bera kentzera iritsiz subordinatu gabe. «Mezu-forma» zera da: gertakizunaren agerpenak iturburutik hartzailera igarotzean hartzen duen itxuraren beharrezko forma. Hortaz, «mezu-forma» bilakatzea eta «mezu-forma» izateari uztea, edo esanahi-dimentsioa (edo mezuaren elkartruke modua), ez da ausazko «momentu» bat nahieran kontuan hartu daitekeena edo ez-ikusiarrena egin dakiokena komenigarritasun eta sinpletasun hutsagatik. «Mezu-forma» momentu determinatua da, baina, beste maila batean, komunikazio sistemen azaleko mugimenduz dago osatuta soilik. Horregatik, beharrezkoa zaio, beste fase batean, funtsezko komunikazio harremanen baitan integratzea, «mezu forma» ez baita harremanon atal bat besterik.

Azaldutako ikuspuntu orokorrarekin, elkartruke komunikatiboa honela ezaugarritu dezakegu zabarki. Emisioen estruktura instituzionalak, dauzkan produkzio sareekin eta dauzkan errutina antolatu eta infrastruktura teknikoekin daude behartuta programa produzitzera. Produkzioak, hemen,

---

141 Halloran, «Understanding Television.»


mezua abiarazten du: zentzu batean beraz, zirkuitua bertan hasten da. Noski, produkzio prozesuari esanahi eta ideiek ematen diote markoa ibilbide osoan zehar: produkzio errutinei buruz, gaitasun teknoei buruz, ideologia profesionalei buruz, ezagutza instituzionalei buruz, audientziaren gaineko definizio eta ustekizunei buruz eta beste hainbati buruz erabileran-dagoen-ezagutzak markoa ematen dio produkzio estrukturan zehar programak egiten duen igarobideari. Hala ere, telebistaren produkzio estrokturek telebista-mezua sorrarazten badute ere, ez dute sistema itxi bat osatzen. Gaiak, trataerak, motibazioak, gertakizunak, langileak, audientziaren irudiak eta «egoeraren definizioak» sistema politiko soziokultural zabalagotik hartzen dituzte eta sistema horren atal bereizi bat besterik ez dira telebista-produkzioak. Audientzia biak dela, telebista-mezuaren iturburua eta hartzailea argudiatu duen eztabaidan azaldu du puntu horixe labur-labur Philip Elliott-ek.<sup>142</sup> Telebistan zirkulazioa eta harrera, beraz, produkzio prozesuko «momentuak» dira, eta zenbait «feedback» estrokturatu eta partzialen bitartez barne hartzen dira berriro produkzio prozesuaren baitara. Telebista-mezuaren kontsumoa edo harrera bera, hortaz, produkzio prozesuaren «momentuetako» bat da, izan, produkzioa bada ere momentu «gailena», mezua «gauzatzeko abiapuntua» izateagatik. Telebista-mezuaren produkzioa eta harrera, horrenbestez, ez dira berdin-berdinak baina zerikusia daukate elkarrekin: prozesu komunikatibo guztiak sortzen duen osotasunaren barruan momentu bereziak dira.

Momentu jakin batean, hala ere, emisio-estrokturek diskurtso esanguratsudun formako mezu kodetu bat eraman behar dute. Gizarte-instituzioen produkzio harremanek, sortzen ari diren produktua «gauzatu» egingo bada, hizkuntzaren moduen baitara igaro behar dute eta baita hizkuntza moduetan zehar. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren arau formalek funtzionatzen duten momentu bereizi berri bat abiarazten du horrek. Mezua diskurtso esanguratsu gisa jaso behar da lehenik eta behin «efekturen» bat izan («efektu» nolanaahi definituta ere), edo «beharrizanen» bat ase, edo «erabileraren» bat hartu baino lehen, eta modu esangu-

---

142 Philip Elliott, «Uses and Gratifications: A Critique and a Sociological Alternative,» argitaragabea, Centre for Mass Communications Research, University of Leicester, 1973.

ratsuan deskodetu. «Efekturen bat» daukaten esanahi deskodetu multzo horrek eragin, entretenitu, hezi edo konbentzitu egiten du ondorio kognitibo, emozional, ideologiko oso konplexuekin eta baita pertzepzioa eta portaerak baldintzatzen dituzten ondorioekin ere. Momentu determinatu batean, estrukturak kode bat darabil eta «mezu» bat darama; beste momentu determinatu batean, deskodetzeen bitartez, «mezua» estrukturen baitara igarotzen da. Orain, guztiz argi daukagu audientziaren harre-  
ra eta «erabilerak» estrukturetara berriro igarotzeko momentu hori ezin dela ulertu portaerari dagozkion termino hutsetan. Efektuak, erabilerak, eta «asebetetzeak» ulermen estrukturen markoen barruan daude. Eta badaude baita estruktura sozial eta ekonomikoen markoen barruan ere, harrerari dagozkion katearen muturrean «gauzatzea» baldintzatzen dutelako, eta hizkuntzan adierazitako esanahiak portaera edo kontzientzia bilakatzea ahalbidetzen dutelako.



Zalantzarik gabe, posible da —goiko diagramako— «esanahi estrukturak I» eta «esanahi estrukturak II» izendatu ditugun horiek berdinak ez izatea. Ez dute «berehalako identitate» osatzen. Posible da kodetzeko eta deskodetzeko kodeak zeharo simetrikoak ez izatea. Simetria mailak, hau da, elkartruke komunikatiboko «ulertze» eta «gaizki-ulertze» mailak, biak dira kodetzaile/produktorearen eta deskodetzaile/hartzailearen posizioen simetria/asimetria mailen arabera. Eta baita transmititakoa modu perfektu edo inperfektuan transmititzen, eteten, edo sistematikoki desitxuratu duten kodeen arteko identitate/ez-identitate mailen arabera ere badira. Kodeen arteko «bateratze» ezak harreman handia dauka emisoreen eta audientzien arteko ezberdintasun estrukturalekin, baina badauka zerikusirik baita «mezu-forma» bilakatzeko eta «mezu-forma» izateari uzteko transformazio momentuan gertatzen den iturburu eta hartzailearen arteko asimetriarekin ere. «Distortsio» edo «gaizki-ulertu» izendatutakoak, hain justu, elkartruke komunikatiboko bi alderdien arteko baliokidetasun faltatik eratortzen dira. Beste behin, horrexek definitzen du mezuak daukan «autonomia erlatiboa» eta aldi berean «izaera determinatua», mezu hori esanahi edo hizkuntza-forma bilakatzen den momentuan edo izateari uzten dionean.

Oinarritzko paradigma hori erabiltzeak «telebista-erakunde» daukagun ulerkeraren eraldatu egin du jada. Eta hasi besterik ez gara egin audientziaren harreraz eta erantzunaz daukagun ezagutza nola eraldatu dezakeen ikusten. Ez da lehenengo aldia hasierak eta bukaerak iragarri direla komunikazioaren ikerketetan: kontu handiz ibili behar dugu. Baina audientziaren ikerketan badirudi oinarriak badaudela fase berri eta zirrarragarria abiatzen egon dadin, ikerketa mota aski berriarekin. Kate komunikatiboaren edozein muturretan paradigma semiotikoa erabiltzeak segurtatu egiten du masa-komunikabideen ikerketan luzaroegi tematu eta bizirik iraun duen edozein konduktismo desagerraraztea. Telebista-programak portaeren proposamen hutsak ez direla jakin badakigu ere, belauneko kolpe-erreflexu bat balitz bezala, ematen du kasik ezinezkoa izan dela ikerleentzat prozesu komunikatiboa ez ulertzea oharkabeko konduktismo moduren batean edo bestean erori gabe. Gerbner-ek azpimarratu bezala, badakigu telebistaren pantailako indarkeriaren errepresentazioak «ez

direla indarkeria, indarkeriari buruzko mezuak baizik». Baina indarkeriari buruzko auziak bereizketa epistemologikoa konprentitzeko gai izango ez bagina bezala jarraitu ditugu ikertzen.<sup>143</sup>

Hartu dezagun telebistako fikzio-entretanimenduaren eremua, adibide gisa, hurrengo erakusten saiatzeko: telebista/indarkeria harremanari buruzko ikergai tradizionalan eragina dauka telebista *diskurtso* bat dela aitortzeak, hau da, gertakizun komunikatibo bat dela aitortzeak —eta ez soilik gertakizun konduktista bat—. <sup>144</sup> Pentsatu hasierako (eta orain aurrentzako) telebista-western-aren estruktura sinplean, Hollywood-eko B-serieko western generoaren eredu jarraitzen duen horretan. Ona/txarra argi bereizten dituen inibertso moral manikeoa dauka, bilauaren eta heroiaren izendapen sozial eta moral argiak dauzka, lerro narratibo eta garapen, eta ezaugarri ikonografiko argiak, modu argian erregistratutako klimaxa indarkeriazko tiroketan, esetsaldian, buruz buruko pertsonalean, eta kalean edo kantinan egiten duten dueluan. Luzaroan, telebista britainiar eta estatubatuarrean, forma horixe izan zen fikzio-entretanimenduaren genero nagusia. Termino kuantitatiboetan, halako filmek eta programek indarkeriazko gertaera, heriotz eta zauritu kopuru handia zeukaten. Gizon samaldak eramaten ziren heriotzara gauero: tropa «indiarrrak» osorik. Ikerleek, besteren artean Hilde Himmelweit-ek, hala ere, iradoki dute hasierako telebistaren eta B-serieko westernaren estruktura hain zela argia, akzioa hain zegoela konbentzionalizatua eta estilizatua, haur gehienek (mutilak lehenago neskak baino, aurkikuntza interesgarria bere horretan) bizkor ikasten zutela estruktura hori «jolas» bat baltitz bezala antzematen eta «irakurtzen»: «bakero-eta-indioen» jolasa.<sup>145</sup> Horrenbestez, hipotesi gisa proposatu zen westernak, estruktura argi eta guzti, aukera gutxiago zeuzkala indarkeriazko portaeren imitazio erasokorra eragiteko edo oldarkorki «gaizki portatzea» zekarren beste edozein jarrera eragiteko hainbeste estilizatu gabeko indarkeria askoko beste programa mota batzuk

---

143 George Gerbner et al., *Violence in Drama: A Study of Trends and Symbolic Functions* (Filadelfia: Annenberg School for Communication, University of Pennsylvania, 1970).

144 Adibide hau sakonago eztabaidatzen da Alan Shuttleworth, Marina Carmargo, Angela Lloyd, eta Stuart Hallen, «New Approaches to Content,» atalaren bigarren partean, *Violence in the tv Drama-Series*, Centre for Contemporary Cultural Studies: Report to Home Office Inquiry into tv Violence, argitaragabea.

145 Hilde Himmelweit, «TV and the Child,» *Universities and Left Review* 6 (1959).

baino. Haatik, garrantzitsua da galdetzea westernak «jolas sinboliko» gisa antzemateak zer esan nahi duen eta zer dakarren berekin.

Esan nahi du izugarri estu kodetutako arauak existitu egiten direla, eta arau horien bitartez, istorio, eduki eta estruktura mota antzemangarri zehatzak aise kodetu daitezkeela westernaren forman. Are gehiago, «kodetzearen arauok» hain zeuden hedatuta, hain simetrikoki partekatuta produktore eta audientziaren artean, aukera handiak zeudela «mezua» kodetu zen bezala, era oso simetrikotan deskodetzeko. Kodeen elkarrekikotasuna da, preseski, estilizazio edo «konbentzionalizazio» kontzeptuek adierazten dutena, eta elkarrekiko kodeen presentzia hori da, noski, genero jakin baten existentzia definitu eta posible egiten duena. Halako azalpenak beraz, behar bezala hartzen ditu kontuan kodetze/deskodetze momentuak, eta adibidea ez-problematiko gisa agertzen zaigu.

Baina bultzatu dezagun argudiaketa aurrerantz. Zergatik eta nola sortzen (eta desagertzen) dira konbentzionalizazio eremuak? Westernaren kontakizuna, nola ez, mendebalde amerikarraren hedapenaren benetako gertaera historikoetatik sortu zen —oso bizkor gertaera horiei erantzuteari utzi egin bazion ere—. Neurri batean, western generoaren kodigoen produkzioak lortu zuena benetako mendebalde historikoa selektiboki «west» mitiko sinbolikoa bilakatzea izan zen. Baina historia, kode multzo estilizatuaren esku-hartzearen ondorioz gure gizarte eta garairako mito bilakatze hori, zergatik gertatu zen soilik egoera historiko horrekin? Praktika errealitate historikoetan ainguratu nahi duen edozein semiologiarentzat proba erabakigarria da momentu jakin batean gertaera historiko multzo zehatz bat eraldatzeko eta «naturalizatzeko» hizkuntzaren eta diskurtsoaren arauak esku-hartzen duten prozesu hori. Ezagutzen ditugu historian kodeek izandako eragina definitu zituzten elementuak, eta hasi gaitezke zeintzuk ziren zirriborratzen. Istorio amerikar arketipikoa da azaldukatkoa: mugaldeko Amerikarena, hedatzen zegoen mendebalde ezegonkorrarena, legea eta gizartea guztiz ezarri baino lehenagoko «lurralde birjinarena», naturatik hurbilago zegoena oraindik lege eta ordenatik baino. Gizonen lurraldea da, gizon independenteena, naturarekin edo gaizkiarekin dauzkaten borroketan bakartuta dauden gizonena. Hortaz,

suhartasun, abilezia, botere eta zori maskulinoaren istorioak dira. «Aire zabalean» dauden gizonen istorioak dira, barne-konpultsioak eta kanpo-beharrizanak —hau da, patuak edo «gizon batek besterik gabe egin egin behar dituen gauzek»— dagokien zorira bultzatzen dituzten gizonen istorioak. Ondorioz, istoriootan moralitatea barnera begirakoa eta barnean argitutakoa da, hau da, hizkeran beharrean keinuetan, ibilkeran, janzkeran, «ekipamenduan» eta itxuran objektibatzen da guztiz. Lurralde horretan emakumeak subordinatuta daude («etxezulo maitagarriak» edo «Estatu Batuen ekialdetik etorritako» andereak dira), eta nolabait askeagoak direnean —saloon-etako neska on zein txarrak direnean, adibidez— oharkabean eta komenigarritasunaren arabera erailtzen dira tiroz edo desagerrarazten dira beste nolabait azken aurreko bobinan. Analisi semiologiko zorrotza egin nahiko bagenu, film, argumentu eta programa jakinen azaleko-estrukturako elementu horiei adiera emateko erabiltzen diren kode zehatzen aztarna jarraituko genuke. Argi dagoena da dauzkan elementuei dagokienez izugarri mugatuta egonik ere, sakoneko-estrukturako kode multzo horretatik abiatuta, azaleko gertakizun eta eraldaketa asko sortu zirela. Denbora batez, estruktura sakon horrek ontzat emandako istorio-guztientzako-istorioa egiten zuen eskuragarri, ekintza-narratiboaren paradigma bat, mito perfektua.

Ikuspuntu semiotikoan, noski, aipatutako eraldaketa mugatuen araberako azaleko aldagaiok bakarrik definituko lukete westerna ikerketa objektu gisa. Hasierako westernetatik antzeman ditugun eraldaketak ere ez lirateke inolaz harrigarriak izango. Westernaren estruktura sinplearen eraldaketak azaltzeko kapaz izan nahiko bagenu, kontuan hartu beharko genituzkeen oinarritzko metodoak ikusteko eta jarraitzeko gai gara gutxienez. Westerna eraldatu egiten da eta western psikologikoa, western barrokoa —*Pistola ezkerria?* (*The Left Handed Gun*)-, «mendebalde amaierako» westerna, western komikoa, espageti westerna, eta baita Japon eta Hong Kongeko westerna, westernaren «parodia» —*Butch Cassidy?*-, paradoxikoki, westernaren itzulera indarkeriara —*Talde basatia* (*The Wild Bunch*)-, western telenobela domestikoa —*Virginiarra* (*Virginian*) telesaila-, edo iraultza latinoamerikarraren westerna bilakatzen da. *Hud* bezalako filmaren hasiera sekuentziak kodearen haustura

irudikatu beharrean —«heroia» westernetako pasaia ezagunean zehar Cadillac batean agertzen da gidatzen, zaldia berriz, Oldsmobile kamioiaren atzealdean agertzen dira, eta mendebalde «heroikoa» mendebaldearen «gainbehera» bilakatzeko lehen-dabiziko momentuetakoa da— hain justu, hurrengoa erakusten du: esanahian eraldaketa eta aurkako esanahia lotzea, kodearen «elementu lexiko» gutxi batzuk itzulikatuta egin daitekeela.

Ikuspuntu horretatik, masa-komunikazioen ikertzai-leek indarkeriaren gaiarekin daukaten etengabeko ardura gero eta arbitrarioagoa eta arraroagoa agertzen zaigu. Indarkeriaren gaia alde batera jarri eta isolatzeari uko egiten badiogu, hau da, indarkeriazko gertaerak generoa gobernatzen duten kode konplexuen ardatzetik banatzeari uko egiten badiogu: zenbat esanahi mota funtsezko ari zen egiatan transmititzen, ikertzai-leak gorpuak zenbatzen lanpetuta zeuden bitartean? Ez naiz ari esaten telebistako westernean, indarkeria elementuetako bat ez zenik, eta ez naiz iradokitzen ari indarkeriari adiera emateko moduak erregulatzen zituzten kode aski konplexuak ez zeudenik. Hurrengoa ari naiz azpimarratzen: audientzia ez zen «indarkeria» jasotzen ari, indarkeriari buruzko mezuak baizik. Tartean hitz horiek txertatzeak ikerketari eta analisiari ondorio batzuk dakartzkio. Ondoriook konexioak atzematera eraman gaitzaketen jarraitutasun lerro leunak, «logika natural» gisa aurkezten zaizkigunak, hautsi egiten dituzte atzera bueltarik gabe, adibidez, O.K. Corral-eko tiroketaren eta Scunthorpe-ko kaleetan edadeko emakumeak kolpatzen dituzten delitugileen artean. Oinarrizko westernaren estruktura narratiboan dagoen indarkeria elementuak —tiroketak, borrokaldiak, segadak, banku lapurretak, mutur-jotzeak, zauritzeak, dueluak, sarraskiak— diskurtso estrukturatu baten baitako beste edozein unitate semantikok bezala, ezin dio bere kasa ezeri adiera eman. Adiera eman deza ke soilik mezuak osotasunean dauzkan esanahi estrukturatuen arabera. Are gehiago, adiera emateko ekintza bera beste elementu edo unitateekin daukan harremanaren arabera da —edo berdintasun eta ezberdintasun harremanen batuketaren arabera—. Olivier Burgelin-ek aspaldi, eta behin betiko, gogorarazi zigun bilau baten ekintza maltzurak edo indarkeriazkoak soilik ekintza onen presentziarekin edo absentsiarekin ezarritako harremanen arabera esan nahi dutela zerbait:

Argi dago ezin dugula baliodun interferentziarik atera egindako ekintza ankerren zerrendaketa hutsetik (ez du axola hamar edo hogeï badira), auziaren muina zalantzarik gabe delako: zer esanahi ematen zaie ekintza ankerrei, ekintza on bakarrarekin alboratzen ditugunean? [...] Norbaitek esan lezake ohikoa denaren esanahia agerian uzten dela soilik bakana denaren aurka jarrita [...]. Auzia beraz galdutako elementu bakan hori identifikatzean datza. Azterketa estrukturalak auzi horri heltzeko bide bat ematen du eduki analisi tradizionalak posible egiten ez duena.<sup>146</sup>

Izan ere, arauak gobernatutako estruktura sinpleko westernaren ekonomia morala hain zegoen estuki eraikita, «bilau» baten ekintza ona ez zela soilik kapaz bilauak biziko zuen amaiera nolabait aldatzeko edo eraldatzeko, baizik eta itxuraz, eraldatu egin behar ziola amaiera. Hortaz: indarkeriazko ekintza txar askoren presentzia (markatua) / edozein ekintza on barkatzailearen absentsia (markatu gabea) = bilau damugabea. Ondorioz, horrek esan nahi du azken atalean heroiak aitzakiarik gabe tirokatu dezakeela bilau hori, eta «txarren» heriotza bizkor eta arrunta dakarkiola, beti ere, heroiak bizkarretik edo oharkabean tirokatzten ez badu, eta pistola lehenengo ateratzen ez badu. Baina: indarkeriazko ekintza txarren presentzia (markatua) / ekintza on barkatzaile bakarraren presentzia (markatua) = bilauaren salbazio edo eraberritze posiblea, erreparazioak egitea heroiarekin edo azio-lagun gaizkile ohiekin hil-ohean. Gure buruari galdetu diezaiokegu: zein da «indarkeriaren» esanahia soilik westernaren estuki antolatutako ekonomia moralaren baitan agertzen bada eta soilik bertan adierazten badu zerbait?

Orain arte argudiatu dugu: a) westernetako indarkeria-ekintzak edo gertaerak ezin du zerbait adierazi isolatuta, esanahien estruktura-eremuak diren film edo programetatik kanpo; b) zerbait adierazten du soilik beste elementuekin daukan harremanaren arabera, eta elementuen arteko konbinazioak gobernatzen dituzten arau eta konbentzioen arabera. Orain hurrengo gehitu behar dugu: c) halako indarkeria-ekintzaren edo gertaeraren esanahia ezin dela finkoa, bakarra eta aldaezina izan, baina artikulatzen den moduaren eta konbinazioaren arabera, gai izan behar duela balio ezberdinei adiera emateko.

---

146 Olivier Burgelin, «Structural Analysis and Mass Communications,» *Studies in Broadcasting* [Nippon Hōsō Kyōkai] 6 (1968).

Diskurtso bereko beste elementu batzuen artean elementu adiera-emaile bat gehiago den heinean, izaera polisemikoa dauka. Izan ere, beste elementuekin konbinazioan estrukturatuta dagoen moduak dauzkan esanahiak mugatzeko balio du eremu zehatz horren barruan, eta «itxitura» bat eragiten du hobesten den esanahi bat iradoki dezan. Halako elementu lexikoarentzat ezin da inoiz ere esanahi bakar, uniboko eta determinaturik egon, baina kodearen barruan elementua integratzeko moduaren arabera, izan ditzakeen esanahi posibleak esanahi dominatzailetik subordinatuetera doazen eskalan antolatuko dira. Eta esandakoak noski ondorioak dakartzkio beste muturrari, hau da, kate komunikatiboaren harreraren muturrari. Ezin da legerik egon hartzaileak indarkeriazko gertaera baten esanahi dominatzailea edo hobetsia hautatuko duela bermatzen duenik preseski produktoreak kodetutako forma zehatzean.

Normalean, ikerleek westernetako «indarkeria» elementuak bakartzen zituzten ulertzen zutelako beste elementu guztiak —testuingurua, ekintza, pertsonaiak, ikonografia, mugimendua, portaera eta itxura, eta estructures morala adibidez— indarkeriaren beste hainbat euskarri bizigaberen gisara zeudela presente: presente zeuden soilik indarkeria-ekintza justifikatzeko edo babesteko. Orain erabat argi dago indarkeria presente egon daitekeela soilik pertsonaia bat justifikatzeko edo babesteko. Horrenbestez, kodeek «eduki» hori antolatzen duten moduaren bitartez esanahien ibilbide posible bat baino gehiago zirriboratu dezakegu. Hartu western sinplean nonahi dagoen elementu semantikoa: heroiak pistola beste inork baino lehenago ateratzen du (badirudi betidanik jakin duela nola), eta bilauari egiten dio tiro itu-ituan. Gerbnerren terminoa erabiltzearen, zer arau, proposizio edo adiera kultural ari da ekintza hori adierazten?<sup>147</sup> Item hori horrela deskodetu daiteke: «heroiaren figurak badaki etsaia baino bizkorrago pistola ateratzen eta hobeto tiro egiten, eta bilauari aurre egitean tiro bakarrarekin erailtzen du». Interpretazio «konduktista» edo «instrumentala»

---

147 «Proposizio-analisirako», George Gerbner, «Ideological Perspectives and Political Tendencies in News Reporting», *Journalism Quarterly* 41 (1964); Evelyne Sullerot, «Etude de Presse...», *Les Temps modernes* 20, 226 (1965); eta «arau-analisirako» George Gerbner *Violence Mass the Media*, liburuko «Task Force Report to Eisenhower Commission on Causes and Prevention of Violence», US Printing Office, 1969.

deitu diezaiokegu horri. Baina —ikerketek iradokitzen dutenez— «mezu» konduktista zuzen hori kode eta genero-konbentzio multzo izugarri antolatuen esku-hartzearekin dago estilizatuta eta araututa (kodeen kode baten, edo meta-kode baten esku-hartzearekin). Badirudi kodeen esku-hartzeak esanahi multzo bat neutralizatzeko efektua daukala, beste esanahi multzo bat martxan jartzten duen bitartean. Edo hobe esateko, kodeek eduki-unitate denotatibo beraren eraldaketa eta lekualdatzea eragiten dute erreferentzia-kode batetik bestera, eta adieraren eraldaketa eragitea dakar horrek. Peter Berger-ek eta Thomas Luckmann-ek argudiatu dute «habitualizazioak» edo «sedimentazioak» ekintza edo esanahi jakin batzuk errutinizatzeko balio duela esanahi berri eta berritzaileentzako bidea irekitzeko helburuarekin.<sup>148</sup> Turner-ek, beste batzuek bezala, erakutsi du konbentzio erritualek performantze erritualetan fokua eremu batetik (eremu emozionaletik edo pertsonaletik adibidez) bestera (eremu kognitibo, kosmologiko, edo sozialera adibidez) birbanatzen dutela.<sup>149</sup> Freudek sintoma-formazioaren eta ametsen lanaren erritualizazioari buruzko analisisan kondentsazioak eta lekualdatzeak daukan funtsezko posizioa erakutsi zuen ageriko sinbolizazioen bitartez material eta esanahi latenteak kodetzeko orduan.<sup>150</sup> Esandakoa kontuan hartuta, elementuaren irakurketa alternatibo konnotatiboa formulatu dezakegu espekulatiboki. «Gizon mota jakin bat izateak (heroia izateak) esan nahi du kontingentzia oro 'hoztasun' ikasi eta profesional bat erakutsiz kontrolatzeko gaitasuna edukitzea». Irakurketa horrek eduki (denotativo) bera mugitzen du erreferentzia konnotatibo instrumental-konduktistatik zintzotasunaren, portaeraren, hizkera eta ekintza estiloaren (maskulinoaren) erreferentzia konnotatibora. «Mezua» edo «proposizioa» orain, ez litzateke ulertuko «indarkeriari» buruzko mezu bat bezala, baizik eta portaerari buruzko mezu bat bezala, edo profesionaltasunari buruzko mezu bat bezala, edo agian baita profesionaltasunak izaerarekin daukan harremanari buruzko mezu bat bezala. Eta kasu horretan, Robert

---


148 Peter L. Berger eta Thomas Luckmann, *The Social Construction of Reality* (Harmondsworth, Erresuma Batua: Penguin, 1971).

149 V. W. Turner, *The Ritual Process* (Londres: Routledge eta Kegan Paul, 1969).

150 Sigmund Freud, *The Standard Edition of the Complete Psychological Works of Sigmund Freud*, 4. liburukia, *The Interpretation of Dreams (First Part)* (Londres: Hogarth Press, 1952).

Warshow-en intuizioa ekartzen dugu gogora, ohartarazten baitzuen, funtsean, westernak ez diharduela indarkeriari «buruz,» baizik eta portaera kodeei buruz.<sup>151</sup>

Iradokitzen saiatu naiz —adibidea urrunegi eramatea lortu gabe— arreta komunikazioen izaera sinboliko/linguistiko/kodetuari emateak, zeinuen unibertso formal eta hertsian harapatetik urrun, hain justu ireki egiten gaituela kultur eduki mota garrantzizko baina «latentea» transmititzen den eremura. Eta bereziki kodeen eta edukien elkarreaginak esanahiak marko batetik bestera lekualdatzeko daukan gaitasuna ulertzera garamatzala, eta hortaz, kultura baten eduki erreprimitua azalera «mozorrotuta» ekartzeko daukan gaitasuna ulertzera. Konexio horretan merezi du Ecoren adierazpena kontuan hartzea, zera esaten zuenean: «semiologiak ideologiaren unibertsoa erakusten digu[la] kode eta azpi-kodeetan antolatuta ‘zeinuen’ unibertsoaren barruan».<sup>152</sup> Nire iritzia propioa da ikuspuntu semiotikoaren aurrerapenei esker lortutako ezagutzak formalismo mota berri batean galduko ez badira, azaldu dugun norabiderantz bultzatu behar dugula gero eta gehiago.



151 Robert Warshow, *Immediate Experience: Movies, Comics, Theatre and Other Aspects of Popular Culture* (New York: Doubleday, 1962).

152 Umberto Eco, «Articulations of the Cinematic Code,» *Cinemantics* 1 (1970).

Begiratu diezaiogun orain, programazioaren beste eremuetako bati, eta kodeen funtzionamenduaren beste alderdi bati. Dakigunez, telebista-zeinua bereziki da konplexua. Ikusizko zeinu bat da, entzumen-ahozko euskarri sendo osagarriarekin. Zeinu ikonikoetako bat da, Peirce-ren zentzuan, hurrengoagatik: idatzizko zeinua adieraziari dagokionez arbitrarioa bada ere, zeinu ikonikoak adieraziaren zenbait elementu erreproduzitzen dituelako adierazlearen forman. Peircek dioen bezala, «errepresentatutako gauza batzuk edo objektuaren ezaugarrietako batzuk dauzka».<sup>153</sup> Egian, zeinu ikonikoak hiru dimentsiotako mundu bat bi plano errepresentazionalak itzultzen duen heinean, erreferentearekin alderatutako «naturalismoa» ez datza hainbeste katearen kodetzearen alderdian, baizik eta gehiago, ikusleak zeinua deskodetzen duen ikasitako pertzepzioetan. Hortaz, Eco modu sinesgarrian argudiatu bezala, eta gordinki esateko, zeinu ikonikoek «mundu errealeko objektuen antza daukate» (adibidez, behi baten argazki edo irudiak, eta behia animaliak), izan ere, «hartzailearen pertzepzio baldintzak erreproduzitzen» dituztelako.<sup>154</sup> Ikuslearen «antzemate» baldintza horiek kultura bateko kide orok partekatzen duen pertzepzio kode funtsezkoenetakoa osatzen dute. Nola? Pertzepzio-kodeak hain zabal daudenez partekatuta, ikusizko zeinu denotatiboek, segurenik, «gaizki-ulertu» gutxiagori egiten diotelako lekua, zeinu linguistikoek baino. Ingeles hizkuntzaren inbentario lexikoak hiztun arruntak denotatiboki konprenitu ezingo lituzkeen milaka hitz jaurtikiko lituzke. Baina behar besteko «informazioa» eman denetan, kultura bateko kideak kapaz edo gai izango liriateke ikusizko adierazle sorta askoz ere zabalagoa denotatiboki deskodetzeko. Zentzu horretan, eta maila denotatiboan, ikusizko zeinua ziurrenik unibertsalagoa da zeinu linguistikoa baino. Gurea bezalako gizarteetan konpetentzia linguistikoa oso modu desparekoan dago banatuta klase eta populazioaren segmentu ezberdinen artean (nagusiki, familiaren eta hezkuntza sistemaren bitartez). «Ikusizko konpetentzia» izendatu dezakeguna bestalde, maila denotatiboan, modu unibertsalagoan dago sakabanatuta (merezi du gogoratzea, noski, ez dela, benetan, «unibertsala», eta espe-

153 C. S. Peirce, *Speculative Grammar*, 2, 3 liburukia Peircen *Collected Papers* lanetik (Cambridge, MA: Belknap Press of Harvard University, 1932).

154 Eco, «Articulations of the Cinematic Code.»

tro batez dihardugula: ikusizko errepresentazio motak daude, mota «abstraktu hutsez» aparte, zeintzuek ikusle arruntaren-tzat askotariko ikusizko puzzleak sortzen dituzten: adibidez, marrazkiak, errepresentazio diagramatiko mota jakin batzuk, konbentzio ezezagunak darabiltzaten errepresentazioak, eba-kin eta edizio fotografiko edo zinematiko motak eta beste). Egia da, baita ere, zeinu ikonikoak «gaizki-irakurriak» bultzatu ditza-keela, hain «naturala» eta hain «gardena» izateagatik bakarrik. Akatsak gertatu daitezke, ez hainbeste ikusle gisa ezin dugu-lako zeinua literalki deskodetu (argi baino argiago dago zerena den irudia), baizik eta tentazioa daukagulako, «naturalizazioa-gatik» beragatik, irudia «gaizki-irakurri» eta adierazten duen horixe dela pentsatzeko.<sup>155</sup> Baldintza garrantzitsu hori kontuan hartuta ere, harrigarria izango litzateke telebista-audientziaren gehiengoak zailtasun handiak izango balitu pantailatik jasotako ikusizko zeinuek, literalki zein denotatiboki, erreferentzia zeri egiten dioten edo zer adierazten duten identifikatzeko. Pertsona gehienek hiltun komunitate bateko hizkuntzaren erabiltzai-le konpetente samarrak bilakatzeko hezkuntza prozesu luzea behar duten bitartean, badirudi ikusi-pertzepziozko kodeak oso gazterik harrapatzen dituztela, eta trebakuntza formalik gabe di-rela, jarraian, erabiltzaille konpetenteak.

Ikusizko zeinua, hala ere, zeinu konnotatiboa ere bada. Eta nagusiki masa-komunikazio modernoaren diskurtoen baitan da horrela. Ikusizko zeinuaren, zeinu horrek daukan testuinguruko erreferentziaren, eta elkartzen zaizkion hainbat esanahi alorretan hartzen duen posizioaren konnotazio maila da, hain justu, zeinu denotatuak kultura bateko estruktura sako-na gurutzatzen duen puntu zehatza, eta baita zeinuak dimentsio ideologikoa hartzen duen puntua ere bai. Publizitatearen dis-kurtoan, adibidez, komunikazio «denotatibo hutsik» ez dagoela esan genezake kasik. Publizitatean ikusizko zeinu orok ezauga-rriren bat «konnotatzen» du: hitz erdika esandako esanahi gisa presente dauden egoerak, balioak edo inferentziak konnotazio erreferentziaren araberakoak dira. Seguru asko, ezagutzen dugu Barthesek jertseari buruz emandako adibidea, publizitate eta modaren erretorikan beti konnotatzen baitu, gutxienez, «jan-

---

155 Hall, «Determinations of News Photographs.»

tzi beroa» edo «bero egotea», eta hortaz hedapenez, «neguaren etorrera» edo «egun hotza». Modaren azpikode espezializatuetan, jertseak konnotatu dezake «*haute couture*-n boladan dagoen estiloa» edo, aukeran, «janzkera estilo informala». Baina inguru egokian kokatuta, eta azpikode erromantikoaren baitan, «udazkeneko pasealdi luzea basoan»<sup>156</sup> konnotatu dezake. Argi dago, gisa horretako konnotazio-kodeak adiera emateko bezain beste aski estrukturatuta daudela, baina kode denotatiboak baino «irekia-goak» edo «askeagoak» dira. Are gehiago, harremanak ezartzen dituzte, zalantzarik gabe, kulturako ideologien unibertsoarekin, eta historia eta etnografiarekin. Bizitza sozialeko eremuak —kulturaren, boterearen, eta ideologiaren segmentazioak— adierazi arazteko bitarteko «linguistikoak» dira kode konnotatibo horiek. Edozein kultura antolatzen duen «esanahien mapari» egiten diote erreferentzia, eta «errealitate sozialaren mapa» horiek esanahi, praktika eta usadio, botere eta interes sozialen bilduma osoa daukate «inskribatuta». Adierazle konnotatuek, oroitarazi zigun Barthesek, «hurbileko komunikazioa daukate kulturarekin, ezagutzarekin eta historiarekin; eta sistema linguistiko eta semantikoak horien bitartez, nolabait esatearren, indarrez hartzen du inguratzen gaituen mundua. Nahiago baduzu, 'ideologia pusketak' dira».<sup>157</sup>

Telebista-zeinuaren maila denotatiboa kode «itxi» edo mugatu oso konplexu batzuen barruan egon daiteke harrapatuta. Baina daukan maila konnotatiboa, harrapatuta egonik ere, historiaren formazio, transformazio eta gainbeheraren eraginari irekita eta funtsean polisemiko mantentzen da: halako edozein zeinu, potentzialki, konfigurazio konnotatibo baten baino gehiagotan mapatu daiteke. «Polisemia» hala ere, ezin da pluralismoarekin nahastu. Kode konnotatiboak ez dira berdinak elkarren artean. Edozein gizartek edo kulturak dauka kultura horretako kideei eta itxitura-maila ezberdinekin, mundu sozial, kultural eta politikoaren segmentazio eta sailkapen propioak inposatzeko joera. Badago *ordena kultural dominatzaile* bat, baina ez da unibokoa eta ezta erantzunik gabekoa ere. Edozein kulturatan «menderakuntza estrukturari» buruzko auzia eztabaida

---

156 Roland Barthes, «Rhetoric of the Image,» *Working Papers in Cultural Studies* 1 (1971).

157 Roland Barthes, *Elements of Semiology* (Londres: Jonathan Cape, 1967).

gutziz erabakigarria da. Esan dezakegu, beraz, bizitza sozialeko eremu ezberdinak *esanahi dominatzaile edo hobetsien* alor konnotatiboetan mapatuta agertzen direla. Dauzkagun espektatibak urratu eta gure «zentzu komuneko konstruktuen» aurka, eta estruktura sozialei buruz «ontzat ematen dugun» ezagutzaren aurka egiten duten gauza eta gertakizun berri, arazotsu, edo arduragarriek «zentzua daukatela» esatea posible izan baino lehen, alor konnotazionalak egokitu behar zaizkie. Eta berria dena «mapatzeko» modurik arruntena aurretik existitzen diren «errealitate sozial arazotsuen mapen» baitan alorren bat egokitzea da. «Dominatzaile» esaten dugu eta ez «determinatu» beti delako posible gertakizun bat «mapatze» baten baino gehiagotan ordenatzea, sailkatzea, egokitzea eta deskodetzea. Baina «dominatzaile» esaten dugu «hobetsitako irakurketen» patroia bat badagoelako, eta mapatzeek ordena instituzionala, politikoa eta ideologikoa inskribatuta daramatelako, eta instituzionalizatu egin direlako.<sup>158</sup> «Hobetsitako mapatzeen» alorrek ordena sozial osoa daramate txertatuta esanahi multzo gisa: praktikak eta sinesmenak, gizarte estruktura eguneroko ezagutza, «ondorio praktikoa guztietarako gauzek gure kultura honetan nola funtzionatzen duten» dioen ezagutza, botere eta interesen mailaketa, eta legitimazio eta onespeneen estruktura. Hortaz, maila denotatiboan gertatzen den «gaizki-ulertua» argitzeko, zeinuen eta zeinuon kodeen mundu immanenteari egin behar diogu erreferentzia. Baina konnotazioaren mailako «gaizki-ulertuak» argitu eta ebazteko, kodeen bitartez egin behar diegu erreferentzia, bizitza sozialaren, historiaren eta bizitza egoeren araei, edo botere ekonomiko eta politikoen araei, eta azken buruan, ideologiaren araei. Are gehiago, konnotaziozko mapatzeok «menderakuntzan estrukturatuta» daudenez, baina ez daudenez itxita, prozesu komunikatiboa ez datza aurrezarrizko kode multzoaren baitan ikusizko elementu bakoitzari dagokion posizioa modu ez-problematikoan egokitzean. Prozesu komunikatiboa *arau performatiboetan* datza: alor semantiko bat beste baten gaintik *ezartzea edo hobestea* bilatzen duten konpetentziaren, erabileraren, eta indarrean dagoen logikaren arauetan, hau

---

158 Hall, «Determinations of News Photographs,» eta modu orokorragoan Stuart Hall, «Deviance, Politics and the Media,», Mary McIntosh and Paul Rock (editoreak), *Deviance and Social Control* (Londres: Tavistock, 1974).

da, elementu bakoitza dagokion esanahi-multzo egokian sartzen dela erabakitzen duten arauetan. Semiologia formalak sarriegi baztertu egin du interpretazio lan hori, aipatutakoak telebistako emisio denbora tarte handiaren estruktura sakona osatzen badu ere, bereziki, programazio politikoan eta beste «eremu sentibera» batzuen programazioan. Esanahi dominatzaileez hitz egiten dugunean, beraz, ez gara ari edozein gertakizuni adiera nola emango zaion gobernatzen duen aldebakarreko prozesu huts batez (pentsatu, adibidez, berriki Txilen gertatu den estatu kolpeaz). Gertakizun baten deskodetzea konnotatiboki adiera eman zaion definizio dominatzailearen baitan legitimo gisa bete arazi dadin, onargarritasuna jaso dezan, eta agindu dezan egin beharreko «lanarekin» ere osatuta dago esanahi dominatzailea. Terni irakasleak azpimarratu zuen bezala, «irakurri hitzarekin ez dugu soilik zeinu kopuru jakin bat identifikatzeko eta deskodetzeko gaitasuna esan nahi. Adierazi nahi dugu baita zeinuak elkarren artean eta beste zeinu batzuekin harreman sortzailean jartzeko gaitasun subjektiboa ere. Gaitasun hori bere horretan da norbere inguru osoaren kontzientzia betea izateko baldintza».<sup>159</sup>

Aipu horretan ika-mika bakarra «gaitasun subjektibo» kontzeptuarekin daukagu, ematen duelako telebista-zeinuaren erreferentzia denotatiboa prozesu objektiboa dela, baina konnotazio eta konexio maila kontu indibidualizatu eta pribatua. Errealitatea kontrakoa dela dirudi. Telebistaren prozesuak erantzukizun «objektiboa» (hau da, sistemikoa) hartzen du, hain justu bat ez datozen zeinuek elkarren artean osatzen duten harremanekin. Eta hortaz, Ternik «norbere inguru osoaren kontzientzia betea» deitzen duen horren elementuak antolatzeko moduak etengabe mugatzen eta derrigortzen ditu telebistak.

Telebista-mezuaren kodetzaile eta deskodetzaileen arteko «gaizki-ulertuen» auzi klabera garamatza horrek. Eta ondorioz, debideratze luze baina beharrezko bati esker, «komunikazioa hobetzeko» eta «komunikazioa eraginkorragoa izan dadin» diseinatutako «kultur politiken» gaira garamatza. Telebista-produktoreak edo «kodetzaileak», mezuak «iristen ez direla» ikusten duten horiek, arduratuta daude maiz kate komunikati-

---

159 P. Terni, «Memorandum,» *Understanding Television*, Council of Europe Colloquy-rako hitzaldia. University of Leicester, 1973.

boko trabak kentzearekin, eta hortaz, mezuen «eraginkortasuna» erraztearekin. Ikerketa mordoa eman zaio audientziak mezuaren zenbati eusten dion edo zenbat gogoratzen duen deskubritzen saiatzeari. Maila denotatiboan (momentu batez bereizketa analitikoa egin badezakegu behintzat) ez dago zalantzarik «gaizki-ulertua» existitu egiten dela, gaizki-ulertuak daukan benetako hedaduraren ideiarik ez badaukagu ere. Eta ulertzeko azalpen posibleak ekarri ditzakegu hona. Adibidez, ikusleak «hizkuntza ez hitz egitea», ez figuratiboki eta ezta literalki ere; ikusleak argudiaketaren edo azalpenaren logika konplexua ezin jarraitzea, dela kontzeptuak arrotzegiak direlako, dela edizioa bizkorregia, moztuegia edo sofistikatuegia delako (izan ere, edizioarekin espazioaren logikan edo logika «narratiboan» ordenatzen dira elementuak, eta hortaz, ordenatzeagatik bakarrik banakatutako gauzen artean konexioak proposatzen dira), eta antzeko adibideak asko daude. Beste maila batean, kodetzaileek adierazten dute audientziak mezua «ulertu» duela kodetzaileak berak nahi izan ez duen moduan. Benetan esan nahi dutena da ikusleak ez dabiltzala kode dominatzaile edo hobetsiaren baitan funtzionatzen. Komunikazio guttiz gardenaz dihardute idealki. Aitzitik, «sistematikoki desitxuratutako komunikazioari» egin behar diote aurre ezinbestean.

Azken urteetan, halako desakordioak irakurketa indibidual «aberranteak» balira bezala askatzen dira, «pertzepzio selektibo» dagozkienak. Azken boladako ikerketak bazterreko pluralismoaz jarduteko darabilen atea da «pertzepzio selektiboaren» ideia hori zugarri estrukturatutako funtzionamendu kultural asimetrikoaren esferaren barruan. Noski, beti egongo dira norbanakoen irakurketa aldaerak eta aldaera pribatuak. Baina nire behin behineko iritzia da «pertzepzio selektiboa» ez dela inoiz kontzeptuak iradokitzen duen bezain selektiboa, ausazkoa eta pribatizatua. Patroiek normalean onartzen zaiena baino estrukturatze eta taldekatze handiagoa erakusten dute. Audientzien ikerketara «deskodetzearen» bitartez eginiko hurbilketa berri baten abiapuntua «pertzepzio selektiboaren» teoriari proposatutako kritika izan beharko litzateke.

Oraintsu, Umberto Eco bitarteko beste estrukturatze maila bati eman dio arreta kode dominatzailean kompetentzia izatearen eta irakurketa indibidual «aberranteen» artean:

subkultura formazioek eratzen duten maila, hain justu. Baina subkulturak, definizioz, kultura beraren baitako artikulazio ezberdinak direnez, erabilgarriagoa da bitartekotza hori marko ezberdin xamarrarekin zehaztea.<sup>160</sup>

Jarraian zirriborratuko dudan tipologia orokorregia (desegokia iruditzen zaigun) «gaizki-ulertu» terminoa berrinterpretatzeko saiakera da audientziek telebistaren mezuaz hartu dezaketen gizarteko ikuspuntu orokor zenbaiten arabera. Gramscik formazio ideologiko «hegemonikoez» eta «korporatiboez» egindako lana erabiltzen saiatuko naiz, eta baita Frank Parkin-ek esanahien sistema motei buruz egindako azken lana.<sup>161</sup> Parkinen eskemaren moldaketa eginda, lau posizio «tipo-ideal» eztabaidatu nahi ditut orain, eta audientziak egin ditzakeen masa-komunikazioen deskodetze ezberdinak bereizi. Halatan, zentzu komuneko «gaziki-ulertuaren» ulerkera «sistematiko ki desitxuratutako komunikazioen» teoria gisa erre-presentatu nahi dut.<sup>162</sup>

«Akats» literal edo denotatiboak ez dira oso arazotsuak. Zarata moduko bat erre-presentatzen dute kanalean. Baina mezu baten testuinguruaren mailako edo maila konnotatiboko «gaizki-irakurriak» kontu ezberdina dira. Funtsezko oinarria gizartean daukate, oinarri komunikatiboa eduki beharrean. «Mezuaren» mailan ematen diete adiera bizitza ekonomikoko, politikoko eta kulturaleko gaztazka, kontraesan eta negoziazio estrukturalai.

Identifikatu nahi dugun lehenengo posizioa kode dominatzaile edo hegemonikoa da (beharrezkoak dira, noski, kode eta azpikode ezberdin ugari kode dominatzailearen barruan gertakizun bat produzitzeko). Ikusleak esanahi konnotatu bat oso-osorik eta zuzenean hartzen duenean, telebistako albistegi edo aktualitateko gaien programa batetik, adibidez, eta mezua deskodetzen duenean kodetu egin den erreferentzia kodearen arabera, ikuslea kode dominatzailearen barruan jarduten ari dela esan dezakegu. «Komunikazio guztiz gardenaren» kasu

---

160 Eco, «Does the Public Harm Television?»

161 Antonio Gramsci, *Selections from the Prison Notebooks* (Londres: Lawrence eta Wishart, 1971); eta Frank Parkin, *Class Inequality and Political Order* (Londres: McGibbon eta Kee, 1971).

162 Ikusi Jürgen Habermas, «Systematically Distorted Communications,» *Recent Sociology* 2, editorea H. P. Dretzel (Londres: Collier-Macmillan, 1970).

tipiko-ideala da hori, edo komunikazio mota horretara gehien gerturatu daitekeen kasua, ondorio praktiko guztietarako.

Kode profesionala identifikatu nahi dugu hurrena (eta Parkinen eredu zabaltzen ari gara honekin). Emisioaren profesionalak aurretik modu hegemonikoan adierazitako mezua transmititzean darabilten kodea da hau (edo kode multzoa, kasu honetan hobekiago metakode izendatu genezakeen horretaz ari baikara hizketan). Bereziki, izaera tekniko-praktikodun kriterio eta funtzionamendu propioak erabiltzen dituen heinean, kode profesionala «independente xamarra da» kode dominatzaileari dagokionez. Hala ere, kode profesionalak kode dominatzailearen hegemoniaren baitan jarduten du. Izan ere, definizio dominatzaileak erreproduzitzeko balio du, hain justu, kodetze profesionala erabilia izaera hegemonikoaren euskarria izateagatik hurrengoez jardun ahala: ikusizkoaren kalitateaz edo berrien eta presentazioaren balioez, edo telebistaren kalitateaz, edo «profesionaltasunaz» edo antzekoez. Ipar Irlandako politikaren, edo Txileko estatu kolpearen, edo Harreman Industrialen legearen interpretazioa elite politikoei ematen dute. Aurkezpenarako abagune eta formatuaren hautu zehatza, pertsonalaren hautaketa, irudien aukeraketa, eztabaiden «eszenaratzea» eta antzekoak aukeratzen dira kode profesionalaren jardunean.<sup>163</sup> Emisioaren profesionalak nola diren kapaz «autonomia erlatiboko» kodez jarduteko, eta aldi berean, gertakizunen adiera hegemonikoa erreproduzitzeko, hemen gehiago landu ezin dugun auzi konplexua da. Nahikoa izan behar du esatea profesionalak erabakimena daukaten eliteei ez daudela soilik lotuta emisioaren beraren posizio instituzionalagatik, «aparatu ideologikoak» diren heinean. *Irisingarritasunaren* estrukturagatik daude modu intimoagoan lotuta (hau da, eliteko pertsonala sistematikoki «gain-iristen» delako emisiora eta telebistako «egoera definitzen» dutelako).<sup>164</sup> Are, esan liteke kode profesionalak definizio hegemonikoak erreproduzitzeko balio dutela egiten duten jarduna norabide propioan modu irekian zehazki lerratu gabe:

---

163 «External Influences on Broadcasting: The External/Internal Dialectic in Broadcasting—Television's Double-Bind,» Department of Extra-mural studies, University of Manchester (1972)

164 Louis Althusser, «Ideology and Ideological State Apparatuses,» *Lenin and Philosophy and Other Essays* (Londres: New Left Books, 1971).

erreproduzio ideologikoa, beraz, oharkabean gertatzen da kasu honetan, inkontzienteki, «inork jakin gabe». Nola ez, gatazkak, kontraesanak, eta baita «gaizki-ulertuak» ere erregularitasunez gertatzen dira adiera dominatzaile eta profesionalen, eta dauzkaten agentzia adiera emaileen artean.

Identifikatuko dugun hirugarren posizioa *negoziatutako kodea* edo posizioa da. Gehiengo audientziek ziurrenik modu aski egokian ulertuko dute modu dominatzailean definitu eta profesionalki adierazi dena. Definizio hegemonikoak, hala ere, hegemonikoak dira, hain justu, «nagusitasuna daukaten» eta *globalak* diren definizio eta egoerak errepresentatzen dituztelako. Definizio dominatzaileek, inplizituki edo esplizituki, totalizazio zabalekin konektatzen dituzte gertakizunak, hau da, mundu-ikuskerara sintagmatiko handiekin. Auzien «ikuskerara zabalak» hartzen dituzte: gertakizunak «interes nazionalarekin» edo geopolitikaren mailarekin jartzen dituzte harremanean, lotura horiek modu alderantzikatu, eten edo mistifikatuetan egiten badituzte ere. Ikuspuntu «hegemonikoaren» definizioa da, a) gizarte edo kultura oso baten zerumuga mentala eta esanahi posibleen unibertsoa norbere terminoetan definitzen duen ikuspuntua, eta b) legitimazioaren zigilua daraman ikuspuntua —ordena sozialari dagokionez «naturala», «ekidinezina» eta «ontzat ematen» denarekin bat egiten duena—. *Negoziatutako bertsioaren* baitan, deskodetzeak elementu moldakorrak eta aurkakotasunezko elementuak nahastea dakar: adierazpen zabalak egiteko legitimitatea aitortzen zaie definizio hegemonikoei, baina egoera zehatzei lotutako maila murriztuagoetan, oinarrizko arau propioak sortzen dira, eta arauaren «salbuespenekin» jarduten da. Gertakizunen definizio nagusiei posizio pribilegiatua onartzen zaie, baina «baldintza lokaletan» eta posizio propio *korporati-boetan* erabilera negoziatuagoa egiteko eskubidea erresalbatzen da. Ideologia dominatzailearen negoziatutako bertsioa, beraz, kontraesanez beteta dago, kontraesanok soilik batzuetan egiten badira ere erabat ikusgarri. Negoziatutako kodeek kokatutako logikak edo logika partikularrak izendatu ditzakegunen bitartez jarduten dute. Eta espektroan kokagune jakin hori hartzen dutenen posizio diferentzialetik datoz halako logikak, eta baita boterearekin daukaten harreman diferentzial desparekotik ere. Langile batek grebarako eskubidea mugatzen duen Harreman

industrialaren legearen aurrean, edo soldatak izozteko argudioen aurrean daukan erantzuna gobernatzeko duen kodea da negoziatutako kodearen adibiderik errazena. Interes nazional ekonomikoaren eztabaidaren mailan, posible da langile horrek definizio hegemonikoarekin bat egitea, eta «inflazioari aurre egiteko gutxiago irabazi behar dugu denok» gisako esaldiekin ados egotea. Hala ere, posible da adostasun horrek soldata eta baldintza hobeen alde greba egiteko edo Harreman industrialaren legearen aurka lantegian edo sindikatuan antolatzeke izan ditzakeen gogoekin zerikusi gutxi edo bat bera ere ez izatea. Susmoa daukagu «gaizki-ulertu» gisa ezagutzen ditugun horien gehien-gehienak kodetze hegemoniko-dominatzaile eta negoziatutako deskodetze korporatiboaren arteko desakordioetatik datozela. Hala desakordioek bultzatzen dituzte erabakimena daukaten eliteak eta profesionalak «komunikazio akatsak» identifikatzera.

Bukatzeke, posible da ikusle batek biak ulertzea, gertakizun jakin bati emandako inflexio literal eta konnotatiboa, baina mezua modu erabat aurkakoan deskodetzea ebatzea. Hobetsitako kodeko mezua destotalizatu dezake, erreferentzia marko alternatiboren baten baitan bertotalizatzeko. Horixe da soldatak mugatzeko beharizanari buruzko eztabaida entzuten duen ikuslearen kasua, baina «interes nazionalari» egindako aipamen oro «klase interes» gisa entzuten duenean. *Aurkakotasun kodea* izendatu behar dugunean ari da ikusle hori jarduten. Momentu politiko garrantzitsuenetakoak, normalean, modu negoziatuan adiera eman eta deskodetutako gertakizunekin halako aurkakotasun irakurketak egiten hasten denetan gertatzen dira (eta arrazoi nabariengatik emisio-erakundeetako krisi uneekin batera gertatzen diren momentuak izaten dira sarri).

Politika kulturalen auziak, dorpeki bada ere, erdigunea hartzen du orain. Komunikazio sozialez jardutean, oso zaila da «komunikazioak hobetzeke» edo «komunikazioak eraginkortzeke» egitekoak helburu neutral pedagogiko gisa identifikatzea, mezuaren maila denotatibo hutsa gaingaitzen den momentutik bertatik. Hezitzailea edo kultur politiken diseinatzailea ekintzarik alderdikoiena ari da betetzen benetako gatazkei eta kontraesanei adiera berri bat emateko konspiratzen duenean, besterik gabe, kate komunikatiboko trabak kentzen ariko balitz

bezala. Akats denotatiboak ez dira estrukturalki adierazgarriak. Baina testuinguruari dagozkion «gaizki-ulertuak» eta «gaizki-ulertu» konnotatiboak esangurarik garrantzitsuena daukate edo izan dezakete. Errealitatean, sistema sozio-komunikatiboko desitxuraketa sistematikoen funtsezko elementuak direnak transmisioaren akats tekniko gisa interpretatzea, estruktura sakoneko prozesu bat, azaleko fenomeno batekin nahastea da. Elite dominatzaileen kode hegemonikoak audientziaren gehien-goarentzat eraginkorragoak eta gardenagoak izan daitezen esku hartzea ez da erabaki teknikoki neutrala, erabaki politikoa baizik. Hautu politiko bat hautu tekniko gisa «gaizki-irakurtzeak» interes dominatzailearen aldeko konspirazio inkontziente mota bat erakusten du, eta konspirazio mota horren aldeko joera nabariegia da gizarte zientzietako ikertzaileen artean. Halako mistifikazioaren iturriak sozialak eta estrukturalak badira ere, desadostasunez funtzionatzen duten kodeek izugarri errazten dute prozesua bera. Ez litzateke lehenengo aldia izango ikertzaile zientifiko batek «inkontzienteki» hegemoniaren erreproduzioan eginkizunen bat beteko balu, ez hegemoniari errendituta, baizik eta soilik «euskarri profesionala» erabilita.



# SEI

## «OINARRIA ETA SUPERESTRUKTURA» METAFORA BIRPENTSATZEN<sup>165</sup>

Marxek halabeharrez «azpigaratuta» utzi zituen auzi guztien artean, bat ere ez da funtsezkoagoa «oinarria eta superestrukturarena» baino. «Klaseei» buruzko pasarte tentatzailearekin abiatzen da *Kapitalaren* (*Das kapital*) hirugarren liburukiaren eskuizkribua. Estatuari buruz izango zela promestutako liburukia, bestalde, *Kapitalarako* Marxek prestatu zituen hainbat zirriborrotan agertzen dena, idatzi gabe gelditu zen. Biek, bukatu izan balitu, helduaroko gogoetabidez egingo liokete argia oinarri/superestruktura auziari. Dagoenean, produkzio-molde kapitalistaren «mugimenduaren legeei» buruz daukagu Marx helduaren pentsamenduaren parte oso garrantzitsua, baina garai bereko ezer ere ez formazio sozial kapitalista osotasunean objektu teoriko gisa hartzen duenik, maila guztiak eta mailen arteko harremanak barne hartzen dituenik, baita «superestrukturak» ere.

Badago marxismoak behar duen oro jadanik *Kapitalan* dagoela uste duenik; eta behar bezain gogor begiraturuz gero, —Bibliako liburu ezkutuek bezala— dauzkan sekretu guztiak askatuko dituela: guztiaren teoria bat. Ez nator tesi horrekin bat, forma literalean. Orogen gainera, ukatu egiten du *Kapitalaren* premisa zentraletako bat —produkzio-molde kapitalista eten-gabe ari dela garatzen, eta horrenbestez, azalpen eta garapen teorikoko lan etengabea eskatzen duela—. «Ez dago zientziarako bide xamurrik» ohartarazi zituen frantziarrak Marxek.<sup>166</sup> Gainera,

---

165 Itzultzailearen oharra: 1977an Londreseko unibertsitate komunistaren *Klaseari, hegemoniari eta alderdiari buruzko saiakerak* (*Papers on class, hegemony and party*) bilduman argitaratu zen lehenengoz idatziz Stuart Hallek irakatsitako saio hau.

166 *Capital, I* *Liburukiaren* edizio frantsesari hitzaurrea, 1872: Marx 1961.

uste horrek jarrera erlijiosoaren piura handiegia dauka. Nola ez, garapen teoriko gehiagoren zain dauden iradokizun eta azterna sakon asko dauzka produkzio-molde kapitalistari buruzko Marxen lanak. Are gehiago, hain justu Marxek «determinatzailea» zela azpimarratu zuen maila horren oinarritzko mugimenduak argitu egiten ditu *Kapitalak*. Hortaz, funtsezko lan horretan garatutako kontzeptuen alorraren baitan «pentsatu» behar da oinarri/superrestrukturaren auzia. Baina proposamen ezberdina da imajinatzea otzankeriaz «Kapitalaren logika» behin eta berriro errepikatze hutsagatik irtenbidea emango zaiola. Sarriegi, ideologikoki dotorea baina zentzu teoriko zabalagoan abstraktua den ariketa egitea dakar horrek: guztia murrizten du «ekonomia politikora». Marxek *Kapitalan* agerian utzi zuen problematikaren markoaren barruan oinarri/superstruktura auzia birpentsatzeak lan teoriko zaila eskatzen du. Idazlan honek, ezinbestean, hasierako puntu batzuk jorratzen ditu soilik.

Hemen funtsean auzitan dagoena zera da: nola laguntzen digu marxismoak formazio sozial kapitalista modernoaren konplexutasunak «pentsatzen»? Nola kontzeptualizatu ditzakegu formazio sozial kapitalista osatzen duten maila ezberdinen arteko harremanak? Are gehiago, posible da arazoa «pentsatzea» materialismo historikoaren premisa klabeetako bat mantenduta, hau da, batzuetan modu nahasgarrian «ekonomikoa» esaten zaion horrek dakarren «azken buruko determinazioaren» premisa mantenduta? Posible da hori guztia egitea maila bakoitzaren autonomia *absolutuaren* ideian barrena norbere bidea galdu gabe? Izan ere, Marxek insistitzen du «harremanen *mihiztadura*» pentsatu behar dugula, hau da, daukan batasun konplexua. Althusserrek justifikaziorik gabe «keinu huts» gisa definitzen badu ere, Marxek ezbairik gabeko onarpenez aipatu zuen iruzkingile errusiar bat Marxek berak «mugimendu-legea[rekin]» zeukan ardura ikusarazi zuelako, hau da, «garai historiko baten baitan elkarrekin konektatutako forma zehatza daukaten heinean, fenomeno horiek guztiak kontrolatzen dituen»<sup>167</sup> legearekin zeukan ardura. Posible da Marxen ardura horri erantzutea formazio sozial kapitalista «osotasun» funtzionala dela dioen ideia onartu gabe, antagonismorik edo kontraesanik gabe? «Gi-

---

167 *Capital*, I *Liburukiaren* bigarren edizio alemaniarriari hitzostea, 1872: Marx 1961.

zarte kapitalistaren mugimenduaren berezko kontraesanez [...]», azaltzen du Marxek, «krisi unibertsa daukate punturik gorena».168 Posible da esaten gabiltzana egitea ideia funtsean erlatibistan erori gabe, hots, askotariko aldaeradun alderdi-guztien-elkarrekiko-interakzioz osatutako formazio sozial moduko batean puntu bakar bati ere determinazioaren nagusitasuna zehaztea edo ematea ekidinda? Posible da *determinazioa* —Marxen lan teorikoaren gai zentraletakoa— pentsatzea sinplifikatu gabe zer den determinatzailea den hori (ekonomikoa dena?), noiz determinatzen duen (azken buruan?), edo nola funtzionatzen duen determinazio horrek (norabide bakarrean?). Funtsean, horiek dira marxismoaren posizio zentraletik mahaigaineratutako arazoak oinarri/superrestruktura metafora topografikoari dagokionez.

Marx eta Engelsen lanetan bertan oinarri/superrestruktura auzia argitzen laguntzen duten formulazio klabe batzuk gain-begiratu nahi ditut labur-labur: arreta eman nahi diet, ez soilik aurkitu daitezkeen aztarnei, baizik eta baita formulazioetan dauden garapenei eta formulazioen arteko aldaketei ere. Bigarrenik, egungo lanketa teorikoen artean auzia gehiago argitu duten bi momentu esanguratsuren bilakaerak aztertuko ditut, eta saiaturko naiz baloratzen bi bilakaera horiek noraino eramaten gaituzten, eta zer gelditzen den oraindik egin gabe.

### **Ideologia alemaniarra**

Lehenengo testuak *Ideologia alemaniarraren* (*Die deutsche Ideologie*) bueltako garaian proposatutako formulazioetatik daude hartuta. Garrantzitsua da *Ideologia alemaniarra* bera kokatzea, eta beraz, kokatzea baita formulaziook zein eremu kontzeptuetan eta arazo teorikotan proposatzen diren ere. Modu sarri simple baina zorrotzean, *Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak* (*Ökonomisch-philosophische Manuskripte*) laneko «espezie-izakiaren» ikuspuntua materialismo historiko, askotan *genetiko* ebolutibo, batengatik ordezkatzeko duen testua da *Ideologia alemaniarra*. «Haustura» erregistratzen du zentzumenen materialismo feuebachiarren problematikarekin. Marx eta Engelsek «kritika kritiko» alemaniarrarekin —ezker hegeliarren filosofia espe-

---

168 *Capital I* *Liburukiaren* bigarren edizio alemaniarrari hitzostea, 1872: Marx 1961.

kulatiboarekin— egindako «zorren kitatze» bat dakar. Daukan bultzada guztia da polemikoa —daukan «materialismoa» barne—. Kontuan eduki behar da testuaren bultzada polemiko hainbatean sinplifikatzaile hori noizbehinka oharkabean agertzen diren sinplifikazio murriztaileak behar bezala kokatzeko.

Bizitzaren produkzioa, hau da, lanak norberarena eta ugalketak bizitza berriarena, harreman bikoitz bezala agertzen zaigu aldi berean, alde batetik harreman natural gisa, eta bestetik, harreman sozial gisa. Soziala esaten dugunean hainbat norbanakoren kooperazioaz dihardugu, baldintzak, moduak eta helburuak kontuan hartu gabe. Ondorioz, produkzio-molde edo fase industrial determinatu bat beti dago kooperazio modu edo fase sozial determinatu batekin bilduta, eta kooperazio modu berori da «indar produktibo» bat. Beste ondorio bat da gizonak eskuragarri dauzkaten indar produktiboen masak determinatzen duela gizartearen kondizioa, eta «gizateriaren historia» beti aztertu eta tratatu behar dela industriaren eta elkartrukearen historiarekin harremanean.

*Ideologia alemaniarra*

Bi puntu klabe azpimarratu behar dira aipu horretatik. Testuko beste hainbat tokitan berraiptatu egingo dira biak baina forma zertxobait ezberdinean. Lehenengoa, proposizioa da —premisia hegeliarraren ifrentzua— hau da, «gizonak eskuragarri dituzten indar produktiboen masa» dela «determinatzen due[n]a gizartearen kondizioa». Bigarrena, apur bat konplexuagoa da, baina garrantzi berekoa. «Harreman bikoitzaz» dihardu soilik. Marx eta Engelsentzat «gizonak» (horixe da testuan jendeari erreferentzia egiten dion modu orokor eta historikoki bereizigabea) naturan esku hartzen dute bizitza baldintza propioak produzitzeko eta erreproduzitzeko. «Esku hartze» hori gizakiaren lanari eta tresnen erabilerari esker lortzen da egitea. Lehenengo agerpen historiko garatu gabekotik hona, gizakiaren lana gizonen arteko kooperazio sozialari esker izan da soilik posible: gizonen artean garatzen diren eta «kooperazio modu determinatua» osatzen duten «harreman» horiek gizonak naturan egiten duten esku hartze sozialaren modu historikoki zehatzetik eratortzen dira —hau da, produkzio-moldetik—. Ondoz ondoko produkzio-moldeak dira historia guztiaren oinarria, horien araberrako kooperazio sozialaren moduak barne. Antzeko pasarte batean Marxek dioen bezala: «behartuta gaude XI. mendeko gizonak hurbiletik aztertzeraz, eta XVIII. mendekoak, bakoitzak

zeuzkan beharrak, indar produktiboak, produkzio-moldeak, produkzioarako lehengaiak, eta azkenik, bizitza baldintza horietatik guztietatik eratorritako gizonen arteko harremanak ikertzeko» —*Filosofiaren miseria (Misère de la philosophie)*—. «Produkzio-molde» bakoitza, «kooperazio modu» bakoitza, «determinatua» da: historikoki zehatza. Azkena «erotorri egiten da» lehenengotik, edo «bildu egiten du» lehenengoak. Etengabe azpimarratuko da bi harremanen —«harreman bikoitzaren»— arteko harremanak daukan zehaztasun historikoaren premisa, baina beti garaiari buruzko modu oso orokorrean. Momentu hartako Marxen eta Kapitalako Marxen arteko distantzia —eta diferentzia— neurtzeko moduetako bat, hain justu, formulazio orokor horien eta Kapitalako lehen liburukiko «Kooperazioa» eta «Lanaren eta manufakturaren banaketa» (13 eta 14) kapituluaren konparaketa egitea da eta ikustea zehaztasun historikoaren kontzeptua noraino zehaztu zitekeen are gehiago.

Formazio sozialen maila ezberdinen arteko harremanak «ikusgarri egiten» saiatzeko eginbideak elikatzen dituzten premisak testu berean beste nonbait adierazten dira miresteko moduko era simple eta argian. Marxen «materialismo historikoaren» oinarriko printzipio analitikoak osatzen dituzte, momentu jakin horretan garatu zituen moduan:

Historiaren ulerkera hau, beraz, produkzio-prozesu errealek azalera ekartzean datza, bizitzaren produkzio material hutsarekin hasita eta produkzio horrek sortutako eta produkzio horri lotutako ugalketa modua konprenituta. Hau da, historia guztiaren oinarri gisa, eta dauzkan askotariko faseekin, gizarte zibilaren produkzio-prozesuak azaleratzean datza, eta baita estatu gisa daukan eragina erakustean. Abiapuntu horretatik, kontzientzia forma eta produkzio teoriko ezberdin guztiak azaldu daitezke, erlijioa, filosofia, etika, eta abar, eta jatorri eta hazkundeari jarraitu dakioke lerratza, eta horrek esan nahi du, noski, aztergaia osotasun gisa erakutsi daitekeela (eta ondorioz, baita alderdi horietako bakoitzaren elkarrekiko eragina ere). Historiaren ulerkera idealistak ez bezala, ez du kategoria bat bilatu behar garai bakoitzean, baizik eta etengabe mantentzen da historiaren zoru errealean. Ez du praktika azaltzen ideiatik, baizik eta ideien formazioa azaltzen du praktika materialetik. Eta horrenbestez ondorioztatzen du kontzientziaren forma eta produktu guztiak disolbatu egin daitezkeela, ez kritika intelektualari esker, ez «autokontzientziaren» baitako ebazpenez, edo «agerpenetan», «espektroetan», «asmamenetan» eta abarretan eraldatzeagatik, baizik eta asmakeria idealistari abiada

eman zioten benetako harreman sozialen itzulikatze material soilari esker. Iraultza da, eta ez kritika, historiaren indar bultzatzailea, erlijioaren, filosofiaren eta beste teoria mota guztien indar bultzatzailea den bezala.

*Ideologia alemaniarra*

Pasartea ezagunegia da azalpen gehiegi behar izateko. Erraz identifikatzen den «inberstio» hegeliarra darabil: «ez du praktika azaltzen ideiatik, baizik eta ideien formazioa azaltzen du praktika materialetik». Formazio sozialen maila ezberdinak identifikatzen hasten da. Ohartu maila horiek —oinarri/superestrututura metaforaren ernamuina osatzen dutenak— izatekotan, *hiru* maila balira bezala agertzen direla, eta ez bi. Ezberdintasuna garrantzitsua da, daukan trinkotasunagatik testuak mailak batera jartzeko joera badauka ere. Lehenengo, «bizitzaren produkzio material hutsa [...] eta produkzio horrek sortutako eta produkzio horri lotutako ugalketa modua» dago. Ondoren —nolabait esateko, errepresentazio maila ezberdin baina loturadun batean— dago «gizarte zibila [...] eta baita estatu gisa daukan eragina». Eta ondoren, azpimarratzea merezi duen beste erdi-bereizketa bat dago: «kontzientzia forma eta produkzio teoriko ezberdin guztiak [...], erlijioa, filosofia, etika, eta abar». Ohartu, hemen ere, «determinazio» printzipioa modu askotarikoan irudikatzen dela: «lotutako»; «sortutako»; «daukan eragina»; eta beste.

Formulazio klasiko hori berriro agertuko da sarri aipatutako pasarte batean formarik trinko eta motzenez, argi eta garbi zoru kontzeptual beraren gainean eraikita (baina kasik hamar-kada beranduago, eta gutxienez *Kapitalaren* lehenengo liburua izango zenaren bigarren zirriborroarekin zebilen Marx batek idatzita). *Grundrisseari* eginiko «1857ko sarrera» konplexuago, teorikoago eta zailagoa ordezkatu zuen *Politika ekonomikoaren* kritikari (*Zur Kritik der Politischen Ökonomie*) egindako «1859ko hitzaurrea» testutik hartuta dago hurrengoa:

Gauzatzen duten produkzio sozialean, gizonak nahimen propioetik askeak eta ezinbestekoak diren harreman zehatzetan hartzen dute parte, eta produkzio-harreman horiek produkzio-indar materialen garapen fase zehatz bati erantzuten diote. produkzio-harreman horien osotasunak osatzen du gizartearen estruktura ekonomikoa. Horixe da oinarri erreala zeinaren gainean superestrututura politiko eta legala eraikitzen den eta zeinari kontzientzia sozialen forma zehatzak dagozkion.

Bizitza-materialaren produkzio-moldeak determinatzen du soziala, politikoa eta espirituala denaren izaera orokorra. Ez du gizonen kontzientziak determinatzen izatea, baizik eta alderantziz, izate sozialak determinatzen du daukaten kontzientzia.

Politika ekonomikoaren kritikari hitzaurrea

Paragrafo trinkoegi baina argigarri horrek oinarri/superestruktura arazoaren elementu guztiak barnebiltzen ditu Marxek *Kapitalaren* lehenengo liburukia prestatzen hasteko momenturainoko garai trantsizionalaren erdian formulatu zituen eran. Bertan, faktore determinanteak ez dira soilik produkzio materiala eta haren harremanak. «Dagozkien» harreman sozialak ere *emanak* daude, hau da, zehatzak, ezinbestekoak, eta gizakiaren nahimenetik independenteak dira: produkzio-molde sozialaren baldintza objektiboak dira. Horiak guztiek, baldintza determinatuen arabera, *fase* bat osatzen dute. Horiexek dira —molde material eta produkzio-harreman horiexek— «estruktura ekonomiko» izendapena jasotzen dutenak. «Oinarri erreala» sortzen dute. Oinarri horren gainean eraikitzen dira superestruktura legal eta politikoak. Eta *horri* dagozkio produkzio teorikoak eta kontzientzia sozialaren forma zehatzak.

### **Marxen «historizismoa»**

*Ideologia alemaniarrako* eta «1859ko hitzaurreko» formulazioek era argian erakusten dute gaur egun Marxen *historizismoaren* lorratz gisa identifikatuko litzatekeen hori. Hau da, oinarriari —zoruari, funts errealarari— ematen zaio nagusitasun determinatzailea, eta edozein formazio sozialen beste mailak oinarri horri estuki lotuta garatzen dira: harreman hori norabide bakarrean adierazita ez badago ere («eta ondorioz, baita alderdi horietako bakoitzaren elkarrekiko eragina ere»); eta maila batego aldaketak beste mailetak defase bati lotuta badaude ere («superestruktura erraldoi guztia *gutxi gora behera azkar* eraldatzen da»). «Oso tasun gisa erakusten den aztergaia» determinazio orokor baten arabera dago pentsatuta. Gizartearen estruktura ekonomikoko aldaketek, «*gutxi gora behera azkar*», dagozkien aldaketa zehatzak produzituko dituzte superestruktura legal eta politikoetan, eta «forma ideologikoetan, zeintzuetan gizonek gatazkaren kontzientzia hartzen duten eta borrokari ekiten dioten» —hori ere, maila ideologikoan—.

Althusserrek argudiatuko luke osotasun soziala funtsean «osotasun adierazkor» gisa kontzeptualizatzen dela, eta itxurazko mailak eta ezberdintzeak gora-behera, azkenean «oinarriko» kontraesanak uniformeki hedatzen direla, eta goiz edo berandu islatuko direla, dagozkien eraldaketen bitartez, superestrukturatan eta forma ideologikoetan. Hortaz, formazio sozialen kontzeptualizazio hori «esentzialista» da oraindik. «Historizista» ere bada, Althusserren ustez «produkzio teorikoen» eta «forma ideologikoen» artean banaketa gutxi edo batere egiten ez duelako; eta maila teorikoa oinarri materialaren isla gisa edo «haren araberakoa» balitz bezala erakusten duelako. Itzuliko gara beranduago Marx «historizistari» egindako kritika horrek daukan indar eta pisura. Baina Althusserrek idatzitako *Marxentzaten (Pour Marx) Ideologia alemaniarra* erakusten zaigu Marxen lanaren baitan «haustura» gisa eta «trantsizio» garaiko lan bezala. Esaten zaigu Kapitalan formazio soziala kontzeptualizatzeko modu erabat ezberdina produzitzen duen dialektika eraldatu batek ordezkaturiko duela. Merezki du, beraz, ohartzea non eta noiz berragertzen den berriro formulazio goiztiarra Marx helduaren lanean (guztiarekin ere, «1859ko hitzaurrean» agertzean jada, Marx goiztiar eta bitartekoaren, eta «berankoraren» arteko haustura epistemologiko gisa ezagutzen den horretara berandu samar iristen baita).

Kapitalako hirugarren liburukiko pasarte batean, Marxek glosa interesgarri bezain garrantzitsua idazten du, eta hala ere, ezberdina da *Ideologia alemaniarrekin* konparatuz gero, batez ere formulazioaren trinkotasunari dagokionez:

Zuzeneko produktoreetatik ordaindu gabeko gainlana ponpatzeko forma ekonomiko zehatzak determinatzen du dominazio eta mendekotasun harremana, hain zuzen ere, produktiotik bertatik sortzen delako eta jarraian produkzioan eragiten duelako. Oinarri horren gainean, hala ere, komunitate ekonomiko osoaren estruktura dago eraikita, zeina produkzio-baldintzetatik at hazi egiten baiten, eta ondorioz forma politiko zehatzetik kanpo. Produkzio-baldintzen jabeen eta zuzeneko produktoreen arteko harremana da beti eraikin sozial guztiaren oinarri ezkutua, sekreturik intimoena ezagutzera ematen duena, eta beraz, labur esateko baita estatuaren forma jakin baten subiranotasunaren eta dependentziaren arteko forma politikoaren oinarria ere.

Aipu horretan «dominazio eta mendekotasun» harremanek, oraingoan produkzio kapitalistan gainbalioa erazteko moduaren arabera askoz ere zehatzago definituta daudenek, ezagutarazten dute «eraikin sozial guztiaren oinarri ezkutua, sekreturik intimoena». Ondorioz, eraikin sozialak dauzkan forma politikoak ezagutarazten ditu, eta beraz estatuaren formak berak. Beste pasarte esanguratsuago batean, *Kapitalaren* lehenengo liburukiko «Merkantziak» kapituluko oin-ohar luze eta garrantzitsuan, Marxek «1859ko hitzaurrean» esandakoak aipatzen ditu. Aldaketarik gabe —eta adostasun argiz— aipatzen du hitzaurrea. Testuingurua eta garapena ere garrantzitsuak dira. Kritikari alemaniar batek Marxen «1859ko hitzaurrea» aipatu zuen, eta aro kapitalistan «ekonomikoa denaren» nagusitasuna aitortuta ere, ukatu egin zion funtzio determinatzailea garai feudalerako eta antzinaro klasikorako, horietan «politikak goren erreinatzen» zuelakoan. Marxek erantzun gisa, oinarritzko premisa adierazi zuen berriro: «estruktura ekonomikoa» da «oinarri erreala» (gogoratu behar dugu, hala ere, «estruktura» hori jatorrizko formulazioan era sinple eta murriztuan erabiltzen zen bitartean, oraingoan besterik gabe «estruktura» horren formak eta harremanak zeintzuk diren gogoetatzeari emandako lan izugarri landu eta oro hartzaile baten testuinguruan berreskuratzen dela). Erdi aroak, jarraitzen du Marxek, ezingo zuen soilik katolizismotik bizi, ezta Erromak soilik politikatik ere.

Hala ere, gehitzen du «bizimodua ateratzeko moduak azaltzen du[ela] zergatik bete zuen egiteko nagusia batean politikak eta bestean katolizismoak» (*Kapitala*, lehenengo liburukia). Hor-taz, aro guztietan produkzio-moldeak egiteko determinatzailea badauka ere, egiteko hori beste praktika-maila batzuei (politikari eta erlijioari, hau da, ideologiari) «egiteko nagusia» esleitzea dela agertzen da testuan (horrexeri esan zaio «egiteko *dominantzailea*»). «Ekonomikoa denak eragindako determinazioaren» arazoa formulatzeko bide berria da hori, «superestrukturei» askoz ere arreta handiagoa ematen dien bide bat (superestruktura batzuk, orain, aro batzuetan, dominantzaile izan daitezke). Argudiaketa, jada, «1859ko hitzaurrean» dago aurreratuta, Marxek proposatzen baitu «gizarte forma guztietan produkzio mota jakin bat dago[ela], zeina besteen artean gailentzen baiten, eta ezartzen dituen harremanek sailkatzen dituztela besteenak eta eragiten

diela besteinei [...] eter berezi batek determinatzen du barruan materializatzen den izaki bakoitzaren pisu zehatza» (*Grundrisse*).

Horiek dira, noski, bi iturri nagusiak instantzia «determinatzaile» eta «dominantzaileen» arteko bereizketa althuseriarrarentzat. Eta beraz, iturri nagusiak dira baita Marxek, beranduagoko lanean, formazio soziala osotasun adierazkor huts gisa pentsatzeari utzi egin ziola zioen tesiarentzat ere. Beranduago itzuliko gara argudiaketako biraketa garrantzitsu horretara.

*Ideologia alemaniarra* «saguen kritika setatira» igortzen den garaiaren eta «1859ko hitzaurreak» «1857ko sarrera» ordezkaten duen momentuaren artean gertatzen dira, lehenengoz, oinarri/superestruturara arazoaren formulazio erabakigarriak, eta ematen zaie, gutxienez, forma deliberatu eta aski iraunkor bakarra. Beranduago ordezkaturata eta eraldaturata zein ez, orduko formulazioek bulkada erradikala eman zioten pentsamendu marxista guztiari formazio sozialak kontzeptualizatzeko moduaren eta daukaten batasuna «miazteko» moduaren auzian. Laburbildu dezagun.

Garaiaren ekorketa historiko zabalari buruzko problematikaren baitan daude testuak birformulatuta. Ekorketa horretan, lehenik, produkzio-moldeari hasierako definizioa ematen zaio; bigarrenik, determinazio posizioa ematen zaio estruktura eta eraikin sozial osoari dagokionez. Jadanik, produkzio-moldea ez dago kontzeptualizatuta harreman ekonomiko hutsez osaturik, ezta «teknologia maila» bezalako materialtasun xaloko zerbaitekin osaturik egongo balitz bezala. Aldiz, harremanen konbinazioz osaturata kontzeptualizatzen da: indar produktiboz eta produkzio-harreman sozialez. Indar eta harremanok osatzen dute, aro bakoitzean, ardatz determinatzailea, eta ardatz determinatzaile horretan produzitzen eta erreproduzitzen dira bizitza soziala eta existentzia materiala. Oinarri horren gainean eraikitako estrukturak, ardatz produktibotik eratortzen diren harreman sozialak gorpuztu eta artikulatzen dituztenak, bat datoz oinarriarekin. Izan ere, «harreman bikoitzean» aldi berean sortzen dira biak, produkzio materiala eta soziala. Gizonak, lanaren banaketaren bitartez eta bizitza material propioa erreproduzitzeko helburuarekin, garabidean dauden produkzio-indarren bitartez naturan esku hartzeko progresiboki elkartzen

diren bezala, momentu berean erreproduzitzen dituzte gizonek harreman sozialen estrukturak eta erreproduzitzen dituzte baita haien buruak ere norbanako sozial gisa. Ezin dira biak banandu, azken buruan lehenengoak bigarrenaren forma determinatzen badu ere. Zehazki, «harreman bikoitza» asintotiko gisa kontzeptualizatuta dago harreman sozialak «indar produktibo» bilakatzen direlako progresiboki produkzioan. Harreman sozial horiek produkzioan errotuta eta produkzioak gidatuta garatzen diren heinean artikulazio bereizia lortzen dute: harreman politiko eta legeletan gorpuzten dira. Estatuaren forma determinatuei egiten diete bidea («existitzen diren produkzio-harremanek ezinbestean adierazi behar dituzte haien buruak baita harreman politiko eta legal gisa ere»). Gizarte zibilaren izaera definitzen dute («soilik VIII. mendeko 'gizarte zibilean' egiten diote aurre konektagarritasun sozialaren askotariko formek helburu pribatuetarako bitarteko huts gisara, kanpo-beharrizan gisara, ulertutako norbanakoari»: «1857ko sarrera»). Alor teoriko eta diskurtso propioak produzitzen dituzte (erlijioa, filosofia eta beste) eta «determinatu egiten dituzte kontzientzia sozialaren formak». «Harremanen adierazpenak izanik ere, harremanok hartzen duten existentzia independentearen nahitaezko ondorioa da kontzeptu horiek indar misterioitsu gisa onartzea». Puntu horretarantz zegoen, egiazki, *Ideologia alemaniarren* ibilbide guztia bideratuta —idealista alemaniarren espekulazioen oinak gizonaren «historia profanoaren» lurretara jaisterantz—.

Esandakoak ez du onartzen superestrukturen islagarritasun murriztik edo sinplerik, hainbeste birformulazioen atzean dagoen *bultzada* iraunkorra eta nahastezina bada ere. Eta agian azpimarratzekoa da beranduagoko lanketetan Marxek auzian pentsatu zuenetan, aldatu zuena produkzio-moldeen determinazioa ulertzeko *modua* izan zela, eta ez produkzio-moldeak determinatzen zuenez. «Determinazioen» eremua abandonatzen dugunean, ihes egiten diogu, ez soilik Marxen fase honi ala besteari, baizik eta Marxen problematika guztiari. Horrez gain, determinazioaren auzia adierazteko forma nagusia «ekonomikoa denak» dakarren superestrukturen determinazioa bada ere, ohartzekoa da bigarren eredu batekin ere adierazten dela batzuetan. Hau da, determinazioa murrizteko joera dago, ez «ekonomikoa denera», baizik eta Historiara bere horretan —

praxira: funtsezko zoru gisa formazio sozial guztira hedatzen den bereizketarik gabeko *praxi* batera—. *Ideologia alemaniar*rako pasarte batzuk ez daude batera urrun *Familia santuako* (*Die heilige Familie*) hurrengo baieztapen humanista-historizistagotik: «historia ez da gizonen jarduera besterik». Beraz, dauzkan formulazioak laburrak badira ere, *Ideologia alemaniarra* aldi berean da materialismo historikoaren testu goiztiar klabeetako bat, eta espektroen gisan atzetik dauzkan problematika kontzeptual bat baino gehiagok ilundutako testua.

### **Engelsen gutunak materialismo historikoari buruz**

*Ideologia alemaniar*rako marxismoak daukan oinarri/superrestrukturaren azuia kontzeptualizatzeko moduaren arazoak zeintzuk ziren ondoen ulertzeko bideetako bat da Engels ikustea testuaren ondorioekin borrokan. Horixe egiten du bere eta hurrengo belaunaldiko marxista beterano zenbaitekin posta-truke luzeetan, Marx hil eta hurrengo bi hamarkadetan zehar, Marx eta Engelsen *Lan hautatuak* (*Selected works*) lanean irakurri daitekeen bezala. Marxen lan argitaragabe zabala editatzeaz eta biltzeaz gain, Engels bilakatu zen Marx eta bien oinordetza bateratuaren zaindaria eta interpreterik pribilegiatuena. Momentu eta egiteko klabea izan zen hura «nolabait, Marxengandik marxismorako trantsizioa markatu zuelako eta momentu formatzailea eman zielako Bigarren Internazionalako interprete marxista nabarmenenei eta Hirugarreneko gidari gehieneni» (Stedman Jones). Marxek, batez ere, produkzio-molde kapitalistari buruzko lanari ezarri zizkion oinarriak. Baina ez zuen utzi «estatu burgesaren superrestruktura buruzko antzeko teoria politikorik, ezta estatu hori irauliko lukeen langile-klasearen alderdiaren borroka sozialista iraultzailerako estrategiari eta taktikei buruzkorik ere» (Anderson 1976). Ez zituen eman, ezta ere, «mundu ikuskeradun» materialismo historikoaren adierazpen orokor sistematikorik. Engels saiatu zen bi omisioak onbideratzen —eta horrek «garpena baino gehiago, Marxen oinordetzaren osaketaren» zentzu orokorra eman zion egitekoari (Anderson 1976)—.

Ekonomia azken buruan determinatzailea zela ezarri zuen Marxek, baina superrestrukturek sinpleki oinarrira murriztu ezin zitekeen «efektibotasun» propioa zeukatela. Hala ere, «biak konektatzeko mekanismo estruktural zehatza ez du

inoiz argitzen Marxek» (Stedman Jones). Arazo hori argitzea izan zen Engelsen egiteko urgentziazkoena eta garrantzitsuena; are gehiago «zientzia positiboen» alor orohartzailea azkar irensten ari zelako marxismoa, eta determinismo ekonomiko hutsera murrizten zuelako oinarriaren isla automatiko eta zurbil gisako superestrukturekin —zoritxarrez, Bigarren Internazionalaren bertso ofizial gisa ezartzeko patua izan zuen joera horrek—. Engelsek alferrik borrokatu zuen halako erredukzionismoaren aurka. Baina funtsean Marx eta bien *Ideologia alemaniarraren* garaiko formulazioak oinarri hartuta borrokatu zen. Eta lortutako garapenak eta argibideak hain justu formulazioaren lehenengo forma hartan produzitutako tresna eta instrumentu kontzeptualei helduta egin zituen. Hau da, funtsean ezker hegelianismoak ikutu gabe utzi zituen premisa idealisten inbertsioa zen —dialektika hegeliarra hankaz gora jartzen zuen, eta zeukan alderdi «iraultzailetik» egiten zuen lan—. Gutunetan, Engelsek adorez eta kemenez borrokatu zuen oinordetzarekin, eta sarri baita elegantziaz ere. Alabaina muga kontzeptualak bizkor ari ziren agerian gelditzen.

*Ideologia alemaniarrak* eskema historiko orokor bat proposatu zuen: baina halako eskemak ortodoxia abstraktu eta zurrunean gotortzeko arriskua ekarri zuenean, Engels behartuta egon zen «historia oro berria balitz bezala aztertu behar d[ela]» azpimarratzera eta Marxen materialismoa «ez d[ela] hegeliismoaren erara ezer eraikitzeke palanka» (Engelsek Carl Schmidt-i, 1890eko maiatzaren 8an). «Ekonomikoa denak eragindako determinazioa[rekin]» buruz buru, Engelsek espazioa egin behar zion «elementu guztien interakzioa[ri]» eta baita «gertaera olde amaigabea[ri]», horien bitartez «beharrezko gisa bermatzen baitu bere burua, azkenean, mugimendu ekonomikoak» (Engelsek J. Bloch-i, 1980ko irailaren 21etik 22ra). Erruaren parte bat ere onartu egiten du Engelsek («Marx eta biok gara neurri batean errudunak») guztia ekonomikoa dena murrizteko joerarengatik, eta ezikusiarrena egiteagatik superestrukturek eta forma ideologikoen «borroka historikoen norabideetan eragiteko» daukaten efektuari. Kontingentzia eta beharrianaren arteko jolasa, «emaitza bakarrari bidea egiten dioten indarren paralelogramoen serie infinitua», «bitarteko kolektibo bakarraren, emaitza komun bakarraren baitako» nahimen indibidual askoren intersekzioa:

saiakera ausartak dira guztiak jatorrizko problematikan inplizitu zeuden zenbait arazo ekiditeko (Engelsek Blochi). Engelsek Schmitti idatzitako gutun luze eta xehetasunez beterikoa (1876ko urriaren 10ekoan) aurrerapen probokatzaile eta erabilgarri zenbait daude, zehazki, superrestrukturako legearen eta estatuaaren instantziez dihardutenak eta merezi dute aurrerago galdekatzea.

Baina posta-truke horri dagokionez, ezin gara gehiegi urrundu Althusserrek egindako ebazpenetik *Marxentzateko* «Kontraesana eta gaindeterminazioa» saiakerari emandako «Eranskin» argitzailean. Iradokitzen du, indarguneak asko badi-tu ere, Engelsek posta-trukean konponbide teorikoa aurkitzeko egindako saiakerek konponbidea oraindik eskura ez dagoela erakusten amaitzen dutela nagusiki eta konponbidea aurkitzea zein zaila den gogoraztekoa. Althusserrek iradokitzen duenez, arazoa da: nola pentsatu produkzio-harremanen eta forma politiko, juridiko eta ideologikoen arteko harreman zehatzak, aldi berean, «ekonomikoa denak eragindako azken buruko determinazioa» eta superrestrukturen «autonomia erlatiboa» edo efektibotasuna antzemateko moduan. Engelsek badaki zein den galdera. Baina ez dio ematen konponbide gogobetegarririk.

*Ideologia alemaniarraren* «ondorengo bizitzako» formulazioei Marxen heriotzatik harago jarraitu diegu arrastoa, neurri batean, tradizio marxistaren baitan oraindik daukan —eta izan behar duen— indar eta oihartzun teoriko etengabea erakusteko modua delako. Baina kontua da formulaziook eraldatzen eta ordezkatzeko hasita zeudela jada, esplizituki ez bazen inplizituki, Marxen bizitzan zehar, «guztiz teorizatuta» ez bazen ere, idatzitako lan berankorraren muge barruan paradigma alternatibo bateko elementuak erabiltzeari ekin baitzioten. Momentuko eraldaketa horren hiru modu edo norabide identifikatu ditzakegu.

Lehenengoa, jaiotzen zebiltzan borroka proletariarrei 1848ko iraultzek ez zietela ebazpen bizkorrik ekarriko argi gelditu ondoren, Marxek berak idatzitako idazlan politikoetan topatzen dugu —batez ere, *Brumairearen hemezortzian* (*Der achtzehnte Brumaire*), *Klase-borrokak 1848tik 1850erako Frantzian* (*Die Klassenkämpfe in Frankreich 1848-1850*) lanean, eta Britainiari buruzko ohar menturazkoagoetan—. *Erbesteko miaketak* (*Surveys from exile*) bildumako idazlanetatik ari naiz hemen tiraka eta baita David Fernbach-ek eginiko sarrera bikainetik. Idazlan horietan Marx

ez dabil lanean formazio sozial konkretuekin bakarrik. Arreta superestrukturaren mailari ari zatzaizkio ematen —instantzia politikoa— horien bestez, idazlan horiek birformulazio teoriko orokorrik egiten ez badute ere, Marxek «superestrukturen efektibotasunari» buruz zehazki nola pentsatzen zuen ezagutarazten digute.

Bigarrenik, Marxen ohar kriptikoak daude «1857ko sarrearen» amaieran: «Estatuaren formak eta kontzientzia formak produkzio-harremanei eta zirkulazioari dagokienez. Harreman legalak. Familia harremanak» izenburu tentatzailea daukate. Laguntzeko epigramatikoegiak eta trinkoegiak dira gehiegitan. Baina erakusten dute Marx ohartzen zela zailtasunaz; eta kriptikoki izanik ere, «garapen desorekatuaren legearen» funtsezko identifikazioa egiten du.

Hirugarrenik, noski, *Kapitalaren* beraren eraikuntza teoriako monumental osoa dago. Esan dugun bezala, ez dago *Kapitalan* pasarte luzerik, zeinetan «produkzio-molde kapitalistaren mugimenduaren legeak» formazio sozialaren beste mailetara hedatzen diren. Baina garrantzi izugarriko argibide eta aztarnak daude hedatze-lan hori nola egin zitekeen pentsatzeko, Marxek berak jorratutako kapitalaren sekretuen deszifraketa oinarri hartuta. Denek batera ez dute oinarri/superestruktura arazoaren berrazterketa sakona egitea lortzen. Baina, labur-labur, osagabea izanik ere, argitze teoriko gogoetatsu garrantzitsua osatzen dute.

### **Brumairearen hemezortzia**

Momentu horietako bakoitzari hurrenez hurren labur-labur erreparatu baino lehen, egiten ari garen argitze-lan amaitugabea norantz doan laburtu dezakegu hemen modu erabilgarrian. Zabarki adierazita, *Ideologia alemaniarra* oinarritik superestrukturara doan harremana pentsatuta dago aski zuzen eta nolabaiteko berehalako korrespondentzia bat bezala —hau da, *identitate* teoriaren markoaren barruan dago—. Marxek progresiboki *identitate* teoria kritikatu egingo du eta urrundu egingo da posizio horretatik. Funtsean, bi gauzak eragiten dute «haustura» hori. Historikoki, maila ekonomikoan biderkatzen ari diren antagonismoek ez dute «dagozkien» konponbide politikorik lortzen 1848ko iraultzetan. Marx beraz behartuta dago, ez soilik *Manifestu komunistan* (*Das Kommunistische Manifest*) hil-kanpai joka

erakutsitako «berehalako hondamendiaren» ikuspuntua alde batera uztera, baizik eta baita politikoa eta ekonomikoa denaren arteko interakzio konplexua berriro aztertzeraren ere. Behartuta dago «konponbideak» maila politikoan aurkitzeko moduak pentsatzera maila ekonomikoa metatzen ziren kontraesanak galarazteko, aldatzeko, edo are lekualdatzeko —zeukaten forma kontraesankorrean garapen maila jasoagora eramateko—.

*Brumairearen hemezortzia* da ekonomikoa denarekin harremanean, instantzia politikoak daukan «efektibotasunari» eta zehaztasunari buruzko aipatutako analisia egiten duen adibide klasikoa. «Bertan Marx, lehenengoz hasi zen zalantzarik gabe klase-borrokarenak ziren —produkzio-moldeen arabera definitutako taldeen eta interesen borrokenak ziren— politikaren fenomenoak behar bezala ulertzeko kontzeptu multzo sistematikoa garatzen, baina guztiarekin ere politika izaten jarraitzen zutenak, hau da, izaera zehatza ideologiaren eta hertsaduraren eremuan praktikatzeak ematen zietenak» (Fernbach). Ikuspuntu konplexuago eta luzeago baten emaitza zuzena zen hori, 1848ko porroten atarramentutik sortutakoa. Gwyn William-ek bikain azaldu du berriki, *Brumairearen hemezortziaren barne* irakurketa eginez, «haustura» historiko hori «haustura» analitiko gisa zehazki nola eta non erregistratzen den Marxen testuaren baitan bertan. Engelsek gero nabarmenduko zuen 1848an, Marx eta biak okertu egin zirela kapitalismoaren *hil-arnasestuak* ikusi zituztelako *erdiminen* lekuan.

Baina haustura eraginda dago baita teorikoki ere. Izan ere, Marxek zenbat eta sakonago aztertu produkzio-molde kapitalista, orduan eta argiago behatzen zituen modu horrek zeuzkan lege eta harremanen barne konplexutasunak; eta orduan eta gutxiago pentsatzen zuen osotasun konplexu hori zirkuatuen arteko berehalako korrespondentziak azaldu zezakeenik, eta are gutxiago osotasun horren mailetako baten eta beste maila guztien arteko korrespondentziak. Berrikuspen izugarri handi horren adibidea da, nola ez, *Kapitalaren* estruktura kontzeptuala bera. Baina «1857ko sarreran» dago teoria eta metodo gisa adierazita, zeinak «identitate teoriaren» kritika zorrotza dakarren eta alternatiba marxista bat zirriborratzeari ekiten dion —berehalako korrespondentzian ez dauden harremanen arteko *artikulazioen* teoria bat—. Ezin dugu teoria hori hemen aletu, baina nolabait

esatearren, trantsiziozko momentu erabakigarria da *Ideologia alemaniarraren* eta *Kapitalaren* artean (ikusi Hall horretarako).

Hortaz, garai honetan, Marxen «argitze» lanek norabide berri baterantz zuzentzen digute arreta. *Nahitaezko konplexutasunarekin* dago orain arduratuta: aitzinatzen ari den kapitalismoaren formazio sozialen eta maila ezberdinen arteko harremanen *nahitaezko konplexutasunarekin*. Arduratuta dago, guztiarekin ere, konektatua dirauten mailen arteko «desorekarekin», hau da, berehalakoak ez diren korrespondentziekin. Arduratuta dago, zehazki, superestrukturek «betetzen» dituzten funtzioekin harreman sozial kapitalisten mantentze eta erreprodukzioan, edo garapenaren atzeratzean; eta ez soilik funtzio horiek gero eta forma konplexuagoetan agertzen direlako, baizik eta, daukaten garapeneko fase jakinen batean posible delako erakusten duten berehalakotasun eza —«autonomia erlatiboa»— benetan izatea *beharrezkoa*. *Ideologia alemaniarraren* garaiko problematikekin konparatuz gero, ezberdina da hori. Ezberdina da, baita ere, oinarri eta superestrukturen arteko islagarritasun katea era simple eta linealean hedatzeko Engelsek egindako ahaleginekin konparatuz gero (bereziki posta-trukean agertzen diren horiekin, beranduago iradokiko dugun bezala, Engelsek beste nonbait ekarpen erabilgarri zenbait egiten baitizkio Marxen problematika berriari).

*Brumairearen* hemezortziari, hots adibiderik «landuenari», labur-labur begiratu bat eman baino lehenago, Marxen problematika berriaren eremua osatzen duten arazoak identifikatu ditzakegu zenbait iturritatik.

1852an *New York Daily Tribune*-rako abiatutako artikulua segida batean, Marxek politika britainiarra aztertu zuenean, egitate setatsu bati egin behar izan zion aurre. Hau da, goraka egiten ari zen burgesia industrialarekin batera produkzio-molde kapitalista bizkor garatzen ari bazen ere, agerian zegoen burgesia horrek ez zuela «agintzen», ez lur jabe handien ordezkaria zen alderdi kontserbadorearen bitartez, eta ezta ere «lur jabe ingelesen artean talderik zaharrenak, aberatsenak eta harroputzenak» eta «klase ertain industrial eta komertzialaren [...] eledun aristokratikoek» osatutako Whig alderdiaren bitartez. Horientzat guztientzat burgesiak abandonatu egin zuen «gobernuaren monopolioa eta presidentetzaren jabetza eksklusiboa».

Funtsezko arazoa zen ulertzea kapitalak nola egin zuen aurrera konfigurazio politiko konplexu horretan — eta «klase ekonomikoki agintariaren» eta superestruktura politikoen mailan «kasta politikoki gobernatzailearen» arteko bereizketa egiteari ekin zion—. Izan ere, politika britainiarraren dinamika (eta Whig eta erradikalen arteko aliantzei lotuta jarraitzen zuen heinean baita langile-klasearen politikak ere) etengabe zegoen kapitalaren estrukturan bitartez baldintzatuta —desbideratuta— (*Erbesteko miaketak*). Benetan, Fernbachek ohartarazi duen bezala, Marxek Frantzia baino askoz ere txarrago ezagutzen zuen Britaina politikoki. Ez zuen inoiz guztiz ulertu, akordioaren ondoren, bizitza politiko britainiarra egonkortu zuen konpromiso sakona. Uste zuen, azken finean, hedatu ahala guztia eraldatuko zuela burgesia industrialak eta zuzenean hartuko zuela boterea «eta Ingalaterra zaharra puskatan txikitu[ko]» zuela. Egitan, «burgesia industrialak bloke agintari zaharrean integratzea lortu zuen politikoki eta kulturalaki, eta 'maskara' aristokratikoak gutxienez mende erdi gehiagoz jarraituko zuen kapitalaren agintea kamuflatzen eta mistifikatzen» (Fernbach). Baina Marx garapenaren bideari zegokionez okertu egin bazen ere, ez zuen hutsik egin auzia kokatzeko orduan: auzia, funtsean, identitate eza zen maila ekonomikoan nagusitasuna zeukaten klaseen, eta politikaren eta estatuaren mailan boterean zeuden fakzioen artean.<sup>169</sup>

Hartu superestrukturaren beste alorretako bat. *Hegelen zuzenbidearen filosofiari kritika (Zur Kritik der Hegelschen Rechtsphilosophie)* liburuan, Marxek ohartarazi zuen legeak «produkzio-molde jakin bat betikotzeko» balio zuela; baina azpimarratu zuen «bereizita aztertu behar direla, batetik, existitzen diren banaketa baldintzak mantentzeko legeek daukaten indarra, eta bestetik, legeok horrenbestez produkzioan daukaten eragina». Engelsek oihartzuna egin zion sentimendu horri *Feuerbach eta filosofia alemaniar klasikoaren amaiera (Ludwig Feuerbach und der Ausgang der klassischen deutschen Philosophie)* liburuko estatuari, legeari eta ideologiari buruzko atal luze eta interesgarri batean. Ingalaterrak lege feudal zaharraren formak mantendu zituela erakutsi zuen, legeoi eduki burgesa ematen zitzaien bi-

---

169 Ikusi Anderson, «Origins of the Present Crisis»; Nairn, «The English Working Class», «The British Political Elite», «The Anatomy of the Labour Party I», eta «The Anatomy of the Labour Party II»; eta Thompson, «The Peculiarities of the English».

tartean. Erakutsi zuen beste nonbait erromatar zuzenbidearen oinarriak erabili zirela harreman legal burgesentzat: agerian geratu zen «legearen kode berezi bat osatzeko» lana Prusiaren garapenerako oinarri eskasa izan zela, baina —«Code civil» gisa eraldatuta— oinarri izugarri lagungarria izan zela Frantziarentzat. Hortaz, gizarteko bizitza ekonomikoaren baldintzak «arau legal burgesek» forma legalarekin «adierazi besterik» egiten ez badituzte ere, egoeraren arabera, lagundu ala kontra ere egin dezakete. Pasarte berean, Engelsek adierazten du superstrukturaren esfera gisa artikulazioa lortzeko, ezinbestekoa dela gertaera ekonomikoentzat «motibo juridikoen forma hartzea», eta horrek daramala esfera juridiko oso baten formaziora, hau da, eraginkortasun propiodun ideologia legalen multzo konplexuaren formaziora. «Egiazki, politikari profesionalen, zuzenbide publikoko teorialarien eta zuzenbide pribatuko juristen artean galtzen da gertaera ekonomikoekin dagoen harremana» (*Feuerbach eta filosofia alemaniar klasikoaren amaiera*). Ez da beraz harriztekoa harreman legalei lotuta aurkezten duela Marxek «garapen desorekatuaren legea»: «baina hemen eztabaidatzeko benetan zaila den gaia da nola garatzen diren produkzio-harremanak *modu desorekatuan* harreman legal gisa. Hortaz, adibidez, erromatar zuzenbide pribatuak [...] produkzio modernoarekin daukan harremana» (*Grundrisse*). Zalantzarik ez dago gai hau Marxek garatu izan balu, esate baterako, Kapitalako lehen liburukiko lehenengo atalak daukan luzera berarekin, erakutsiko ez lukeen zerbait dela *korrespondentzia*zko lege simple bat oinarri materialaren eta superstrukturaren formen artean.

*Brumairearen hemezortzia* auziaren testuinguru horretan kokatzea, beraz, aski sinplea da —egiten duen argudiaketa jarraitzea edo laburbiltzea sinplea ez bada ere—. Frantziako 1851ko krisiaren politikai buruz dihardu batez ere: sortzen diren erregimen politikoaren eta estatuaren formei buruz; «konponbide» bonapartistaren izaerari buruz; eta bigarren maila batean, produkzio-molde kapitalista industrialaren garapenak sortutako kontraesanen metaketak zeukan ideologiako oinarriari buruz —«Napoleonen ide[i]» buruz—. Azken hori, hala ere, lehenengoaren bitartez errefraktatu egiten da hemen: instantzia politikoa da lehen planoan dagoena, 1851n politika izan baitzen «agintea hartu» zuena. Produkzio-molde frantsesa garatzen ha-

sia dago, eta antagonismo propioak ari da jaurtitzen. Garapen berri horri lotutako klase frakzioak eszenatoki politikoan daude jadanik; baina hortxe daude, baita, gainbeheran bada ere, produkzio-molde bizirauleak errepresentatzen dituzten frakzioak, eta formazio sozial frantsesean kapital industrialarekin batera existitzen dira oraindik. Argudiaketaren funtsezko pausua da 1851ko konplexutasun politikoak zerikusia izatea produkzio-moldeak batera existitzearekin, oraindik produkzio-moldeetako batek ere nagusitasun beterik izan gabe. Zentzu batean, beraz, 1851ko krisi politikoa produkzio-moldearen mailan ematen da. Ikusi daitekeenez, produkzio-molde kapitalistaren garapen fasea bera da (kasu honetan, azpigarapena da) epe luzera, fase horretako krisiari eman ahal zaizkion «konponbide» aukerak aurrezartzen dituen (baterako zein besterako ebazpen argirik gabe) —hau da, aukerak determinatzen ditu zentzu historikoan—. Zalantzarik gabe egiten ez duena da koiuntura politikoaren edukia eta formak zehazki aurrezartzea. Abenduko krisia erregimen ezberdinen segida batean gertatzen da, eta klase frakzioen koalizioaren aldaketa errepresentatzen du bakoitzak. Egin eta desegin, estatu napoleonikoaren eduki politikoa aldatu egiten zen egunero. Koalizio bakoitzak behin behineko erregimen formen segidari egin zion bidea: errepublika soziala, errepublika demokratikoa, errepublika parlamentarioa. Soilik horietako bakoitzaren hegemoniarako aukerak agortu eta desegin zirenean, bat berak ere ezin zuenez formazio sozial osoa bakarka agindu, egon zen prest «konponbide» bonapartista: *estatu kolpea*. Kapitalaren ikuspuntutik, momentu atzerakoia da hori, garapena gelditzen diona, «badirudi Frantziak klase baten despotismoari ihes egin ziola norbanako baten despotismoan amaitzeko».<sup>170</sup> Louis-Napoleonoren tropen errifle-kaxen aurrean Frantzia muturrez aurrera erortzeak produkzio-molde frantsesaren «atzerakoitasunari» erantzuten dio —eta bermatu egiten zuen atzerakoitasun horrek aldi batez aginduko zuela—. Ebazpen faltak —lehian zebiltzan askotariko frakzioen arteko oreka kasik perfektuaren egoerak eta bat bera ere behin betiko nagusitzeko lekurik uzten ez zuenak— ezarri zituen baldintzak estatua

---

170 Itzultzailearen oharra: liburu honetan *Luis Bonaparteren brumairearen hemezortziari* erreferentzia zuzenak egin zaizkion bakoitzean Igela argitaletxeak 2023an argitaratutako edizioa erabili da aipua jasotzeko.

«lehian dabiltzan klaseen gainetik» dagoen estruktura neutral gisa agertu zedin, eta zeuzkan «autonomia» eta irismena izugarri hedatu zitzaiz. Bukatzeko, Louis-Napoleonen erregimena —despotismo bakarreko formarekin— klase interes jakin baten gainean ezarrita zegoen izatez. Gainbehera etortzera kondenatuta bazegoen ere, garaian, Frantziako klase «jendetsuena» zen: nekazari-jabe txikien klasea. Klase frakzio horrek ezin zuen bere izenean agindu. Napoleonen *bitartez* agintzen zuen eta Napoleonen ideien bitartez. Hedatzen ari zen estatuari behin behinean edukia ematen zion klasea zen hori —estatuak ez baitzegoen «airean flotatzen»—. Baina iraganeko (beste Napoleon handiago baten iraganeko) espirituak, izenak, gerra-oihuak eta jantziak berpiztuz, Louis-Napoleon izan zen klase horren boterea maila politikora eramateko *gidaria*. Kapitalak «geroraketa» onartu zuen. «Bonapartismoa» izan zen geroraketa horren izena eta forma.

Argudiaketa gehiago aztertu gabe ere, *Brumairearen hemezortzia* eta garaiko beste idazlanak kontuan hartzea nahikoa izan beharko litzateke ikusteko Marxek superestruktura politiko/juridikoen alorra eta estatuaren formak ez dituela oinarriarekin korrespondentzia hutsean pentsatzen hala-nolako modu islatzaile edo adierazle sinplean. Superstrukturen teoria marxistaren garapenean, saiakera horri *posizio erabakigarria* eman behar zaio —Gramscik, halako teoriari ekarpenik handienetakoa egin zion pentsalariak, eman zion bezala—.

### **Kapitala berrirakurtzen**

Iradoki dugu, behar bezala ulertuta, Kapitalaren argudiaketaren estrukturan bertan daudela zantzuak oinarri eta superestrukturaren problematika berria nola garatu pentsatzeko, eta baita, zalantzarik gabe, garapen teoriko hori egin beharko litzatekeen beharrezko zoru kontzeptualaren azalpen nagusietakoa jasotzeko ere. Ez daukagu lekurik hemen lanketa gehiegirako. Garatzeko moduetako bat da «kapitalaren auto-hedapenaren» legea eta joera hartzea, ez superstrukturen edukia eta formak zehazten dituela, eta ondorioz, «determinatzen» dituela ulertuta, baizik eta formazio sozialaren beste ataletako garapenaren tempo eta erritmoak diktatzen dituen mugimendu gidariak ematen dituela ulertuta (auto-hedapenaren krisi

eta kontraesanak barne, eta osaketa maila aurreratuagoan, antagonismoak erreproduzitu bitartean, kapitalari aurrera egitea eta metatzen jarraitzea ahalbidetzen dizkioten «konponbideak» barne). Nolabait esatearren, kapitalaren auto-hedapenera egokitu daitekeen konponbidea zein izan daitekeen eta zein ez ebazteari mugak jartzen dizkiola ulertuta, eta beraz, konponbideen (politiko, sozial eta ideologikoen) *errepertorioaren* bitartez, koiunturazko momentu historiko jakin bakoitzean konponbide baliagarria determinatzen duela ulertuta.

Horrek eskatzen du *Kapitalaren* «irakurketa» bat egitea —inork esango luke *bestelako* «irakurketa» bat egitea— produkzio-molde «puru» baten («puru» hori dena delakoa izanik) analisi teorikoa balitz bezala erabili gabe, eta ezta XIX. mendeko kapitalismo britainiarraren historia gisa erabilita ere. Eta badirudi horiek direla egun eskura dauden bi alternatiba nagusiak. Saiatu beharko ginатеke, horren ordez, adibidez Marxek berak egiten duen bezala, gainbalio absolutuaren erauzketatik erauzketa *erlatiborako* aldaketa dinamika klabeetako bat bezala ulertzen, garatzen ari zen produkzio-molde kapitalistarentzat. Saiatu beharko ginатеke ez ulertzen bereizketa teoriko gisa soilik, baizik eta konkretuki eta historikoki zehaztu daitekeen bereizketa gisa, adibidez, Ingalaterrako modu kapitalistan, XIX. mende Erdiko lantegien legeriaren ondoren. Ikusi dezakegu, ondorioz, aldaketa horrek ematen dizkiola kapitalismoari, guztiz ezarritako produkzio-moldea den heinean, etengabe aurre egin behar dien kontraesantentzako oinarritzko konponbideak. Tartean sartuta dagoen guztia pentsatzen saiatzen bagara —hots, politikoki, sozialki eta ideologikoki tartean dagoen guztia pentsatzen, metatze kapitalistaren hedapenerako bigarren «momentu» horretarantzko garapen desorekatuaren ondorio gisa (hau da, kapitalismoko eraldaketa asko pizten dituen barne txinparta gisa eta orain «laissez fairetik monopoliorako trantsizio» gisa laburbiltzen dugun horren ondorio gisa), hau da, estatua, politika, gaitasunen erreprodukzioa, lanaren maila, eta «indar produktibo» bezala ulertutako zientziaren aplikazioa barne— ohartzen hasiko gara superestrukturen teoria marxistaren garapenerako zimendua ezartzen duela *Kapitalak* «azken buruko determinazioaren» markoaren baitan, eta *Ideologia alemaniarran*

zirriborrotutako identitate-korrespondentzia posizioan berriro erori gabe.

Horixe da, nolabait esateko, «oinarriaren» ikuspuntutik egitea oinarri/superestruturaz auziaren berrazterketa. Horrez gain, produkzioaren eta elkartrukearen «oinarriko» mailen artean Marx etengabe egiten ari den bereizketatik abiatuta ere posible da superestrukturen tendentzia eta mekanismo klabe batzuk bererreraikitzea *Kapitalaren* markoaren barruan. Eta horrek laguntzen digu ulertzen nola den posible azpimarratzea, marxismoaren baitan, superestrukturak aldi berean daudela «determinatuta» eta hala ere guztiz direla beharrezkoak eta galdatuak: ez direla hutsik dauden forma eta ilusio ideologikoak. Gaur egun, *darstellung* edo «errepresentazioaren» teoria esan ohi zaionari lotzen zaio esandakoa.<sup>171</sup> Teoria horren azalpen konplexu bati aurre egin beharrik gabe, hurbilketa errazagoa egiten saiatu gaitezke Marxen «*itxurak*» kontzeptu edo nozioaren bitartez, eta hortaz, «fetixismoaren» teoriara eginez hurbilketa, *Kapitalako* lehen liburukiko lehenengo atalean azaltzen den gisan —guztiarekin ere, badago egon aski eztabaida *darstellungaren* teoria eta «fetixismoaren» teoria egiatan gauza bera diren ala ez—.

*Kapitalan* beti ez bada ere sarri, itxuren auzia edo «harreman errealen» / «forma fenomenalen» auzia konektatuta dago produkzioaren eta elkartrukearen arteko bereizketarekin. «1857ko sarreran» eta *Kapitalan* zehar Marxek azpimarratu egiten du nahitaezko harremana egon behar duela, batetik, (balioa egikaritzen den) elkartrukearen zirkuituen eta elkartrukeari dagozkion baldintzen, eta bestetik, produkzioaren bitarteko kapitalaren zirkuituen eta horri dagozkion baldintzen artean. Bi horiek, dioenez, ezin dira inondik ere «identiko» gisa pentsatu. Osagarriak baina ezberdinak dira, bata bestearekin daude artikulatuta, baina bakoitzak baldintza propioak behar ditu mantentzeko. Horrenbestez, prozesuok erakusten duten «batasuna» ez da identitate batasun bat, baizik eta «ezberdinen batasuna» —«determinazio askoren kontzentrazioa»—. Hori bai, prozesuak ezberdintasunetan konektatuta mantentzen badira ere, eta bakoitza nahitaezkoa bada ere «balioaren auto-hedapenerako eta

---

171 Ikusi Althusser eta Balibar, *Reading Capital*; Geras, «Fetishism in Marx's *Capital*»; Mepham, «The Theory of Ideology in *Capital*»; Glucksmann, «The Althusserian Theatre»; Callinicos, *Althusser's Marxism*; eta Hall, «Marx's Notes on Method».

balioa egikaritzeko», produkzioa da maila determinatzailea: «kontsumoa produkzioaren momentu gisa agertzen da». Elkartrukearen esfera, hala ere, itxuraz dominatzen duen esfera da, kapitalismoan harreman sozialen maila «erreala» sortzen duen esfera. Bakar-bakarrik merkatuaren esku ezkutu baina miraritsuak aginduta, merkatu kapitalistako eguneroko «elkartruke» andana gertatzen den esfera ere bada. Kapitalismoaren «zentzu komunaren» esfera da beraz —hau da, gure zentzu komunezko pertzepzio eta bizipen eguneroko eta espontaneoaren sistema sortzen den esfera—. Teoria burgesaren abiapuntua ere bada, izan ekonomia politiko arruntarena zein, beranduago, zirkulazioaren alorraz diharduen bazterreko ekonomiarena.

Nola ez, elkartrukearen esferako harreman guztiak existitu egiten dira —ez dira inoren irudimenaren emaitza—. Balioa ezin-go litzateke harreman horiek gabe egikaritu. Lanaren merkatua dago, eta lan-indarra erosi eta saldu egiten da bertan —soldata izanik kontratuaren forma—. Merkantziak diruagatik elkartrukatzen diren merkatuak daude —prezioak izanik kontratuaren forma—. «Elkartruke askeko» esfera hori, hau da, lana itxuraz «dagokion prezioagatik» elkartrukatzen den, eta ondasunak itxuraz dagozkien baliokideekin (prezio errealekin) elkartrukatzen diren esfera horixe da ekonomia politikoak «gizarte zibil» izendatzen duen elkartruke pribatu eta egoisten eremua. Labur esateko, eta forma oso sinplifikatuan, Marxek bi gauza argudiatzen ditu gizarte kapitalistaren esfera horri buruz. «Beherantz» begiratuta —metafora espazial bat erabiltzearen—, esfera horrek produkzioaren harreman erreala, baina oso despareko eta esplotatzaileak ezkututzen ditu. Elkartrukearen esferan geratzen den kontzentrazioak —hain zuzen ere, esferaren fetitxizazioak— maskaratu egiten du esfera bera zimendatzen eta posible egiten duena: produkzio kapitalistaren esferan gertatzen den gainbalioaren sorrera eta erauzketa. Hortaz, elkartrukearen mailan, prozesuaren agenteak elkarren aurka dabiltzan norbanakoak balira bezala agertzen dira; baina noski, benetan, norbanako egoisten aro hau «da, hain justu, norbanako isolatuaren kokagune jakin hori produzitzen duen aroa, orain arteko harreman [...] sozialik garatuenak dituen» (*Grundrisse*). Beraz, kapitalismoaren produkzio harremanak elkartruke harreman gisa agertzen direnean itxuraz —bakarrik elkartruke harreman gisa osatuta egongo balira bezala tratatzen

direnean kontzeptualki— erre-presentazio horren efektua kapitalismoaren «harreman errealak» maskaratzea eta blokeatzea da. Horixe da errepresentazioaren teoria, eta «fetitxismoaren» teoriaren parte ere bada. Erakusten du zergatik den Marx hain tematia *Kapitalan* zehar «harreman errealen» eta horien «forma fenomenalen» arteko diferentziaz jardutean —«forma fenomenalak» irudimenezkoak direla edo existitzen ez direla momentu batez ere entretenitu gabe—.

Hala ere, —metafora espaziala berriro erabiltzearren— «gorantz begiratuta» Marx ohartzen da harreman fenomenal horiek direla gizarte zibilaren eta harreman politiko-juridikoen oinarria osatzen dutenak: hau da, superstrukturak. Eta maila horretatik datoz, baita ere, kontzientzia ideologikoaren askotariko formak. «Gizarte burgesaren *gainazalean*», idazten du Marxek, «soldatapeko langilea lanaren prezioaren *itxurarekin agertzen da*, lan kopuru jakin batengatik ordaintzen den diru kopuru jakin bat [...]. Forma fenomenal horrek benetako harremana ikusezin egiten du eta egiatan erakusten du harreman horren guztiz kontrakoak osatzen duela langilearen eta kapitalistaren *nozio juridiko* guztien oinarria, produkzio-molde kapitalistaren mistifikazio guztiena, *libertatea* bezalako ilusio guztiena, *ekonomista arruntan* norabide aldaketa damutu guztiena [...]. Hasieran, kapitalaren eta lanaren arteko elkartrukeak beste merkantzia guztien salerosketa bezalakoa izango balitz bezala *aurkezten dio bere burua* adimenari» gehitzen du pixkat beranduago. Bukatzeko ondorioztatzen du, «lehenengoak ['forma fenomenalak'] zuzenean eta espontaneo-ki agertzen dira *egungo pentsamenduaren moduak* balira bezala; bigarrenak [harreman errealak] zientziak deskubritu behar ditu lehenengo» (aipu horiek guztiak «Soldatak» izeneko hemeretzigarren kapitulukoak dira, *Kapitalaren* lehenengo liburukian. Letra etzanak gureak dira eta formulazioak behin eta berriro errepikatzen dira liburukian zehar). Horrenbestez, *Kapitalaren* bigarren atalaren amaierako pasarte ezagun batean idazten du:

Guztia gainazalean eta guztien begiradapean gertatzen den esfera zatatsua momentu batez utzi, eta jarraitu egiten dugu [...] produkzioaren bizitoki ezkutura [...]. Abandonatzen gabiltzan esfera, zeinaren muge barruan gertatzen den lan-indarraren salerosketa, gizonaren berezko eskubideen Edena bera da. Soilik bertan agintzen dute Askatasunak, Berrintasanak, Jabetzak eta Benthamek. Askatasunak, soilik erabakimen

askeak hertsatzen dituelako merkantzia jakin baten, adibidez, lan-in-darraren erosleak eta saltzaileak. Agente aske gisa akordatzen dute, eta lortzen duten adostasuna ez da bien erabakimen komunari ematen dioten adierazpen legalaren forma besterik. Superestrukturen eta superestruktura horien zorua betetzen eta antolatzen laguntzen duten diskurtso ideologikoen eta zentzu komunaren nozio espontaneoan teoria bat sortu nahi dutenentzat, eta guztiarekin ere, jakin nahi dutenentzat superestrukturok produkzio-moldearen mailatik *nola* eta *zergatik* azaleratzen diren forma determinatuetan, ezinbestekoa da, aukera bakarra edo apurretakoa da nire ustez, helduaroko Marxen *Kapitalako*<sup>172</sup> argudiaketaren bihotzean dagoen funtsezko abiapuntu horretatik kanporantz hastea lanean.

Kartzelako koadernoak

## Gramsci

Oinarria/superestruktura arazoari, batez ere, «mendebaldeko marxismoaren» baitan gehitu zaio teorizazio eta garapen nabarmenena —esan behar bada ere gutxik saiatu duela, goian behin behinean formulatu bezala, helduaroko Marxen zorutik kanporantzko lana egiteko bidea—. Saiakera gehienek nahiago izan dute *Ideologia alemaniarraren* garaiko formulazio ez hain egokietara itzultzea. Are gehiago, saiakera horiek guztiak superestrukturen dimentsio ideologikoaz arduratu izan dira zehazki. Ez diogu alderdi horri arretarik eman hemen, ez soilik jadanik asko landu delako eta bere horretan teorizatzeke eremu zaila osatzen duelako, baizik eta ideologiaren arazoei soilik jaramon egiteak, orain dela gutxira arte, estali egin duelako Marxek superestrukturez hitz egiten duenean, estatuaren eta gizarte zibilaren formak, harremanak eta aparatuak ekartzen dituela eztabaidara, eta baita forma ideologikoak eta ideologiei dagozkien kontzientzia sozialen formak ere. Lenin eta Gramsciren lanetatik hona —Nicos Poulantzas-ek eta Louis Althusserrek arazoa berriro ere agendan behar bezala kokatu zuten arte— superestrukturak, benetako zentzu marxiarrean, alde batera utzita egon dira zoritxarrez, estatu kapitalistaren izaerari buruzko auzi erabat kritikoa barne.

Gelditzen zaigun tartean eta gainetik bada ere, soilik bi posizio hartu ditzakegu kontuan. Hala ere, gure ustez ekarpen

---

172 Hemen ikusi bereziki Geras, «Fetishism in Marx's *Capital*»; Mephram, «The Theory of Ideology in *Capital*»; eta Hall, «Marx's Notes on Method».

oso esanguratsua osatzen dute Marx, Engels eta Leninen ondoren, «superestrukturen teoria» marxista baten garapenerako eta oinarri/superestrukturen harremanaren garapenerako.

Ekarpena egiten lehenengoa Gramsci da. Gramsciren lana Italiako borroka proletariarraren hazkunde handiaren erdi erdian garatu zen lehendabizi, Lehen Mundu Gerraren osteko garaian berehala, eta jarraitu egin zuen espetxeratze baldintzarik gogorrenetan. Gramsci behartuta egon zen marxismoak praktika politiko iraultzailea bultzatu dezakeen moduz luze eta sakon gogoetatzera. Behartuta egon zen, baita ere, estatu italiarraren «salbuespenezko» izaeragatik, estatu kapitalistaren izaeraz sakonki hausnartzera forma «normal» eta albuespenezkoetan (azken finean, albuespen horietako bat izan baitzen —Mussoliniren estatu faxista— zuloan sartu zuena). Era berean, heziketa crocetar goiztiarraren ondorioz, Gramsci bereziki zegoen adi areagotzen ari ziren estatuaren funtzio «etikoetara» (Benedetto Croce beraren hitzak erabiliz) eta kontzeptu horrek hartuko zuen adierara termino marxistetara itzultzean. Eta mugimendu komunista internazionalako militante gidarietako bat izanik, *Estatua eta iraultza* (*The State and the Revolution*) Leninen funtsezko testuaren sorrera bultzatu zuten arazo berdinak nozitu zituen.

Ez da posible estatuari eta superestrukturei buruz Gramscik eginiko formulazio guztiak hemen laburbiltzea. Egin dezakegun bakarra da eremu honetan Gramscik garatutako pentsamenduaren *norabidea* erakustea. Gramsciren lanetatik asko superestrukturen teoria ekonomiko murriztaileen aurka eztabaidatzeko dago idatzita. Argudiatu zuen oinarri eta superestrukturen harremana behar bezala auzitaratzea zela politikaren teoria marxista batentzako berebiziko gaia —ikus, zehazki, *Kartzelako koadernoak* (*Quaderni del carcere*) zati bat osatzen duen «Printze modernoan»—. Funtsezko klase-harremanak, garatzen ari ziren harreman kapitalisten baldintzapean, «superestrukturen esfera konplexuen» barruan eta esfera horietan zehar hedatzen ziren beti. Soilik horrela eraman zitekeen aurrera kapitalismoaren harreman sozialen erreproduktzioa, bizitza zibilak, sozialak, politikoak eta kulturalak progresiboki adostasun handiagoa izan zezaten kapitalarekin eta kapitalaren beharizaneekin. Formazio sozial kapitalista garatuen osotasunean zehar kapitalaren bultza-

da *areagotzeko*, hain justu, beharrezkoa zen estatuaren eta gizarte zibilaren garapena. Hor, Gramscik arreta berezia eman zion estatuaren funtzio «etikoari», hau da, kapitalismoaren oinarriaren garapenari esker lortutako existentzia materialaren maila berrientzat egokia zen zibilizazio maila berri bat ezartzeko eta norbanako sozial mota berri bat sortzeko estatuak kapitalaren izenean egiten duen «lanari». Estatuaren, familiarekin eta familiaren barruan egindako lanaren, legearen, hezkuntzaren, askotariko elkarte pribatuen, aparatu kulturalaren, elizaren, inteligentsiaren estratu berri baten formazioaren, eta iritzi publikoaren garapenaren bitartez —labur esateko, superestrukturen esfera konplexuaren baitan— uzten zion kapitalismoak produkzio sistema hutsa izateari eta bilakatzen zen bizitza sozialaren forma oso bat, beste guztiari mugimendu propioa jarraiarazten zion forma oso bat. Superestrukturek kapitalarentzat «egiten» duten hori ulertzeko modua hedatzea izan zen Gramsciren lehenengo ekarpena.

Bigarrena, Gramscik maila superestrukturen *espezifikotasuna* pentsatzea posible egiten duten bitarteko kontzeptu kritikoak sortzeko zeukan modua da. Gramscik eginiko instantzia politikoaren garapenaz dihardugu hemen, eta instantzia horretan lantzen dituen «indar harremanak», hegemonia, bloke historiko, klase korporatibo eta subalterno, klase frakzio, zesarismo, bonapartismo eta antzeko kontzeptu kritikoez (sarri behin behinekoak eta kriptikoak badira ere). Berrero, Gramsciren «hegemonia» kontzeptuan aurkitzen ditugu hastapenak kontzeptualizatzeko, adibidez, produkzio harremanen funtsezko mailan osatutako klaseek nola ematen dioten oinarria akaberran «kapitalaren izenean lortutako klase aliantza» baten kultur menderakuntzari, autoritate sozialari, eta bultzada politikoari; ideia Marxek noizbait klase interesei buruzko «judutar-zikinaren» auzia deitu zuen horretara murriztu gabe. Erredukzionismo ekonomikoaren azken forma horrek, Gramscik argudiatzen duenez, historia ulertzen du «etengabeko *marché de dupes* bat izango balitz bezala, edo konjurtate eta prestidigitazio lehia bat izango balitz bezala. Ekintza 'kritikoa' [hau da, marxismoa] murrizten du iruzurrak ezagutaraztera, eskandaluak sortzera eta figura publikoen poltsikoetan muturra sartzera» (*Kartzelako koadernoak*). Gutako nor ez da kapaz gaiak azalertzeko marxismoaren baitan dagoen estilo hori jarraian identifikatzeko?

Gramscik egiten duen hirugarren ekarpena zehazki estatu kapitalistaren izaerari eman zion arreta da. Halako estatuak onespen ideologikoaren sorkuntzan daukan egitekoari eman zion arreta, eta hortaz, klase botereak, «estrukturen esferatik superestrukturen esfera konplexuetarako ibilbide erabakigarrian» zehar, bere burua bermatzeko daukan moduari. Aztertu zuen, aldi berean, estatu kapitalistak formazio soziala lotuta eusteko «zementu» hori superestrukturen eta ideologiaren mailan ematen zuela, eta kapitalaren funtsezko klasearen arabera zimendatutako aliantzaren bultzada hegemonikoaren azpian elkartzen zuela formazio hori:

Egitan, estatuak «hezitzaile» gisa dago pentsatuta, hain justu zibilizazio maila edo mota berri bat sortzeko joera daukalako. Norbera funtsean indar ekonomikoen bitartez ekiten aritzeagatik ere, hau da, produkzio ekonomikoaren aparatua berrantolatzen eta garatzen, eta estruktura berri bat sortzen aritzeagatik ere, ateratzen den ondorioak ezin du izan superestrukturako faktoreak haien kasa utzi behar direnik espontaneo-ki garatu daitezen, ausaz eta noizbehinka ernatzeko. Estatuak, baita alor honetan ere, arrazionalizazio, azelerazio eta taylorizazio-tresna bat da. Planifikatutakoaren arabera jarduten du, behartu egiten du, akuilatu, eskatu, 'zigortu'. Bizimodu jakin bat 'posible' izateko baldintzak sortuta daudenean bakarrik izan daiteke ekintza kriminala edo omisioa punitiboki zigortua, inplikazio moral eta guzti (eta ez soilik orokorki 'arriskutsu' gisa epaitu). Estatuak bere gain hartzen duen ekintza positibo, zibilizazioa guztiaren alderdi errepresibo eta negatiboa da legea.

*Kartzelako koadernoak*

Gramscik garatutako pentsamendu sotil eta zorrotza oso gutxitan gainditu da, inoiz gainditu bada, estatuak kapitalismoaren azpian, bereziki forma klasiko «liberal» edo laissez-fairean, daukan izaeraren eta dauzkan funtzio eta prozesuen ulerkera marxista. Eta oso gutxitan gainditu da «onespen» eta «hertsadurari», ideologiaren eta zentzu komunaren egitekoari eta besteri buruzko eztabaida osagarria. Gramsciren lanak, nola ez, teoriokoki azpigaratuta darrai: althuseriarrek esango luketen bezala, kontzeptuak egoera «praktikoan» daude sarri; oso gutxitan dira «puruak» —ez daude inoiz koiuntura zehatzen baitako kokagune propiotik guztiz edo erradikalki bereizita—. Baina Leninek arrazoia bazuen analisi marxista batentzat ondorio zuzena «egoera konkretu baten analisi konkretua» seinalatzen zuena zela argudiatzen zuenean —beste hitz batzuetan, hain justu, koiunturen

analisia—, orduan Lenin bera da lehenik, eta Gramsci berehala jarraian —halako analisiak superrestrukturak besarkatzen dituen heinean— bidea gidatzen duena.

Gramsci da «historizista» bakarra zeinaren lanak oraindik ere Althusser eta Poulantzas bezalako estrukturalistak espektro baten gisan segitzen dituen eta estrukturalistok bere egiten dituzten abiapuntuetatik ezabatu ezin daitekeen. Hau da, oinarri eta superrestrukturaren teoria marxistari ekarpenik handiena egiten dioten beste pentsalarien lanetik ezabaezina da Gramsci. Biek ala biek, Althusserrek eta Poulantzasek «praxiaren filosofia» izategatik kritikatzten dute Gramsciren abiapuntua (ikus bereziki Althusserren «Marxismoa ez da historizismo bat» *Kapitala irakurtzen* lanean; eta Poulantzasek «Estatu kapitalista eta ideologiak» *Botere politikoa eta klase sozialak* lanean). Biak daude Gramscirekin *izugarri* zorpetuta, modu funtsezkoan gainera, eta ez soilik modu bazterreko edo oharkabean. Instantzia politikoari eta estatuari buruz Poulantzasek eginiko lana kontzeptualki ezinezkoa da Gramsci gabe. Eta jadanik eskuarki onartuta bazegoen ere, Althusserrek Gramscirekin daukan zorra esplizituagoa eta nabarmenagoa bilakatu da Althusserrek zeuzkan posizio «teorizista» goiztiarrak berrikusi egin dituenetik eta analisi marxistaren objekturako hurbilketa substantziazkoagoetarantz mugitu denetik, eta hain epistemologikoa izateari utzi dionetik —*Lenin eta filosofia (Lénine et la philosophie)* laneko «Estatu aparatu ideologikoak» idazlan garrantzitsu eta itzal handiko adibidean egin bezala—. Estatu kapitalistaren analisi post-althusseriarrean ideia iradokitzailea bilakatutako «Estatu aparatu ideologikoak» kontzeptua bera Gramsciren berridazketa zuzena da, zehazkiago, «Estatua eta gizarte zibila» (*Kartzelako koadernoak*) idazlanarena eta onespen aparatuei buruzko pasarte oinarrizko gutxi batzuen, beti ere, hizkuntza marxista —hain justu— estrukturalistagora itzulita noski.

## **Althusser**

Oinari/superrestrukturaren teoria marxista garatzeko orduan Althusserrek eta jarraitzaileek, eta bereziki Poulantzasek eginiko ekarpena gai konplikatuégia da hemen aletzeko. Althusserrek ohituta gauzkan eginbide zorrotzarekin sakonki eraldatu

dituen eta horrenbestez oinarri eta superestrukturaren arazoari garrantzizko ekarpen teorikoa egin dion hiru alderdi esanguratsu aipatu ditzakegu soilik.

Lehenik eta behin, ohartu gaitezen Althusserrek formazio sozial jakin bat «pentsatzeko» daukan moduan —*Marxentzateko* «Kontraesana eta gaindeterminazioa» idazlan klasiko eta formatiboarekin hasi eta *Kapitala irakurtzenen* (*Lire le Capital*) garatutakoan— zantzu bat baino gehiago dagoela «oinarri/superestruktura» metafora topografikoa bete betean ordezkatu egin behar dela dioena. Althusserrek formazio soziala *praktika* ezberdinez osatuta ulertzen duenez —funtsean ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa (agian, baita laugarren batekin ere: praktika teorikoa?)—, praktiketako bakoitza beharrezkoa da modu kapitalistako harremanen produkzio eta erreproduktzioarako. Eta bakoitzak dauka barne osaketa propioa, espezifikotasun propioa, dinamika propioa, eta «autonomia erlatiboa» besteengandik. Althusserren pasarte polemiko eraginkorrenak zalantzarik gabe erreserbatuta daude oinarri/superestruktura metafora *literalki* hartzeagatik idatzitakoetara. Erakusten du maila determinatzaileak —hau da, berorren Handietza, Ekonomiak— bere burua superestrukturazko forma intzidental epifenomenalagoetatik banandu zezakeen momentu historikoaren eta ekonomiak bere kasa formazio sozial batengan «determinazioa» eragiteko zain egotearen absurdoa! Ezta denboran ezta historian ere ezin da «ekonomikoa denak eragindako azken buruko determinazioa» irakurri praktika politiko eta ideologikoetatik biluztuta aske iraun ahalko balu bezala.

Ikusi dugunez, nahitaezkotasunaren teoria horrek, «autonomia erlatiboaren» eta lehenago «superestrukturata» mugatutako praktiken teoriak bezala, formazio sozialaren teoria marxistaren kate bikoitzaren muturretako bat osatzen du. Baina orduan, zer egin katearen beste muturrarekin? Nola ulertuko dugu, orduan, determinazioa?

Althusserren ustez, determinazioa ez da ulertu behar koiuntura jakin bat produzitzen duen hori izango balitz bezala, eta are gutxiago koiuntura iraultzaile bat. Funtsezko haustura dakarten halako momentuak ez daude, beste edozein momentu baino gehiago, «ekonomikoa denaren» determinazio hutsarekin produzituta eskusiboki. Are, halako momentuak osatuta daude toki edo momentu jakin bateko hainbat kontraesanen metaketarekin, be-

reziki maila edo praktika bakoitzari dagozkienak. Hortaz, halako koiunturak, Freuden sintomak bezala (zalantzarik gabe metafora Freudegandik hartuta baitago), ez daude determinatuta, baizik eta «gain-determinatuta». Althusserrek, beraz, determinazioa pentsatzen du, nagusiki, maila ekonomikoak dauzkan efektuen artean bat hurrengoa izatean: formazio sozialaren mailetatik —maila ekonomiko, politiko, edo ideologikotik— zein izango den «dominatzailea» erabakitzean (determinatzean).

Horrenbestez, maila edo praktika bakoitza ulertzen da, ez autonomo gisa, baizik eta «menderakuntzan estrukturatutako, osotasun estrukturatutako konplexu» baten atal gisa. Estructura konplexu horretan zehar eta horren baitako instantzien eta efektuen konbinazioa edo artikulazioa (*Darstellung*) da determinazioa. «Denbora horietako bakoitza eta historia horietako bakoitza erlatiboki autonomoa izateak ez du esan nahi, hainbeste, alorrek osotasunetik independenteak direnik; denbora horietako bakoitzaren eta historia horietako bakoitzaren espezifikotasuna —bestela esanda, daukaten autonomia erlatiboa eta independentzia— osotasunarekin daukaten dependentzia mota jakin batean oinarrituta dagoela baizik» (*Kapitala irakurtzen*). Althusserrek kausalitate sekuentziala beharrez kausalitate «estrukturala» deitzen duen forman zorrozki interpretatutako «determinazioaren» ulerkerak da hori. *Kapitala irakurtzen*en helburu guztia da, hain justu, Marxen lanaren irakurketa «sintomatikoa» eginez, ezartzea horixe dela egiazki helduaroko Marxek erabili zuen «kausalitatearen» forma.

Bereziki *Kapitala irakurtzen*en garaian, Althusserrek familia estrukturalistaren parte zela erakusteko zeukan interesagatik, Marx bera teorikotasunez «arteztea» kritikatu dute erruz zenbait kolabaratzaile ohik (Jacques Rancière da garrantzitsua horien artean), eta baita Althusserrek berak ere (1976). Baina kritika horiek ez liokete baliorik kendu beharko oinarri/superestruttura auziak Althusserren eskuetan izandako berebiziko aitzinatzeari. Aurrerakada irmoa ematen zaio «Estatu aparatu ideologikoak» saiakaera sonatuan (*Lenin eta filosofian* argitaratuta eta oro har «EAI» saiakera gisa ezaguna). Bertan, Althusserrek ideologiaren eta estatuaren izaerari buruzko «Ohar» batzuk iradokitzen ditu eta berreskuratutako egiten ditu aurretiaz «klase-borroka» eremu klasikoagoari atxikitzen zaizkion arazoetako batzuk —egiatan, Althusserrek eta Poulantzasek sarriegi klase-borroka aipatu bes-

terik egiten ez bazuten ere, ezagutza mamitzen zuen kontzeptu gisa aurkeztu beharrean—. Beste behin, ezin dugu «EAI» saiakera hemen laburbildu. Irakurketa kritiko eta arretatsua eskatzen du. Nagusiki bi ataletan zatitzen da. Lehenengoa —estatuaren aparatu eta estrukturetan ideologiak daukan kokagunea aztertzen duena— askoz ere konbentzigarriagoa da. Bigarrena, Freuden berrikuspen lacaniarraren ibilbide bihurtunetsuan sartzen da, eta gure aburuz —garrantzitsua izanik ere— Marxi egotzi dazkizkiokeen problematiketarik bat ere hurbil ez dagoen beste problematika bat ekartzen du.

Hala ere, gure ikuspuntutik, superestrukturen «efektibotasuna» galdekatzeko modua da esanguratsuen saiakera horretan. Oinarri/superestruktura metaforak marxismoan daukan posizio zentrala berreskuratzen du Althusserrek. Aditzera ematen duenez, metafora bat da: «metafora topografikoa». «Ikusgarri egiten du zerbait», zehazki, «goiko solairuak ezingo liratekeela haien kasa 'zutik mantendu', oinarriaren gainean zehaztasunez etzango ez balira». Althusserrek irudikapen topografikoaren kaltetan ironia galdekatzailea erabili arren, funtzio bat betetzen duela aitortzen dio: «topografia marxistaren abantaila teoriko nagusia [...] da aldi berean erakusten duela determinazioaren (edo efektibotasun indizearen) auziak funtsezkoak direla; erakusten du oinarria dela azken buruan eraikin osoa determinatzen duena; eta ondorioz, behartzen gaitu superestrukturari propioki dagozkion 'eratorpenezko' efektibotasunaren gisako arazo teorikoak planteatzera, hau da, pentsatzera behartzen gaitu tradizio marxistak elkartuta izendatzen dituen 'superestrukturen autonomia erlatiboa' eta 'superestrukturak oinarrian daukan elkarrekiko jarduna'» (*Lenin eta filosofia*). Hortaz, metafora klasikoa mantentzearekin batera, Althusserrek muga deskriptibo hutsetatik harago joatea proposatzen du, eta auzia «erreproduzioaren arabera» birpentsatzea. Horrekin, superestrukturen «efektibotasun» espezifikoa superestrukturek *produzioaren harreman sozialen erreproduzioan* daukaten egitekoaren arabera ulertu behar dela esan nahi du orokorrean; edo gaur egun «erreproduzio sozialaren» problematikari lotutako terminoen arabera.

Kasurik onenean, Althusserrek behin behineko abiapuntua ematen dio saiakeran «erreproduzio sozial» kontzeptuaren erabilerari. Superestrukturak erreproduzio sozialaren arabera

pentsatzeak, dena dela, erakutsi egin du honezkerokontzeptualki berritzailea eta produktiboa dela. Bereziki, orain arte jatorrizko metafora topografikoak daukan indar murriztailearen ondorioz kostata biziraun duten teoria marxistaren alderdientzat izan da horrela (adibidez, familia, lanaren banaketa sexuala, eta «lan ez-produktibo» esaten zaion horren egitekoa aztertu dutenentzat). Egia da «erreproduktzio sozialaren» kontzeptuak distortsio propioa eragiteko joera daukala. Ematen du bukaerarik, kontraesanik, krisirik edo hausturarik izango ez balute bezala, harreman sozial kapitalisten erreproduktzioa gertatzen dela funtzionalki zabaltzen ari den eta etenik ez duen modu arrakastatsuan. Baina orduan, althusseriarrek humanismo enpirikoa eta historizista eraisteko daukaten premia presatiagatik («marxismoa ez da humanismo bat», «Marxismoa ez da historizismoa») marxismoa «estrukturalismoa» dela ebatzitakoan, ez dute behar bezain sakon gogoetatu hurrengo auziaz: ea marxismoa *funtzionalismoa* ez izateak aski asebate dituen —edo gaituen—. Guztiarekin, arazo teoriko zail baina funtsezko hori begien aurrean mantenduta ere, onartu behar da oinarri/superestrukturaren arazoa «erreproduktzio sozialaren» arabera berkontzeptualizatzeko saiakerak, eta hortaz, (produktzioa, erreproduktzioa) helduaroko Marxen lanaren abiapuntutik kontzeptualki askoz ere hurbilago mantentzeak, izugarrizko ekarpena egin duela auziari buruzko lan teorikoa suspertzeko orduan, eta posible da martxan jarri duela norabide emankorra izan daitekeenerantz mugitzeko joera.

Halako irekiera kontzeptuala urrunago eramateak —hau da kritikoki eraldatzeak eta hedatzeak— marxismoa aitzinatzea esan nahi du aldi berean zientzia kritiko gisa eta teorikoki indartutako praktika iraultzaile gisa. Gizarte kapitalistek daukaten gainazal opaku eta trinkoa —hots, daukaten oinarria eta daukaten superestruktura konplexuak— oinarriaren bitartez ulertu eta konprenitu dezakegunean soilik izango da posible aski indartutako praktika garatzea gizarte hori eraldatzeko beste.

Althusser, L. 1969. *For Marx*. Harmondsworth, Erresuma Batua: Penguin.

Althusser, L. 1971. *Lenin and Philosophy, and Other Essays*. Londres: New Left Books.

Althusser, L. 1976. *Essays in Self-Criticism*. Londres: New Left Books. Althusser, L., eta É. Balibar. 1970. *Reading Capital*. Londres: New Left Books.

Anderson, P. 1964. «Origins of the Present Crisis.» *New Left Review* 1/23.

Anderson, P. 1976. *Considerations on Western Marxism*. Londres: New Left Books.

Callinicos, A. 1976. *Althusser's Marxism*. Londres: Pluto. Engels, F. 1951. *Ludwig Feuerbach and the End of Classical German Philosophy*. K. Marx eta F. Engelsen, *Selected Works*, 2 liburukia. Mosku: Foreign Languages Publishing House.

Fernbach, D. 1973. «Introduction». K. Marx, *Surveys from Exile*. Harmondsworth, Erresuma Batua: Penguin/*New Left Review*.

Geras, N. 1971. «Fetishism in Marx's *Capital*.» *New Left Review* 1/65.

Geras, N. 1972. «Marx and the Critique of Political Economy». *Ideology in Social Science*, R. Blackburn-en edizioa. Londres: Fontana.

Glucksmann, A. 1972. «The Althusserian Theatre.» *New Left Review* 1/72.

Gramsci, A. 1971. *Selections from the Prison Notebooks*. Londres: Lawrence and Wishart.

Hall, S. 1974. «Marx's Notes on Method: A Reading of the '1857 Introduction.'» *Working Papers in Cultural Studies* 6.

Marx, K. 1956. *The Poverty of Philosophy*. Mosku: Foreign Languages Publishing House.

Marx, K. 1961. *Capital*, vol. 1. Mosku: Foreign Languages Publishing House.

Marx, K. 1961. *Capital*, vol. 3. Mosku: Foreign Languages Publishing House.

Marx, K. 1970. *Critique of Hegel's «Philosophy of Right»*. Cambridge: Cambridge University Press.

Marx, K. 1971. *A Contribution to the Critique of Political Economy*. Londres: Lawrence and Wishart.

Marx, K. 1973. *Grundrisse*. Harmondsworth, Erresuma Batua: Penguin/*New Left Review*. Marx, K. 1973. *Surveys from Exile*. Harmondsworth, Erresuma Batua: Penguin/*New Left Review*.

Marx, K., eta F. Engels. 1951. *Selected Works*, vol. 2. Mosku: Foreign Languages Publishing House.

Marx, K., eta F. Engels. 1970. *The German Ideology*. Londres: Lawrence and Wishart.

Mepham, J. 1974. «The Theory of Ideology in *Capital*». *Working Papers in Cultural Studies* 6.

Nairn, T. 1964. «The British Political Elite.» *New Left Review* I/23.

Nairn, T. 1964. «The English Working Class.» *New Left Review* I/24.

Nairn, T. 1964. «Anatomy of the Labour Party I & II.» *New Left Review* I/27 eta I/28.

Poulantzas, N. 1973. *Political Power and Social Classes*. Londres: New Left Books/Sheed and Ward.

Stedman Jones, G. 1973. «Engels and the End of Classical German Philosophy.» *New Left Review* I/79.

Thompson, E. P. 1965. «The Peculiarities of the English.» *The Socialist Register*.

Williams, G. 1976. «Interpretations of the French Revolution: Karl Marx and Alexis de Tocqueville». Open University, *The Revolutions of 1848: France, 1848—1851*. Milton Keynes, Erresuma Batua: Open University Press.

## HITZATZEA

### GB STUART HALL

Zuzenbidea ikasten ari nintzela ezagutu nuen Stuart Hallen lana. Bazeuden, eta badaude, haren obran sartzeko ha- maika bide. Zer-nolako gaitasuna zuen kontzeptu baten erosketa taktikoa edo datu historikoen xerra bat topatzeko: horra hor in- telektual gisa zeukan trebezia berezietako bat.

«Betiko zuzenbide»-ari buruzko eskoletatik babes hartuz, kriminologia ikasi nuen irakasle miragarri batekin: Gil Boeh- ringer. Gili esker irakurri nuen Howard Beckerren lana, eta, bereziki, *Outsiders* liburua. Beckerrek erakusten zuenez «kanpo» taldeek [«outside» groups], hala nola musikariek eta adiktuek, biek ala biek taldetzat jotzen zuten beren burua, eta besteek ere etiketaren bat jartzen zieten; hori esanda, batzuen eta besteen etiketek ez zuten zertan bat etorri. Beckerren liburuak irakaspen ahaltsu bat zekarren erlazio sozialen fenomenologia dei litekeen zera batean. Egoeran dihardutenei horiek nola agertzen zaizkien axola du.

Atzetik etorri zen Stanley Cohenen lana: *Folk Devils and Moral Panics*en gainekoa. Cohenen ikerketa-kasu famatua Brigh- toneko «matxinadak» izan ziren, non mod-ek rockzaleen aurka egin baitzuten. Gaur egun azpikultura ikasketak deritzonaren hari-mutur aitzindari bat. Cohenek mahai gainean jarri zuen honako auzi hau: nola hedabideek talde-mota jakin batzuk erai- kitzen dituzten, eta kanpokotzat eta ordenarekiko mehatxutzat jotzen.

Cohenen ostean, urrats txiki bat Dick Hebdigengana, eta haren liburu honetara: *Subculture: The Meaning of Style*. Dick Heb- dige, ziur aski, beste motibo batengatik da bereziki ezaguna:

Chris Krausen estreinako nobela bikainaren —*I love Dick*— jomuga delako. Gaur egun zaila da azaltzen zer-nolako eragina izan zuen Hebdigen liburutxoak bere garaian. Hebdigek ez zituen gazteen azpikulturak gaizkiletzat edo ordenaren aurkako balizko mehatxutzat hartu. Bestalde, ez zitzaion interesatzen nola etiketatzen edo deabrutzen zituzten. Aldiz, jakin nahi zuen nola eraikitzen zuten azpikulturek beren burua kulturalki.

Hebdige gehiago irakurtzeko gosez, *Resistance Through Rituals* liburua topatu nuen. Izenburuak azaltzen du tesia [Erresistentzia, erritualen bitartez]. Bigarren esanahi-geruza bat duten markatzaileak modu erritualizatuan erabiliz, azpikulturek esanahien mundu alternatibo eta are erresistente bat sortzen dute beren buruarentzat.

*Resistance Through Rituals* hainbat autorek sinatzen zuten, eta kultur ikasketa garaikidetarako Birminghameko zentrotik zetorren. Zentroaren izena bera eslogan bat zen nolabait. Beneran ikas zitekeen kultura garaikidea?

Jakina, bazen aurrekaririk. Raymond Williamsek egin zuen halakorik, baina testu solteetan, eta ez hainbeste bere liburuetan, *The Long Revolution* lanean izan ezik. EP Thompsonek, halaber, *The Making of the English Working Class*-en erakutsi zuen bazegoela langile-klasearen kulturarik, eta neurri batean langile-klaseak berak eratzen zuela. Herriak historia sortzen du egiaz, baina ez berak aukeratutako baliabideekin. Eta ez dezagun ahaztu Richard Hoggart: kultur ikasketa garaikidetarako zentroa ahalbidetu zuen, eta Stuart Hall zuzendari jarri. Hoggartek lana beharbada ez da hain ondo zahartu, baina ez litzateke ahaztu behar zer-nolako konpromiso tinkoa erakutsi zuen langile-klasearen kulturaren osotasunaren eta burujabetzaren alde.

Beraz, «trabeska» irakurri nuen, nolabait ere, lehen bilduma horretatik hasi eta beste batzuetara segituz, eta hala ikasi nuen zer zen «Birminghameko Eskola». Ale bikainak ideologiaz, auzi kolonialaz, *Women Take Issue* izeneko zenbaki bat. Izenburuak esanahi bikoitza zuen: batetik, emakumeek kultur kritika idaztearen zentzua; bestetik, horretarako mutilen aldizkariaren zenbaki bat hartu behar izana literalki.

Behin eta berriro agertzen zen Stuart Hallen izena, liburu haietan eta beste leku batzuetan. Ez zen Liburu Nagusi bat idazten dutenetakoa. Bazirudien bere alerik onenak lankidetzan

eginak zirela. Horren adibide bikaina: *Policing the Crisis*. Liburu kolektibo hori dugu, oraindik ere, thatcherismoaren gorakadari buruz inoiz idatzi den onenetako bat: nola mugiarazi zitezkeen izu moral jakin batzuk, nola «lapurraren» herri-deabrua bihur zitezkeen erreakzio kultural zahar baten aurpegi berria.

Hallen aipuen artean, hauxe dut gogokoena: «Teoria desbideraketa bat da, leku garrantzitsuago batera joateko bidean». Ekoizpen horietan guztietan, jokoan zegoena ez zen «goi-teoria», itxura teknikoko lengoia zaila astinduz humanitateen akademian boterea biltzeko diseinatutako zera abstraktu gisa. Aitzitik, teoriaren desbideraketak zentzu komunarekiko nola-baiteko haustura brechtar bat eskaintzen zuen, eta horri esker egoera zehatzaren —edo, garaiko mintzairan esanda, «koiunturaren»— ulerkera zorrotzago batekin itzuliko zen norbera desbideraketatik. Horri deitzen diot nik «behe-teoria».

Hallek, lehenik Birmingham-eko (Erresuma Batua) lehoreremu industrialean eta gerora Londreseko Open University-n bilatzen zuena zen, antza denez, mintegi jarraitu bat egitea galdera honen gainean: nola erabili teoria pragmatikoki. Eta polito egin zuen. «Thatcherismo» kontzeptua, ziur aski, berak sortu zuen. Hall laster konturatu zenez, Thatcherrek politika kultural jakin batean izan zuen arrakasta, sakon errotutako sentimendu popular ingeles batean, eta estatu-boterearen nozio jakin batekin ezkondu zuen.

Eskoletan erabiltzen dut oraindik Hallen pieza bat: «Kodetzea eta deskodetzea». Bere mugak ditu orain, baina ondo erakusten du Hallen desbideratze-metodoa. Testu horretan uztartzen ditu Claude Shannonen sokako komunikazio-teoria, Saussureren hizkuntzalaritza eta Barthesen semiologia, denak ere Gramsciren hegemonia-nozioaren eta Althusserrek ideologiaren duen ulerkera estrukturalaren pean.

Pieza horren ekarpen nagusietako bat hau da: mezuak kodetzeko eta dekodetzeko ez da zertan kode bera erabili. Baliteke kultur industriak edo Thatcherrek klase-interesaren eraikuntza jakin baten arabera kodetzea «mezuak», baina horrek ez du bermatzen hartzaileek kode berbera erabiliko dutenik dekodetzeko.

Hallek iragarri zuenez, izan zitezkeen hartzaileek kode nagusia erabiltzea, hari kontra egitea, edo, aukera guztietan gertagarriena, harekin negoziatzea. Are gehiago, iragarri zuen hiru

dekodetze-moduek zerikusia izan zezaketela klasearekin edo beste kokapen sozial batzuekin. Zenbat eta sendoago uste izan ordena nagusiak on egin ziezazukeela, orduan eta gehiago erabiliko zenituen haren kodeak.

C. Wright Millsek antzeko zerbait iradokia zuen, irrati-entzuleen ikerketa enpirikoetan oinarrituta, baina Hallek lagundu zuen azterketa-arlo oso bat zabaltzen: ikus dezagun jendeari zer iruditzen zaion benetan irakurtzen duena edo ikusten duena edo entzuten duena! David Morleyk telebistako albistegien hartzaileak aztertu zituen. Ien Angek, *Watching Dalls* ikerketa sonatuan, Herbehereetako telebista-ikusleak. Lan horrek Hallen tesia berretsi zuen hein batean, bai eta izugarri aberastu ere.

Jende mordo batek bere bidea egin zuen hamaika norantzatan eta neurri batean behintzat Hallen lanean oinarrituta. Arrazak kultura britainiarrean duen lekuaren azterketaren inspirazio-iturria Hall da. Paul Gilroyren *The Black Atlantic* liburu zoragarria zati batean halltarra da tonuari dagokionez. Angela McRobbiek emakume gazteen eta nesken gainean egindako ikerketa aitzindariak zerbait zor dio Halli. Andrew Rossek eta Lawrence Grossbergek, beste gutxi batzuekin batera, Estatu Batuetara ekarri zituzten kultur ikasketak eta Hall.

Atzera begiratuta, gauza batzuk izugarri gaizki atera ziren kultur ikasketen ulerkera estatubatuarrean. Hemen, John Fiskeren lanak garrantzia nabarmenagoa du Hallek, Rossek, Gilroyk, Hazel Carbyk edo beren lanean nolabaiteko asmo politiko taktikoak gorde zituzten beste edozein autorek baino. Fiskek, berriz, kultura popularraren polibalentzia azpimarratu zuen, hura irakurtzeko moduen aniztasuna. Hori ez da gauza txarra berez, baina bidea ireki zion kultur ikasketak egiteko modu bati non aski baitzen testua irakurtzea, haren korapiloak askatu gabe, testua bera ulertu gabe haren egoera sozial, performatibo eta erlazioaletan. Gordin esanda, Fiskeren ostean gerta zitekeen Madonnaren bideoak ikustea eta ondorioztatzea «erresistentzia» zirela.

Hallek buruan zerabilena ez zen hori. Hallek kultura popularraren harira egindako ikasketen asmoa bestelakoa zen: horren barruko eta aurkako borroka aberastea. Berak bultzatzen zuen lana ez zen beste lan murriztaile batzuen modukoa, kulturari inongo autonomiarik ematen ez ziotenen tankerakoa. Era horre-

tako lan asko zegoen garai hartan Britainia Handian: guztiaren «ekonomia politikoaren» azpimarratzea alde bakarretik. Baina Hall eta Birminghameko eskola zertxobait urrun zeuden, adibidez, Screen aldizkaritik, non kultura hasia baitzen erabateko autonomia hartzen eremu gisa, eta semiologiaren eta psikoanalisiaren tresna bereziak erabiliz soilik dekodetu zitekeen. Esan gabe doa, hori hobeto egokitzen zitzaion akademiari eta bertako lan-bereizketa intelektualari.

Laurogeiko hamarraldiaren hasieran Stuart Hall Australia-  
ra etorri zen, eta, oker ez banaiz, Australiako Alderdi Komunistak gonbidatu zuen, eta ez inongo unibertsitatek. Haren hitzaldietako bat irratian nazionalen ematera iritsi ziren. Hall horrexek kultur buruzagitza deritzon lan-mota egiten zuen, Gramsciren izendapena erabiliz. Izan ere, Hallen lan guztia lotuago zegoen, zentzu batean, kultura kontrahegemonikoaldi berean popular eta kritikoak eraikitzearekin.

Hallek eta kultur ikasketek eragin handia izan zuten Australiako akademian. Herrialde txiki eta probintzianoa izanik, guztiz erabilgarria suertatu zen tresna-kutxa bat izatea kultur eraketak osorik ulertzeko. Halaber, laurogeiko hamarraldiaren hasieran laboristen gobernua itzuli zen, eta horren harira beharrezkoak ziren kultura nazional-popularra artikulatzeko modu berriak, kultura horren beraren muga kritika sakonagoa eta, halaber, humanitateetako ikerketak garatzeko bide berriak. Hallen osteko kultur ikasketak sendoenetako batzuk han sortu ziren, batzuetan espatriatu britainiarren eskutik eta beste zenbaitetan tokiko talentuen bidez.

Australian, hala nola Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan, Hallen hitzartzeen izaera interstiziala mantentzea zaila zen. Kultur ikasketak, bietako bat, izan erudiziorantz izan kultur aktibismorantz amiltzen ziren. Hallek Desarmatze Nuklearraren Kanpainan ikasi zituen fronte zabaleko kultur politikari buruzkoak, eta aurrera eraman zituen Ezker Berriaren garaian barrena eta thatcherismoaren aurkako borroka popularraren sasoiraino. Hogeita batgarren mendea iristerako zaila zen politika kulturak konektatzen zituen haria ikustea herrialde anglofonoetan.

Ondorioz, are eta garrantzitsuagoa da, nire ustez, Hallen asmoaren puska bat berreskuratzea gure garaiotan. Txundigarria da, adibidez, nola geratu den agentzia popularraren zentzua

hedabide «berrien» teoretatik kanpo. Hedabide-erlazioaren formak erabat baldintzatuko balu bezala haren edukia. Dekodetzerik ez balego bezala. Esan behar da, noski, hedabidearen forma, kodetze/dekodetze diagramako kanala, betidanik izan dela kultur ikasketen ahulgunea. Kultura maizegi murrizten zen alderdi testualera edo sozialera soilik. Hainbat eztabaida antzu garatu ziren bi alderdiei buruz, hedabidearen forma tekniko existituko ez balitz bezala.

Hala, bada, Hallen asmoarekin bat eginez saia gintezke berriro elkartzen kultura testu gisa hartzen duten kultur ikasketak eta kulturak osotasun etnografiko gisa hartzen duten kultur ikasketak, forma teknikoaren ulerkera ñabartuago bat gehitu, eta zera hori guztia garaiko politika kulturalarekiko engaiamendua- ren ikuspegira itzuli. Horixe egitea litzateke, gaur egun, Hallek merezi duen egiazko gorazarre bakarra.

Hallek, behiala, «bermerik gabeko marxismo» bat eskatu zuen. Ez dago koiuntura argitzen duen metodo magikorik. Metodoak, izan ere, probatu, berrikusi eta, are, alboratu egin behar dira. Teoriak izan ere, tresnak dira, besterik ez. Ez dira magia. Gure garaian, non hainbat filosofia ex-marxistarekiko fede mistikoa goratzen ari den, Hallen pragmatismoa onuragarria zaigu oraindik.

McKenzie Wark,  
New York, 2014ko otsailak 10



